

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

2002, 1
47. liburukia (2. aldia)
BILBO

EUSKALTZAININDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo

Telefonoa: 94 415 81 55

Faxa: 94 415 81 44

e.posta: info@euskaltzaindia.net

web gunea: www.euskaltzaindia.net

Argitalpen batzordea / Comisión de publicaciones:

Burua: Jean Haritschelhar

Kideak: Xabier Kintana
Henrike Knörr
Jose Antonio Arana Martija
Beñat Oihartzabal
Andres Urrutia Badiola
Miren Azkarate
Juan San Martin

Eragile eta idazkaria Ricardo Badiola Uriarte

© Euskaltzaindia

ISSN. 0210-1564

Euskera

ISBN. 85479

Legezko Gordailua BI-1.244-58

Fotokonposizioa: Rali. Particular de Costa, 8-10, 48010 BILBO

Publimail 2000. Bilbo-Galdakao errepidea, 18, Arzubi etxea, 4. solairua,
48004 BILBO

Aldizkari hau beste agerkariekin trukatzen da. Otoi, idatz Zuzendariarri.
Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones.
Rogamos dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

ANDOLIN EGUZKITZA, EUSKALTZAIN OSOA: EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Ingreso en la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia de D. Andolin Eguzkitza, <i>Javier Cruz Expósito</i>	13
Xalotasunaren laudorioa. Sarrera-hitzaldia, <i>Andolin Eguzkitza</i>	15
Bilbotik Santurtzira. Andolin Eguzkitza euskaltzainaren sarrera-hitzal- diaren erantzadera, <i>Xabier Kintana Urtiaga</i>	35
Andolin Eguzkitza-ren sarrera hitzaldian, Euskaltzainburuaren ongi eto- ria, <i>Jean Haritschelhar</i>	47

IKER SAILA

GRAMATIKA

Zer dut EGLU-ren kontra?, <i>Rudolf P. G. de Rijk</i>	53
---	----

DIALEKTLOGIA

Errexilko euskara duela 200 urte, <i>Patxi Altuna</i>	73
---	----

ONOMASTIKA

IRIZPENAK

Barrendegien izendegiak	85
-----------------------------------	----

HERRI-IRIZPENAK

<i>Erroitegi/Roitegui</i>	91
<i>Gebara/Guevara</i>	92
<i>Langraiz Oka/Iruña de Oka</i>	93
<i>Leziñana Lantaron/Leciñana del Camino</i>	94
<i>Opellora/Opellora</i>	95
<i>Orkoien/Orcoyen</i>	96
<i>Ozeka/Oceca</i>	98
<i>Pagoeta/Payueta</i>	99
<i>Puentelarra/Puentelarrá</i>	100
Euskaltzaindiaren irizpena <i>Sopelako</i> herri izenaz	101
Dictamen de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia sobre el nombre vasco de <i>Sopelana</i>	103
<i>Unza/Untzaga-Apregindana/Uza-Apreguindana</i>	105
<i>Urduliz/Urdúliz</i>	106

LITERATURA

Literatura ikerketa batzordeko lanen laburpena, <i>Lourdes Otaegi</i>	109
---	-----

EUSKALTZAINDIAREN BARNE-HISTORIA

Euskaltzaindiaren barne-historiaz, <i>Xabier Kintana</i>	117
Manex Hiriart-Urruty eta Pierre Broussain-en arteko gutunak (1894-1906), <i>Pierre Charriton</i>	119

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

117.-Hiztegi Batua (<i>abonamendu - agertze</i>)	201
118.-Hiztegi Batua (<i>agi - ahozuri</i>)	210
119.-Hiztegi Batua (<i>ahuakate - aitzitik</i>)	217

BATZAR-AGIRIAK

2001, XII	227
2002, I, II, III, IV, V	231
EITBko kargualdia utzi ondoren Euskaltzaindiari, <i>Henrike Knörr</i>	255

HITZARMENAK / CONVENIOS

Eudelen eta Euskaltzaindiaren arteko <i>Hitzarmena</i> , toki erakundeei laguntza teknikoa emateko izen toponimikoen arloan / Convenio entre <i>Eudel</i> y <i>Euskaltzaindia</i> para la prestación de un servicio de asistencia técnica a los entes locales en materia de denominaciones topográficas	259
---	-----

* * *

Euskaltel-en eta Euskaltzaindiaren arteko <i>Hitzarmena</i> eta EEBSren aurkezpena, <i>Pello Telleria</i>	265
Lankidetza hitzarmena: Euskaltel-Euskaltzaindia	267
Convenio de cooperación: Euskaltel-Euskaltzaindia	271
Euskaltel-en eta Euskaltzaindiaren arteko <i>Hitzarmena</i> eta EEBSren aurkezpena, <i>Jose Antonio Ardanza</i>	275
Euskaltel eta Euskaltzaindiaren arteko <i>Hitzarmena</i> eta EEBS-ren aurkezpena, <i>Jean Haritshelhar</i>	277
Euskaltel eta Euskaltzaindiaren arteko <i>Hitzarmena</i> eta XX. mendeko euskararen corpusaren aurkezpena, <i>Alberto Agirreazaldegi</i>	279

EUSKO LEGBILTZARRA ETA EUSKALTZAINDIA

Prentsa-oharra / Nota de prensa	285
Documento de entrega por parte del Parlamento Vasco/Eusko Legebiltzarra, de las reproducciones digitalizadas de las obras en euskera que custodia su biblioteca, a la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia / Eusko Legebiltzarrak bere liburutegiak zaintzen dituen Euskarazko lanen kopia digitalizatuak Euskaltzaindiari eman izanaren dokumentua	287
Ekitaldia: Euskaltzaindiaren bisita, <i>Juan María Atutxa Mendiola</i>	289

Eusko Legebiltzarra eta Euskaltzaindiaren arteko <i>Akordioaren</i> sinatzea, <i>Jean Haritschelhar</i>	293
Acuerdo entre el Parlamento Vasco y Euskaltzaindia, <i>Jean Haritschelhar</i>	295

BERRIAK

OMENALDIAK

Jose Antonio Arana eta Euskara, <i>Henrike Knörr</i>	307
Juan San Martin Ortiz de Zarateri urrezko luma, <i>Xabier Kintana Uriaga</i>	311
Juan San Martin Ortiz de Zarate jaunaren curriculuma, <i>Ricardo Badiola Uriarte</i>	315

DON MANUEL IRUJO BIGARREN SARIA / SEGUNDO PREMIO DON MANUEL IRUJO

Premio Don Manuel de Irujo: 2002 Saria. Jose Mari Satrustegi Zubeldia, <i>Koldo Viñuales</i>	325
J. M. Satrustegi. II. Manuel Irujo Saria, <i>Jean Haritschelhar</i>	329
A J. M. Satrustegi. Premio Manuel Irujo, <i>Jean Haritschelhar</i>	333
* * *	
Henrike Knörr Euskaltzainburuordearen mintzaldia, Francisco Fernández del Riego Galiziako Akademiaren Presidente ohiaren omenezko ekitaldian	337

BESTE ZENBAIT TXOSTEN

Euskaltzaindiaren Informatika eta Telekomunikazio zerbitzua (EITZER), <i>Iñaki Kareaga - Ricardo Badiola</i>	341
---	-----

LIBURUEN-AURKEZPENAK ETA SARI-BANAKETAK

LITERATURA SARIAK - 2001

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa-Euskaltzaindia. Literatura sariak 2001 .	353
---	-----

Patxi Ezkiaga Lasa. <i>Txomin Agirre</i> Saria. Eleberria	354
Alaitz Olaizola Borda. <i>Toribio Altzaga</i> Saria. Antzerkia	355
Sonia Gonzalez Fernandez. <i>Felipe Arrese Beitia</i> Saria. Olerkia	356
Jurgi Kintana Goirirena. <i>Mikel Zarate</i> Saria. Saiakera	357

LITERATURA SARIAK.

R. M.^a AZKUE SARIA

Azkue sariak 2002	361
R. M. Azkue Sari-banaketa, <i>Jean Haritschelhar</i>	363
R. M. Azkue sarien-banaketa, <i>Joserra Bilbao</i>	365

ERMUA-EITZAGA: LEKU-IZENAK LIBURUKIAREN AURKEZPENA

<i>Ermua-Eitzaga: leku-izenak</i> , Onomasticon Vasconiae, 22, <i>Carlos Torrika</i>	369
<i>Ermua-Eitzaga: leku-izenak</i> , M. ^a <i>Asun Ardanza</i>	373
<i>Ermua-Eitzaga: leku-izenak</i> , Onomasticon Vasconiae, 22. liburuaren aurkezpena, A. <i>Iñigo</i>	375
<i>Ermua-Eitzaga: leku-izenak</i> , liburukiaren aurkezpena, <i>Jose Luis Lizundia Askondo</i>	377
<i>Ermua-Eitzaga: leku-izenak</i> , <i>Fernando Aranberri Odriozola</i>	381
<i>Ermua-Eitzaga: leku-izenak</i> , liburukiaren aurkezpena, <i>Henrike Knörr</i>	385
<i>Ermua-Eitzaga: leku-izenak</i> , Onomasticon Vasconiae, 22, <i>Gotzon Lobera</i>	387
<i>Ermua-Eitzaga: leku-izenak</i> , liburukiaren aurkezpena, <i>Mikel Gorrotxategi</i>	389

* * *

Erratak / Fe de erratas

<i>Euskera</i> 1999, 2	391
<i>Euskera</i> 2001, 1	391

ANDOLIN EGUZKITZA, EUSKALTZAIN OSOA: EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Santurtzi, 2002-II-23



JEAN HARITSCHELHAR DUHALDE
Euskaltzainburuak



JAVIER CRUZ EXPÓSITO
Santurtziko alkateak

INGRESO EN LA REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA / EUSKALTZAINDIA DE D. ANDOLIN EGUZKITZA

Santurtzi, 23-II-02

*Javier Cruz Expósito,
Alcalde de Santurtzi*

Amigas, amigos:

Hoy me siento satisfecho, como Alcalde de Santurtzi, de poder participar en este acto entrañable por el que un vecino de este municipio pasa a ser académico de número de Euskaltzaindia.

Y digo que supone una satisfacción, en primer lugar, porque con este nombramiento se reconoce públicamente no sólo el esfuerzo y la dedicación de Andolin en la promoción del euskera, sino que se valora su contribución al fomento y desarrollo de dicho idioma, y su aportación al cumplimiento de los fines de Euskaltzaindia, tanto por su capacidad de trabajo como por su experiencia y conocimientos. Esta satisfacción se convierte en orgullo al ser Andolin el primer santurtziarra, e incluso la primera persona de la Margen Izquierda que alcanza este reconocimiento.

Pero, en segundo lugar, supone para mí, como socialista, un privilegio poder estar aquí expresando mi compromiso de seguir rompiendo las barreras y recelos que durante tanto tiempo han distanciado determinadas apuestas ideológicas del fomento y protección de un bien cultural de valor tan extraordinario como es el euskera.

Y es que un idioma no es un mero elenco de términos o expresiones acogidas a unas normas lingüísticas o la aplicación bien intencionada de un tránsiego de palabras mejor o peor expresadas en una lengua, sino que es la aceptación como propio dentro de la colectividad, de una manera de apreciar lo humano. Es reconocer la entidad social y cultural de un pueblo, cuyo origen se sitúa en el orto de los tiempos.

El euskera es una realidad cultural viva, que evoluciona, que enriquece a otras lenguas vecinas y que se enriquece a su vez con las aportaciones de otros idiomas; que no pervive en la añoranza del pasado, sino que contempla el futuro con una actitud que habla de esfuerzo, de anhelo, de sueño. Aspira a ser

un instrumento normalizado en esta sociedad nuestra, rica y plural en su peculiaridad. Un instrumento que huye de toda demagogia, de los corsés ideológicos, de las aspiraciones totémicas que provocan su asfixia. Los pueblos miden sus relaciones con la capacidad de comunicarse, tanto entre propios como con ajenos. Tolerar las tendencias, respetar las culturas, es mejorar nuestra sociedad, nuestro futuro y la herencia de nuestros hijos e hijas.

Por ello el euskera es y debe ser un idioma de todos, para todos; un idioma moderno y ágil; un idioma con el que poder hablar al mundo de solidaridad, de justicia y de paz: eso es vivir en euskera.

XALOTASUNAREN LAUDORIAOA

Sarrera-hitzaldia

Santurtzi, 2002-II-23

Andolin Eguzkitza

0. Sarrera

Egunon. Egunon Santurtziko jende ona; egunon senideok, lagunok eta adiskideok, Santurtzi bertokook eta urrunagotik heldutakook; egunon agintari jaun-andreok; egunon Santurtziko Alkate jauna; egunon euskaltzain jaun-andreok; Euskaltzainburu jauna, egunon Zuri ere.

Seguru asko ezin igar diezaiokezue zer-nolako ohorea den niretzat, hemen neure herrian, Santurtzi eder honetan, duela hainbat mende erdara nagusi izan den Bizkaiko itsasaldeko herrian Euskaltzaindirako sarrera-hitzaldi hau egitea, eta seguru asko ez diokezue igartzen ere zelako zirraraz ari naizen, hain segur gurasoak bertan entzule ez egoteagatik sentitzen dudan kadentasuna bezain handia; haien baina, Aita Villasantek apur bat beranduago bezala, duela bi urte baino luzeago egin ziguten agur. Malenkonia hori, haatik, apaldu egiten zait haien ondorengoak gomutatzean eta ikustean, neure anaia-arrebok, geure lobok, gazteenak baino ez aipatzearren, gure familiako neskatila ederrak, Ainhoa, Irati, Garazi, Arrate eta Nora, denak euskaldunak direnak eta orobat euskalduna ere den Jon, gure ondorengoa eta oraingoz mutiko bakarra. Eta kadentasun hori era berean zait apaltzen, hainbeste lagun, hainbeste adiskide, hainbeste herritar hemen inguruan batuta sumatzean, Santurtziko udaletxean, euskaldunon hizkuntza ohoratzea helburu daukan ekitaldi honetan. Guztioi halandaze mila esker, edo eta aita Luis Villasantek erabiltzen ohi zuen Jaun Done Frantsizko Asiskoaren moldeaz esateko, **bake eta on guztioi**.

Eta hasi –zuen baimenarekin– Aita Villasantek berak duela 51 urte Euskaltzain osoaren kargua hartzeko hitzaldian lapurtar klasikoz esan zituen berba batzuekin hasi eginen naiz, hain baitira egia eta menderdia igaro arren egunegunekoak:

«Ongi dakusat eta orok dakite, Euskaltzaindia dugula egun, gure herri mai-tearen ondasunik balioitsuena jagon eta begiratzeko bizi den baltzu, lagunarte eta elkhargoa. Elkhargo hau, beraz, gure herriarentzat symbola bat bezala bihurtu da,

euskararen gaztelu eta dorrea bilhakatu da. Bertze aldetik, berriz, ni berhunen galitzarrerat ekharria izaita, neholatan ere irabazi ez merezi eztutanaz geroztik, ez-tut omen, sari edo deduzko izendatze bat bezala hartu nahi.

Aitzitik, Euskalherri osoaren aitzinean egun bizkarreratu dudan zor handi eta responsabilitate larriaren berri ongi dakit. Lanerako deithua izan naizela badakusat. Zuen dei huni, bada, baiezko emaiten saiaturen naiz. Vokazino bati erantzutera behartuak gagozen bezala erantzuteko ahalak eginen ditut. Egungo zor hauk atheratzeko kezka ta ardura izanen dut, nere etorkizuneko neke-lan-izerdiak euskarari eskainiaz, gure mintzo maite hunen laborantzari nere bizitza lotuaz. Ematen ahal deraut goiko Jaunak hartarako kemen eta adore!»

1. Santurtziko herriari ohore

1.1. Lehenengo eta behin beraz, utz iezadazue gaur batu gaituen herri hau goraipatzen, ni neu eta hemen gauden gehienok sortzen ikusi gaituen herria, ni neu eta berton gauden gehienok egin gaituen herria, atzo goizerarte arrantzale-herria izan dena Bizkaiko itsasaldean, Euskal Herriko mendebalde-mendebaldean. Euskaldun askorentzat segurutik erdal herriaren muga egiten duen tokia, «terra incognita» hasten den aurkientza, eta horregatik Enkarterrietako beste herriak bezala aspaldi erdaldundua egon arren, sekulan ere bere bizkaitartasunari, alegia, bere herritasunari uko egin ez dion herrixka; izan ere halakoa izan baitzen XIX. gizaldiaren amaiera eta XX.aren hasierararte behintzat, orduantxe biztanleriaren ugaltzeaz batera hasi baitzen Santurtzi handitzen, eta orduantxe ere banatu baitzen udalerri bitan, gaur egungo Ortuella eta gaur egungo Santurtzi.

Ez dut hemen orain Santurtziren historia eginen, ezpada Somorrostro Haraneko Hiru Kontseiluen izeneko udalerrian daukala jatorria esateko, hots, gaurko Trapagaranek, Sestaok eta Santurtzik berak behinola osaturiko udalerrian dauzkala bere sustraiak. Ondoan, jakina, gaur egungo Abanto, Muskiz eta Zierbena deritzen udalerriek betetzen duten lurradean, Somorrostro Haraneko Lau Kontseiluak zeuden (Zierbenako Durruma, Muskizko Jaun Done Julian, Abantoko Andre Dona Juliana eta Abantoko Jaun Done Petri euskal ize-nez bataia nitzakeen kontseiluak, historia eta zantzuak, datuak eta nahikundeak nahastekatuz, hau da, geure historia, herri guztiak egin ohi duten moduan, berriasmatz). XIX. mendearen erditsuan, lehenik, Hiru Kontseiluak bananduta, aipaturiko hiru udalerriak sortuko dira, eta beranduago, 1901ean, Santurtzi ize-na zeukan herri bakarretik beste bi agertuko dira, lehenengoz Santurtzi-Ortuella alde batetik eta Santurtzi bera bestetik (Santurce Antiguo zeritzon honi erdaraz), eta geroago, azkenetik, gaurko Ortuella eta Santurtzi, azken hau delarik gaur bildu gaituen herria, 1075ean lehen berria dugunetik Done Jurgi [*Sanctis Georgis* latinez idatzita dagoen dokumentuan] izeneko eta hementxe, udaletxearen ondoan, daukagun elizaren inguruau sortu zena, euskaldunon itsasoa amaitzen den azken bazterrean ia, eta Serantes mendiaren magalean,

kokagune benetan ederrean. Berba laburrez esateko, Euskal Herriko sartaldeko muturrean dagoen herri polita, gu umeak ginenean behintzat, hala gomutatzen baitut nik bederen.

1.2. Eta Santurtzi aipatu beharrean nago, herri honek eman digulako bitzta, herri honetan hazi eta hezi garelako, herri honetan sortu delako gaurko ekitaldi hau bururatzeko beharrezkoa izan den indar eta kemenetik, herri honek behar duelako ohorea, eta ez nik.

Oraindik ere, Europako Mendebaldeko porturik handienetariko bat bertan egon arren, «bonita aldea» deritzogu geure herriari, eta hainbeste urtez beraren hazkundea anabasa hutsean murgildu arren, hirigintzan hainbeste urtez oihanaren legeak agindu arren, eta herria itsustu eta desitxuratu –gure bellaunaldikook gizon eta emakume bihurtu ginenean urteetan gutxi gora behera– ostera ere hasi da argitzen, ostera ere lehenago zeukan edertasunetik apur bat irabazten, eta laster baten beharbada atzera berriz agertuko zaigu, umetan genekusana legez, mendiz eta itsasoz osaturiko herri gisa, ondoan hainbeste etekin-sorburu erraldoi eduki arren. Egia da, bestaldetik, baserritarra beti egon direna herrian, Kabiezes inguru horretan batez ere, baina zalantzarak gabe, itsasoa izan da santurtziarrok egin gaituena, gure herriari daukan indarra eman diona.

1.3. Santurtzi, bestalde, inguruko eta urruneko jendez bete ahala handitu zen. Gure gurasoak, adibidez, Lamiakotik eta Portugaletetik heldu ziren, Leioko auzunea den lehenengotik aita eta bigarrenetik ama. Baina ez dirateneke gutxi hemen, entzule daudenaren artean, askozaz urrunagoko arbasoak dauzkatenak. Laster orduan, hemen gaudenon hainbesteren gurasoak legez, garaietako estuasunak eta beharrak gaindituta, gureak ere herrian sartu eta herriaren ekimenetan dzanga eginda, saiatu egin ziren guri hezkuntza duin bat ematen: gizaki moduan lehenago, eta euskaldun gisa gero. Halandaze, eta zuzentasunez berba egitearren, ez gara bene-benetan beraien ahaleginen ondorio hutsa baino.

Gerrosteko garaiaz ari gara. Gure etxearen, Aberri Egunean, «Eusko Gudariak», «Goazen mendirik mendi» edo «Gora el Irrintzi Intrépido» kantatzeko leihoak ixten ziren garaia; gure aita zenak ikurriña zelakoa zen eta zer esan gura zuen kontatzen zigunean, kalean horrelakoez berba ez egiteko agintzen zigun denbora iluna, eta gure bataio-izenez barik gure ezizen ofizialez agertu behar genuen denboraldi latza; ni neu jadanik hamabi bat urte edo neuzkala, herriko ikastola andereño bakarraren inguruan hainbat familiaren sukaldetean hasten zen sasoia, eta Mamariga eta Kabiezesko elizetan dantza-talde eta mendizaletaldeak sortzen ziren tenorea. Labur esanda, aurrera egiteko eta esperantzarak ezari ihes egiteko etengabeko dinamikan murgiltzen zen gizarte txiki bateko kideak gara, orain garena eta lortu dugun apurra littekeenatzat egin zuena.



Ezkerretatik eskubitarra: Xabier Kintana, Euskaltzaindiko idazkaria; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Javier Cruz Exposito, Santurtziko alkatea eta Miren Azkarate, euskaltzain osoa eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailburua.

Zeren nola azal hemen gaur udaletxe honetan gertatzen ari dena gure aurrekoek hainbeste ahaleginez eta izerdiz, hainbeste oztopo eta eragozpen gaindituta erein zutenaren ondorioz ez bada? Zelan esplika gaur egun Santurtzin bizi diren sei-zortzi mila euskaldunak, haien, hemen gauden guztion aurrekoek, egin zutena kontutan hartu gabe, haien kemenik gabe, haien indarrik eta eskuzaabalasunik gabe, haien eragozpen guztiak baino handiagoa zen esperantzarik gabe? Balboa, Cabanellas, Eguzkitza, Garrastazu, Ituarte, Izagirre, Loidi, Matanzas, de Miguel, Olalde, Onaindia, Rivière, Urteaga, Uribetxearria, eta beste hamaiaka andre-gizonen afanik eta ardurarik gabe? Ez dago azalpenik, eta horregatik, hemendik, neure belaunaldiko eta ondoko belaunaldietako euskaldunon izenean justiziazko baino ez da eskerrak adieraz ditzadan, eta eskerrak eman justiziaren zentzua eman zigotelako, jendeen eta populuen arteko berdintasuna eta errespetua zer den agerian utzi zigotelako, eta Abraz bestaldeko Akabuko Puntak Santurtziko arrantzaleentzat bezala, argi eta garbi erakutsi zigotelako zein zen euskaldunon herriaren alde segitu behar genuen bidea.

Eta eskerrak emateko ordu honetan zelan ahantz Juan Angel Etxebarria, gerrosteko lehenengo santurtziar euskaldun eta euskaltzalea, idazlea eta irakaslea, euskararen suak eraginda sufrimenduz hornituriko bizitza eskaini ziona Euskal Herriari? Izan bedi gomuta hau harenganako justizia egiten hasteko lehen pausoia!

1.4. Eta zer esan Santurtzin bertan aritzen diren euskaldun gazteez, lehenago aipatu ditudan sei edo zortzi mila euskaldun horiez? Eta Santurtzin bezala inguruko herritakoez, goragoko Somorrostroko Hiru eta Lau Kontseiluetakoez bezala, Ibar Ezkerreko beste herritakoez, Barakaldo eta Portugaletekoez, edota Enkarterrieta beste herri guztietakoez ere bai? Zeren oraindik orain, betebehar eta lortzekoak arras handiak izateagatik ere, lan egiten segitzen baitute, eta antza amore emateko prest ere ez baitaude. Egindako lanaren frogagarri, hara hor Santurtziko euskaldunak, nire gaztaroan %0,1 izatetik %12-14 izatera igaro direnak orain, eta laster gero eta euskaldunago den gazteriarekin laurdenera ere hel daitezkeenak. Halaz ere, gaur Euskaltzaindiak ekitaldi honen kariaz Santurtziko herriari egiten dion ohorea, Euskaltzainburu jaunaren baimenez, hemendik Bizkaiko mendebalde osoari, Euskal Herriko sortaldeko muturra biltzen duen eskualde osoari zabaltzea gurako nuke, ez baita debalde hau lehenengo aldia Euskal Herriko eskualde hau ordezkatzen denik euskaltzain osoen bilkuraren, gaurkoan Santurtzikoa naizenonen bidez geratzen bada ere, Enkarterrieta edozein herritako euskaldunen baten bidez gerta zitekeen gauza baita.

1.5. Eta aurrera segitu baino lehen, aipamen oso neure batzuk egitearren bide nagusitik apur batez baino ez bada ere urrunten banaiz, barkamena eskatu gura nizueke, zeren honainoko tarteak egin baldin badut, hau da, Santurtzi neure herria eta Bizkaiko Mendebalde osoa ordezkatuko baldin baditut Euskaltzaindian, argi eta garbi utzi beharrean bainago hori guztia hainbeste pertsona prestu eta onei esker gertatu dela bakar-bakarrik, haien gabe, haien laguntza eta federik gabe honaino heldu ez bainintzatekeen, haien eskuzabal-tasun eskerga eta borondate onik gabe ezinezkoia izan zitzaidakeelako hementxe berton, neure herrian, gaur hitzaldi hau egiten egon, eta era berean ezinezko izan zitzaidakeelako euskal mundu zoragarri hau aurkitzean eta ezagutzean sentitu nuen plazera sentitzea.

Eta lehenengo eta behin nire euskarako irakasleak ohoratu gura nituzke, seguru bainago nik behintzat Euskal Herrian inoiz egon den ononetariko bat eduki dudala, Munitibarreko semea den Kepa Mallea, lasai asko esan dezakendalako, 1968an antolatu ziren udako bigarren ikastaro haietan hasi eta behin-goan, oraino ere hamabost urte baino ez neuzkanean, lehenengo segundotik euskarako maitasuna kutsatu ez ezik injektatu ere egin zidala. Eta harekin batera, eta ikastaro haietan zebiltzaten guztien izenean ez nuke Juan Jose Zearreta aipatu gabe utzi gura, ez baitira gutxi, ikasle gisa lehenago eta lankide moduan geroago eskaini dizkidanak.

Baina ikastaro horiek hasiera izan ziren bakarrik. Segida, eta ez edozelakoa, familia euskaldun bik eskaini zidatetako, 1969ko uda horretan berean Amorotoko Telleria baserriko Juan Kortabitarte eta beraren familiak (Milagros emazteak eta seme-alaba guztiek), eta Ondarroako Ixidor Etxeberriarekin batera Olga Iturraspe emazte eta hiztun onak hurrengo urteko udan. Eta sinets

nazazue, beldur gabe esan dezaket arrazoi askorengatik zori onekoa izan nintzela. Esate baterako, Telleriako etxeko jaun abertzale eta kultuak baziakaldu edo afaldu aurretik, Argia astekariaren harpidea zelarik, hura nirekin batera irakurtzen jartzen zelako sarritan, eta Ixidor Etxeberriaren etxeko liburutegi euskalduna erabiltzeko bezala, hala beraren emazte Olgarekin berbaz luze egoteko aukera paregabea sarri askotan eduki nuelako.

Amaitzeko ez nituzke ezelan ere euskal gramatikaren kontinentean alde batetik, eta idazkuntza eta literaturaren munduan bestetik sartzen lagundu zidatenak ahaztu gura. Hurrenez hurren, aita Justomari Mokoroa, Xabier Kintana eta aita Imanol Berriatua aipatu behar ditut. Lehenengoa, eskoletan frantsesa irakasten zigun bezainbesteko zehaztasunaz, euskal aditzaren sekretuak argitu baitzizkidan eskolak amaitu osteko 1969-1970 ikasturteko arratsalde go-goangarrietan, eta arratsalde horietako baten ezagutu nuen Xabier Kintanak, aldiz, geroago aita Imanol Berriatua ere eginen zuen bezala, idazten hasteko lehenengo urratsak egiten lagundu zidalako, ohikoa duen eskuzabaltasunaz, bere adiskidanza eskaintzeaz gain. Azken aipamena, edozelan ere, Gabriel Aresti zenarena izatea nahiko nuke, zeren Xabier Kintanaren bidez ezagutu nuen Bilboko poeta handiari zerion kemenak, eta bizitza osoa iparburu izan zituen justizia eta euskarara gazte jendea erakartzeko zeukan oldarrak zerikusirik asko baitaukate segurutik neure sarrerarekin euskal literaturaren mundu zoragarrian. Eta irakasletzat jotzea gustatuko litzaidakeen Gabriel ez bazen euskaltzain osoa izatera heldu, garai beretsuko beste idazle handia ere heldu ez den bezala, Jose Luis Alvarez Enparantza, Txillardegi, beharbada ulertuko dukezue orain sentitzen dudan ñimiñotasun-sentimendua.

Amaitu benetan, haatik, beste izen batzuk gomutatuz amaitu gura dut, haien ere lagundi besterik ez bainaute egin, eta gazte-gazterik ezagutu nindutenetik egonarri ikaragarriaz aurrera egiteko indarra eman, Euskaltzaindiaren egoitzaren langileak dira horiek: Rosa Artza zena, Lutxi Alberdi, Begoña Amondarain, Resu Orbe, Nerea Altuna, Cristina Arana, Josune Olabarria, eta orobat Bilboko bulegoetan ere lan egiten duten sei gizonezkoak, Jose Luis Lizundia, Juanjo Zearreta, Ricardo Badiola, Emilio Porras, Pello Telleria eta Prudentzio Garzia. Guztioi bihotzetik mila esker.

2. Aita Villasanteri gorazarre

2.0. Ez dakit asmatzen ahal dukezuen, zer-nolako sentieraz hartu dudan, Euskaltzaindian hainbeste urtez bete zuen jesarlekuan, aita Luis Villasante Kortabitarte fraide frantziskotarra ordezkatzen kargua, 1951ko otsailaren 23an izendatu baitzuten euskaltzain urgazle eta urte bereko irailaren 25ean, ostera, euskaltzain oso. Pozaz zalantzak gabe, nekez jasoko baitut bizitzan hau bezalako beste saririk, eta era berean beldurrez, bera izanen baita, bat ere zalantzak gabe, nire neurgailua eta erantzukizun-eskalea betiko. Inolaz ere, ez

erronka erraza. Eta haatik, esan dudan legez, bene-benetan sinetsita nago zorionekoa ere banaizena, izan dadin bera ezagutu nuen apurrean erakutsi zidan xalotasun eta lañotasunagatik, izan dadin beraren lagunek, lankideek eta idatzi zituenek orok agerian utzen duten handitasun urguriagatik, hain baita zabalera beraren obra, hain baita beraren idazkera labur, zorrotz eta zehatz, hain baitzen handia erakusten zuen apaltasuna, eta hain baitzuen trebetasunez zuzendu Euskaltzaindia euskarak lemazain seguru eta kementsua behar zuen garaia latz eta arriskutsuetan. Horra hor, labur esanda, gorazarre honen zioa.

2.1. Luis Villasante Kortabitarte,honezkeren denok ondo badakikezuenez, garai hartan oraindik Ajangizkoa zen, baina gaur egun Gernikakoa den, Errenteria auzoan sortu zen 1920ko martxoaren 22an. Ama aulestiarrar zeukan, aita, aldiz, Balmasedaren ondoko Gaztelako zatia den Mena haraneko Cadagua de Mena-koia. Oso gazte –sei urterekin– ama hiltzen zaio eta laster, hamaika urte bete berri, 1931ko agorrilaren 18an, auzoko, baina Gernikako, eta kaleko laguna zeukan Jose Antonio Gandarias-ekin batera, Arantzazura heltzen da hil arteko beraren familia izanen den frantziskotarren ordenan sartzeko. Eta Arantzazu hartan ere, Aloña mendiaren altzoan kokaturik dagoen anaiarte hori izanen baita hil arteko beraren 57 urteko etxea. Tartean, Foruko komentuan urte bi ematen ditu Arantzazun hasitako humanitate-ikasketak amaitzeko; gerratean, ostera, urtebete aitarekin Gernikan, eta bombardaketaren ondoren beste urtebete Zarauzko komentuan abitura hartzearren; 1938tik 1939ra Burgosen dabil soldadu; Tafallaren ondoko Erriberriko komentuan hurrengo hiru urteak sartzen ditu filosofia eta teologia ikasteko, eta 1942tik aurrera Arantzazura itzultzen da berriz ere. 1944ko irailean, teologian sakontzearen, Comillas-era abiatzen da. Hurrengo hiru ikasturteak, (1944-47), bertan ematen ditu eta bere doktorego-tesia prestatzetan María Ángeles Sorazuri buruz. Bitartean, 1945eko oporretan, abuztuaren 15ean, ordenatu egiten da. 1947tik aurrera hil arteko bere etxera izanen den Arantzazuko santutegira itzultzen da teologia– eta euskara irakasle gisa aritzeko. Hil, 2000ko abenduaren 2an eginen du, munduan barrrena laurogei urte lantsu eta emankor sartu eta gero. Bitartean ia 800 sarrera dauzkan bibliografia utzi digu, horietatik beste egile batzuen liburuen argitalpenak eta itzulpenak zenbatu gabe, 25 edo berak idatzitako liburuak direla.

2.2. Luis Villasante Kortabitarteren idazlanak begiratzen hasi, beraren berri emateko ahaleginetan sartu, eta hasiera-hasieratik agertzen zaizkio norberari egin zuen obra erraldoiaren norabideak, bi izan baitziren funtsean: euskara eta euskararen inguruoak alde batetik, eta teologia bestetik. Lehen alderdian, gure artean ezagunena, amaigabe ematen du idatzi zuenaren kopurua, askotxo erdaraz, hala nola ikasle-garaian euskal literaturaren historiaren berri zehatza ematen zigun liburu erraldoi hora, ezer ez genekienoi euskaraz zeredozer baino gehiago idatzita bazegoela agerian utzi ziguna; edo Elizalde saileko liburuak, euskara batuaren berri zehatza eman zigutena, eta gramatikazko irakasgai ez gutxi, hizkuntza batuaren aldeko burruka gori gorian zegoenean eta euskararen

etorkizuneko esperantzak hain modu zail eta latzean finkatzen ari zirenean. Euskaraz, baina beste norabidean, gure artekoentzat hain ezaguna ez den alor horretan, Ángeles Sorazu mistikoaz egindako idazlanak alde batera utzita, gutxi izan ez zirenak, Luis Villasantek ondu zituen lerroen kopurua kilometroka neur liteke, zeren Arantzazu izeneko aldizkarian idatzitakoa arras baita neurgaitza, eta oinarrizko teologiari buruz, alegia, teologia fundamentalari buruz idatzi zituen lau liburuek («Jainkoa», «Jesukristo», «Eliza» eta «Kristau Fedea») eurek bakarrik 1386 orrialde betetzen baitituzte. Euskararen gaineko liburueta, edozelan ere, ezin ahantz ditzakegu Axularri eta euskararen auziari eskainitako saio ederrak. José Luis Zurutuza fraide frantziskotarrak eta aita Villasanteren lagun minak honela dio bere «Villasante Arantzazun» izeneko saioan:

«bere ekoizpen idatzia oparoa da euskaraz nahiz gaztelaniaz. Ez zitzaion kostatzen idaztea, nik uste gozatu egiten zuela: errekastoa zelai artean kantari doan bezala, halaxe ateratzen zitzaitzakion esaldiak, berezkotasun osoz, aberats esanmoldeetan eta argiz beteak, pentsaera bihurgunerik gabe, oztopoak berak ere –urak harriak bezala– borobilduz eta leunduz...».

Aipaturiko ildo bi horiek kontutan hartuta, bizitzaren azkenengo urteotan idatzitako saio bi aipatuko ditut bata eta bestearren erakusgarri: alde batetik Erein argitaletxearen «saiopaperak» izeneko bilduman, 1990an atera zuen «Ángeles Sorazu. Bizia eta mezua»; eta bestetik Arantzazuko argitaletxean bertan, eta bestea baino urte bi lehenago argitara emandako «Euskararen auziaz» batatu zuen saio interesarria, Luis Eleizalde sailari amaiera eman ziona.

Eta oroz lehen, batean zein bestean, idazkera da aipatu beharrekoa, hizkuntza erabilzeko moldea, bere burua adierazteko zerabilen prosa, zeren Luis Villasante idazlea agerian uzten duena, eta XX. mendearren idazleen artean orobat zorrotz eta bipilki markatzen duena, idaztankera hori baita. Idazkera hori delako, hartzan ere, hain gai desberdinak erabilzeagatik, halako alor urrunak jorratzegatik, saio biak nortasun beraren ekoizpen direla agerian uzten duena, hain segur sorkuntzazko literaturarik inoiz idatzi ez zuen Luis Villasante fraidea alderdi horretan izan delako sortzaileen, alderdi horretatik egin diolako euskarari ekarpenik gehien, eta berak hainbeste miresten zuen Axularrek nahi zuen bezala, horrexetan bihurtu duelako euskara bitore eta trebe.

Beraren idazkera hori nolakoa den ikusteko baina, hutsunez eta apurturaz beteriko gure literatura-tradizioan Arantzazuko fraidearen idazmoldea kokatze-ko gauza izanen bagara, prosari buruz pentsatzen zuena, literatur-hizkuntza batzen garapenean prosak daukan funtziogarri buruz zeuzkan ideiak ulertu behar ditugu aldez aurretik. Honela zioen berak euskarari buruzko saioan (149-51 ork.):

«Lau euskalki literario izan ditu euskarak: lapurdiera, zuberera, gipuzkera eta bizkaiera. Horrek esan nahi du lau horietan izan dela idazole-mordoxka, eta horiei esker bakoitzean sortu eta egituratu dela idazmolde edo prosa egiteko tresna.

Lau tradizio orduan? Bai, nahi baduzu. Baino kontuan har dezagun hau: Iparaldea berrehun urtez aitzindu zitzaiola Heggoaldeari, eta hori ere ez da ondorio

gabe, zeren eta hizkera idatzia moldatzeko eta egokitzeko denbora behar baita. Iparraldea XVI. mendean hasten da hizkera lantzen; Hegoaldea XVIII.ean, Gipuzkoan Larramendi eta honen ingurukoak izan ziren bidea urratu zutenak (Mendiburu, Kardaber az, Ubillos etab.) Bizkaian Mogel, Añibarro, etab.

Adibidez, Lavieuvilleren dotrina (lapurtarra) Mogeletek bizkaierari egokitzen zuen, baina bata eta bestea elkarrekin konparatuz, aurki jabetzen zara gauza batetzea: lapurtarrak darabilen tresna ongi trebatua eta egina dagoela; besteak, berriz, haztamuka, saio edo esperimentu egiten dabilenaren hizkera dirudi. Eta beharko ibili bide berriak urratzen zebilenez gero!

Dena den, bai Iparraldean eta bai Hegoaldean ere, bakoitzaz bere euskalkia-ri jarraituagatik, gainerakoan –eta euskalkiak eskatzen dituen egokitzapen batzuk gora behera–, sistema berbera nabari da prosagintzan.

Prosagintza-sistema hori, «*salvatis salvandis*», sartalde osoan hizkuntza landu guztiek erabiltzen duten berbera da, gaincra.

Eta aitzin honetan esan dugun bezala, horrek ez gaitu gehiegiz harritu behar. Izan ere, sartalde eta etzinalde guztian bada prosa egiteko modu bat, leku guztietan bat bera dena; xehetasun batzuetan hizkuntza berezien berezitasunari amore emanet, hori bai; baina, hori gora behera, egia da diogun hau, hots: prosa egiteko tankera berbera dela hizkuntza berezien gainetik.

Prosa egiteko modu hori, Mendebaldeko kultura bera bezala, Grezian sortu zen; gero latinak hartu zuen eta latinaren bidez Mendebaldeko hizkuntza landu guztietara zabaldu da. Gure idazle zaharrek, euskalki guztietakoek, bide hori bera haritu zuten. Beraz Europako beste hizkuntzetako idazleak bezalaxe jokatu ziren. Eta zinez, ez dugu beste biderik. Ez dugu euskara salbatuko bakar-bidetik ibilaraziz edo beste hizkuntzen errepeidea alde batera utzirik.»

Lerro horiek argi uzten dute Villasantek prosari buruz zeukan burutapena, bi elementuz osatua zegoen kontzepzioa: euskal tradizioa alde batetik, eta euro-par tradizioa bestetik, alegia, geure baitatik ateratakoa eta gure kultura europeo-arreretik datorkiguna. Lehenengoa dela eta, buru-belarri aritu zen hura ezagutaraziz, hala nola lehenago aipatu dugun euskal literaturaren historia ezagunaren bidez, edo Axularren obra argitaratuz eta berari buruzko haimbeste lan idatziz. Bigarrena dela eta, garbizalekeria antzuaren kontrako burruka etengabeen, eta bere berea zuen prosa dotorearen lanketan, ez baitago zalantzak hori dela berak darabilen prosaren lehen ezaugarria: dotorezia. Hain zuzen ere, horixe da arestian irakurri berri dudan goiko aipu horretan senti dezakeguna, edo Angeles Sorazuri buruz ari delarik, hau da, Villasante fraide frantziskotar fededuna oinarrizko eta barru-barruko bere fedeaz (9-10. ork.) ari delarik, soma daitekeena:

«Jainkoaren esperientzia bada, beraz, eta horren behar gorria du gaurko kristauak. Zerbait eraginkorrik baldin bada, horixe. Esperientzia hori, bestalde, era askotakoak izan daiteke: maila arruntean gelditzen dena eta baita maila hori gainditzen duenetakoak ere –eta azken honetarikoa izan zen Sorasurengan azaldu zena–. Jainkoak guganatzeko dituen bide eta bidexkak konta ezinak dira, eta gu ez izan inor Hari mugak eta legeak ezartzeko.

Jainkoa ez da hil, bada. Bira o horrek ez du ez buru eta ez hanka. Jainkoa bizi da. Eta Haren presentziaren azterrenak Angeles Sorazu gure herritar honen bizi eta idazkietan miragarriki islatzen dira».

Ez da zaila igartzen zein den dotorezia horren iturria: alde batetik ekonomia, adierazpenaren laburtasuna dei genezakeena, eta horrek berarekin dakinaren erritmo azkarra, eta bestetik puntuazio-sistemaren erabilkera zoliarekin batera lokailuen dantza arina. Izan ere, bera izan delarik Axularren ezagutazale nagusia, ez da Sarako erretore nafarraren jarraitzaile sutsua Urdazubikoak zerabilen arnasa luzeko perpausetan. Hona hemen, diodanaren erakusgarri «Euskararen auziaz» saiotik ateratako paragrafo bat, non puntuazioaren jokoak eta sinonimiaren erabilera bezala, hala errepikaduraz, beharbada Axularrek lortzen zuen tankerako ondorio estilistikoak erdiesten baititu, baina nahi-ko modu desberdinez (143. or.):

«Idatz-hizkerak literatur tradizioz eratzen, osatzen eta sendotzen dira, hots, idazleek bata besteari jarraikiz. Izan ere, idazleek, normalki behintzat, ez dute idazten berek edo beren txokoko jendeak hitz egiten duen bezala, beren aurretik egon diren idazleei jarraikiz baizik. Egia da denetarik egon ohi dela, eta batez ere gure artean eboluzio normal bat egon ez delako, tradizio hori hautsi, ahaztu, berriaz hartu eta gora-behera asko gertatu dela; baina funtsean tradiziobidez sortu eta osatu ohi dira idatz-hizkerak. Horrek ez du esan nahi, bestalde, hizkera mintzatuari edo biziari idatz-hizkerak ez diola deusik hartzen. Halako oreka lortzen da biziaren eta tradizioaren artean.»

Testu hau irakurrita, alde batetik, ez da zaila ulertzea Jose Luis Zurutuza zioena: *errekastoa zelai artean kantari doan bezala, halaxe ateratzen zitzazkion esaldiak, berezkotasun osoz*. Bestetik, Axular maisuarekiko differenzia ikusteko, ez dugu gorago aipatu dugun Luis Villasanteren beraren sarrera-hitzaldia baino berbegiratu behar. Hor askozaz ere axulartarra goa zen, hor perpausak luzeagoak ziren eta loturak egiteko moldeak askozaz gertuago zeuden Sarako erretoreak zerabiltzanetatik. Hona hemen hitzaldi hartatik ateratako beste aipu luzexka bat diodanaren erakusgarri (93-94. ork), bere-bere-ak izateko ziren joerak somatzen hasten badira ere:

«Egun arte euskara laborari-arrantzale batzuen hizkuntza bat izan dela erran dugu. Beraz, dagoen bezala, civilizazinoko hizkuntza landuen ondoan jarri gero, anhitz gauzaren faltan aurkhitzen dela erran beharrak eztago. Laborari-arrantzaleek izan ohi dituzten arazo, harreman ta beharrizunetarako beharr dena ba-du. Baina egun euskara bi hizkuntza landu handiri ahurpegi eman beharrean edireiten da, heiekin aitzinez-aitzin gudukatu beharrean, eta baldin bi erdara hoik nagositu-ren ezpazaizkio, beharr-beharreko dugu euskarari harmen emaitea, indarrailuz hornitzea, ahal den neurrian heiekin berdin dadin, heien abantailak beregana ditzan, bertzeek baino kondizino txarragoko zelako azpiko athera ez dadin.»

Aipu hauetan, bestalde, oso da argia literatura-hizkuntzari buruz, edo aita Villasantek zioen bezala, idatz-hizkeraren gainetan hark zeukan burutapena. Antzoko zerbaite soma dezakegu ondoko honetan ere (153. or.):

Prosa-barnean mota bat baino gehiago dago. Euskararentzat, berriz, gure mendean mota bat bakarra hartu nahi da, hura bakarrik zilegitzat hartuz. Badira idatz estilo batzuk esaldi motx eta laburrez baliatzen direnak; beste batzuk periodo luze eta korapilotsuez osatuak. Bada elkar hizketari dagokion estiloa, bada ipuin eta kontakizunetakoa, bada errefrau eta atsotitzena, bada azalpenetakoa, eta gero prozesoa eta auzietan erabiltzen dena, administralgokoa etab. Euskarak, ahal dela, denak etxekotu behar ditu. Aitoritu behar da Altuberen Erderismos-ek, bere merezimendu guztiekin, bide bakar, zurrun eta estuegia uzten diola euskarari.

Zernahi gisaz, guk geure tradizio zaharra ezagutu eta aztertu behar dugu eta harekin zubia egin. Hori eginez, Europako hizkuntza landu guztiekin har-emanezan sartzen gara. Gaur, hemen, hizkuntza bakar-bidetik erabili nahi izatea suizidio-bidea hartzea izango litzateke.»

edo ondoko honetan, non bere ideiak oso modu garbian azaltzen dituen, bere idazkeran, prezeski, gauzatzea espero zituen ideiak eta burutapenak (55-56. ork.):

«Hizkuntzak tresna batzuk direla esan dugu. Eta tresnak, noiz eta tresnatzat hartzentzat baitira, orduan daude beren lekuaren eta orduan eta hala betetzen dute bere betebeharra. Tresnatasun hau ona da, beraz, eta euskararen auzia bideratzeko, beharrezko. Askotan hori ahaztu egin dugu, ordea. Euskara hartu izan dugu itxurakeria egiteko, paparrean eramateko domina bezala edo erakustokian jartzeko ptxia bailitzan.

....



Jean Haritschelhar, euskaltzainburua eta Andolin Eguzkitza, euskaltzain oso berria.

Baina bada beste tresnatasun-mota bat txarra dena, hizkuntzari, Iuzarora begiratuz, mesede baino kalte gehiago dakarkiona. Tresnakeria deituko genuke.

....

Hizkuntza herri baten ondasuna da, guztion ondarea. Orduan ez du inork berretzat exklusiboki hartu behar, beronen jaun eta jabe balitz bezala. Aukera era ikusmolde partikularren gainean dago hizkuntza. Pluralismo bat dagoen herrian euskara ezin lot daiteke partikularismo batekin. Euskara zinez maite duenak ahalleginak egin behar ditu guztiona dena berretzat bakarrik ez hartzeko; ez luke honetan hain itsu izan behar. Zoritzarrez, beldur naiz itsutasun hori gure artean zabalduegi ez ote den.»

Utz iezadazue, haatik, Ángeles Sorazuri buruzko ondoko aipu honekin amaitzen, ostera ere bai Villasanteren erlijiotasun eta bai beraren euskara era-biltzeko erakusgarri ezin hobeagoak (63-64. ork.):

«Ama Sorazuren Jainko-bidean halako antinomia edo kontraesan-suerte bat nabari da, bere bizi guztian zehar berekin ekarriko duen antinomia bat, alegia. Bere aldetik edo bere oldez beti nahiko eta maiteko du Jainko-bide arruntetik ibili eta hortik Jainkoagana joan. Zein da berarentzat bide hori? Jainkoak eta Eliza Amak fededun orori Kristau Dotrina eta Liturgiaren bidez irakasten diona. Beste bideak, hots, desarruntak, ohi ez bezalakoak, pribilegiozkoak, berretzat ez ditu nahi, beldur die.

....

Nola elkarrekin lotu bi hari-mutur hauek, hots, berak nahiko lukeena eta Jainkoak berretzat nahi duena? Kontraesan edo ezin konpondu hau nabari da Sorazuren portaeretan. Lotsa eta higuin da bere barneko sentipen goitiarrak eta hartzan dituen faboreak aitorle edo arimako Zuzendariei azaltzeko. Jadanik dakiguenez, Jainkoaren borondateari muxin eginez egon zen urte luzetan arimako Zuzendarri gabe, eta dena barneko fabore jainkotiar horiek ez agertzeagatik. Are gutiago kontatzen zizkien gauza horiek moja lagunei edo beste inori.»

2.3. Testu horretan jadanik, ederto asko somatzen da, nire ustez, Villasanteren izakera eta hala pentsatzeko nola sentitzeko manera. Sorazuri buruz ari da, baina ez dago zalantzak bere buruaz ere badabilela, bera ondo ezagutu zuten guztiak, beraren ondoan bizi izan zirelako, edo beraren ondoan lan egin zutelako, bat datozerako zalantzak bat ere gabe, apaltasuna, herriko jende xehearen moldeen zaletasuna, eta oroz lehen xalotasuna zirela beraren munduan izateko modu nagusiak, bertute hitza handiosoegitzat jotzeko prest bagaude bederen. «*Bihotz garbikoa zen, eta umetzaroko errugabetasun hura bere hartantxe gor-detzen zuen*» dio bere hogeita hamar urteko lagun eta ordenakide Jose Luis Zurutuzak. Laburtu beharrean egonen bagina halandaze, esanen nuke ez zela oso urrunten Asisko Frantziskok proposaturiko eredutik, aipatu ditugunei pobrezia gehitzen badiagu, bai dirua erabiltzeko orduan, bai jateko moduan, beti ere eta edonon bere frantziskotar abituarekin jantzia, eta Zurutuzak ere dioen bezala, bere gelan liburuetatik aparte ezer gutxi hornidura gisa. Ordenan ere ez zuen inoiz kargurik izan, eta argi derragun, ezin zitekeen beraren gaitasunik ezagatik

izan, Euskaltzaindian buru egin zuen hamazortzi urtean nabarmen utzi zuen legez. Antza, adiurre bizikoa ere bazen, eztanda ere egiten zuena, baina behingoa itzultzen ei zena bere senera. Euskaltzaindian behar zenean ez laño, baizik eta larderiatsu ere bazekiela izaten badakite hura ezagutu zutenek, baina era berean une horiek laburak zirela, eta inoiz ere ez sentimendu gaitztoen iturburu. Aita Zurutuzari ostera ere hitza emanda, honela zirriborratzen du aita Villasante:

«Giza izaeran apal ikusten genuen, hainbeste sari, titulu eta omenaldik harrobiderik ematen ez ziotela –Eusko Jaurlaritzaren saria Lan Onari, Eusko Ikaskuntzaren Humanitate eta Giza Zientziena, Erakunde honen kide izendatua, Bizkaiko Aldundiaren omenaldia...». Engainurik gabeko xalotasunez jantzia agertzen zen, denentzat irekia, Euskaltzaindiaren unerik gogorrenetan ere (heriotza-mehatxua bidali zioten behin!) bere barrua behartu gabe aurrekoarengana hurrezten zekiena. Hain zuzen ere, hortxe zuen bere «armarik» onena oztoporik zailenak gainditu eta atea irekitzeko. Bere apaltasunean gizon nolabait ausarta zen, ordea: hala erakutsi zuen soldaduskan, beretzat eta fraide lagunentzat lantoki ego-kiak lortuz; behar zenean, edonora joateko prest egonez; Euskaltzaindian nola sartu aurkitu zuenean (1951), euskaltzainburu gisa (1970-1988) aukalarri sutsuenak bakebidera ekarri eta bereganatzean...»

Ondo entzun duzue, *«bere barrua behartu gabe aurrekoarengana hurrezten zekiena»*. Ba ote dagoke hori baino laudorio eta alabantza ederragorik? Nekez. Oraindik orain ondo gomutatzen dut niri behin gertaturikoa, euskal hizkuntzalarien artean nengoan baten. Zergatik ez dakidala, aita Villasanteren «la oración causal» edo «Sintaxis de la oración simple» aipatu ziren, bai eta berak esandako zerbaiti Mitxelenak egindako iruzkin kritiko bat, liburuan bertan «Mitxelena apostilla...» formularekin hasten ziren oharretako baten agertua. Eta bat-batean gure arteko batek esan zuen: «Villasante edo ergela da, edo oso frantziskotarra. Mitxelenaren iruzkinak ematen dizkigu beti, bai eta beraren ideien kontrakoak badira ere. Fraide katoliko txotxolo hauek...». Ez dakit egia esan, berbok horiexek izan ote ziren, baina antzekoak bai, eta esandakoaren izpiritua horixe zen, zalantzak gabe. Horra hor diferentzia, harroxko agian bere garunari eragiteko oso trebea den baten eta izpiritu handi eta eskuzabal baten artekoa, hau ere intelligentzia ez gutxikoa. Amaitzeko, ekar ditzadan Edorta Jiménez-ek 2001eko urtarilean *Pérgola* aldizkarian argitaraturiko artikuluan, «Euskara batuaren emagina hil da», aipatzen dituen aita Villasanteren zantzu eder bi, gizonaren handiarenean erakusgarri gisa:

- «Villasantek euskara batuarenak Pernandoren egiak balira moduan azaltzen zituen. Edonork ikusi eta bideratu ahalko zituzkeenak balira legez».
- Esan liteke «Villasantek herriak egin zezan eskatzen zion sakrifizio modura hartu zuela Euskaltzainburu ihardutea...Ikasgai ederra, karguei zelan itzi ez dakien hainbeste ikusten dugun aroan».

Izan ere, bizitza eredugarria benetan. Izan ere, gaur egungo gure gizarte kanpolarrosa honetan, gaur egungo gizarte agertuzale eta ezerezaren aldeko ho-

netan, Pastor Izuelak esan zuen bezala «hil da karidadea, bizi da mengantza» lema nagusi darabilen gizarte erkin hotetan, egiaz jarraitzeko guraria sortarazten duen nortasuna da Aita Luis Villasanterena. Horrexegatik, urrats bat aurrera eginda eta bere nortasunaren ezaugarririk behinena eskuartean harturik, xalotasuna, ezaugarri horren laudorioa egin gurako nuke, ez ordea Luis Villasanteren ohorean William Butler Yeats poeta irlandarraren «When You Are Old» olerkia irakurri gabe, euskaraz «Zaharra zarenean» bezala itzuli dudana:

When You are old

When you are old and grey and full of sleep,
And nodding by the fire, take down this book,
And slowly read, and dream of the soft look
Your eyes had once, and of their shadows deep.

How many loved your moments of glad grace,
And loved your beauty with love false or true,
But one man loved the pilgrim soul in you,
And loved the sorrows of your changing face;

And bending down beside the glowing bars,
Murmur, a little sadly, how Love fled
And paced upon de mountains overhead
And hid his face amid a crowd of stars.

Zaharra zarenean

Zaharra zarenean, urdin zure ilea eta loguraz beterik,
sutondoan makurtuz, har ezazu liburu hau,
eta irakur astiro, eta begirada bigunaz egizu amets,
zure begiek behin zutena, eta beraien itzalen ilunaz;

hainbatek zituen maite zure grazia alaiaren uneak,
eta zure edertasuna amodio faltsu edo egiazkoaz,
baina gizon batek maite zituen zugan arima erromesa,
eta zure aurpegi aldakorraren minak;

eta beherantz kulunkatuz suburdina gorien alboan,
murmurika ezazu, apur bat histo, nola Amodioa itzuri zen
eta urrats egin zuen mendi-gailurretaran
eta bere aurpegia ostendu zuen izar-multzo baten erdian.

3. Xalotasunaren laudorioa

3.0. Hain da ezaguna esaera, ezen erromatarrek jadanik ere bazeukatela horretarako formula egokia: **nihil novum sub sole**. Nik ere horrekin egin nuen topo –ezer beririk ez dagoela eguzkipean– Aita Villasanteren nortasun eta bitzitzaz aztertuta, xalotasunaren laudorioa egin behar nuela erabakitzean, bene-

tan uste dudalako horretan zetzala gernikar fraidearen handitasuna, eta halaber sinetsita nagoelako, xalotasuna dela gizakiaren ontasuna, eta saindutasuna bera ere, erdiesteko gako ezin itzurizkoa. Eta koinatua dudan Jazinto Agirren iradokimenez eta laguntzaz, 1884an Alemaniako Sarre eskualdeko Risenthal deritzon herrian sortu zen, eta Münsterko unibertsitatean irakaslea zelarik, 1940an hiri horretan hil zen Peter Wust filosofoaren berri izan nuen, eta orobat berak idatzitako liburu eder eta interesgarri batena: «Naivität und Pietät», alegia, «Xalotasuna eta errukia».

Liburu horretan, bere bilaketaren mugarri bi aipatzen ditu, berak dioenez, xalotasuna eta errukiari buruz gogoeta egitean sustagarri funsezkoak izan zituen bi metafisikalariren aipu bana hain zuzen, Augustin Hiponakoarena bata, gure tradizioko Jaun Done Augustinarena, Hiponako apezpikua, eta Johan Gottlieb Fichte filosofo alemanarena bestea. Lehenengoak honela esan zuen latinez:

«Fecisti nos ad Te, Deus, et inquietum est cor nostrum, donec requiescat in Te» (Zure irudira egin gintuzun, oi Jainkoa, eta gure bihotza artega dago Zugan atsedan hartu arte).

Alemanak, aldiz, honela zioen euskarara itzulia:

«Handiusteaz hasi ginen filosofatzen, eta gure inozotasuna galdu genuen; geure biluztasuna ezagutu genuen orduan, eta ordurik geure burua salbatzeko beharrak eraginda filosofatzen dugu»

[«*Wir fingen an zu philosophieren aus Übermut und wir brachten uns dadurch um unsere Unschuld; wir erkannten unsere Nacktheit, und seitdem philosophieren wir aus Not für unsere Erlösung* »]

Eta zer da xalotasuna Wust-entzat? Nork bere izaerarekiko duen fideltasuna, harmonia eta maitasuna. Izan ere, maila bi desberdintzen ditu filosofo alemanak xalotasunean, lehen xalotasuna eta bigarren xalotasuna. Lehenengo berezkoa dugun «arimaren bake-egoera» da, «seelische Ruhelage» dio Wust-ek alemanez, gure naturaz datorkiguna, kontzientziak ematen digun askatasunarekin batera heldu zaiguna. Bigarrena aldiz, heldutasun intelektualak ematen diguna da, lehen xalotasunaren erauzketaren ondoren, jakintsuaren bideak erabilita, bizitzan eta esperientzian zehar egindako burukaz geroztik lortzen den arimaren azken bake-egoera, ahalegin eta joranez lortua, zeren, Bibliako pasarte eder hora aipatuz, Wust-ek seinalatzen duen legez, haurrak bezala ez bazarete bihurtzen, zeruetako erresuman sartuko ez baitzarete. Errukia, aldiz, xalotasunaren ondotxoan kokatzen du Wust-ek, elementu osagarri moduan.

Horra hor bada, Luis Villasante Kortabitarte gizakia kokatzeko testuingurua, ororen gaietik gizon xaloa izan zelako aita Villasante, xalo eta errukiorra, jakintsuaren bizitza egiten jakin zuena, zaratarik gabe, espanturik gabe, harrokeriarik gabe, isiltasun eta apaltasunez, eta Wust-ek ere ondo dioen moduan, benetako jakintsuen modura tragikotasunik gabe eta optimismoz betea, haurrena bezalako errugabetasunez hornitua.

3.1. Gizakiak bere askatasunean mutur biren artean ibili beharra du, naturaren finkotasunaren eta Jainkoaren mugimendu orekatuaren artean, kontzientziak ematen dion askatasunarekin ibili ere. Gizakia ez dago bere baitan itxia, jaiotzez geroztik kontzientziaz bizi da eta ezagutzaz aurrera egiten, heriotza delarik beraren bizimodu horren aldatzaile nagusia. Gizakiaren bizitzak, hain zuzen ere, arriskua dakar berarekin, zeren bizitzaren, filosofiaren eta erlijioaren azkenengo oinarriak ezin azter baitaitezke zehatzasun osoz. Horra hor, bada, xalotasunaren eta errukiaren tokia, gizakiarengan bakarrik agertzen direnak, natura, gauzen, landareen eta animalien mundua berez itsua delako eta halandaze kontzientziarik gabea, hots, askatasunik gabea.

Xalotasuna fidelitasunarekin ere doa loturik. Lehen xalotasunaren jabea, haurra, fidela da eta barrituk harmonikoa, h.d., harmoniaz betea, erran nahi baita, egiatia eta munduarekiko duen lotura ostentzen ez duena, optimismoz betea. Ez da ustekabe hutsa gizateriaren historiako gizaki handiak hala izatea, baikor eta xumeak, salbuespenak salbuespen izan diren bezala. Maltzurtasuna da, izan ere, jarrera honen kontrakoa. Horregatik Villasante bezalakoak, edo eta historiaren izpiritu handiak, erotzat jo izan dira beti, eta inozotzat.

Baina badago joera horrekin esperientzia eta zuhurtzia ere lotzeko aukeera, eta horri deritzo Wust-ek bigarren xalotasuna, alegia, lehen xalotasunari jakinuria gehituz geroztik sortzen zaiguna. Ez dut uste oso erratuta nabilenik, beraz, baldin eta badiot bigarren xalotasun horren bidez zuzendu zuela Aita Villasantek Euskaltzaindia, gure erakundearen zuzendaritzan eman zituen hamazortzi urte latz horietan: errukiz beteriko xalotasunaz. Zeren errukiak esangura bi baitauzka, maitasuna eta mirespena, maitasunaz bestearengana hurbiltzen baikara alde batetik, eta miresten dugularik bestetik, berarengandik urrentzen. Gure barruan bertan ere agertzen da errukia: gu geu garena ontzat jotzen dunganean apaltasunez. Errukia desagertzen da, ostera, adimen hotz eta harroa eta gizakiaren amodiorako joeraren arteko harmonia apurtzen denean. Errukirik gabe, hain zuzen, bere sustraiak galtzen ditu gizakiak, isolatu egiten da.

3.2. Hizkuntzalaritza modernoaren sorreratik jadanik hainbat planteamendu zelanbait dilematikoa agertzen da, esate baterako, XX. Mendearen hasieran Saussure-k postulaturiko pareak, dela adierazpen-adierazia bikotea, edo hizkuntza-hizkera bikotea, azken hau gaur egungo linguistikan, gramatika-hizkuntza formapean agertzen dena. Era horretan, argia ikusiz joan gara hizkuntzaren mundu konplexu horretan, eta gauzak espero dugun bezala aitzinarentzen badira, garunaren egituraren aurkikundean ere aurreramenduak lortzea espero izatekoa da. Horregatik zioen Chomsky-k duela hogeita hamar urte baino gehiago, hizkuntzalaritza psikologiaren adar bat dela. Hizkuntza, edo zehatzago berba egiteko, gramatikak gizakiaren izaeran daukan garrantzia kon-tutan hartuta halandaze, ez da harritzeko antzeko kontrakar eta pareak aurkitzea naturaren beste alderdietan. Halako motor dialektiko gisako bat irudika daiteke guzti honetan, elkarren kontra daudela ematen duten kontzeptuak

elkarrekiko implikazioaz errazago igar daitezkeelako, naturari buruz proposa daitezkeen banaketa guztiak kontrolagarriak izanen badira, adar bikoak izan behar baitute, inoiz ez hori baino gehiagokoak. Era horretan planteatzen diren arazo eta korapiloak orduan, alderdi biak kontutan hartuta bakarrik jarriko dira askatzeko puntuari, ez ordea bata edo bestea ezabatuta.

Luis Villasanteren bizitza ikuspegি honeitatik, hizkuntzaren arazoen sus-traietkin kezkaturiko intelektual baten bizitza izan da, eta kezka horrekin lotuta G. Marcel-ek «misterio» terminoarekin definitzen zuena, h.d., ez sekretua dena, ezpere sakona eta ezagutzeko zaila dena. Bera ez zen hizkuntzaren bizi-tzaz kanpotik arduratu, euskara mirespenez aztertzena eterri diren hainbeste euskalari atzerritarren antzera, ez zen ikusle bat izan, ezpada lehen lerroko jo-kalaria eta gudalburua, euskararen bizitzari eusteko esperantza agortezinaz hornitua. Horra hor beraren gatazkaren zentzua euskara batuaren sorkuntzan eta garapenean.

Urdaibaiko ingurualde eder eta bere garaian zelanbait oraindinoko kutsa-tugabeen jaio zelarik, guztiz aberatsa zen amarengandik jaso zuen jaraunspe-na, aitarengandik hartutakoa guztiz bestelakoa izan arren, inoiz ere zalantzatan jarri ez zuena. Xalotasunaz hartu zuen eman zitzaina, era naturalean, eta landuz segitu zuen bizitza agortu zitzaison arte. Hor ikus dezakegu katenbegiaren metafora ostera ere gauzatua, xalotasunaz eta harrokeriarik gabe jaso baitzuen Bizkaiko euskaldunon altxor linguistikoa, eta apaltasun osoan landu hil arteko ekintza etengabean. Katenbegia ez baitu munduareniko lotura bes-terik adierazten, eta mundu hori ezagutuko dugulako konfidantza. Era horretan hasierako xalotasuna behatzarra izan beharrean, eragozpen eta traba bihurtu beharrean, ez da ulertzapenaren bermea baizik. Xalotasun hori hauzkaiztasuntzat jo daiteke beraz, zabaltasun eta araztasuntzat, inozotasun eta irekitasuntzat, fidelitasuna azken batean.

Era horretan hizkuntza bien arteko talka, Euskal Herriko gatazka linguis-tikoa gaztelaniarekin Hegoaldean, eta lehenago gaskoinarekin, baina orain fran-tsosarekin Iparraldean, gogoetatzearren bidez berkokatzen dugu, eta Txepetxek dioen legez gure etorkizunaren habe bihurtzen. Testuinguru horretan uler dai-teke bakarrik Aita Villasanteren jarrera euskara batuaren aldeko ekintzetan. Ez dago ezer asmaturik, ez dago espekulazio antzurik, bere lehen xalotasunaz gure aurrekoek eman zigutena miretsi izan du, eta errukiaz erabili. Errukia ez da gi-zon apal baten eskertzeko jarrera baizik, bera baino sakratuagoa dena eta do-hainik eman zaiona ohoratzeko. Gorago genioen legez, maitasunaz hurbiltzen da, eta mirespenaz, ostera, urrunten. Horrexegatik, esandako guztiaren labur-pen gisa, zer ederragorik Kostandinos Kavafis poeta greziar handiaren *Ther-mopylak* poema baino, Olga Omatosekin batera grekotik itzulia:

*Ohorea bizitzean
beren Thermopylak mugatu dituzten eta gordetzen dituztenei.
Inoiz ere betebeharrari itzuri gabe;*

*zuzen eta artez beren ekintza guztietan,
baina errukiz eta bihotz onaz ere;
eskuzabal aberats badira, eta
pobre direlarik ostera ere apur bat eskuzabal,
ahal duten guzia lagunduz;
beti egia erranez,
baina aiherrrik gabe gezur egiten dutenentzat.*

*Eta ohore handiagoa dute merezi
igartzen diotenean (eta askok diote igartzen)
Ephialtes agertuko dela azkenean,
eta medoek akabantzan garaituko dutela.*

3.3. Esandakoak entzun eta gero, agian norbaitek pentsa dezake irrazionaltasunaren aldeko jauginean jausi naizela, eta ez da hala. Arrazoien eragin bezalakoak ez dira gutxi, ezkada gure azken mende biotako aurreramen du guzti funtsa, hala zientzietan, nola gizakien eskubideetan. Horrek ordea ez du ezabatzen gizaki kontziente eta librearen askatasuna, ez du agortzen gizakiaren barruan dagoen larritasuna, nire aburuz ez baita ezelan ere egia hor kanpoan deseginez joan garen naturaren objektu horiek bezalakoak garenik, ez baita nire gardiz inolaz ere ontzat jotzekoa giza-arima kanpoan agertzen diren elementuekin bukatzen denik, azken batean geure buruaz berba egiteko eta gozoa egiteko aukera ematen digun hizkuntza ez baita alferrik sortu, geure burua iraganean, orainean eta geroan kokatzeko ahalmena ematen digun pentsamenduaren euskarri den hizkuntza ez baita debalde, edozein dela hori gertatu den modua, gure espeziean bakarrik gertatu.

Aurrera bizi behar dugu, geure arbasoek eman ziguten hizkuntzaz pentsatzen segi, eta apaltasun osoz geure ondorengoei eman hiaeik utzi zigutena, nahi beste landu eta erabilia, geure bizitza egiteko behar den beste, baina beti ere esperantzaz eta fidelitasunez. Bizi, hori da gure naturaren agindua, baina Miquel Martí i Pol olerkari katalanak bere poema «La vida» dioen legez, beti ere eta etengabe arriskatuz:

La vida

*Res no em distreu i m'afeixuga tot.
Potser mai un dolor tan persistent
no m'havia colpit.
I Què puc fer?*

*No espero cap prodigi,
cap canvi inesperat i sorprendent.
Del pou se'n surt fent-se malbé les mans
i potser els sentiments.*

Només vivint,

*amb tot el risc i tota l'esperança,
reconduïm la vida.*

Azkenengo lerroak horrela diote: «putzutik ateratzen gara eskuetan min hartuz, eta agian sentimenduetan. Bizitzearen bizitzeaz bakarrik, arrisku eta esperantza guztiarekin, bideratzen dugu bizitza». Argiago eta ederrago, ezin.

Baina bizi geure neurrian, xalotasuna zuhurtziaz erabiliz, eta ez harro- eta maltzurkeriaz, Kavafis-ek irakurritako poeman dioen bezala, eskuzabalak izanik, egia beti erranez eta gorrotorik gabe gezur egiten dutenentzat. Bada ordua geure barruan begira dezagun, eta kanpolarrosak izan gabe, ezpada errukior eta harrokeriarik gabe heriotzaraino bizi gaitezen, geure ahaleginez jakintsuago bihurtuz, eta segurtasunarekin apal- eta xalotasunean dugula mundu erkin honetan bizi garen bitartean zoriontasunaren itxaropen bakarra.

Bibliografia:

- LUIS VILLASANTE. 1988. *Euskararen auziaz*. Arantzazu, Oñati: EFA. «Luis Eleizalde» sailaren 9. Liburukia.
- . 1990. *Ángeles Sorazu. Mezua eta bizia*. Donostia: Erein. Saiopaperak.
- PETER WUST. 1925. *Naivität und Pietät*. Tübingen. J.B.C. Mohr.

BILBOTIK SANTURTZIRA

Andolin Eguzkitza euskaltzainaren sarrera-hitzaldiaren erantzua

Santurtzi, 2002-II-23

Xabier Kintana Urtiaga

Santurtzi Herriko alkate jauna eta alderdi politikoen ordezkari zareten zindegia jaun-andreok, Eusko Jaurlaritzako kontseilariok, itsas herri honetako hiritarrok, Euskaltzainok eta hona etorri zareten lagunok: eskerrik asko egin diguzuen harrera bikainagatik, ohore eta agur guztioi.

Sr. Alcalde y señores y señoritas concejales de Santurtzi, representantes de los partidos políticos, consejeros del Gobierno Vasco, ciudadanos de este pueblo marinero, sras. y sres. académicos y amigos todos aquí presentes: muchísimas gracias por la excelente acogida que nos habéis dispensado, mis respetos y un saludo cordial para todos.

Gure Akademiaren ohiturari zintzoki jarraituz, Andolin Eguzkitza euskaltzain berriaren sarrera-hitzaldi bikainaren erantzua euskaraz egingo du dan arren, garen tokiko egoera soziolinguistikoa kontuan harturik eta bertoko gogozko euskaldun erdaldunek merezi diguten errespetuagatik ere, zilegi izan bekit, hasiera-amaieretan bederen, erdaraz ere hitz labur batzuk esatea.

Todos conocemos esa bonita canción que tanto ha popularizado, dentro y fuera de Euskal Herria, el nombre de este concejo, uno de los siete del valle encartado de Somorrostro. Me estoy refiriendo, naturalmente, a *Desde Santurce a Bilbao*, cuya melodía y letra nos son entrañablemente familiares desde la niñez. Por otra parte, es justo confesar, que gracias a ella la mayoría de los vizcainos tuvimos ocasión de aprender, casi sin darnos cuenta, nuestras primeras palabras vascas: *Sardina freskue*, testimonio inconsciente, por otra parte, de la lengua, que todavía no hace mucho, era la habitual de los habitantes del puerto de Santurtzi.

Hoy, Euskaltzaindia, La Real Academia de la Lengua Vasca, ha querido realizar el trayecto inverso, viniendo Desde Bilbao a Santurtzi, *Bilbotik Santurtzira*. Y como sería ilógico y totalmente absurdo tratar de vender sardinas

a quienes han tenido y aún mantienen una excelente tradición de pescadores, que se evidencia en sus magníficos restaurantes, Euskaltzaindia os ha traído en su cesta algo distinto, un producto que sabemos que os es muy querido: *Euskara freskue*.

Está claro, que, después de más de veinte años de singladura autonómica, el euskara no es tan desconocido en el Santurtzi actual. Gracias a ello, ha desaparecido aquella sensación que muchos ciudadanos tenían durante el franquismo, impresión muy real, de sentirse privados de algo que, aunque no lo habían poseído nunca, era también patrimonio suyo, ya que sentían que la administración centralista les estaba robando una parte esencial de la herencia histórica y cultural de su propio pueblo. Afortunadamente no todos se resignaron. De hecho, son muchos los santurtziarras que, gracias a su esfuerzo, al empeño y sacrificio de sus familiares, a la labor realizada por las ikastolas, las escuelas públicas y privadas actuales y los euskaltegis, conocen y hablan perfectamente el idioma originario y más antiguo de nuestro país, y también de toda Europa. Y buena prueba de su excelente nivel de conocimientos es, precisamente, el hecho que hoy conmemoramos: la entrada en Euskaltzaindia de un hijo de Santurtzi, de Andolin Eguzkitza, euskaldun berria, representante y símbolo de la recuperación del euskara en la margen izquierda de nuestra Ría, y primer académico de las Encartaciones, que pasa a ocupar la vacante dejada por el académico Luis Villasante, a causa de su su fallecimiento.

Lehenago esan dudan bezala, gaur Bilbotik Santurtzira etorri gara euskaltzainok. Hona ekarri gaituen itsasontziak, gainera, *Euskal Herria* izena dauka. Sinbolo polita eta esanguratsua, nik uste, hona Euskal Herri osoko akademikoak etorri garelako: Arabarrak, Bizkaikoak, Gipuzkoarrak, Lapurdikoak, Nafarroa bietakoak eta, hobe ez, Zuberotarrak ere bai. Esan liteke, beraz, geure herriko toki guztiako enbaxadoreak bildu garela gaur hemen, Eguzkitza adiskideari berak ongi merezi duen omenaldi hau eskaintzeko.

Niri dagokidanez, ordea, aitortu behar dut ez dela oraingoa izan Ibaizabalen zehar txango eder hau egin dudan lehen aldia. Gure aitita Luis Urtiagak, gaitzizez Revertek, Bilboko itsasadarrean lan egiten zuen, haren seme Luisek eta Karmelok bezala, merkatalontzi handiak eta gabarrak atoian garratzen. Hori dela eta, gure txikitán, Karmelgo ama birjinaren egunean familia osoa bere atoiontzian sartu eta honainoko ibilaldia egiten genuen, baina egia esan, ordutik hona ia berrogeita hamar urte igaro ditut ibaibide polit hau egin barik. Horregatik gaurkoak haurtzaroko itsas eta santurtziar gogorapen pozgarri eta ahantzi xamar haiet erakarri dizkit gogora.

Eta portuan itsasotik lehorrera salto egin dugunez gero, ez nituzke aipatzeko utzi nahi inguru honetako nekazariak, holakoak ez baitira falta Enkarterri aldean ere. Normala bezain bidezkoa izaten da lurra lantzen duenak bere ahaleginetik fruitu eta upta ona lortu nahi izatea. Horregatik, gure baserritarrek, ezer egiten hasi baino lehen, lurra ondo goldatu, gero, mokilak hauste-

ko, narra pasa, ondoren hazi ona erein eta azkenik alorra zenbait aldiz ondo jorratzen dute. Hori bazekien Bernard Etxeparek ere, gure lehen idazle ezagunak, orain dela laurehun eta berrogeita hamar urte inguru bere poema-liburu honako hau idatzi zigunean: «*Ogirik ez dakusat biltzen, hazi erein gaberrik. Nork zer hazi erein, biltzen dizi komunki.*»

Baina egia hori baserritarrek ez eze, arrantzaleek ere ondo baino hobeto jakin dute aspaldian, Santurtzi alde honetan behintzat. Horrexegatik, sardina-baltsak Ibaizabalen bokalean, Abrara sartzen zirenean, bertan hazten zituzten, arrainei bakailao-arrabak edo arrautzak jaten emanez, «masis», deitzen zenarekin alegia, hor egon eta gizendu zitezen. Ondoren, handik aste batzuk geroago, lodi-lodi eta ondo koipetsu zeudenean, beren puntuau alegia, sareekin harrapatzen zituzten. Horiexek omen ziren, ene osaba marinelen arabera behintzat, Santurtziko sardinak, hau da, kantak gogoratzen dizkigun «*sardinas, las de Santurce*» famatu horiek, eta ez itsasotik zuzenik arrantzatu ohi direnak, berton apropos beitzaz ederki potolotuak baino. Jakin dudanez, sistima bera omen darabilte orain japoniarrek ere arrain ederrak eskuratzeko, baina halere, segur naiz ez dutela bertoko sardina mitiko haien bezalakorik inoiz lortuko.

Eraman dezadan baina, mailua iltzera. Pasadizoak alde batera utzi eta natorren beraz gaurko mamira. Badakit konparazio guztiak aldean daramaten desegokitasun puntuak aski nabarmen ageri dela hemen, neronek sinbolikoki «uzta» deitu dudana ez baita, kasu honetan, jateko zerbait, itsasoko sardinak edo baserriko ekoizkinak bezala, euskal gizarte osoaren onerako emaitza kulturalak baizik. Halere, ez genuke ahantzi behar aspaldian esan zitzraigula gizakiok ez garela ogi hutsez elikatzen, eta gure izpiritua ere bere bazka behar izaten duela. Beraz, mundu osoan bezala, gure Euskal Herrian ere, jakintza eta kultura txikitandik jorratu beharreko arloak dira, nagusitan hortik atera nahi diren ondorioak lortuko baditugu behintzat.

Eta txikitau hasi zen etengabeko lantze horren fruitua da, hain zuzen, Andolin Eguzkitza, Santurtziko semea, etxetik hasita, eskola onean hazia, eskola-programetako ohiko irakasgaiez gainera, bere herriaganako maitasuna ere irakatsi zioten maisu zintzoei esker. Orain Unibertsitateko irakasle elebiduna dugu, idazlea, eta, batez ere, bera ezagutzen duzuen guztiok nik bezain ongi dakizunetan, pertsona zintzo, apal eta maitagarria, prestu eta bakezalea, inon bakezalerik bada. Baino euskarazko eta kalitatezko irakaskuntzaren aldekoa eta horren praktikatzaile zintzoa delako, badirudi baten batek Bin Laden balitz bezala aurkeztea nahiago lukeela. Eta hau diot pertsona aski ezagun batek oraintsu egin dituen adierazpen tamalgarriengatik, euskara eta terrorismoa sinonimotzat emanez, ikastoletan, eskola publikoetan eta oro har, irakaskuntza elebidunean, gure hizkuntzaren eta kulturaren alde lanean dihardutenen lan ixil eta bikaina zikindu eta difamatzezko asmo zitalaz. Ene ustez, jaun horrek duen goi karguagatik diplomazia zer den hobeki jakin eta ahoa sarriago ixten ikasi

beharko luke, euskaldunon kontra gustu txarreko eta gizabide txarragoko ge-zur-irainak lau haizeetara barreiatzen ibili barik.

Gure azken euskaltzaina euskaldun berria dela esan dut, euskara galdua zegoen tokion sortua, baina ez da, lehentxeago iradoki dizuedanez, neguan us-tekabez sorturiko perretxiko bakartia, aurretik ongi zainduriko eta maiz jorraturiko baratzeko ondorioa baizik.

Umearen zentzuna etxearen entzuna diosku Bizkaiko esaera zaharrak, eta egia da. Andolinek etxearen bertan jaso zituen euskaltzaletasunaren lehen irakaspeneak. Gurasoak, Antolin Eguzkitza, Lamiakokoa, eta Celsa Bilbao, Portugalekoa, euskaraz ez zekiten arren, abertzale zintzoak ziren, euskaldun patriota garbiak alegia, eta bertoko balioak estimatzen irakatsi zieten beren sei seme-alabei: Nekane, Edurne, Keltse, Andolin, Josu eta Iñakiri. Eta bada garaia, hitz bakoitzarri bere esangura propio eta egokia emanet, *abertzalesun* hitzaren adierazle-adieraziak inolako konplexurik gabe berreskura ditzagun. Izan ere, patriotismoa, –horixe besterik ez baita euskaraz *abertzalesuna*–, hau da, nork bere herria eta jendea maitatzea, hemen eta mundu guztian, persona prestu guztientzat ohorea izaten da, norberarena mespreziatu edo gorrotatzen den bitartean, inorena neurrigabeki idolatratzea psikiatrari maizago bisita egin beharko lioketenen arazoa izaten den bezala, ea buru-gorroto eta menpekotasun-konplexua sendatzera laguntzen dien.

Baina Andolinen gurasoak, nolabait esan, euskaldun abertzale aurrekonsstituzionalak izan ziren, zorionez, eta pentsatzen eta sentitzen zutenarekin bat etorri, euskaltzaletasunaren hazia erein zuten beren ondorengoen gogo-bihotzetan. Euskal sentimendu horiek berek bultzatuko zituzten geroago Santurtziko lehen ikastola sortzera ere. Bereziki gogoratzeko da, gainera, hori guztiori noiz eta gerra galduaren ondoan eta non eta Santurtziko giro erdaldunduan egiten jakin zutela, garaiko debeku eta eragozpen guztiak gora behera.

Dakizunet, Andolinen aita-amak ez dira jada gure artean, duela gutxi zendoak izanik. Ilusioa egingo zien, zer esanik ez, beren seme nagusia euskaltzain ikustea. Halere, kristau fededun zintzoak ziren aldetik, segur naiz egun honetan gurekin batera, hortik goitik, betiereko bakeaz inguraturik, irribarrez eta pozik dakusatela Euskaltzaindiak eta Santurtziko herriak gaur beren seme Andolini egiten dioten harrera ona.

Ez genituen, jakina, Antolin eta Celsa bertoko euskaltzale bakarrak, al-damenean beste familia asko ere halakoxeak ziren eta. Horien artean, gainera, letragizon batzuk ere baziren, Genaro Urtiaga idazle eta poeta euskaltzalea edota Joan Anjel Etxebarria idazle eta greko-latindar klasikoen itzultzalea, euskaltzain urgazlea ere izandakoa, adibidez. Horiek guztiok, zeinek bere biztaren lekukotasunarekin, lagundu egin diete Andolini eta bera bezalako askori euskal bidea aurkitzen, gure inguruau erdal itzalak nagusi ziren garai zailean. Eta bidezkoa da haietako zor hori aitortu eta eskertzea, Andolinek berak ere ederki egin duenez.

Santurtzitik Bilbora joan zen ikastera, aita eskolapioen ikastetxera. Hantxe ezagutu zuen Justo Mari Mokoroa tolosarra, frantsesa ongi irakasteaz gainera, bere *Genio y Lengua* liburu argigarria eskuratu ziona. Beste irakasle euskaltzale batzuk ere izan zituen ikastetxean: Orkoien, Ortigosa edo Valencia eskolapioak edo Javier Eizagirre irakaslea, bere euskal kontzentzian eragin ez txikia utzi dioteneak.

Gero Deustuko Unibertsitatera joan zen, Hizkuntzalaritza Erromanikoa egitera, ez baitzen oraindik Euskal Filologiarik gure artean. Garai hartan ezagutu nuen nik Andolin, unibertsitate giroan, geure herriaren egoera ilunaz kezkaturik geunden ikasleok, euskara eta euskal jarduerak bultzatzeko, antolatu genuen Euskal Kultur Mintegian, zeinen idazkaria Isabel Lertxundi izan zen, zoritzarrez, auto-istripuan gazterik hila. Gure aldamenean, Alfonso Irigoien, Karmele Rotaetxe eta Gregorio Monreal irakasle euskaltzaleak izan genituen, beti ere laguntzeko prest, geroago Patxi Altuna eta Gotzon Garate ere izan ziren bezala. Ordukoxea da, beraz, Andolin eta biok elkarrekin lotzen gaituen adiskidetasun luze eta sakona, inoiz ere hautsi gabea.

Ez ziren, ordea, unibertsitatekoak Andolin Eguzkitzak euskal munduarekin izan zituen harreman bakarrak. Hizkuntzaz eta literaturaz kezkaturik, ingurumen horretako jendea ere ezagutu zuen. Bilbon *Anaitasuna* aldizkariaren inguruan ibili zen, Imanol Berriatua zenarekin tratu handia izanez.

Lehenengo eta behin, bizkaiera ikasi zuen Eguzkitzak, eta geroxeago, bertoko euskara behin ere alde batera utzi gabe, literatur eredu batuaren alde azaldu zen. Harrezkero euskara batuan beste euskalki guztietako aberastasunak txertatzentz sailatu da, Bizkaikoak batez ere.

Andolin Eguzkitzak euskara ikasi zuenean, Andima Ibiñagabeitia, Federiko Krutwig eta Gabriel Aresti bizkaitarrekin, Txillardegi gipuzkoarrrekin, Henrike Knörr arabarrarekin, Jon Mirande zuberotarrarekin eta beste askorekin etengabe luzatzen ari zen jada euskaldun berrien katea. Horretara, horien guztien ahalegin pertsonalaren poderioz hautsen zen, ordura arteko abertzale txepel askoren leloa, euskara nahitaez txikitán ikasi behar zelako ipuina, beren alferkeria estaltzeko zerabiltena. Horien etsenpluak inarrosirik, belaunaldi gazteagoak haien urraturiko bideari jarraitzea erabaki zuen, eta gero eta segizio handiagoa izan du.

Gabriel Arestirekin harreman estu eta fruitukorrak izan zituen Andolinek solasaldi, eztabaidea eta bidaia askotan zehar. Bera nolabait lotsaz gorritzeko beldurrez bada ere, ezin dezaket hemen aipatzeko utz, 1970. urtean, urriaren bukaeran Zuberoara hirurok elkarrekin egin genuen ibilaldian gertatua. Euskaltzaindiak bilera zuten han, bide batez Jean Dominique Salaberri kantu biltaile zuberotarrari bere *Chants populaires du Pays Basque* liburuaren lehen mendeurrenean omenaldia egiteko, eta, hortaz, ekitaldi irekia zen. Egun hartan, gainera, Luis Villasantek Euskaltzaindiaren burutza hartzen zuen.

Edonola ere, huraxe izan zen Andolinek Maulera egiten zuen lehenbizi-ko bisita. Bide osoan zehar Gabriel Arestirekin era guztietako euskal gaiak ukitu eta eztabaidatzear gainera, Zuberoara heltzean, Andolinek bileran zeuden euskaltzainekin zein iparraldeko jendeekin euskaraz parra-parra inolako oztoporik gabe jardun zuen. Txikitandik euskaraz zekiten euskaltzain zahar batzuk ordea, haietan, zuberotarrekin bereziki, elkar ezin adituz zebiltzan eta guztiek harriduraz miresten zuten umegorri haren hizkuntz trebetasuna eta maila ona. Eta hori guztiori inolako harrokeria eta hantusterik gabe egiten zuen gure Andolinek, hots, berak hainbeste miresten duen xalotasunaz, hori gauza-rik ohikoena eta normalena balitz bezala.

Aresti bera ere harri eta zur utzi zuen bidaia honetan Bizkaiko mutur honetako gazte hark eta haren omenez artikulu gogoangarría idatzi zuen *Anaitasuna* aldizkariaren hurrengo zenbakian: *Munstro bat, munstro bi*, Euskal Herrian sortzen ari zen belaunaldi berria goresteko. Hura nolabaiteko profezia izateko zen, harrezkero, Andolinen gisako gazte asko sortu baitziren. Eta ororen oinarrian, berriro diot, irakaskuntza, euskarazko irakaskuntza batik-bat, funtsezkoa izan da, Joanes Etxeberri Sarakoak duela hirurehun urte ederki iragartzen zuen bezala (1).

Gure hizkuntza baserri giro apaletik atera, horixe zen Eguzkitzak aurrean zuen beste erronka, hain zuzen, eta ez zen txikiagoa euskara bera ikastea eta batza baino, hots, gure mintzaira bizimodu modernorako egokitua eta kaltetartzea. Ideia hori baina, ez zen hain berria. Lizardik berak ederki adierazia zuen asmo hori bere «oro-mintzo» bertso sonatuan, euskara noranahikoa nahi zuela aldarrikatzean. Halere, handik laster helduko zen gerrak guztiz zapuztu-ko zituen euskaltzaleen asmo onak. Eta frankismoaren azken garairra arte itxaron behar, bide horretan aurrerapausoak egin ahal izateko.

Bere herriarekin ongi sintonizaturik dagoenak sentiberatasun berezia ohi dauka bere ingurumeneko premiez konturatzeko ere. Horregatik, Andolinek

(1) Honela deitoratzen zuen lapurtar idazleak Euskal Herriak pairatzen zuen eskola gabe-ko egoera: «*Eta oraikoek ere [gazteek] balute halako esku-emaille bat, eta bere herrian balitzte eskolak, bertze jendakiek tutzen bezala, eztut dudarik, eman letzaketa bera izpirituko punta-ren frogak. Ordea hunelako laguntha faltaz hanbat adimendu eder, eta gai onak dohakabeki gelditzen dira mendi eta arrokapean ehortziak, eskoletan enplegatuak izateko laguntzarik izan gabez, eta eginbide hautara igaiteko biderik ez izanez*». Gerotxoago era honetako gonbitak egi-ten zizkion euskal gazteriari «...baldin eskoletako harmen bidez nahi baduzue zuen bethiereko omena hedarazi, jakin zazue, zuen eginbidea dela. estudioan behar bezala enplegatzea, egiazko garaitiaren ardiesteko; errekonpentsa berezi bat nahi baduzue ardietsi, letren haziak erain zatzue, zeren estudioko arbolatik bilduko baituzue bethiereko omenaren fruitua. Baldin gutizioz bazarete loriaz aberasteko, eskoletako urre-meatzetan enplega, eta trabailla zaitezte. Baldin desiros bazarete ohorearen zelai eder, eta zabaletan pasaietan ibiltzen, har zazue estudioaren karrosa. Baldin nihor kausitzentz bida zuen artean estimuaren egartsuaz sekeriatua dagonenik, laster egin de-zala eskolako ithurria, handik atherako tu egiazko estimuaren usin hondar gabeak, xirripa, eta hibai usintsuak. Nahi duzue laudorioen portura hedatu? Sar zaitezte autoren untzian, edo fraga-tan...» Joanes Etxeberri Sarakoa, *Lan hautatuak*, Lur editoriala, Donostia, 1972, 174. eta 190-191.

euskara bere eguneroako bizitza pertsonalean ez eze, hiriko eta unibertsitateko giroan ere txertatzeko konpromisoa oso-osoan onartu zuen. Unibertsitateko ikasketak 1975ean, Franco hil baino hilabete lehenago amaitu ondoren, ikasten segitza pentsatu zuen. Ikasketetan lorturiko kalifikazioek aukera ona eman zioten Eguzkitzari kanpoan estudiantzeko bekak lortzeko: Salamankan (1975-76) Koldo Mitxelenarekin, Alemanian Koloniako Hizkuntzalaritzia Institutuan (1976-78). Estatu Batuetan Iowa-ko Unibertsitatean (1980) eta Californiako Unibertsitatean Los Angelesen (1986), bertan bere doktoregoa eginez.

Ikerketa-ikasketak egiteko laguntzak eta sariak ere oso ugariak izan ditu. Hori dela eta, Mitxelena zenak umorez esaten zuen Andolin Guinnessen ego-teko moduko zela, berak behintzat ez baitzuen ezagutzen beste euskaldunik kanpoan ikasteko hainbeste beka lortu zuenik, eta seguraski arrazoia zuen.

Baina ikasle ez eze, irakasle ere luzaz ibili zaigu Andolin. Euskara, gaztelania, ingelesa, linguistika orokorra, dialektologia erromanikoa, semantika eta tipología linguistikoa irakatsi ditu Deustuan, Estatu Batuetan eta Euskal Herriko Unibertsitatean, aldi berean mintegi eta ikastaro ugari emanez.

Mundu zabaletik egindako ikas-ibilaldietan hitzaldi ugari eskaini ditu hizkuntzalaritzaren eta literaturaren gainean euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta alemanez. Era berean anitz artikulu idatzi eta argitaratu dizkigu aldizkari espezializatuetan. Liburuak ere ez ditu falta. Batzuk literatur sorkuntzakoak: *Lehen oreanean* (1978) eta *Herioaren itzalpean* (1998) eleberriak, *Orhiko mendirantz urratsez urrats* (1986), *Urkidian zehar* (1987), *Mila urte igaro eta, ura bere bidean* (1993) poema liburuak eta bere poesiaren antologia euskaraz eta katalanez (2001), eta beste batzuk itzulpenak, mundu zabaleko literatura gureria euskaraz eskaintzeko asmoz, adibidez Konstandinos Kavafis idazle grekoaren poema-antologia bikaina (1995).

Horiez gainera, Juan Tartasen eta Jon Miranderen idazlanen edizioak ere prestatu eta berrargitaratu ditu. Kazetari moduan hainbat artikulu eta liburu-kritika eskaini dizkigu *Anaitasunaren*, *Argian*, *Euskaldunon Egunkarian*, *Jakinen*, *Hegats*, *Maiatz*, *Zehatz* eta beste hainbat agerkaritan. Horrez gainera, Euskal Idazleen Elkartearen lehendakaria eta Eusko Jaurlaritzaren Euskara Aholku-batzordearen kidea izan da aspaldiko bost urteotan.

Bestalde, 1986. urtetik Euskaltzaindiaren gramatika-batzordean lanean jardun du. Hortaz, bere merezimenduengatik, gure Akademiak, 1991.an euskaltzain urgazle izendatu zuen. Geroztik exonomastika eta biblioteka batzordeen kide ere izana da.

Hizkuntzetan ere ez dugu edonor Andolin Eguzkitzan: ongi daki mintzaten gaztelaniaz, euskaraz, alemanez, frantsesez, ingelesez eta katalanez, eta horiez gainera, trebea duguitaliera, portugesa eta latina ere irakurtzen.

Baina tira, aski da, noizbait gelditu beharra dago eta. Ez, ez dut arrerara segitu nahi, behin artikulu, argitalpen, liburu, kargu eta gainerako merezimenduen itsas hondar gabe honetan sartuz gero, ez baitzait erraza gertatuko, zerbait ahantzi gabe hortik hutsik egin gabe salborik irtetea. Uste dut, bestalde, gure Andolinen apaltasuna nahiko gorritu eta ahalketurik dagoela honezkero. Entzule gehienok, gainera, gure euskaltzain berria nik bezain ondo ezagutzen duzue eta, beraz, alferrik bezain aspergarria izango zaizue aurretik dakizkizuenak niri errepikatzen entzun beharra. Esan dezadan, beraz, honekin bukatzeko, eta abar eta abar.

Ikusi dugunez, luzaro ibili zaigu munduan zehar ikasten Andolin Eguzkitza, bere burua jakituriaz eta esperientziaz hornitzen. Hala eta guztiz ere, ez du horregatik galdu bere herriaganako, bere jendeaganako atxikimendua. Euskaltzaletasuna eta abertzetasuna inoiz kampora irten ez direnen txokokeria dela uste dutenek on lukete Andolinen eta bere moduko beste askoren kasu ugariak hobeki konsideratzea. Atzerrian ikusi eta ikasiek beren balio propiak ikuspegi zabalagoz estimatzen irakatsi diete guztiei, eta behin formazio ona lortu ondoren, bertora itzuli dituzte begiak, beren ekarpen intelektualak beren herriari eskaintzeko. Izan ere, antzeko zerbait sentitu eta adierazi zigun Iparragirrek berak ere bere kanta ezagunean: *Herrialde guztieta tokian badi-rra, baina bihotzak dio: zoaz Euskal Herrira!*

Andolinengan, bestalde, argi ikus genezake euskarak eta euskal kulturak normalkuntza bidean azken urteotan lortu duten maila jasoaren islada. Horretarako, adibide gisa, utziko didazue beste pasadizo bat kontatzen, hau oraintsukoagoa, iazko abenduaren 13an Eibarren gertatua. Euskal Idazleen Elkarteak gonbidaturik, Stephen Jay Gould estatubatuari biologo ospetsuak mintzaldi bat egin behar zuen bertako Armagintza Eskolan. Gaia: neodarwinismoari buruzko gogoetak. Hizlariaren maila eta ospea ezaguturik, jende asko bildua zen han bera entzuteko. Mintzaldia ingelessez izango zenez gero, aldi bereko itzultze zerbitzua aurrikusia zuten antolatzailleek, baina azken orduko gaizki ulerdu bategatik –giza faktorea hemen ere!– itzultzalea ez zen agertu, eta arazoa konpontzeko, Andolinek berak, aurkezlea zen aldetik, itzulpena ingelesetik euskarara egiteko eskaini zuen bere burua.

Berbaldi osoan zehar, behin ere hutsik egin eta inolako zalantzak izan gabe, gaia beretzat aski arrotz eta ezohikoa zen arren, bikainki azaldu zigun, Gould jaunaren solasa, terminologia zientifikoa erabateko zehaztasunez errespetatuz. Eta hizlaria bera ere, harriturik, horretaz ongi jabetu zen, ekitaldia amaitzean, berari zuzenduriko txalo zartaren ondoan, mirespenez eta esker onez, beste txalo batzuk eskatu baitzituen Andolinenzat, bere itzultzale-zeregina hain ederki bete zuelako. Ekintza horrek, bat-batean eta ezustean burutuak, ondo ederto erakutsi zigun, batetik, euskararen normalkuntza eta gure hizkuntzaren zientzi hormologagarritasuna, eta bestetik euskara ikasi eta landutako pertsona baten maila, noraino helduak ditugun une honetan. Hori ezinenezkoa izango zen orain dela berrogei urte, eta oraingo lorpen bikain horien

aurrean, pozik egon gaitezke, eta itxaropentsu, euskarak geroan ere ukan dezaileen etorkizunaz.

Horren guztiorren ondorioz, noski, Euskaltzaindiak bere kide egitea erabaki du, Luis Villasante handiak utziriko aulkia betetzeko. Ez da bera Euskaltzaindiaren egon den Eguzkitza bakarra, gure Akademia sortu zenean ere beste bat izan baitzen, alegia, Joan Bautista Eguzkitza Meabe, Lemoako semea. Edonola ere, honetara burutzen da, oraingoz behintzat, Gabriel Arestik duela hogeita hamabi urte, Zuberoarako bidaia ahantzezin hartan Andolinengana jadanik aurrikusi zuena: bidean abiatua zen eta erdal eremutik zetorkeen belaunaldi berriaren goi helburua. Honetan ere, Arestiri aitortu beharko diogu azti bikain eta igarle goiztiarra izateko meritura, Andolin Eguzkitzak euskal alorean izango zuen etorkizuna aurreseeantean, berak, sinbolikoki, Enkarterriko eta, oro har, Euskal Herri guztiko, belaunaldi gazteago eta ugariago osoa irudikatzen digulako, euskaldun berriena batez ere.

Txomin Agirrek bere Garoaren bukaeran idatziriko hitz gogoangarri haienek ekar genitzake hona: «*ez du bat ere axola hegi eta hegala guztiak igitaiaz moztu arren. Sustraia geldituez gero, garoa egon dan tokian herriz ere garoa dator*». Gure ondarrutarrak duela ehun urte zekusan gizartea asko aldatu da. Toki askotan, egia da, oraindik zutik dago, lehen bezala, antzinako euskal eredu hura, geure egunotara moldatua. Beste eskualde batzuetaan, ordea, bertoko enborrari kanpoko txertoak egin dizkiote Gaztelatik, Kantabriatik, Galiziatik, Andaluzia eta Extremaduratik eta azken orduan Afrika, Hego Amerika, Asia zein Europaren ekialdetik helduriko jendeek, nork bere kultur ezauigarri bereziekin gurea aberastu eta osatuz. Egia esan, bere historian zehar Euskal Herriak, iraganbidea izanik, jende askoren pausaleku eta harreratokia izan bada ere, azken bi mende hauetan inoizko jende uholde handiena jaso du, eta horiek guztiok bereganatu eta integratzeko erronka handia daukagu.

Azpian baina, gure herriak lurpean sakon-sakonean sarturik, lehengo euskal erro jator zaharrak bizirik dauzka oraindik, beti iraunkor, gure iragan eta historiarekin lotzen gaituen lurrari ongi atxikiak, eta oraingo belaunaldi berrioi ere beren zukua, bere barruko ura eta izerdi bizikorra ematen segitzen diete, guztiok, bertoko zein kanpokoak, bere azal gainean euskaldun sentiaraziz.

Baina elkar-osatze hori konbentzimenduz, elkar adituz, auzotasun eta anaitasun giro baketsuan egin beharra dago, eta inola ere ez presio, gogokeria, mehatxu eta indarkeriapean, aniztasuna eta giza eskubideak errespetatz, eta ororen gainean, giza bizitza bera bermatuz. Gure herriari bezala, indarkeriazko ekintza itsuek ez diete inolako mesederik egiten euskarari ez eta gure hizkuntzaren Akademiari ere, eta pertsonen kontrako eraso deitoragarriek ere ez, aurretik beste askok bezala, aste honetan Eduardo Madina gazteak bidegabeki jasan behar izan duenaren antzekoek, eta bai kalte galanta, gure Herriko bizikidetasun giroa nahasi eta batzuei euskara eta gure kultura jendaurrean era horretako basakeriekin maliziaz lotu eta uztartzeko aitzakia

bikaina ematen dietelako. Bidea, berriro diot, bake-bidea da, besteenganako errespetua, elkar aberastea; hizkuntza, azken buruan, Villasantek berak nekatu gabe errepikatu ohi zuenez, gizarte osoaren ondarea izatea nahi badugu behintzat.

Hortixe helduko zaigu, hain zuzen, gaurko euskalduntasun berria, kale giroan mamitua, giza harreman zintzoen ondorio gisa, baserria gogoan baina jadanik testuinguru horretatik halabeharrez urrundurik, iratze-usaina baino hobeki ordenagailu-distira ezagutzen duena, beti etorkizunari adi.

Enkarterriko guraso eta aitita-amama askok amestu zutena egia bihurtzen ari da. Beren asaba zaharrek zerabilten euskara hura beren iloben ahoan lortzen dakusate orain, eta frankismo garaiko eskola esklusibista, deserrotzaile eta antieuskaldun hark, etorkinei euskal gizartean integratzeko aukera ukatzen ziena, hau da, euskara eta euskal kultura ikasiz, bertokotzea, aspaldion beren seme-alabengan berreskuratzen eta betetzen ari da. A zer nolako harrotasun jatorra erakusten dute etorkin askok beren ondorengoeik euskaraz ongi dakitela esatean. Eta harrotasun hori ez da, soilki, haiena, gainerako euskal herritar guztiona baizik.

Hortxe dira, guztiak poztasunerako, kanpoko deiturak dituzten idazle, iraskle, irratia eta telebista-aurkezle, funtzionario, kirolari eta pertsona publiko gero eta ugariago horiek, eta alderdi politiko guztietako kideak ere bai, euskaraz inolako problemarik gabe berba egiten dutenak, euskara etxean ikasitako guztiak gaztelaniaz ere ederki dakitzen bezala. Horixe da, benetako gizarte-integrazioa lortzeko eta aniztasuna errespeta eta praktikatzeko bidea, eta ez, itxuraz eta ahoz beren burua pluralista agertu arren, gurean *de facto* erdaldun elebakar izaten ahalegintzen direnena.

Guztiok dakigu baina, Bibliak fariseu eta lege-maisuez esana: «*Saia zaitzte, beraz, haien esaten dizueten guzia betetzen; baina ez egin egiten dute- na; esan, esaten baitute, baina egiten ez*». (Mat. XXIII-39). Eta izan ere, predikurik onena norbere eguneroko bizi-eredua izaten da, hori barruan omen daukagun ideologia eta idealismo pertsonalarekin bat datorrela erakustea. Eta Andolin Eguzkitzak lekukotasun hori eskaini digu: belaunaldi kontsekuente baten eredua izan dugu bera, erdaldun jaio arren, euskaraz ikastea eta lantzea posible dela eta erdal giroan ere euskaraz bizitzeko ahalegina merezi duela agertu duelako, orain arte posibilitate hori, gure hizkuntzaren kalterako, aldearrantziz posible izan den bezala, hots, euskal giroan erabat erdaraz bizitzea. Beraz, frogaturik gelditu da aurreko joera eta inertzia historiko kaltegarriak, beinetan nahi badugu, norabidez alda daitezkeela, gure jatorrizko balioak berreskuratzeko.

Amaitzera noa. Gaur Andolin Eguzkitza, Enkarterriko lehen euskaltzaina, ohoratzera etorri gara. Bere sarrerarekin baina, Euskaltzaindia bera ere ohora- tzen da. Asko da orain arte egin duena baina segur naiz gehiago izango dela oraindik beragandik jasoko duguna. Erasmo Rotterdamgoak eromenaren lau-

dorioa idatzi bazuen, Andolinek xalotasuna goretsi digu maisuki, Arantzazuko fraidea eredu harturik. Biak, zentzu oneko eromen berritzaila eta bizikidetasun hoberako xalotasuna, beharrezkoak direlakoan nago.

Eskerrik asko eta ongi etorri gure artera, adiskide Andolin.

Para terminar, deseo dar la bienvenida a nuestra Academia a Andolin Eguzkitza, que estoy convencido que no será el último miembro de Euskaltzaindia nacido en esta zona de Bizkaia. Su trayectoria en el estudio, cultivo y defensa de la lengua vasca le han hecho merecedor de esta distinción. He querido subrayar la honestidad y ejemplaridad de su postura como intelectual vasco comprometido con su país, trabajando siempre por su desarrollo cultural, pluralista, armonioso y pacífico. Esto es algo a tener en cuenta y a valorar muy especialmente en la actual situación, en la que algunos todavía se emplean en utilizar la fuerza, la imposición y la violencia contra sus adversarios políticos, mostrando nulo respeto por los derechos humanos más elementales, cuyas lamentables consecuencias, entre otros muchos, ha sufrido esta misma semana y en esta margen izquierda el joven Eduardo Madina, al que deseo una pronta recuperación.

Nuestro país, nuestro pueblo, están siendo víctimas de una sinrazón que nos golpea una y otra vez, y ello afecta también al euskara y su Academia, ya que, además de causar un absurdo sufrimiento a muchas personas, contribuye a enrarecer el clima de paz y buena convivencia necesarios para toda comunicación cultural y comprensión mutua, al tiempo que es utilizado por quienes tratan de tergiversar las cosas, asociando injusta y malintencionadamente el uso, la promoción y la defensa del euskara con la violencia y unas determinadas opciones políticas. No olvidemos que la lengua y la cultura deben ser un patrimonio de toda la sociedad, al margen de cualquier interés partidista, tal como nos lo ha recordado acertadamente Andolin Eguzkitza, al citar aquí las palabras tantas veces repetidas por nuestro llorado académico y ex-presidente Luis Villasante.

Besterik ez. Berriz ere, adiskide Andolin, eskerrik asko, eta ongi etorri gure artera.

Anitz esker guztioi.

ANDOLIN EGUZKITZA-REN SARRERA HITZALDIAN, EUSKALTZAINBURUAREN ONGI ETORRIA

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Santurtziko alkate jauna,
Santurtziko zinegotzi jaun-andereak,
Kultura Sailburu anderea,
hemen dauden beste agintariak,
euskaltzainkideak.
Jaun-Andereak, eguerdion.

Nola egon eskerrak eskaini gabe gaurko ekitaldi honetan. Bilbotik etorri gara untziz, *Euskal Herria* deitu untzian, bi alboetan laguntzaile genituela bi traineru; leihorratu gara Santurtzi-n arraunlarien eta dantzarien artean iraganez, aurreskuarrekin ongi etorri beroa ukana dugula. Euskaltzaindiaren izenean eskertzen ditut besta eder hau apailatu duten guziak.

Dakidanez lehen aldikotz etortzen da Euskaltzaindia Santurtzira. Lehen aldia eta ezin ahantzizkoa, bai harreraren aldetik, bai ere entzun ditugun mintzaldien aldetik. Zorionak beraz euskaltzain berriari, hari esker bizi baitugu gaurko eguna zoragarria.

* * *

Señor alcalde, señoras y señores concejales voy a tratar de hablar en español para agradecer esta acogida especial y maravillosa que se ha hecho a Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca. No es para lucirme, tampoco para «lucir la pantorrilla» como se dice en el canto conocido. Gracias a Vds. esta acogida ha sido una de las que no se pueden olvidar: llegada en barco acompañado por las traineras, danzas, aurresku, etc. como lo decía en euskera. En nombre de Euskaltzaindia les doy las mil gracias.

* * *

Orain pasatuko gara, bi mintzaldiak entzun-eta ekitaldi ofizialera. Hala ere nahi nituzke bi hitz erran gure euskaltzain berriaren agurtzeko. Iraganari begira, banoa 30 urte gibelera Baionako euskal kultur asteak sortu genituelarik Baionako euskal erakustokian. Sortzaileetarik biga gaude hemen, Pierre

Charritton jaun euskaltzaina eta nihaur, euskal erakustokiko zuzendaria nintzela orduan. Bi urtez segidan egin ziren eta gero sortu genuen Udal Euskal Unibertsitatea lau urtez egon zela Iparraldean, bi urtez. Donibane Lohizuneko Maurice Ravel Lizeoan, bi urtez Uztaritzeko Landagoien deritzan etxearen Hegoaldera joan aitzin.

1970. urtean gaude, lehenbiziko kultur astean, mintzaldi asko izan zirela, entzuleak ere, gehienak Hegoaldekoak. Mintzaldiak bukatzen zirenean hasten zen galderen garaia. Eta hona non, lehen mintzaldiaren ondotik xutitu zen mutiko txar mehar bat bere galderaren egiteko. Erantzuten zitzaion eta beste ne-hork ez baitzuen deus galdegiten berriz xutitu zen bigarren galdera baten egiteko. Egun guziez eta mintzaldi guzien ondotik, mutiko bera –hamazazpi urte zituen orduan– arizan zen galdezka. Ez bainekien nor zen, galdegin nion Hegoaldeko adiskide bati nola deitzen zen mutikoa. Hola jakin nuen Andolin Eguzkitza deitzen zela eta haren ezagutza egin nuen orduan, duela beraz 32 urte.

Euskal kulturaz hain gose eta egarri zen mutiko mehar harek bide eder bat egin du geroztik. Estudioak eginik Euskal Herrian, Alemanian, Estatu Batuetan, doktore da eta Euskal Herriko Unibertsitateko erakasle. Denek entzun duzuen bezala mintzaldi eder eta mamitsua eman digu bere Euskaltzaindiaren sarrerako, Xabier Kintana euskaltzainak erantzuten ziola modu berean.

Orain euskaltzain berriari doazkon domina eta diplomaren emaitean, galdegiten diot areto hauetan den jende guziari xuti dadien ohi den bezala.

IKER SAILA

GRAMATIKA

1. Gramatika batzordeak emandako irizpenak dira hurrengook.
2. Euskaltzaindira iritsi diren hizkuntza-kontsulta batzuei Gramatika batzordeak eman dizkien erantzunak jasotzen dira atal honetan.
3. Eman den erantzuna ez da, *nolanahi ere*, araua. Euskaltzaindiak *gramatika osoa* egin bitartean sortzen diren hainbat galderari Gramatika batzordeak ematen dizkien erantzunak dira, eta beraz, batzorde horren iritzia da, kasuan kasuko gaia argitzeko emandakoa.

Jesus Mari Makatzaga,
Gramatika batzordeko idazkaria

ZER DUT EGLU-REN KONTRA?

Areatza (Arratia), 1998-VII-24

Rudolf P. G. de Rijk

Nahiz zuen guztiun aitzinean mintzatzeko abagune hau ohore handitzat daukadan eta bihotzondoa Bizkaiko txoko zoragarri honek biziго alaitzen di- dan, ez nator osoro kezkarik gabe nire hemengo eginbeharra dela eta. Dakikezuenez, zuen aurreon *EGLU*-ren (Euskaltzaindiaren *Euskal Gramatika Lehengo Urratsak*-en) kritika egitera agertzen banaiz, ez naiz neure kabuz honetaratura, Gramatika batzordeak berak eskatuta ez ezik, hertsatuta ere bainago. Ezbaialdi luze bat ukari dut: izan ere, egoki ote da euskaldun jatorrentzat bereziki burututako gramatika hau gehienaz ere euskaldunberri motela izatera iristen naizen honek kritikatzea? Zalantza horretan murgildurik niraueen harik eta Eugène Ionesco-ren esaera bat topatu arte. Frantses antzerki-gile sonatu horrek esanaren arabera, eskolako maisua ez baina obraren ikaslea izan behar du kritikariak. Hori egia bada, edonork hainbat eskubide daukatnik *EGLU*-ren kritikaria izateko, aspaldidanik haren ikaslea naiz eta. Pentsa- era horrek Gramatika batzordeko adiskideen deiari erantzuteko oztopoak hein batean kendu dizkit, eta horra zergatik ikusten nauzuen mahai honen ostean jesarrita.

Txosten hau paratzerakoan, halabeharrez gogoratu zitzaidan orain duela hogheitsu urte liburu bi kaleratu zirela elkarri dagozkion izenburuak zituztenak. Baten izenburua «Zer dugu Orixе-ren alde?», eta bestearena: «Zer dugu Orixе-ren kontra?». Aspaldiko idazti haien gogoan nituela, oraingo honetan ere halako txosten bi mami litekeela bururatu zitzaidan: «Zer dut *EGLU*-ren alde?» bata, eta «Zer dut *EGLU*-ren kontra?» besteia.

Aldekoa, ordea, ez dut egin. Idazteko astirik ere izango ez nukeen liburu lodi-lodia izango litzatekeelako alde batetik, eta Gramatika batzordeak berriaiz galarazi didalako bestetik. Gramatika batzordekoei ez zaiela interesatzen beren lanen laudoriorik entzuterik gaztigatu baitzidan batzordeko idazkari jaunak gutun batean.

Beraz, Gramatika batzordeak berak hala nahirik, *EGLU*-ren kontrarakorik besterik ez duzue entzungo nire gaurko txostenaren luzeran. Holandarrok omen dakigunez, argi eta garbi mintzatzuko naiz, hitz-erdika ari gabe. Batzue-

tan zorrotzegi edota gordinegi mintzatzen naizela ere iruditzen bazaizue, kontuan har euskal gramatikaren etorkizunari begira hobe beharrez ari naizela, ez eta inola ere batzordeak bururatu duen lana gutxietsi edo arbuiatu nahian. Baldinba ez zait murriztuko hementxe ditudan adiskideen kopurua mintzaldi hau bukatutakoan!

Zerbaitekin hasi behar eta partitiboarekin hasiko naiz. *EGLU*-n zehar, partitibo deitura honen azpian *-ik* tankerazko atzizki guztiak bildurik ikusten ditugu. Euskal gramatikalarien tradizioari darraion jokabide hau nahasgarritzat daukat. Zehazkiago esateko, *hutsik*, *alferrik*, *zintzilik*, *damurik*, *eginik*, *izanik* eta beste nahi adina besarkatzen dituen adberbio mota eratzen duen atzizkiari bederen beste deitura bat emateari gomendagarri deritzot oso. Egia esan, bomiteke *-ik* tankerazko atzizkiak oro, ablatiboa edo gauzatzuz, aitzinako euskara batean iturburu batekoak izatea, hori bai. Gaurko euskaraz den bezainbatean, hala ere, oso funtzio ezberdina daukate adberbiokoek eta besteek, eta komeni ere zaigu bestelakotasun hori deitura ezberdinez ohartaraztea.

Orain, banoa *EGLU*-ren lehen liburukiaren zenbait pasarteri iruzkinak jar-tzera, 97. orrialdearekin hasiz.

Inor eta *ezer* izenordainak aztergai dituela, honela mintzo zaigu *EGLU*: «Baiezkako perpausetan ere zilegi litzateke honetarako izenordain mugagabeak erabiltzea...»

Hor, alegiazko adizkiaren zergatia ezin dut ulertu: zilegi da edo ez da zilegi, baina «zilegi litzateke»? Nolako baldintzapetan, arren?

Gainera, bi izenordain mugagabeak aipatu badira ere, ematen diren adibideak *inor*-ekikoak baizik ez ditugu, *inor* baiezkako perpausetan beste *norbait* adierazteko erabil daitkeela erakustearren, alegia. Horrela, *inor*-en erki-de bizigabea den *ezer*-k erabilera bera ote daukan egon daiteke irakurlea, eta *EGLU*-k, argitasunik eskaini gabe, isil-isilik dirau.

Txotxakeria ematen du agian erantzuki honek, baina interesatua bezala mintzatzen natzaizue. Hain zuzen ere, ordu luzeak eman ditut aurten *ezer*-eki-ko etsenplu horiek bilatzen, azkenean bat, eta bat bakarra, aurkitu arte. Gisa honetako ikerlanak egitea, berriz, Gramatika batzordearenganik igurikitzten dut; horretarako ezarria baita, eta horretarako baliabideak ere baititu, Korpus elektroniko eta guzti, bere kabuz ari den ikertzaila arrunta bainoago.

Orrialde bertan eta hurrenengoan badut beste esankizunik. *Inor* izenordainaren beste erabilera bat azaltzean, hamazazpigarren mendeko adibideak aurkezten dira soilik. Ea erabilera hori gaurkoz baliagarria den galdetu behar du nire antzeko irakurle ezjakinak. Hurrenengo orrialdean, *deus*-en izentasuna frogatu behar duten hiru aipamen zahar-zaharrek gauza bera galdearazten dute. *Deus* erabiltzen duen ekialdeko lankide baten etsenpluak hor jarri behar ziren, dudarik gabe.

105. orrialdetik hasita, bihurkariak ditu aztergai *EGLU*-k. Eta harrigarri dena, bi orrialde arloe baizik ez zaizkie eskaintzen. Ataltxo honen bukaeran, alabaina, aitortzen da, kako artean bada ere, badela hemen «istilu bat, egiatan azterketa sakonagoa merezi lukeena», istilu hori egitura impertsonalei dago-kienia delarik.

Bejondeiola *EGLU*-ri! Impertsonalak aldi baterako utzirik, bada egiatxo bat ohartarazteko gogoa daukadana. Bihurkarien erabilera dela eta, istilu bat ez, mila istilu badira azterketa sakonagoa merezi luketenak.

Hastekoz, *EGLU*-k 106. orrialdeko lehendabiziko lerroan baiezatzen dueña ez da zeharo egia. Ez da egia beti eta derrigorrez atzera begiratu behar du-gula perpusean, bihurkari baten aurreko bilatzeko. Delako aurreko hori atze-koia ere izan daiteke, honako etsenplu hauek erakusten digutenez:

- (1) a. Nere buruak ere ematen dit franko lan. (Labayen, *TOE I*, 92)
- b. Zeure buruak egin zaitu esklabo, ez beste inork. (Saltarelli, 113)
- c. Neure buruak kezkatu eta izutzen nau.
- d. Bere buruak liluratzten du níre anaia. (Saltarelli, 113)
- e. Zeuen buruek zoratzen zaituztete.
- f. Neure buruak gidatu nau.

Bigarrenez, izenondorik edota erakuslerik onartzen al dute bihurkariek?
Hau da, ontzat ematekoak al dira honako hauek?

- (2) a. Bere buru gaixoa bota zuen itsasora.
- b. Nik hala esan nion neure buru triste honi:...

Hirugarrenez, hiztunak zalantzak izan ditzake, *EGLU*-k argitzen ez di-tuenak. a ala b?:

- (3) a. Zer diozu zeure buruaz?
- b. Zer diozu zutaz?
- (4) a. Neure buruarekin haserre nago.
- b. Neurekin haserre nago.
- (5) a. Neure buruarengatik ez dut hori esan.
- b. Neuregatik ez dut hori esan.

Laugarrenez, zer gertatzen da posposizioak jokoan daudenean? Nondik nora *bere buruaren kontra* bai, *bere buruaren gainean* bai, baina **bere buruaren azpian* ez?

Bosgarrenez, zer jazoten da bihurkariekin izen-sintagmaren barruan? Es-kuetan neure argazki bat badaukat, hau neure buruaren argazkia izan al dai-teke?

Seigarrenez, aurrekorik gabeko erabilera logoforikoaz zer esan? Imitagaria ote, Mitxelenaren erabilera hau (*MEIG VII*, 37):

- (6) Nik, egia esan, begi zorrotzak izan ditut hutsak ikusteko (batez ere, huts horiek geure buruarenak, neronenak barne, direnean),...

Galderak nahi adina gehi litzke, baina orain artekoak aski dira erakus-teko bihurkariei buruz lan seriorik prestatzen saiatu ere egin ez dela *EGLU*.

EGLU-k elkarkariei orrialde gehiago eskaini arren, guztiz azalekoa gera-tzen da hauen trataera. Elkarkari baten aurrekoak perpusean zein funtziobete dezakeen, zeharo aztertu gabe uzten da, esaterako. *Bata bestea* dela eta, hiru adibide huts ematen dira, besterik deus ez. Horren aurrekoaren nolakotasunaz ezer ere ez dugu ikasten. *Batzuk besteak eta bizkaierazko bakoitzak bestea* ez dira aipatu ere egiten.

173. orrialdean hasten den «*bat*» *zenbatzailea* eta «*a*» *artikulua* izenburudun atal luze samarra ez zait inondik ere gogobetegarri, aski axolagabeki taxutu dela iduritzen baitzait. Bai gure testuetan bai gaurko hiztunengan hain korapilatsua den kontua ahalik argien uzten ahalegindu behar zukeen *EGLU*-k, eta ez «aurretik esandakoa biltzen eta ordenatzen saiatu» bakarrik.

Atalaren izenburua bera ere ez da aproposagi. Hor aztertuko diren esaldi gehienetan behintzat, *zenbatzaile* barik muga-hitz edo artikulua dugu *bat* hori: ondotxo baitakigu ez dela haizerik zenbatzen ari *haize izugarri bat* ahotan har-tzen duena. 180. orrialdean *bat zenbatzailea* daukaten aipamen batzuk eman nahi ditu *EGLU*-k. Etsenplu hoberik aurki zezakeen: (320)a eta b izan ezik, beste guztiak *bat* artikulu dutelako susmotan nago eta.

176. orrialdea behin eta berriz irakurrita ere, ez nago batere ziur ondo ulertu dudala, hain zait estonagarri aditu uste dudana. Generikotasunaz ari da *EGLU* hor. Hizkuntzalaritzan generikotasuna bereizgarri edo tasun jakin bat izanik, badakigu gutxi gorabehera zer den, eta ez dirudi adigai aldakorra de-nik. Baino, aldakorra balitz ere, zer? *Tratorea* erositut esaten dute euskal-dun batzuek, besteek, aldiiz, *tratore bat erositut*. Ezberdintasun hau, generi-kotasunari buruzko irizpide ezberdina dutelako dela sinetsarazi nahi al digu *EGLU*-k? Alegia, *tratorea* dioena, zerbait generikoa erosit duelakoan dagoe-la? Hobe dugu aurrera pasatzea.

189. orrialdeak dakarren aipamen zerrendak ematen dit aukera *EGLU*-n zehar maizegi nabaritzen den joera batez haserretzeko: gauzatxo xinpleenak ahalaz eta adibide bihirrienen bidez azaltzekoaz, alegia. Orrialde hau belzten duten sei aipamen luzeak ez dira deusetako on. Zein irakurle dago horien be-harretan *bat* eta *bi* ez beste zenbatzaileak izenaren ezkerreko aldean kokatze-koak direla jabetzeko? Hemen ere, beste orrialde askotan bezala, arauaren kon-trako aipamenak soilik lirateke interesgarriak, hala nola, Lafonek behin Leizaragaren testu batean atzemandako *soraio hamarrak*. 224. orrialdean, *asko-ren* balioak aztertzean, zenbatzaile honek aditzondoaren balioa har deza-

keela erakusteko, edozein perpaus iragangaitzez balia zitekeen *EGLU*, *Itziar asko ibiltzen da* adibide hartuz, esaterako. Alderantziz perpaus iragankor bat adibide hartuz, ordea, okerreko bidea hautatu du *EGLU*-k. Argi baitago *horrek asko daki* bere adibidean *jakin* aditz iragankorra nor-sintagma baten beharrean dela, eta hori *asko* bera baizik ez dela. Adibide horretan, beraz, *asko* izen-sintagma dugu, ondorengo adibideetan den bezalaxe.

Liburukiaren erdi-erdiraino heldu gara irartoker, edo inprenta-hutsik aipatu gabe. Izan ere, gutxi dira, eta daudenak erraz zuzen ditzake irakurleak, gehienetan behintzat.

Irakurleen nahasbide izan daitekeen trukaera bat aipatu beharrean nago hala ere: 279. orrialdea eta 282.a elkarren tokian gertatu baitira.

346. orrialdera helduaz batera, gauza serioetara hurbiltzen gara, hor leku-denborazko kasuak lantzeari ekiten baitio *EGLU*-k. Bada, hor hasten den atal luzean zehar auzi bakar bat hartuko dut eztabaidagai: *-ko* atzizkiaren izaera eta jokabidea.

Dagoeneko salatu ditudan hutsegiteak huskeria hutsal hutsak dira nire begietan, orain jorratzera noan kontuaren aldean; kontua dela atzizki hau lekuzko kasuen artean sartzeko erabaki galgarria.

Badirudi burubide honekin *EGLU* bera ere ez dela oso lasai gelditzen. Bestela, nondik nora hainbeste aitzaki-maitzaki bere burua zuritu beharrez? Honetaz doan 347. orrialdeko paragrafo luzearen azken lerroak baizik ez ditut irakurriko, luzetxo gerta ez dakigun: «... hiztunak batetik *non* eta *nongo* kasuen arteko ahaidetasunaren edo erlazioaren kontzientzia galdu eta kasu berritzat dauka, eta gramatikalariak bestetik halakotzat onartua aspaldidanik *non-go* delako kasu hori, *norako* eta *nondikako* ez bezala.»

Hauek oro ezer frogatzen ez duten sasiarrazoia ditugu. Hiztunak –edozein?– kasu berritzat daukan edo ez daukan, ez nik, ez *EGLU*-k, ez dakigu inondik ere. Gogorarazi nahi nuke, bestalde, gramatika deitzen duguna ez dela, ez eta hurrik eman ere, hiztunen iritzien ispilua; normalki oharkabe diraelako, doi-doia jakite bat izenda daitekeen hizkuntz gaitasunari buruzko teoria bat baizik, *EGLU*-ren hirugarren hirugarren liburukiaren sarrerak aski ederki adierazi digun legez.

Gainerakoan, «dirua edo bizia» oihukatzen digun bide-ohoin baten antzera ari zaigu *EGLU*: gure atzizkia nongo-ren ordezkaritzat edo kasu berritzat hartzeaz osterantzeko aukerarik ez balego munduan.

Azkenik, egia bada ere orain arteko gramatikalariet atzizki hau lekuzko kasutzat jo izan dutela, egia ere bada ez zutela horretarako inongo arrazoi sakonik. Aitzitik, beren garaiko umeak izanik, gure morfosintaxia Latinaren ereduzko kasu-sistema bati moldekatzeaz besterik ez baitzitzaien bururatu ahal.

Oraintsu arte horrela gertatzea ezinbestekoa bazen ere, gaurko hizkuntzalaritzaren aurrerapenen aitzinean zinez lotsagarria eta etsigarria dugu *EGLU*

ere galbide horretan barrena abiatzea, behinolako gramatikalarien oinatzei jarratzeko aitzakian. *EGLU*-k aukeratua duen bidea galbidea bada, atzizki hau zer den galduetu behar dugu berriro. Bada, atzizki honen sekretu guztia hontantxe datza: adizlagunei eransten zaien izenlagungilea izatean. Berriz diot: adizlagunei eransten zaien izenlagungilea dugu. Adizlagunei bakarrik, ote? Bai jauna, bakar-bakarrik.

Hemen, bi gauza dira kontuan hartzekoak, ordea. Lehen-lehenik behar dut ohartarazi ez dudala adizlagunen multzoa *EGLU*-ren modura mugatzen. Honek aditzondotzat dauzka *gaur*, *hemen*, *honeila* eta antzokoak, *une honetan*, *leku honetan*, *gisa honetara* eta abar bezainbeste adizlagunak baitira niretzat. Kontuan hartu behar da gero, adieraziaren aldetik mintzo naizela, ez azaleko formaz, zeren eta *-ko* atzizkiaren aurrean kasu-marka batzuek lekua husteko lizentzia baitute.

Inesiboaren kasuan, hau berau Mitxelena zenak erakutsirik badakigu, baina kontua bukatu gabe utzi zigun irakasle hark, ez baitzen konturatu beste kasu-marka batzuekin berdin gertatzen zela, nahiz ez den derrigorrezko moduan, aukerazkoan baizik. Izan ere, euskalkiz euskalki eta are hiztunez hiztun ezberdin izan daitezkeen baldintzak beteta, *-ko-ren* aurrean isilpean utz daitezkeen kasu-markak bost dira: inesiboa, elatiboa, adlatiboa, soziatiboa eta instrumentalra.

Inesiboaz den bezainbatean, ez dut deus esan beharrik, *-ko* atzizkiak maiz samar *-an* gehi *-ko* ordezkatzen duela *EGLU*-k ere ezagutzen baitu, Mitxelerengandik ikasita edo. Beste lau kasuez, ordea, hitz bi esango ditut, elatiboa-rekin hasirik.

-ko atzizkiaren aurretik elatiboa kentzeko joera hegoaldean hasi zela eta gero eta sendoagotuz doalakoan nago. Adibide bat aipa dezadan. *Har ezazu nire bihotzko agur gartsua* edo halako zerbait idatz dezakegu guk eskutitz bukaeran, baina orain ia berrogei urte San Martin jaunak aita Onaindiari egin zion gutun batean *nere biotzetiko agur gartsua* jarri zuen. Bibliaren itzulpenak ere txit interesarriak dira kontu honetan. Lukas-en lehen kapitulutik har tutako *de domo* David hura, *Daviden etxetikako* nahiz *etxetiko-ren* bidez euskaratu dute iparraldeko itzultzaile guztiak, hegoaldekoak, berriz, *etxeko* edo *jatorriko* itzuli dutelarik, *-tik* gabe. Joan-en seigarren kapituluan aipatzen den *panem de coelo*, ordea, zerutikoko *ogia*-ren bidez guztiak itzuli dute, oraintsu arte, behinik behin: 1980-ko *Itun Berriak* eta 1994-ko *Elizen arteko Biblia*-k zeruko *ogia* ezarri dute eta.

Adlatiboiari doakionez, *-rako-ren* ordez *-ko* bakarrik agertzea hain gauza arrunta da non eta *EGLU*-k uste baitu berrikeria dela *-rako* darraion izen-sintagma batekin erabiltzea. Oker dago, noski. Leizarragaren *Testamentu Berrian* honelakoak aurkitzen baititugu: *gure guetarato bidea* (*1 Thes.* 3.11), *Jerusalem eratorako bidea* (*Lk.* 13.22) eta *itsassorako bide aldean*, *itsasorako bidea* *Haraneder*, *Duvoisin* eta *Uriartek* ere bazerabiltela.

Inesiboa ez ezik, bai eta elatiboa eta adlatiboa ere, *-ko* atzizkiaren aurrean kenduzkoak direlakoa ez dugu gramatikalari baten joko hutsa, egun oroko hizkera argitu ahal digun ulerkera bat baizik. Teoria honek, esate baterako, erraz ulertarazten digu *Bilboko trena* bezalako sintagma bat hirutara nola har daitekeen: Bilbon dagoena, Bilbotik datorrena edo Bilbora doana.

Gorago azaldu denaren ondoren, argi dagoke *-tako* nahiz *-etako* formak agertzea lekuzko kasu-marka bat ixilpean utzi delako seinalea dugula, baina pluralean ere *-ko* hutsa ikusten dugunetan bestelako kasu-marka tartean dela, soziatibo nahiz instrumentalala. Begira diezaiogun orain Orixeren esaldi bati:

(7) a. Ez da bihotzaldi handiekiko poeta. (*Euskal Esnalea* 1927, 192)

Guk, beharbada, beste esamolde bat nahiago genuke

(7) b. Ez da bihotzaldi handiko poeta.

Beraz, soziatiboa ere *-ko-ren* aurretik kengarria dugu. Beste adibide bat EGLU-k berak eskaintzen digu bere *Eraskina*-ren 54. orrialdean:

(8) a. Jantzi gorriarekiko gaztea

b. Jantzi gorriko gaztea

Instrumentalazko kasu-marka, gehien-gehienetan ezin-utzizkoa delarik, sintagma batzuetan, hala ere, aukerazkoa dugu, hala nola, *indar handi(z)ko, zorione(z)ko, gaitze(z)ko, izugarri(z)ko* eta abar. Leizaragaren *Testamentu Berrian* ere bada etsenplurik: bai *alliantzazko arkha* (Apok. 11.19), bai *alliantzako arkha* (Hebre,t. 9.4) aurkitzen baitugu.

Hemen zehaztatu dudan hurbilkera hau ontzat ematen bada, ez daukagu inondik ere lau *-ko* ezberdin bereizteko beharrik, EGLU-k egitera behartua den bezala. (Ikus *Eraskina*, 49. orrialdean.) Badira, bai, aipatu ez ditudan xehetasun batzuk; baina oro har, *-ko-ren* erabilpen guztien kontu ematen ez dago inolako zailtasunik.

Gure atzizkiaren auzia amaitutzat emanik, ia aipatzea ere merezi ez duen okertxo bat aipatzera noa 374. orrialdean aurkitzen dena: *ardura* izenondoa ez da inoiz adlatiboa izan, erdaratikako mailegua da eta.

392. orrialdean, *arimarako* forma agertzen da, Fray Bartolomek erabilia. Forma honetaz harritu egiten da EGLU «arima, ezer bada, bizidunetan bizi-dunena» delakoan.

Ni, ordea, harridura horretaz harritzen naiz. Ez al daki EGLU-k betidaknik *arimatik arimara* esan dela, eta gaue ere horrela esan behar dela, sekula ez **arimagandik arimagana?* Ez al daki EGLU-k hizkuntza batek aintzat haruten dituen kategoriak ez direla nahitaez gaurko jakintzarenak, ez eta jakintza hori teologia denean ere?

Lehengo liburuki honekin bukatzeko, beste arlo bat aipatuko dut soil-soilik: maila aditzondoena. Hauei lau orrialde eskaini zaizkie; halarik ere, dagoien joskerari buruzkorik deus gutxi ikasten dugu. Zoritxarrez, zenbait gertakari biziki interesarri gelditu dira aipakizun, hala nola, *oso* aditzondoa doakion sintagmatik kanporatua

- (9) a. Paula, Malentxo aña eazarren, oso zen emakume itxurazkoa ta mai-tagarría. (Ag., Garoa, 171)
- b. Inspektorearen erantzuna azkarra izan zen oso. (B. Atxaga, *Obabakoak*, 44)
- c. Baino orain bestela da oso. (B. Atxaga, *Obabakoak*, 218)

Gainera, ez zaigu zehazten zein den arruntena: *izugarri borroka latza* ala *borroka izugarri latza*.

Eraskina delako liburukiaz ez naiz luzaz arituko, hor eztabaidegai bakkarra -ko atzizkiari buruzko zatia izango litzatekeelako, eta honetaz aski mintzatua naiz. Soilki ohartaraziko dut 69. orrialdeko *logela* ez dela etsenplu ego-kia [aditzoin + izena] egiturazko izen elkartua aurkezteko, zeren eta, *lo* forma, *lotu*-ren aditzoina bada ere, izen gisan askotaz usuago erabiltzen baita.

Bigarren liburukiaren 27. orrialdeko *bazkal ostean* etsenplua ere ez dugu adibiderik egokiena, ez baitakigu *bazkal* forma hori *bazkaldu*-ren aditzoina ala *bazkari*-ren forma elkartua den.

Bigarren liburukiaren 45. orrialdean, *hitz egin* eta antzeko esamoldeen egitura ezagutzeko garrantzi handiko baieztapen bat egiten da: honako bi perpaus hauek esanahi ezberdina dutela, alegia.

- (10) a. Ez du hitzik egin. (= ez du ezer ere esan)
- b. Ez du hitz egin.

Niri, ordea, bestela esan didate hiztun batzuek: (10)a-k, alegia, bi esanahi omen ditu, bata (10)b-ena bera delarik.

Liburuki honetako hiru lekutan esaten zaigu *jakin* aditzak ez duela *nori* sintagmarik onartzen, eta hortaz honako esaldi hauek txartzat jotzen dira:

- (11) a. Aitak egia jakin dio. (*EGLU II*, 47)
- b. Berehala jakin dio egia osoa. (*EGLU II*, 59, 62)

Zergatik gaitzesten dituen *EGLU*-k, ordea, ez dut ikusten. *Orotariko Euskal Hiztegiak* dakartzan sei aipamenen arteko bi honatuko ditut:

- (11) c. baita bere ciur jaquin deutsat, gordeten dabela sarri bere gosaria, (Mogel., *Peru Abarka*, 10)
- d. Saulek au ere jakin zion, eta eskua ezarri naiez egunoro zerrakion. (Lardizabal, *TZ I*, 26)

Bigarren liburukiaren 51. orrialdean hasten den «Sail aldaketak» deritzan zati interesgarriak ematen dit aukera merezi duten arretaz perpaus inpertsonalen gainean eta bereziki horien arteko subjeto bividunen gainean berba egiteko. Ekingo diot, beraz, gai honi *EGLU*-ren atal horren barruko 56. orrialdea irakurrita, ez dago dudarik *EGLU*-k subjeto bividuneko perpaus inpertsonalak txit begi gaiztoz ikusten dituela. Hauetako direla eta, inguruko hizkuntzen eragin aipatzen du, eta azkenik, kupidagabeko dekretu baten medioz zilegitasuna erabat ukatzen die batere salbuespenik gabe. Entzun *EGLU*-k dioena: «Baldintza bat bete behar da, dena dela: *nor-nork* motako aditz oinaz osatzen dugun perpusean, objetu funtzioa betetzen duen izena minus bividun motakoa izanen da, esan nahi baita ez dituela izaki bividunak adieraziko, bizigabeak baizik. Horrelakoetan bakarrik zaigu zilegi euskaraz *dut* adizkia *da* motara aldatzea, balio inpertsonala emanez.»

Debeku hau erabatekoegia dela konturatzeko, *EGLU* bera irakurtzea aski dugu: hiru orrialdez lehenago honako adibide hau ematen baita: *Noiz hiltzen dira zerrak zuen herrian?* Oraingo horretan, galdera hau bitara interpreta daitekeela baieztagatzen du *EGLU*-k, inolako itzuli-mitzulirik gabe. Beraz, perpaus inpertsonalen auziak *EGLU*-k egin duen baino astiroago aztertzea merezi du, eta, zuen baimenarekin, azterketa honi hasiera bederen emango diot hementxe bertan.

Subjeto bividun perpausetara mugatuko naiz, bestelakoak ez baitaude auzipean. Areago, erabiliko ditudan aipamenetan azaleko subjektua gizakia izanen da beti, sarritan lehen nahiz bigarren pertsonaz adierazirik.

Hasteko, beti legez, «Divide ut imperes». Esanahiaren arabera, hiru multzotan sailkatuko ditut perpausok: inpertsonal pasiboak, inpertsonal elkarkariak eta inpertsonal bihurkariak.

Aurren-aurrenik, Azkue eta Villasanteren gaitzespenak gorabehera, hiruoi jatorrasuna ukatzeko arrazoi sendorik ikusten ez dudala aitortzen dut. Inguruko hizkuntzen eragina barik, euskal sintaxiak betidanik izan duen berezko ahalbidea ez ote digute erakusten? Badakit, bai, hizkuntza erromanikoetan *se* hizkiaz ornaturikako perpausek hiru adierazpenok badituztela. Honek ez du inola ere esan nahi, ordea, euskal perpaus horiek erdal perpaus hauen ereduera eratu zirenik. Gramatika orokoren barruko tresneria batek sortu dituela bai batak bai besteak aise gertagarrigo deritzot nik.

Oraintxe bereizi ditudan hiru multzoak banaka jorratuko ditut, jokoan daudeken debekuak edo ez baitute ezinbestez denetan berdin izateko beharrik.

Inpertsonal pasiboekin hasiko naiz, gaur goizekoak izan gabe euskal literaturan zehar beren lekua izan dutela erakutsiz.

Buruenik, hona hemen bere tesi oraindik argitaragabeen Adolfo Arejita doktoreak aipatzen dituen etsenplu klasiko batzuk:

- (12) a. Iltean il ninçan, da aztu ninçan. (Lcc. 191)

- b. Concebitu ninçam maldadeetam. (Ikus, A.Unzueta, *Nuevos datos ... FLV XIV-39*, 332)
- c. Saldu nintzen dirutan, asco sari handitan. (Azkue, Cur. Doc. Euskera VI(1925), 60-6
- d. Israeltarrac berac ... ecusi ciran Ydisco baten Ichura bat eguin... (Mg., *C.B.*, 92)
- e. Ez zaree icusten fiesta, Plaza ta onelaco olgantzeetan. (J.J.Mg., *Bas.Esc.*, 101)

Jesu Christoren Lau Evangelioac Batera Alcarturic izenburua dakarren Añibarroren liburua argitara eman duen Maria Pilar Ciarrusta andreak ere aipamen bi eskaintzen dizkigu, liburuari egindako sarreran:

- (13) a. Bata eroango da, ta bestea gueldituco da. (Añibarro, *J.C.L.E.*, 379)
- b. Eta euretaric beste *iñora* biraldu etzan Elias, ezpada ... (Añibarro, *J.C.L.E.*, 267)

Zer esanik ez, Leizaragaren Testamentu Berrian eta beste zenbait idazle zaharren obretan ere badira etsenpluak, esaterako:

- (14) a. Orduan eçaguturen dut ecagutu ere naicén beçala. (*1 Cor. 13.12*; Lz.)
- b. Hilen sperançáz eta resurrectioneaz ni acusatzen naiz. (*Act.Ap. 23.6*; Lz.)
- c. Bata recebituren da, eta bercea utziren. (*Mt. 24.40/41*; Lz.)
- d. Bata harturen da, eta bercea utziren. (*Lk. 17.34/35/36*; Lz.)
- e. Baino gomittatu aicenean, habil, iar adi azquen lekuau. (*Lk. 14.10*; Lz.)
- f. eta guïçonaren Semea tradituren dela crucifica dadinçat. (*Mt. 26.2*; Lz.)
- g. Balinetan vide gabe acusatu baguira ... (B. Etxepare, XIII-26)
- h. Erho edo deus guti etsten bazare,... (S. Pouvreau, *Philotea*, 213)

Urrengo aipamenak ez dira hain aspaldikoak, Txirritarenak baitira, 1860. urtean jaio eta 1936. urtean hil zen bertsolari famatuarenak:

- (15) a. Urrengo larogei urtean ni ez naiz aztuko Kantabriko partean. (*Txirritaren Bertsoak II*,59)
- b. Pixka batian ez naiz aztuko sartuagatik lurpian. (A. Zavala, *Txirrita*, 242)

Bi esaldi hauek, iaz laurogeita hamalau urterekin zendu zitzagun Maria Dolores Agirre andreak nekerik gabe ulertzen bazituen ere, gaurko hiztun gehienentzat zeharo adiezin bihurtuak ditugu. Hori dela eta, gisa horretako perpausak debeku baten bidez baztertzea egoki litzatekela uste dut. Ez noski, jatorrak ez direlakoan, hizkuntza bera aldatu egin zaigulako baizik.

Debekua behar dugu, bada, baina nolako debekua? Oraindik ere zerriak bi modutara hil badaitezke, ezin esan, behintzat, azaleko subjektua ez dela biziun motakoa izan behar. Giza-subjektuaren kontrakoa ere ez, honako esaldi hau ere bitara har daiteke eta

- (16) Heriotzera kondenatuak nola hiltzen dira Texas-en?

Hortaz, irteera bakarra lehen eta bigarren pertsonen kontrako debekua ezartzea dugu. Goazen orain bigarren multzora, inpertsonal elkarkarienera.

Gure hizkuntzak elkartasuna adierazteko baliabide zehatzagoak ukanez gero, ez da batere harritzeko inpertsonal hauek berandu samar agertzea. Badaiteke nire ikerketa motzegi izatea, dena dela, aurkitu dudan etsenplurik zaharra 1848an jaiotako Beovide idazlearena izan da:

- (17) Elizako lanak bukatzian, agurtu ziran ta laztandu iru Santuak. (Bv., *AsL.*, 135)

Geroxeago, Domingo Agirreren eta Joseba Etxeitaren lanetan bereziki ez dira inondik ere bakanak bigarren multzoko inpertsonalok:

- (18) a. Onenbestegaz agurtu gara,... (Ag., *A.L.* 36)
- b. Non ikusiko gara biar? (Ag. *A.L.* 72)
- c. Riktridis ta Adalbaldo uste-ustean barik neure etxean ezagutu ziran. (Ag. *A.L.* 141)
- d. parra-irri gozoz agurtu ziran,... (Ag., *G.*, 41)
- e. Gizadi guztiak uste eban ezkonbarriok guztiz maite zirala. (Etxta, *E.E* 1912, 173)

Gipuzkeraz, bai eta gaurko idazle batzuen lanetan ere badira etsenpluak:

- (19) a. Anaiak bezela maite ziran. (*Alz.*, *Bern.*, 44)
- b. Ez dira egunero ikusten, Maitek ezin duelako. (Urretabizkaia, *Sat.*, 74)
- c. Bitan bat, Maria Luisa: ez gara ikusten ala gehiegi ikusten gara. (Urretab., *Asp.*, 7)
- d. Pabiloiaren atean agurtu ginen. (B. Atxaga, *Obabakoak*, 129)

Oraindaino aipatu diren perpausak ontzat emateak ez deritzat euskarari kalte egingo dionik nolanahi ere, ez dut uste hain usu erabiltzen den *elkar* hitza erabilera honek suntsiaraziko duenik, oso aditz gutxik onartzen dute eta. Kontua da ez direla inpertsonal elkarkariak edozein aditzekin eratu ahal. EGLU-rekin batera, honako adibide hauek txartzat ematen ditut nik ere:

- (20) a. *Gizon horiek hilgo dira. (*EGLU I*, 112)
- b. *Horiek erretzen dira. (*EGLU I*, 112)

- c. *Gu jantzi egingo gara. (*EGLU I*, 112)
- d. *Mikel eta biok ikastolan jo gara. (*EGLU II*, 56)

Behar dugun debekua honelatsuko zerbait dateke: Perpaus iragankor baten aditz nagusia zinez bere objetu zuzena aldatu egiten duenetakoan badugu, perpaus hau ezin inpertsonal dezakegu elkarretasuna adierazteko, eta bestela bai.

Hau legetzat harturik, *agurtzen gara, ezagutzen gara, ikusten gara, lassantzen gara* eta beste batzuk onargarriak lirateke, *erretzen gara, hiltzen gara, jotzen gara, zauritzen gara* eta abar, aldiz, gaitzesgarriak.

Hirugarren multzoa inpertsonal bihurkariet osatzen dute. Hona hemen idoro ditudan aipamenik zaharrenak:

- (21) a. Zeren eçagutzen bainaiz çordun çure aldera. (E.Z., *Man II*, 26)
- b. Ene ezin hautsizko fidelitasunaz emaiten natzaizu. (S.P., *Phil.*, 70)
- c. Beira zaite ispillu andian. (El. 73)
- d. Debru nere etsai higuinari eman hatzaio. (Dh. 146)

Hurrenengo hauek Adolfo Arejita doktoreak Mogelen idaztietan topatu-tako batzuk ditugu:

- (22) a. Acusetan naz, Jauna, ... (Mg., *CO*, 22)
- b. Acusetan danian bat... (Mg., *CO*, 177)
- c. Beguiratu zan oñetara. (Mg., *Ip.*, 99; Altz.)
- d. Beguira zaite ispillu andi baten. (*Cat. Elg.*, 224)
- e. Curutceco eriotziaz esquini jacon gugaitic bere Aita Jaincuari. (*Cat. Elg.*, 235)
- f. Gorde biar zaree nescatilletaric. (Mg., *P.A.*, 107)
- g. Egun guichijan zara icusico indar galantac arturic. (Mg. *P.A.*, 65)
- h. Icusi zanian arerijo loy ta donga á bere echeti campuan. (Mg., *CO*, 115)
- i. Ta katigaturic ikusi zanian, asi zan orruaz. (Mg., *Ip.*, 65; Altz.)

Beste hemeretzigarren mendeko aipamen batzuk:

- (23) a. Ze umiltasun andiaz imini cinean Yudegu gogor-amorratuen es-cuetan. (Añib., *EL 3*, 173)
- b. Ichi zaite jausten emendic bera. (Añib., *J.C.L.E.* 196)
- c. Emacumea alan aguerturic ikusi zanean, icaraturic (Añib., *J.C.L.E.* 229)
- d. Ta Simon Pedroc janci eban bere soñecoa ta bota zan ichasora. (Ibid. 434)

- e. Amar ayetatik bat, txit sendatu ikusi zanean, itzulita ... (Lardizabal, *TB*, 75)
- f. Ematen natzaizu osoki eta behin bethicotz. (Joannategi, *S.Bi*, 386)

Eta azkenik, gure garaiko aipamen batzuk:

- (24) a. Ur-ertzean begiratu naiz. (Ibiñ., *Virgil*, 34)
- b. Norbait eman nintzan maitearen maitez. (Xalbador, *Odol.*, 341)
- c. Ez ginen importanteak sentitzen. (Urretabizkaia, *Asp.*, 23)
- d. Ez zen sekula erabat ematen, beti gordetzen zuen nitasunaren mugekin lokarri bat. (Urretabizkaia, *Asp.*, 30)
- e. Carmen ezagutu ez banu, ni ere ez nintzan libratuko. (Urretabizkaia, *Asp.*, 32)

Horien guztiengandik kontra debekurik eraiki behar ote du EGLU-k? Utikan! Nahiz eta *askotan bere burua* erabiltzeaz argitasun garbiago lor daitekeen, egitura inpertsonalaz ere baliatu nahi bada, ez dut inolako arrazoirik ikusten aukera hori galarazteko.

Euskara batuan ere, bihurkaritasuna adierazteko bi aukera egotea ez zait batere kaltegarri iruditzen, bai ordea, aberasgarri.

Epai honekin inpertsonalen auzia amaitutzat emanda, har dezagun atsendal ditxo bat huskeria batzuk aipatzu.

50. orrialdean, *merezi* eta *balio* aztergai direnean, zalantzatan dabil EGLU: «gaur egungo erabilera nahasia da; ez dugu jakiten benetako *nork* ez dutenak bezala ala *nor izuna* sailekoak bezala erabili behar ditugun» dio, eta hortaz, bi aukerak ontzat ematen ditu:

- (25) a. Horrela jokatzeak ez du balio.
- b. Horrela jokatzea ez du balio.

Liburuaren 99. orrialdean, aldiz, zalantza horiek zeharo desagertu dira. Hor esaten baita halako predikatuek aditz izena absolutuan uzten dutela, adibide hau emanez:

- (25) c. Ez du balio horrenbeste lan egitea.

Gehiegiz al da gramatika bati bere buruarekin ados egoteko eskatzea?

Huskeria bila nabilenez gero, aipa ditzadan orain zenbait adibide oker: 418. orrialdean ez dakusat (52)b adibidea zertara datorren, 445. orrialdeko (27)a ez da *gura ukana-en* adibidea, ez eta hurrenengo orrialdeko (28)i *izan la-guntzailearena*, ez eta 512. orrialdeko (96)b menpeko perpaus barruko *omen-ena* ere.

Beste huskeria bat: 454. orrialdean, *behar* izenak singularreko kasu-mar-ka baizik ez duela hartzet dio *EGLU*-k. Ahaztu zaio esatea, haatik, iparraldean *beharretan* ere usu erabiltzen dela, adibidez:

- (26) a. Gu, aldiz, haren beharretan gare... (Arb., *Igand.*, 65)
- b. Etzirena oro Jainkoaren beharretan? (Arradoy, *San Frantz.* 312)
- c. Gizonak, bethi emazteen beharretan! (Larzabal, *Iru*, 18)
- d. Mintzoa asmatu eta landu bearretan aurkituko da. (Villasante, *Jainkoa*, 72)

Gramatika batean aurkitzea harrigarri zaigun sintagma bat agertzen da 458. *orrialdean zenbait argitasun batzuk*.

Irakurleen kaltetan, *ezin-i* buruzko aipamenak oro norakorik gabe desagertu zaizkigu 461. orrialdetik.

Huskeria ez, garrantzi handiko kontua baizik, azkenerako utzi dudana: *ari* aditzarena, alegia. Eta deliberatuki diot «*ari* aditza», *EGLU*-k 158. orrialdean bai adiztasuna bai eduki semantikoa ukatzen dion arren aditza delako. Aspektuari dagokion aditza, prozesu edo ekintza baten jarraidura adierazten duena; *hasi* aditzak menpeko aditzaren prozesu edo ekintzaren hastapena adierazten duen bezala.» Ari naizela, ari naizela» hasten diren Pello Errötaren bertsoak gogoan dituztenek ondotxo dakitenez, bere eskuko aditza ere izan daiteke, gutxi gorabehera *lan egin* esamoldearen esanahikidea delarik. Egia da, morfologiaren aldetik *ari* eta *hasi* ez dira berdin portatzen, *hasi* bezalako aditz normalean forma burutuak direnak, *ari-ren* kasuan orainari baitagozkio. Bai hala da, eta zer? Honelako aditzak ezagunak dira hizkuntza askotan, Latina barne, eta preterito-presenteko aditzak deitu ohi dira. Gure hizkuntzan bertan ere ez dira gutxi: *balio, behar, bizi, falta, gura, kosta, merezi, nahi, opa* eta abar. Aditzak direnez, geroaldia ohizko moduan adierazten dute: *beharko, biziko, faltako*, eta abar. Bai eta *ariko* ere. Bere esanahikidea *ari izango* sasikoa dugu, Azkuek munduratua, jatorragotzat zeukalako. Bainax Axularek, Pouvreauk, Kardaberazek, Ubillosek Mendiburuk, hots, Azkuez lehenagoko idazle guztiak *ariko* erabiltzen zuten ez eta behin ere *ari izango*. Eta horrek garrantzia badu. *Ari, EGLU*-k uste duenez, aditza ez balitz, *ari izango* ezinbestez izango litzateke forma zaharrena. Bainax alderantziz gertatzen da.

Forma burutuak, horiek bai, izan-en bitartez eratzen dira: *ari izan da*. Aspektu burutua zuzenkiro *ari-ri* ere eransten zaiola dio *EGLU*-k. Bainax *aritu-k* beste aditz bat dela dirudi: *aritzen da, aritu da, arituko da, ari-ren* formak *ari da, ari izan da, ariko da* direla. Izan ere, esanahi berdintsuko aditz arrunt bat aldean daukate preterito-presenteko aditz askok: *bizi eta bizitu, falta eta faltatu, kosta eta kostatu, merezi eta merezitu, opa eta opatu*.

Ari-ren funtzioaz ere zerbait esan nahi nuke. *EGLU*-k behin eta berriz aldarrikatzen du aspektu puntukaria adierazten duela. Bainax egia al da hori? As-

pektu puntukaria adieraz baleza, honako perpaus honek guztiz normala izan beharko luke:

(27) Bonba hori oraintxe lehertzen ari da.

Ez da normala, ordea, arras bitxia baizik. Zergatik? Hain zuzen, *-tzen + ari* perifrasieren esanahia aditz izenak adierazten duen ekintzaren jarraia delako, *EGLU*-k berak 440. orrialdean aitortuko duenez. Esanahi horrekin, ordea, ezin daiteke puntukaria izan, puntukaritasunaren aurkako bat baizik.

Hirugarren eta laugarren liburukiei buruz ez dut deus esatekorik, arta handiz mamituak baitira. Hauxe bai esango dut, ordea: hirugarren liburukiaren zati batzuk irakurtzean ez dudala oso ondo ikusten gramatika ala lexikografia lantzen ari den hor *EGLU*. Gainera, bi liburuki hauei buruz, esaera zahar bat gororazi nahi nuke: Etxean gatza ugari dagoela eta, ez dezazula bazkaria gehiegi gazi. Zertara diodan hori? Bada, orain eskumenean daukazuen Korpusaz baliatuz, hitz eta esamolde bakoitzaren erabilpenak erraz eta erruz eskura daitzkeelarik, ez dira hargatik inola ere aipamen guztiok *EGLU*-ren testuan sartu behar. Askotxo badira, egokienak eta ohargarrienak soil-soilik sar bitez *EGLU*-ren orrialdeetan, irakurleari bestela asper eta nekagarri gerta dakioko, eta ez du testua behar den arretaz irakurriko.

Bukatzera noa. *EGLU*-ren kontra dudana laburbildurik, hona hemen erantzukirik nagusienak: Bihurkarien eta elkarkarien trataera motza, artikuluaren gaineko nahaskeria batzuk, *-ko* izenlagungilea kasu-markatzat hartua, maila aditzondoen joskera aztertzeke gelditua, subjektu bizidun perpaus inpertsonala erabateko moduan gaitzetsia, eta *ari* bezalako preterito-presenteko aditzik ez ezagutzea.

Hasieran esan dudanez, mintzaldi hau *EGLU*-ren aldekoa izan balitz, ez nuke berehalakoan bukatuko, baina kontrakoa izan eta bukatua da.

Beraz, Jaun-Andre agurgarriok, ondo esanak gogoan hartu eta gaizki esanak barkatu.

AIPAMENAK

Aguirre, D., *Auñemendiko lorea*, Bilbo, 1986.

Garoa, Durango, 1912.

Aire, F., «Xalbador», *Odolaren mintzoa*, Zarautz, 1976.

Alzaga, T., *Bernaiño'ren larriyak*, Tolosa, 1963.

Añibarro, P.A., *Jesu Christoren lau evangelioac batera alcaturic*, Bilbo, 1991.

- Arbelbide, J.P., *Igandea edo Jaunaren eguna*, Lille, 1895.
- Arejita, A., *La obra de Juan Antonio Moguel, I, Gramática descriptiva de la lengua* (argitara gabea)
- Atxaga, B., *Obabakoak*, Donostia, 1988.
- Azcue, R.M., «Curiosos documentos copiados en la Biblioteca Imperial de Berlin, de los manuscritos de Guillermo Humboldt, a 5 de Agosto de 1922», *Euskera* VI, 4, (1925), 60-66.
- Beovide, K., *Asisco loria*, Zarautz, 1992.
- Catecismo de Elgoibar, Cristinaubaren eracuspena edo doctrina christiana*, Bilbao, 1987.
- Duhalde, M., *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean*, Baiona, 1809 (faksim.: Donostia, 1978).
- Elizalde, F., *Apezendaco doctrina christiana uscaras*, Iruñea, 1735.
- Elizen Arteko Biblia: Itun Berria*, Bilbo, 1983.
- Etcheberri, J. «Ziburukoa», *Manual devotionezcoa*, Bordele, 1627 (faksim.: Donostia, 1978).
- Etxepare, B., *Linguae Vasconum Primitiae*, Bordele, 1545.
- Euskaltzaindia, *Euskal gramatika lehen urratsak I*, Irunea, 1985.
 Euskal gramatika lehen urratsak I (eraskina), Bilbo, 1987.
 Euskal gramatika lehen urratsak II, Bilbo, 1987.
 Euskal gramatika lehen urratsak III (Lokailuak), Bilbo, 1990.
 Euskal gramatika lehen urratsak IV, Bilbo, 1994.
- Ibiñagabeitia, A., *Bergiliren idazlanak osorik: unai-kantak eta alor-kantak*, Bilbo, 1966
- Joannateguy, B., *Sainduen biziyea, lehen zatia*, Baiona, 1890.
- Labayen, A., *Teatro osoa euzkeraz I*, Bilbo, 1977.
- Lardizabal, F.I., *Testamentu Zarreko kondaira I*, Donostia, 1995.
 Testamentu berriko kondaira edo historia, Bilbo, 1957.
- Larzabal, P., *Iru ziren*, Tolosa, 1962.
- Leiçarraga, J., *Testamentu Berria*, La Rochelle, 1571.
- Mitxelena, K., *Euskal idazlan guztiak VII*, Zarautz, 1988.
 Orotariko Euskal Hiztegia, I-X, Bilbo, 1987-1997.

- Moguel, J.A., *Peru Abarca*, Durango, 1881 (fac-simile Bilbo, 1981)
Cristau eracasle euscalduna, Bilbo, 1994.
Confesiño ona, Gasteiz 1803.
Ipuiñak, Bilbo, 1995.
Baserritaar jakitunaren etxeko eskolia, Bilbo, 1991.
- Narbaitz, P., «Arradoy», *San Frantzes Jatsukoa*, Donostia, 1966.
- Pouvreau, S., *San Frances de Sales Genevaco ipizpicuaren Philotea*, Paris, 1664.
- Saltarelli, M., *Basque*, Londres, New York, 1988.
- Txirrita, *Txirritaren Bertsoak II*, Tolosa, 1971.
- Unzueta, A., «Nuevos datos sobre el reformador de ermitaños y poeta vasco Juan de Undiano», *FLV XIV*, 39, 329-337, (1982).
- Urretabizkaia, A., *Aspaldian. Espero zaitudalako. Ez nago sekula bakarrik*. Donostia, 1983.
Saturno (3. argitalpena), Donostia, 1990.
- Villasante, L., *Kristau fedearren sustraiak. I. Jainkoa*. Oñati, 1962.
- Zavala, A., *Txirrita*, Tolosa, 1962.

DIALEKTOLOGIA

ERREXILKO EUSKARA DUELA 200 URTE

Patxi Altuna

Egun hauetanxe beteko dira 200 urte sermoi hau Errezilko parrokian egin zenetik: ikus nola dioenene sarrera honen ondoren «Sermón de la Visitación, 2 de Julio de 1802», eta hitz horiek ez dira eneak. Hori idatzi zuenak mesede egingo zigukeen hori bezala bere izena ere ezarri baligu. Ez zuen egin eta ez dakigu nor zen. Sermoia Errezilen egina dela ere ez dut nik asmatu: eskuzkribuak barnean dakinaren orrialdetxoan hori idatzi zuenak bazekiela pentsatzen dut.

Irakurtzen hasi aurretik ere urte gehiegi direla pentsatuko du gaurko euskaldun askok hain aspaldiko paperak arretaz eta gogoz irakurtzeko. Nik ere halaxe deriztet irakurri eta gero ere, sermoiaren gaiari eta edukiari bakarrik begiratuz. Bainaz da izan gaia eta edukia eragin nauena sermoia hemen aldatzera eta aztertzera. Azalak eragin nau, ohi ez bezala, hizkerak, eta horrek eragingo duela uste dut –hala nahi dut bederen– beste euskaldun gazte asko ere, artikulua eskuetaratzean..

Sermoiaaren argazki antzoko bat egin eta erakutsi nahi izan diot irakurleari. Badakit ez zela horrenbeste behar, are ez zuela horrenbeste merezia. Hori eredugarri diren obrekin, klasikoekin eta, egin ohi baita. Bainaz horiek ere ez dira ugari izaten eta testu baten azterketa egiten irakatsi nahi izan diot bide batez irakurleari.

Ez dut askoz gauza gehiago esateko. Bainaz bat bai. Gaia, esan bezala, gaurko gustokoa ez izan arren, -tz- kontsonante multzoa iruditaratzeko era hain traketsa izan arren –zein autorerengan ikasi ote zuen hori?– eta azkenik garai hartako sermoiak –eta geroagoko batzuk– bezala luzea izan arren, uste dut hitzen eta perpausen azpian datzan sintaxia miresgarria irudituko zaiola irakurleari.

SERMÓN DE LA VISITACIÓN, 2 de Julio de 1802

«Exurgens Maria abiit in montana cum festinatione in civitatem Juda: et intravit i domum Zachariae et salutavit Elisabeth», Luc. c. 1.

1) Adanec bere gaizquiaren, edo Jaunaren Leguean egun zuan uts arrigarriarequin galdu zuan berrectaco, eta gurectaco guztioc behar degun Jauna-

ren laguntasuna, eta adisqueretasuna; eta Adanen uts hau ateracteagatic, eta gurectat irabazteco hargatic guc galdu guenduen Jaunaren gracia, eta graciac dacarren escua, egun zán Guizon Jaungoico Semea.

III bague vici beharrac ciran gure Guraso Adan eta Eva, egun ezpaliote beren Jaunari eguiñioten charqueria. Eguin cituan gure Jaungoicoac Adan, eta Eba, eta biac Ceruraco; egun horduco eman cien lurrean ongi viciteco behar zuten gucia, dio bada eman cien lurreco Paradisua, Ceruco inocencia, justicia originala, eta gracia; ezctuten horduan gaicteraco macurtasunic batere, eta gauza onac chit ongi egun cizaquen beren inocencian, eta zuten graciarequin batean; eta baldin onela vici izan balira beti eramango cituan beren Eguille Jaungoico maitagarriac emengo Paradisotic Ceruco Paradisora, eta eramango cituan erioran (?) orctera gabe, eta emango cien eternidade gucico atseguiun contentua, eta beti betico gloria.

Arbola orretatic jaten badezu, esan cion Jaungoicoac lendabicitic Adani, galduco dituzu nic naiez ematen dizudan inocencia, eta gracia, galduco dezu cere vicitza, eta actenean ill beharco dezu cere hume, eta ondorengo guciain, eta Jesus eta bere Ama ez, baña beste guciac vicien asi horduco gueldituco dira zure pecatuaren loitasunean, ichusturic, eta galduric.

2) Eta norc esan ectezaquean Jaunaren aguincte onec bildurtuko eztuela Adan, eta quenduco cictaiola Arbolaren onduan ibilteco gogo guztiak, eta ectuala aren frutaric probatuco mundu guciagatic ere? Baña cer guertatzuzan? Jaunaren esanaz eguinaz, eta Jaunagandic uste cituan Ceruco, eta lurreco ondasun andiez casoric egun bague jaten deu Arbolako fruta.

Ah! numbait Adan! eta orren guchi beguiratuko cinduan cere buruari, eta guri tristeo! Eta orren laster galduco guinduzun, eta bocadu bategatic! Ah!, zori tristeko guizona!, bada zu izanic ceruraco jauta (?), laster aurquituko cera andic desterratua, eta zuc ill bague vici behar cenduana laster galduco dituzu Ceruco doi guciac, eta juango cera lurra bonaneactera, eta ongi neguaturic, izarditan goicetic arratseraño, eta cere burua narrugorrian ecusiric lotsaturic aurquituko cera, eta juango cera baztar illumbatera, cere corpucta nolaerebait picu ostoz estalctera; baña an ere ecusten zaitu cere Jaungoicoac.

Aguincten dio Jaungoicoac Adan atera daquiola Paradisotic, eta juan derrilla pecatuari dagocan sentenciac diona eguitera, edo lurra maneatz nequezko izarditan bere jan-edana, eta gañeraco gauzac eguitera. Ateractenda Adan isill-isillic Paradisotic berequin bere Andre Eba daramala.

3) Ah!, cer trucada Adan pecatariarenctat eta gure galduenctat! Ecusizuan Adanec cer zan Paradisua, eta ecusten deu guero aren toquian ematen zaion vicioquia, eta ecusten deu trocada gaisto onetan harc, eta guc galcten guenduena; bada trucada gaizto onetatic datoziqiguztia izaten ditugun heritasunac, naigabeac, quezcac, humeen esquergabetasunac, erioctac, eta gañeraco bigdegabeac.

Eta bitartean cer egungo ote zuan haren Andre gaiso Eva mimberiac? Cer eguin cezaquean? Negar eta negar, bada Paradisotic ateractean esango zuan malcua ceriola: (Ah!, nere tristeal, ni izanic naturalezaren graciaz jancia, eta; cf. hamar lerro beherago). Norc arindu ninduen ni Paradisuan bacarric, se-narra uctiric, ibillcteco? Ni egon banintz onen beguietan, edo onen vistan, etzan assico nerequin icteguiten bazarrean zeguan suguea, edo onen ichuran etsai madaricatua. Baña arindu ninztan bacarric ibillcteco, eta Paradisoco bazzarrac ecusten nebillela, han aguertu cizatan bazarrean ceguan etsai enganaria, eta onec ongi nai cirlalako eguiten nere zori gaistoan haren esana.

Ecusten det Arbolaren fruta; ecusi orduco iduricten zait guztiz eder gozua. Beguien ondoren anztan laster nere jan gura edo gogo gaistua; eta biai cerraguuela nere escu ara baño lenago erreric guelditu behar zeuqueña. Artucten det nic neronec eta jaten det Arbolaren fruta. Jan eracichten diot nere senarrari jan horduko, idiquichten dira Senar Emazteen bien beguiac. Certasaco ote? Galduac guerala eta galdu ditugula gueren hume guztiac ecusteco

4) Ah! nere tristeal! Ni izanic Naturalezaren, eta graciaren doi ederrezz jancia, eta apaindua, nic ill bague Cerura zucen-zucen juan behar nuena, ni gaicteraco macurtasunik batere baguecoa, norc esan cezaquean nic abec guztiaz nere naiez galdu behar nituena? Orretara naiz ni? Bada orain aurquichten naiz illumpez beteric, eta Jaunaren maldicioac esaten dirala, emendic aurrera izango diturala, eciñ asma al-adiña lan, neque, oñace, eta erdirakte gogorrac.

Ah, infernuco etsai enganaria! Eguin dezu zuc iñorc ere ecin eguin lezaquean gauzaric charrena! Bada gal-eraci diezu biai, eta guri guztioi Ceruco sarrera, eta gracia. Contentuz aurquichten cera cere irabaci gaisto orrequin? Baña cheon ezazu: eztira izango zuc uste dituzun adi(ña) irabaci, cergatic zure irabaci gaisto onec ere izango (deu) bere erremedioa, edo zucen bidea.

Andre batez valiotu cera guizona galducteco; beste Andre batec gal-era-cico dizu cere irabaci gucia. Andre onec ebaquico dizu cere burua, eta bici ceran artean auspez luraren gainean ibilli beharco dezu. Cergatic Andre etor-quizun onec izango deu Seme bat, zuc eta Infernuco guciac. baño escu eta indar gueiago duana; eta Seme onen izana ceruac, lurrac, eta Infernuco guciac be-launiko errespetatuko dutena.

5) Ecusiric, bada, gure Jaunaren amorioac aurquichten guñala gucioc pe-catuauren esclavo, erruquituric gure miseriaz determinatu izan zuan, escogictea bere Amactat munduan izan dan eta izango dan Doncellaric garbien bat, Andre guztien artean pareric baguecoa, Jaunaren privilegioz Adanen mancharic baguecoa, santutasun guciengoa virtutea, eta santidadea, animaco edertasuna bes-teric eztuen edertasuna, bere burua eguzquiaj inguratura, bere corpuncta ceruko izarrez eta ainguerez apaindua, bere oñazpian illarguria ceucan bat cerictana Maria; biralcten zuala onetaraco bere Empirioco Princeperic andienetatic bat, bere indartasuna, edo San Gabriel Ainguerua; ceñec, etorriric Virgiña guciengoa Virginia ceguan toqui(r)a, errespeto andiz beteric esaten dio:

«Agur Maria graciaz betea, Jauna da zurequin, bedinatea cera zu Andre guztien artean». Eta virgiña guztien Virgina, baiez bat ecin emanic becela Jau-nac berac escacten cion gauza baten gañean, gorrituric, eta lotsaturic becela, eranzun cion: «Nola izango da posible, baldin guizonic ezagucten ez badet?». - «Ez deiquizu eduqui bildurric», eranzun cion horduan Aingueruac, «bada Jau-naren vorundatea da izanderilla Espiritu Santuaren obraz, eta virtutez zure entraña garbietan concibitua Trinidadeco bigarren Persona, Aita Eternuaren Semea, munduaren erremedioraco; eta hau izango da zuc batere virgiñidaderic galdugabe, eta zugandic jaiocen dana, deituko zaio Jesus, Santua, edo Jaun andiaren Semea». Horduan pozturic, eta animaturic becela, entregacten zuala bere viotz, eta vorundatea bere Jaunari, eranzun cion: «Bada orrela bada, ona Jaunaren Esclava, eta eguiñ beri bere vorundatea.

6) Itz onec atseguiñ, contentuz bete cituan Cerua eta lurra, han eta emen bici ciran guciac. Eta infernu guciac icaraturic, nun Trinidadeco bigarren Persona Ceru guciac idquiric, eta Corteco Ainguero guciac lagunten ciotela, ja-chin dan Maria Santissimaren entrañatara. O Cerua, eta Lurra arricteco dan Misterio!, eta guizonac beren Jaunaren zor dioten amorioa!

Baita instante onetan ere adiraci-cictaion beste berri guztiz eder bat. Nola aren lengusu Isabel aurquicen zan aurdu sei illabetecoa; bada edade andicoa izanagatic, eztala Jaungoicoarenctat batere imposibleric, eta izango zuala seme bat dana milagroz betea. Berri onequin berriro pozturic, largacten deu bere echea, eta irteten da bere Esposo Josequin Judaco ciudadera juateco deseoz, allegacten da Hebrona berac daqui cebait nequerequin; badijua zucen zucen Zacariasen echera, sarreran topacten Isabel Leengusu maitea, eguiten diote al-carri laztan.

Eta Virgina icteguiten asi horduko, nun sei illabeteco aurra bere Amaren sabelian aurquicen dan pecatuco catetic libratura, eta santificatua; eta belauni-co jarriric adoracten deu bere, eta gure Redem ptorea, bada icteguiten ezpa-cequien ere, esango zuen beregain: Ona nun datorren Jaunaren Bildotsa, mun-duco pecatu guciac quencten dituana.

Eta Isabel onen Amac ecusiric bere sableco aurraren poza, eta conten-tua, esanzuan: Bedinatea cera Andre gucien artean eta bedincatua zure sabe-leco frutua! Nundic nora neri onembeste mesere! && Jaungoicoa eterri zan Cerutic lurrera guri Ceruco bidea, edo leguea eracusteagatic. Hau sermoico puntuia. &. Ave Maria.

7) «Exurgens Maria abiit in montana cum festinatione in civitatem Juda; et intravit in domum Zachariae, et salutavit Elisabeth», Luc.

Gure Jaungoicoa guizon eguitea, edo guizon eguiñic mundura ctea, noiz nai izan zan gurectaco mesere, eta ondasun andia. Noiz, bada, edo cer sasoiez mundura zan gure Jesus maitagarria? Agusto cerictan Errromako Emperadorearen azquen aldeco egunetan. Eta nola aurquicen zan horduan mundua, edo

munduko gendeac? Baque andian, eta ondasun andiz beteric, esaten deu Isaias Proph.; bada guelditu da, esaten deu, mundua bere odol isurce gogoretatic, bere guer aldiac ematen diozcaten ondasunequin pozez bete da mundocon nagusia, eta escu artean dacarren eguitocoan, agueri bere biotean aurquicten zaion atseguiñ contentua.

Jesus jaio zaneco baciran berroguei urte, eta gueiago Erromaco Emperadore zala horduko nagusi Agusto Cesar; urte orietan gucietan izan cituan Agusto Emperadoreac bere guer aldi andi gogorrac, baña hordurako bucatu cituan guciac, eta horduranako bere etsaiac garaituric, edo vencituric, baquetan ceguan Cesar. Jesus Jaungoico guizona lurrera zaneco; eta aurquicten zan Cesar mundoaren iru zatietan aurquicten ciran Reinu, edo baztar aberatsaren Jaun, eta Jabe bacarra, eta guer aldi berriric viztu ectidin, edo vizten bazan ere, artu cituan Agustoc berac bide, eta neurri guztiz onac, zucenac, eta bear becelacoac; eta jaquiñaren gañean egoteco, eta cer ondasun izancezaqueen bere behar demportan, aguindu zuan ecusi cerilla, nor ciran, cembait ciran, eta nolacoac ciran escupean aurquicten ciran guizonac, eta andreac; lan onetaraco billatu cituan guzonic onenac, eta oriec egun zuten guztiz ongui, zucen, eta behar becela Agustoren esana, eta icasi zuten Agustoc jaquin nai zuena. Arte gucian issillic ceguan lurra, eta gueldiric mundua. Orra nola aurquicten zan mundua, eta orra nola cebillen mundocon Nagusia isill issillic, baquetan eta behar becela.

8) Ezta misterio, esaten deu San Basilioc. Aguilla derictan egaztien erre-guiña egoan dabillean, issillic eta gueldiric daude gañeraco egazti guztiak, eta lurrera Erregue Jesus Jaungoico guizona cerutic cetorranean, issillic egon behar zuten mundocon erregue guztiak, eta gueldiric orien armac; bestela ectan chit erraz Jesusec eguitea egun behar zuana, ezta mundocon ere Jesus one-gandik icasi behar zutena icastea.

Legue zarreco gauzac eracustera biralduzuan leen gure Jaungoicoak ainguera bat, baña biraldu zuan legueac escacten zuan eran, edo era guztiz izugarri batean; bada bidaldo zuan baztar guztiak icaretan cituen trompeta izugarri batequin suz, quez, drumoiez, eta chimbistaz betericako odoi icagarri batean. Guelditu zan odoi hau Sinai cerictan mendi gañean, eta israildar guztiak azpiko aldiak ilcear cirala queratu ciran. Eracusi cien ainguerauc beren Jaunaren leguea, baña eracuste hau, leen esan deran becela, leguearen eraco eracustea zan, bada Israeldarren leguea, legue bildurrezcoa zan, eta guztiz ica-ragarria.

9) Jesu, eta hau gucia cergatic? Cergatic aren vihoctac aurquicten ciran arriac becela gogorturic, inor ere eguiten ectuala beren Jaunaren esanic? Bada Jesus jaio zaneco, ecin conta al adiña ciran munduan aurquicten ciran guizon, andre, eta zar gazteac, eta Israeldarrac, eta beste cembait atera, eta gañeraco guciac infernucoaren escupean vici ciranac ciran, eta profeta Davidec dionaz, Isrraldarrac ciran nor zan Jaungoicoa cequiten gendeac. Gentilen Jaungoicoac ciran arrizko, eta zurezco idoluac, gaiztoaren ichura, edo figura ichusiac;

- ahaldundi* e. aldundi, diputazio.
- ahaldungai
- ahalegar* e. aholegar.
- ahalegin *Sin. eginalah.*
- ahalegina adlag. 'ahaleginean, ahal den neurrian': *ahalegina moztuta ere, nahiko luzea izango zen.*
- ahalegina(k) egin
- ahaleginean
- ahalegindu, ahalegin(du), ahalegintzen. *da ad.: esaten, (bukatzen, etab.) ahalegindu.*
- ahaleginka adlag. *g.er. 'ahaleginak eginet'*.
- ahalegintxo iz. 'ahalegin-en txikigarria'.
- ahaleria *Gram.*
- ahalezko
- ahalgabe izond. *g.er.*
- ahalge* e. ahalke.
- ahalgo iz. 'kemena': *adinarekin ahalgoak joan zaizkit.*
- ahalguztidun
- ahalguztiduntasun
- ahalik (eta) 1 adag.ekin: *ahalik maizen, sarrien, etab. baino hobeto ahalik maizena, ahalik sarriena, etab.*
2 izond.ekin: *ahalik garbiena, osoena, ederrena, etab. 3 ahalik eta goizenik merkatura joan.*
- ahal izan, ahal izaten, ahalko / ahal izango: *ekarri ahal izateko; etortzen ahal da; ahal dela; ahal den sailik handiena; ezin konta ahal.*
- ahal adina
- ahal adinako
- ahal beste
- ahal bezain
- ahal bezainbat
- ahal bezala
- ahal izate
- ahalke iz. *Batez ere Ipar.*
- ahalke izan da ad. *Batez ere Ipar.: hartaz ahalke naiz; semearen ahalke dira.*
- ahalkearazi, ahalkearaz, ahalkearazten. *du ad. Ipar.*
- ahalkegabe izond. *Ipar. Sin. lotsagabe.*
- ahalkegabekeria iz. *Ipar. Sin. lotsagabekeria.*
- ahalkegabeki adlag. *Ipar. Sin. lotsagabeki.*
- ahalkegabetasun iz. *Ipar. Sin. lotsagabetasun.*
- ahalkegabetu, ahalkegabete(tu), ahalkegabetzen. *da/du ad. Ipar. Sin. lotsagabetu.*
- ahalkegarri izond. *Ipar. Sin. lotsagarri.*
- ahalkeizun
- ahalkeizungarri* e. ahalkegarri.
- ahalkerazi* e. ahalkearazi.
- ahalkeria iz. *Jas. 1 'ahalkea'. 2 pl. 'lotsariak'.*
- ahalketi izond. *Ipar. Sin. lotsati.*
- ahalketsu izond. *Ipar. g.er.*
- ahalketu, ahalke(tu), ahalketzen. *da/du ad. Ipar. Sin. lotsatu.*
- ahalkor izond. *Ipar. Sin. lotsati, lotsakor, lotsor.*
- ahalmen
- ahalmentsu izond. *g.g.er. 'ahaltsua'.*
- ahalorde iz.: *abokatuari eskura eman zion ahalordea.*
- ahalrotako izond. *g.er.*

ahaltasun
 ahaltsu
 ahalsutasun iz. g.er. 'ahalmena'.
 ahamen
 ahamenda
 ahamenka
 ahamenkatu, ahamenka(tu), ahamenkatzten. *du ad.*
 ahantzarázi, ahantzaráz, ahantzarázten. *dio ad.*
 ahantzi, ahantz, ahanzten. *da/du ad.*
 ahanzgarri iz. 'ahantzarázten duena': *oi hau oinazea, beste guztien ahanzgarria!*
 ahanzkor
 ahanzmendu iz. g.er.
 ahanzte
 ahanztura
 ahapaldi
 ahapean* e. ahopean.
 ahapeka adlag. *Batez ere Ipar.*
 ahapeko* e. ahopeko.
 ahapetik adlag. *Batez ere Ipar.*
 aharantza iz. Zah. *Ipar.* 'mintzaera'.
 ahardi
 ahari
 ahari(-)joko *Sin.* ahari(-)talka, ahari(-)topeka.
 ahari(-)talka *Sin.* ahari(-)joko, ahari(-)topeka.
 ahari(-)topeka *Sin.* ahari(-)joko, ahari(-)talka.
 ahariki
 ahariko
 harito iz. *Bizk.* 'ahari(ko)a'.
 aharra iz. *Sin.* ahakar.
 aharrari izond. *Ipar.* 'liskartia'.
 aharratu, aharra(tu), aharratzen. *da ad.* *Ipar.* 'liskartu'.
 aharrausi
 aharrausi egin
 aharrausika
 ahartzartz iz. *Batez ere Zub.* 'aharia'.
 ahatarra* e. ahotara.
 ahate
 ahatebeltz iz. *Melanitta nigra.*
 ahateki
 ahatekume
 ahatettipi iz. h. zertzeta.
 ahats izond. Zah. 'zikina'.
 ahausi* e. adausi.
 ahazabal* e. ahozabal.
 ahazgarri
 ahazkor
 ahazmen iz. g.er.
 ahazte
 ahaztu, ahazten. *daldu ad.* eta *zaio ad.:* *euskaraz hitz egiten ahaztu zaio; bigarren galderari erantzutea ahaztu zaio.*
 ezin ahaztuzko
 ahazuri* e. ahozuri.
 aheri iz. Zah. g.er. 'kantu doinua'.
 aheria* e. ahoeri.
 ahetz iz. *Ipar.*
 ahi
 ahiarazi, ahiaraz, ahiarazten. *du ad.*

ahikor izond. ‘ahitzen dena’.

ahitu, ahí(tu), ahitzen. *da ad.* ‘agortu, bukatu’.

ahitze

ahizpa

ahizpaorde

ahizpatzako

ahizperdi iz. *Ipar.* eta *Naf.*

aho iz.: *ahotik ezin utzi(zko).*

aho(a) bete: *ahoa bete hortz gelditu edo utzi; aho bete haginekin utzi edo gelditu.*

aho(a) betean: *gezurrik doilorrenak ahoa betean jaurtiz.*

aho(a) beteka

aho(a) beteko

aho(a) betez

aho-artatzaile

aho batez

aho(-)ganga iz. *Ipar.* ‘ahosabaia’.

aho(-)korapilo

ahoko soinu

aho-mihi kasu-markaren batekin erabiltzen da, eta pluralean edo mugagabeen: *jendeen aho-mihiiek aldatu dute izen zaharra; aho-mihiitan erabiltzen dute maiz auzi hori; gizalditik gizaldira aho-mihiiz heldua.*

aho(-)soinu

ahotan

ahotan erabili

ahotan hartu

ahotik ahora

ahoz

aho zabalik

aho zabaika

ahoz aho

ahoz behera

ahoz gora

ahozko

aho bateko* e. **ahobatezko.**

ahobatezko

ahobero edo **aho-bero**

ahoberokeria

ahoberritu, ahoberri, ahoberritzen. *du ad.*

ahobizar

ahoeri iz. ‘ahoko eritasuna, bereziki mihian eta inguruetan gertatzen diren zaurixka batuetan datzana’.

ahogozatu, ahogozta, ahogozatzen. *du ad.*

ahogozo

ahokada

ahokaleku

ahokatu, ahoka, ahokatzen. *du ad.*

ahoko iz. 1 *Ipar.* pl. ‘hortz, hagin ordezkoak’. 2 ‘zaldiegi-eta ahoan jartzen zaien uhala’.

aholatz *Rhinonemus, Ciliata, Gaidropsarus* eta *Lepidion* generoetako arraina.

aholegar

aholkatu, aholka, aholkatzen. *du ad.: norbaitek norbait zerbait egitera aholkatu; aholkatu zuen Adan hark ere har zezan sagar hartatik. Sin. aholku eman.*

aholku

aholku(-)batzorde: *Euskararen Aholku Batzordea.*

aholku eman

aholkulari

aholkularitza

ahomen 1 iz. ‘omena, ospea’.

ahomen 2* e. **ahamen.**

ahopats* e. aupats.
ahopean
ahopeko
ahopildu, ahopil, ahopiltzen. *du ad.*
ahopilo iz. *Ipar. g.er.* ‘ahobizarra’.
ahoratu, ahor(a)tu, ahoratzen. 1 *du ad.* ‘ahora eraman’. 2 *zaio ad.* ‘ahora etorri’.
ahosabai
ahoskabe izond. *Fon.*
ahoskarazi, ahoskaraz, ahoskarazten. *dio ad.*
ahoskatu, ahoska, ahoskatzen. *du ad.*
ahoskera
ahostun izond. *Fon.*
ahotara
ahotaraka
ahots
ahotz 1
ahotz 2* e. arotz.
ahozabal edo aho-zabal izond.
ahozapi iz. *Sin. ezpainzapi.*
ahozkotasun
ahozpez* e. ahuspez.
ahozpezu* e. ahuspezu.
ahoztegi iz. ‘lastategia’.
ahozuri edo aho-zuri izond. ‘mokofina’.

(Euskaltzaindiak, Donostian, 2002ko martxoaren 22an onartua)

119
HIZTEGI BATUA
ahuakate – aitzitik¹

ahuakate iz. *Persea gratissima*.

ahuakateondo

ahuku

ahul

ahulaldi

ahularazi, **ahularaz**, **ahularazten**. *du ad.*

ahuldade iz. *Gip.*

ahuldu, **ahul(du)**, **ahultzen**. *da/du ad.*

ahuldura

ahuleria iz. ‘indar falta’.

ahuletsi, **ahulets**, **ahulesten**. *da/du ad. Ipar. g.er.* ‘ahuldu’.

ahulezia

ahulgarri izond. eta iz. ‘ahultzen duena’.

ahulgune iz. ‘gune ahula’.

ahulkeria iz. ‘kemen falta’.

ahulki

ahultasun

ahultxo ‘*ahul-en txikigarria*’.

ahultzaitze izond. *g.er.*

ahulune iz. ‘ahulaldia’.

ahulkko ‘*ahul-en txikigarria*’.

ahume* e. **auma**.

ahuntz

ahuntz(-jazienda

ahuntz-erdara

ahuntz-hosto iz. ‘atxaparra (*Lonicera sp.*)’.

ahuntz-praka iz. *Cheiranthus sp.*

ahuntz(-)talde

ahuntzadar iz. *Pistacia terebinthus*.

ahuntzain

ahuntzama

ahunzki iz.

ahuña* e. **antxume**, **ahuñe**.

ahuñe iz. *Zub.* ‘antxumea’.

ahur 1 iz. ‘eskuañen barrualdea’: *anartean ahur betez aberats dadila; ahur bat irin. 2 izond. Mat. eta Fis.*

Sin. konkabo: poligono ahurra.

ahurka

ahurreta iz. *Zub.* ‘ahurtara’.

ahurtara

ahurtarska

ahuspeka adlag. *Ipar. g.er.* ‘ahuspez’.

¹ Arau honek osatu eta eguneratu egiten du 44. Arauan argitaratutako Hiztegi Batuko zerrenda, ahuakate - aitzitik tarteko hitzei dagokienez. Arau berria da, beraz, kontuan hartzekoak.

ahuspekatu, ahuspeka(tu), ahuspekatzan. *da ad. Ipar. g.er.* ‘ahuspeztu’.

ahuspez

ahuspezka

ahuspezkatu, ahuspezka(tu), ahuspekatzan. *da ad. Naf.* ‘ahuspeztu’.

ahuspeztu, ahuspez(tu), ahuspeztan. *da ad.*

ahutz

ahutzeko iz. *Zah.* ‘masailekoa’.

ai *Sin. aiei.*

ai ene interj.

aialdeko iz. *Naf.*

aiba *Heg., Lgart.*

aida 1 ‘behi-idiei eragiteko hitza’.

aida 2 *Bizk.:* *aida batean* ‘berehalia’.

aidaka

aidanez* e. *agidanez.*

aiduru

aiduru egon

aiduru gelditu

aiet *Sin. ai.*

aiekia

aieka iz. ‘aldea, alderdia’.

aienatu, aienia, aienatzen. *du ad.*

aienatziale izond. *g.er.* ‘ilunbeen aienatzialea’.

aiene

aieneka

aieneko iz.

aieru

aieruka

aieska iz. ‘aienea’.

aiez adlag. *Zah.* ‘aieneka’.

aiez egon

aiezka adlag. *g.er.* ‘aiez’.

aihen

aihen(-)belar

aihen ezker ‘ezker-aihena’.

aihendu, aihen(du), aihentzen. *da ad.* ‘aihenak, kimuak erne’.

aihenzuri iz. *Clematis vitalba.*

aiher

aiher izan 1 *dal/zao* ad. ‘zerbaiten/zerbait egiteko gogoa edo gorrotoa izan’: *aiher dira zernahi esateko; eskoletako gizon gazteei zen gehienik aiher; ardoari aiher naizazio; Herodias aiher zi- tazion Joan Bataiatzaileari. 2 du ad. ‘zerbaiti gorrotoa izan’: eriak lau paretak aiher ditu; zen- bat etsai dituen aiher! Batzuetañ ‘zerbait egiteko nahia izan’ ere adieraz dezake: hau da aspaldi aiher izan dudana.*

aiherrak egon: zu *ikusteko aiherrak nago.*

aiherkunde

aihertu, aiher(tu), aihertzen. 1 *da ad.* ‘makurtu’. 2 *zaio* ad. ‘kontra egin’.

aiho iz. *Zub. g.er.* ‘nahia, desira’.

aihotz

aika adlag. ‘aieneka’.

aiiko-maiko iz. *Batez ere Bizk.*

aila iz. *Bizk.* ‘buztana, txortena’.

ailagina adlag. *Bizk.:* *Meza batek balio du Jesukristoren pasioak ailagina; zergatik maite dute euren bu- rua ailagina?*

ailaginako izlag.: *besteen ailaginakoak dira horiek.*

ailara

ailaragin

ailatsu *Bizk.* ‘buztan handikoa’.

ailegatu, ailega, ailegatzen. *da ad. Batez ere Gip. eta Naf. Herr.* ‘iritsi, heldu’.

- ailis e. *airis*
 ailorbe iz. *Trigonella foenum-graecum*.
 aimant iz. *Ipar. Zah. g.er.* ‘iman-hartia’.
 aimara (hizkuntza).
 aina* e. *adina*.
 ainar iz. *Naf. Ip.* ‘txilarra’.
 ainara iz. h. *enara*.
ainarba iz. *Zub.* ‘armiarma’.
 ainbaga* e. *hainbarik*.
 ainbagako* e. *hainbako*.
 ainbagarik* e. *hainbarik*.
 ainbarik* e. *hainbarik*.
 ainbat* e. *adinbat*, *hainbat*.
 aingabe* e. *hainbarik*.
aingeru iz.: *aingeru aurpegia zuen*.
 aingeru(-)belar *Angelica officinalis*.
 aingeru begirale
 aingeru gaizto
 aingeru guardako
 aingeru jagole *Bizk.*
 aingeru(-)kanpai ‘aingeru-belarraren lorea’.
 aingeru(-)lore
 aingeru zaindari* e. *aingeru zaintzaile*.
 aingeru zaintzaile
aingerukeria
aingeruki 1 adlag. *g.er.*
 aingeruki 2 iz. ‘aingeruzko izakia’.
aingerutasun iz. *g.er.*
 aingerutu, aingeru(tu), aingerutzen. *da/du* ad. ‘aingeru bihurtu’.
aingerutxo
aingeruzko
aingira iz. *Anguilla anguilla*.
 aingira morea *Murena helena*.
aingura
ainguragile
ainguragintza
ainguratoki
 ainguratu, aingura(tu), ainguratzan. *du* ad. ‘ontzia aingura bidez finkatu’.
 ainitz* e. *anitz*.
aintza
 aintzagari izond. ‘aintza merezi duena, goresgarria’.
aintzaka
 aintzakotzat ‘aintzat’.
 aintzakotzat eduki
 aintzakotzat eman
 aintzakotzat hartu
aintzaldu* e. *aintzatu*.
aintzat
 aintzat eduki
 aintzat eman
 aintzat hartu
aintzatsu izond.
aintzatu, aintza(tu), aintzatzen. *du* ad.
aintzazko
aintzin* e. *aitzin*.
aintzira
aintzura iz. *g.g.er.* ‘irudia’.

ainube *Bizk.* 1 iz. ‘laiotza, ospela’. 2 izond. ‘itzaltsua’.
ainuri iz. *Naf. g.er.* ‘intziria, zinkuria’.
ainutsu* e. *lainotsu*.

aio
aiots iz. ‘intziria, aienea’.

aipaezin

aipagarri

aipaldi iz. *Ipar.* ‘aipamena’.

aipamen

aiparazi, aiparaz, aiparazten. *dio* ad.

aipatu, aipa, aipatzen. *du* ad.

aipatzale iz. *g.er.*

aipu

aipu izan du ad.: *hura zen hemen aipu dugun gizona.*

airakor izond. *g.er.*

airaldi iz. *Ipar.* ‘hegaldia’.

airarazi, airaraz, airarazten. *du* ad.

airatu, aira, airatzen. *da/du* ad.

aire 1: *itisasoko arrainak eta aireko txoriak.* 2 *Ipar.* ‘doinua’. 3 ‘antza, itxura’.

aire! ‘alde!’.

airean a) ‘ernai, urduri’: *beldurrak/beldurrez airean egon, utzi;* b) ‘azkar, presaka’: *zoaz hemendik airean.*

airean eduki

airean egon

aire-armada* e. *aireko armada.*

aire berean *Ipar.* ‘laster’.

aire-bidaia* e. *aireko bidaia.*

aire(-)bide

aire gaizto 1 ‘tximista’. 2 ‘perlesia’.

aire-garraio* e. *aireko garraio.*

aire girotu: *aire girotua jarri dute.*

aire-girote

aire-indar* e. *aireko indar.*

aireko armada

aireko bidaia

aireko garraio

aireko indar

aire(-)konpainia

aireko posta edo **aire(-)posta**

aire(-)posta edo **aireko posta**

airetik adlag. *Ipar. Sin. airez (Heg.)* ‘(pilota-jokoan) pilotak lurra ukitu aurretik’.

aire txar ‘perlesia’.

airez adlag. *Heg. Sin. airetik (Ipar.).*

airez aire

aireberritu, aireberri, aireberritzen. *da/du* ad.

aireberritze

airedromo* e. *aerodromo.*

aireko iz. *Ipar.* ‘hegazkina’.

airenautika* e. *eronautika.*

aireontzi

aireplano iz. *Zah.* ‘hegazkina, airekoa’.

aireportu

aireratu, airera, aireratzen. *da/du* ad.

aireratze: *aireratze-pista.*

airetikako iz. eta *izlag. g.er.*

aireztapen

aireztatu, airezta, aireztatzen. *du* ad.

- airis** izond.: *ogi airisa, legamiarik gabea.*
airos izond. eta adlag. *Ipar.*
airoski adlag. *Ipar.*
airoso adlag. *Heg.: airoso erabili du hamaika arroako harria.*
airostu, airos(tu), airosten. *da/du ad. Ipar.*
aisa h. *aise.*
aisatu, aisa(tu), aisatzen. *du ad. 'erraztu, eramangarriago egin'.*
aise
aiseki
aiseria iz. *Ipar. 'aisetasuna, erosotasuna'.*
aisetasun
aisetu* e. *aisatu.*
asia
aisialdi
aisit izond. *Ipar. eta Naf. Zah. 'erraza, arina'.*
aislamendu* e. *isolamendu (Fis., eta bestetan hobestekoak diren bakartze, bakantze, baztertze, etab.).*
aislatu* e. *isolatu (Fis., eta bestetan hobestekoak diren bakartu, bakandu, baztertu, etab.).*
aita
 - aita-ama** *pl.*
 - aita-amaginarreba** *pl.*
 - aita-ama** *ponteko pl.*
 - aita** *besoetako*
 - aita** *familiako*
 - aita** *nagusি 'komentu bateko burua'.*
 - aita** *ponteko*
 - aita** *usteko*

aitabasaba iz. 'birraitona'.
aitabitxi
aitaginarrreba
aitagoi h. *aitalehen.*
aitagure iz. 'Gure Aita otoitzaren izen zaharra'.
aitaita iz. *Zub.*
aitaizun iz. *g.er. 'aitaordea'.*
aitajaun iz. 1 'aitona'. 2 'aita pontekoa'.
aitakide
aitakiro adlag. *g.er.*
aitaldeko izlag. *g.er.*
aitalehen
aitamatu, aitama(tu), aitamatzen. *da ad. 'aita-ama bihurtu': aita-amek, aitamatu direnetik, ez dakite gehiago zer den amodioa.*
aitamen* e. *aipamen.*
aitaorde
aitaren
 - aitaren** *batean*
 - aitaren** *egin*

aitarenya
aitasaba* e. *aitona.*
aita *saindu Ipar. Jas.*
aita *santu*
aitasantutu, aitasantu, aitasantutzen. *da/du ad. g.er.*
aitasantutza
aitaso iz. *Ipar. 'aitona, arbasoa'.*
aitasotu, aitaso(tu), aitasotzen. *da ad. Ipar. g.er.*
aitatasun
aitatiar
aitatu 1, aita(tu), aitatzten. *da/du ad. 'aita egin'.*
aitatu 2, aita, aita (tu), aitatzten. *du ad. h. aipatu.*

aitatxi

aitatxo iz. 1 ‘aita-ren txikigarria; haur-hizkeran, aita’. 2 mugagabeen erabiltzen da (*eman aitatzori; aita-txok esan bezala*).

aitatzako

aitatzeko* e. **aipamen, aipatze.**

aitaurren iz. *Zah. g.er. Sin. aitalehen.*

aitaxo iz. *Ipar. ‘aitaso-ren txikigarria’.*

aitazko izlag.: *Jainkoaren aitazko ontasuna.*

aitazulo

aitita iz. *Bizk.*

aitita-amama pl. *Bizk.*

aitona

aitona-armona pl.

aitondu, aiton, aitonzen. *da ad. 1 ‘aitona bihurtu’. 2 ‘aguretu’. 3 ‘aitonaren trazak hartu’.*

aitonen alaba* e. **aitoren alaba.**

aitonen seme* e. **aitoren seme.**

aitontasun**aitor**

aitor egin

aitor eman

aitor-entzule

aitor izan du ad.

aitorde* e. **aitaorde.**

aitoren alaba

aitoren seme

aitorketa iz. *g.er. h. aitorpen, aitortza.*

aitorkizun

aitorkuntza iz. *Bizk. g.er.*

aitorlari* e. **aitorle.**

aitorle iz. 1 ‘aitortzaile’. 2 ‘aitor-entzulea’.

aitorleku**aitormen****aitorpen**

aitorra eman* e. **aitor eman.**

aitorrarazi, aitorrazar, aitorrarazten. *dio ad.*

aitorrera iz. 1 ‘lekukotasuna’. 2 *g.er. ‘aitormena’.*

aitorrezin

aitortegi iz. *Erl.*

aitortu, aitor(tu), aitorzen. 1 *du ad. 2 da ad.* ‘(bekatuen) aitorntza egin’.

aitortza**aitortzaile****aitortze**

aitu* e. **aditu.**

aitzakia

aitzaki-maitzaki

aitzakiatu, aitzakia(tu), aitzakiatzen. *du ad. g.er.* ‘zuritu, aitzakiak atera’: *zeure ezjakinak aitzakiatzen zai-tu.*

aitzi *Ipar. g.er.: neskatzaren nahiaren aitzi edo kontra; liberalkeriari aitzi.*

aitziko ‘aurkakoa’.

aitzin

aitzina

aitzinean

aitzineko

aitzinera adlag.: *Erregeren aitzinera heldu zenean; begien aitzinera.*

aitzinetik

aitzinetiko izlag. *Ipar.*

aitziniez aitzin *Ipar.* ‘urrez aurre’.

aitzintzoan adlag. *Ipar* ‘pixka bat lehenago’.

aitzinako* e. **antzinako**.
 aitzinalde
 aitzinamendu
 aitzinapen* e. **aitzinamendu**.
 aitzinarazi, aitzinaraz, aitzinarazten. *du ad.*
 aitzinarazle iz. *g.er.*
 aitzinasmo
 aitzinat* e. **aitzina**.
 aitzinatu, aitzina(tu), aitzinatzen. *da/du ad.* ‘aurreratu’.
 aitzinatzale iz. *g.er.* ‘eragilea, sustatzalea’.
 aitzinatz
 aitzinazale iz. *g.er.* ‘aurrerazalea’.
 aitzindari
 aitzindaritasun
 aitzindaritza
 aitzindegi iz. ‘aitzinaldea’.
 aitzindu, aitzin(du), aitzintzen. *zaio ad.* ‘aurrea hartu’.
 aitzincko iz. ‘arbasoa’; ‘aitzindaria’.
 aitzinerat* e. **aitzinera**.
 aitzineratu, aitzinera(tu), aitzineratzen. *du ad.* ‘aitzinera, aurrera, ekarri’.
 aitzin-gibel 1 adlag. 2 iz.
 aitzingidari h. 1 **gidari**. 2 **aitzindari**. 3 **buruzagi**.
 aitziniala* e. **aitzinera**.
 aitzinirudi
 aitzinkontu
 aitzinsolas
 aitzintxe adlag. ‘lehentxeago’.
 aitzintxean adlag. ‘lehentxeago’.
 aitzintxetik adlag. ‘lehentxeago’.
 aitzitik

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 2002ko apirilaren 26an eta,
Donostian, maiatzaren 31n onartua)

BATZAR-AGIRIAK

Zarautz, 2001.eko abenduaren 21ean

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea,
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana Martija, diruzaina,
B. Oihartzabal, Iker sailburua,
A. Urrutia, Jagon sailburua,
P. Charritton,
J. L. Davant,
A. Eguzkitza,
A. Iñigo,
X. Kintana,
E. Larre,
J. M. Lekuona,
F. Ondarra,
Tx. Peillen,
J. San Martin,
Eta J.M. Satrustegi
euskaltzainak
eta J. L. Lizundia idazkariorde-
-kudeatzailea eta
J. J. Zearreta, ekonomia eragilea

Zarautzen, Trinkete-Gaztelekuaren, abenduaren 21ean, elkartu da Euskaltzaindia hileroko batzarra egiteko. Bilkurari goizeko hamarretan eman zaio hasiera. Ezkerreko zutabeen jasotzen dira bildu diren euskaltzainen izenak. Ezin etorria adierazi dute

Aurreko batzar-agiria onartzea

Oharrak ez da izan eta, beraz, dagoen da goenean onartu da joan den hileko batzar agiria.

Euskaltzainburuaren hitzak

Euskaltzainburuak zenbait gertaeraren berri eman du: Kintana jaunak bihotze-koia izan duela. Lehenbailehen osatzea opa dio Euskaltzaindiak.

BBK sariak ere banatu ditu Euskaltzaindiak. Sarituak helduago batez (Patxi Ezkiaga) gainera, hiru gazte izan dira (Alaitz Olaizola, Sonia Gonzalez eta Jurgi Kintana, Xabier Kintanaren semea, hain zuzen).

San Martin jaunak ere saria izan du Durangoko azokan. Honi ere zorionak eman dizkio euskaltzain guztien izanean.

Nafarroako Gobernuak 2001. urteko protokoloari ezarritako aldaketak jasotzen dituen dokumentuaz

Nafar gobernuko Unibertsitate eta Hizkuntza Politikako Zuzendaria Euskaltzaindiarekin hitzarmena duten gainerako herri aginteei bidalitako testu proposamena jaso da Euskaltzaindiak Eusko Jaurlaritzatik igorria. Nafar Gobernuak oraindik sinatzeke duen 2001. urteko eranskinari gehitu beharrekoak jasotzen dira testu horretan. Zenbait punturekin ezin ados egon eta bilera bat eskatu zaio Pegenaua jaunari, argitasunak eskatzeko eta Euskaltzaindiaren jarrera agertzeko. Hilaren 27rako eman du hitzordua. Baino datorren urteko dirulaguntzak bideratu nahi badira, eta kontuan izanik eskuratu den idazkian etorkizunari begira hitzarmen berri bat iragartzen dela, gauzak hilaren 26rako argiturik izatea beharrezkoa du Eusko Jaurlaritzak. Hala eman zaio adi-

tzena Euskaltzaindiari. Dokumentua irakurri eta aztertu da. Urrutia jaunaren arabera, argi izan behar da tartean dagoena ez dela subentzio bat hitzarmen bat bazik. Ezin da sinatu: dagoen bezala onartuz gero, Euskaltzaindiak eskuak lotuak izango lituzke geroko. Beñat Oihartzabalen ustez, Atlasaren argitalpena dela eta, Euskaltzaindiaren aurreko gutunean erantzun anbiguoa ematen zen eta anbiquotasun horretatik lehenbailehen atera behar da.

Luze joan da eztabaidea. Hizkuntza atlasean separata bat egitea ez da oso txukuna, gauzak ezin baitira banatu eta bereizi. Alemanarentzat, frantsesarentzat eta abalentzat egindako atlasen adibidea erakutsi behar litzaieke.

Testu zirriborro bat prestatzeko agindua eman zaie Urrutia, Iñigo eta Lizundia jaunei, geroago onartuko dena.

Hiztegi Batua: prozedura erabakitzea

Ondoren, *Hiztegi Batua* lantzen jarraitu ahal izateko finkatu beharreko prozedura eztabaidatzeari ekin zaio. Aurreko bilkuraren zuzendaritzaren izenean aurkeztutako testua onartu gabe geratu zen eta oharrak egiteko aukera zabalik utzi. Horren ondorioz, Beñat Oihartzabalek, Miren Azkaratek, Patxi Goenagak, Andres Urrutiak eta Patxi Zabaletak beren proposamenak helarazi dituzte. Nonbaitetik hasi behar eta Oihartzabal jaunari eman zaio hitza bere testua aurkezteko. «Euskara batuko batzordeaz eta haren bantzterez» izeneko gogoeta irakurri du.

Ondoren, euskaltzainburuak eskatu du proposamenak osorik irakurri beharrean laburpenak edo egitea. Urrutia jauna ez da ados. Zabaleta jaunaren proposamena osotuneko zuzenketa denez, osorik irakur dadila eskatzen du.

Salaburu jaunak prozedura argitu beharra ikusten du: testu desberdinak irakurteko aukera denek izan dute. Finka bitez, hortaz, arazo nagusiak eta ikusi zein den hobekien egokitzen dena.

Zabaleta jaunak bere proposamena laburtu du, gauzarik garrantzitsuenak bilduz.

Ondoren, Patxi Goenagak egin du bere proposamenaren aurkezpena, Miren Azkaratek igorritakoa bera, funtsean.

Gero Andres Urrutiaren proposamena irakurri da.

Argitasunak eskatu eta eman dira, alde batetik eta bestetik.

Ordu bat eta erdietan Zarauzko alkate andreaten bisita izan du Euskaltzaindiak. Agurren ondoren, Miren Azkaratek azaldu du bere proposamena. Berak Lekeitio onartua nola interpretatzen duen azaldu du: prozedura zen proba gisa uzten zena, ez Euskara Batuko Batzordea bera.

Arana jaunak uste du, bost proposamen daudenez, bueltaka ibili beharrean, batzordeño bat osatu beharko litzatekeela testuak adosteko. Miren Azkaratek erantzun dio esanaz funtsean bi proposamen daudela eta bost dokumentu. Ez dago batzordeño beharrak. Eztabaidea litekeena honako hau da: 1) Euskara Batuko Batzordeak jarraituko du ala ez? Ezezkoa erabakitzentz bida, Lekeitioko hankaz gora botatzea litzateke. 2) Hiztegi Batuko Lantaldearen zerrendak zuzenean iritsiko dira bilkurara ala galbahe bat igaro ondoren? 3) Oharrak egin ondoren, zer bide eraman behar da ohar horien ezta-

baidan. Hirugarren honetan Urrutiaren, Goenagaren eta Azkarateren testuak bat omen datoz funtsean.

Eztabaida ordu bi eta erdianet eten da bazkaltzera joateko.

Lau t'erdianet hasi da berriro bilera. Gaiaz aski eztabaidatu delakoan, bozketa nola eta zertaz egin jarri da mahai gainean.

Euskaltzainburuak esan du Euskara Batuko Batzorde bat badela eta oraindik ez dela entzun. Horrenbestez, Salaburu jaunari eman dio hitza. Honek Gramatika Batzordean egindako lanei buruz hitz egin du eta nolako eskaintza izan zuen batzorde horretan lanean hasteko. Bestalde, Hiztegi Batuko lanetan ere parte hartu nahi duela. Euskaltzainek beti izan dutela lehentasuna holako lanetarako. Zenbaitek zalantzera erakutsi du Hiztegi Batuko koordinatzue lan hau hain eginkizun handietan ibili denaren esku uztea zenbateraino ote litzatekeen irteera jator bat, zenbateraino izan litekeen Miren Azkaratek egindako lanari jarraipena emateko gauza. Miren Azkaratek dio zalantzak uler-tzen dituela, baina Pello Salabururi akademiarako lan honen eta beste baten artean aukera ematen bazaio, akademien aldeko hautatuko duela. Salaburuk hartuko balu lan hau bera oso lasai egongo litzatekeela.

Azkenean, botatzeko beharra ikusi da. Zabaleta jaunak bere proposamena bozkatzea eskatu du, bere testuko 3. orrialdea bereziki. Hala egin da eta honako emaitza izan da: Patxi Zabaletaren testuaren aldekoak 9 boto izan dira. Kontrakoak, 10. Zuri, bat. Beraz, ez da onartu.

Bigarren bozketa bat egin da ondoren. Hau isilpekoa. Euskara Batuko Batzordeari eutsi, Lekeitio onartutakoaren arabera, batzorde horretako buruak, Pello Salaburuk alegia, orain arte idazkaria egiten zuen lana bere gain hartuz. Hau izan da bozketaren emaitza: Hogeita bi boto emaile izanik, 13-k baietz esan dute eta 9-k ezetz. Beraz, lehengo egiturari eustea onartu da, Salaburuk hartuko duelarik, batzordeburu gisa, Azkarateren lekukoa. Oharrak egiteko, eta erabakitzeko prozedurari buruzko xehetasunak hurrengoan onartuko dira. Idazkaria egingo du testu bien batuketa eta aktarekin batera igorriko. Hurrengo bileran, bospasei minututan, ontzat emateko modukoak izan liteke.

Eskuartekoak:

EGO Euskal Gramatika proiektu berria

Patxi Goenagak eman du laburki Gramatika Batzordeak prestatutako proiektua-ren berri. Aspalditik datorren zerbait dela esan du. Orain arte gauzatu ez bada, neurri handi batean batzordeak lan hori bideratzeko prest legokeen pertsonariak aurkitu ez due-lako izan da. Gramatika Batzordeak Pello Salabururi eskaini diola lan hori. Hau prest dagoela, lehenaz gain, lan hau hartzeko. Unibertsitatea ere prest dagoela behar diren erraztasunak emateko eta Hezkuntza Sailean ere ordezkapena ordaintzeko prest direla. Bost urteko lana iragartzen da eta epe horren amaieran Euskaltzaindiak eskuetan izan lezake bere Euskal Gramatika Orokorra edo litzatekeena. Horretarako, ohiko batzorde-lanaz gainera, beste pare bat ikerlariren beharra iragartzen du proiektuak, orain arteko lana berriz aztertzeko, osatzeko, zabaltzeko eta egokitzeko. Proiektuan jasotzen diren giza baliabideekin batzordeak egingarri ikusten du proiektua. Zuzendaritzak oniritziat eman dio egitasmoen, beti ere behar dituzkeen diru baliabideak ziurtatuak di-

ren heinean, eta euskaltzainei ere aurkeztu zaie berek ere onar dezaten. Hala eman da ontzat Gramatika Batzordearen EGO projektua. Euskaltzainburuak Goenaga jaunari eskuatu dio jarrai dezala bai Euskal Herriko Unibertsitatean egin beharrekoak bideratzten, Pello Salaburuk Euskaltzaindiarentzat lan egin dezan, bai Eusko Jaurlaritzarekikoak, agindutako laguntzak gauza daitezen. Arana jaunari, berriz, projektuan interesa erakuts lezaketen basketxeetatik etor litezkeen diru laguntzen jarraipena egin dezala.

Literatura ikerketa batzordeko egitasmoa

Batzordeburu den Joan Mari Lekuona jaunak batzordearen lanen eta asmoen berrri eman du. Hezkuntza sailak Lourdes Otaegi andrea, batzorde idazkaria, lan-jardunaldi erdirako liberatu du batzorde lanetan aritzeko. Hain zuzen, ikasturte honetan eta datozen beste bietan gauzatuko den lanaren berri ematen da txostenean. Lanaren azken helburua, hain zuzen, literatura hiztegia moldatzea da eta helburu horri begira eskatu da Otaegi andreaderen liberazioa.

Deustuko Unibertsitatearekiko hitzarmena

Abenduaren 20an sinatu da Deustuko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena ere. Honek zenbait lankidetza eta argitalpen bideratzeko aukera eskaizten du.

2002ko egutegia

Jose Luis Lizundiak aurkeztu du datorren urteko egutegia, punturik nabarmenenak azpimarratuz. Ontzat eman da.

Azken ordukoak:

Coseriu-ren 80 urteak

E. Coseriu hizkuntzalari ospetsuak 80 urte bete dituelarik egoki ikusi da Euskaltzaindiak zorionak ematea gutun baten bidez. Knörr jaunak idatzi du testua.

Azkenik, Nafarroako Gobernuari egin beharreko gutunaren testua aurkeztu da. Ziriñorroa eztabaидatu da eta behin betiko testua Andres Urrutiaren, Andres Iñigoren eta Jose Luis Lizundiaren artean prestatuko dute eta hilaren 27an bisita egingo diote Peñagaita jaunari.

Eta zazpiak laurden gutxitan amaitutzat eman da bilera.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga

Bilbon, 2002ko urtarrilaren 25ean

Henrike Knörr, buruordea,
Andolin Eguzkitza, behin-behineko
idazkaria,
Jose Antonio Arana, diruzaina,
Beñat Oihartzabal, Iker Sailburua,
Andres Urrutia, Jagon Sailburua,
Patxi Altuna,
Miren Azkarate,
Jean Louis Davant,
Patxi Goenaga
Andres Iñigo,
Xabier Kintana
Emile Larre,
Frantzisko Ondarra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Juan San Martin,
Jose Mari Satrustegi
Piarres Xarriton
eta Patxi Zabaleta euskaltzainak,
Pello Telleria eragile teknikaria.

Batzarra 10:15ean hasten da Euskaltzainburuaren zuzendaritzapean Bilboko egoitzan, ezkerreko zutabeen agertzen diren euskaltzainok bertan daudela. Juan Mari Lekuonak eta Ibon Sarasolak beren ezin etorria adierazi dute.

Euskaltzainburuaren hitzak:

- Ongi etorria egiten dio Xabier Kintanari, eta pairatu duen gaisotasun larritik onik atera delarik, guztion izenean goresmenak ematen.
 - Zuzendaritzako kideek Jose Luis Lizundia klinikari egindako bisita aipatzen du, idazkariordeari egin dioten ebakuntzaren kariaz.
 - Ignacio Urkixo Olano euskaltzain urgazlea hil dela ere aipatzen du, h.d., Julio Urkixo euskaltzain oso zenaren iloba. Henrike Knörr buruordeak eta Jose Antonio Arana diruzainak ordezkatu dute gure erakundea euskaltzale eta liburuzale handiaren hiletetan.
- Patxi Goenagarri zorionak ematen dizkio Eusko Jaurlaritzan Hizkuntza-politikarako sailburuorde gisa hartu duen kargu berriarengatik, eta era berean aipatzen, legezkoa den bezala, Euskaltzaindian zeukan idazkari-karguari uko egin diola, Euskaltzainburuari bidalitako gutun baten bidez, Haritschelhar jaunak irakurri duena.
- Euskaldun herritar unibertsalaren epaimahaian Miren Azkarateren ordez Henrike Knörr buruordea egonen dela jakinarazten du.
- Kontseiluari «Bai Euskarari» lema Euskaltzaindiarena dela idatziko zaiola dio.

Aurreko batzar-agiria onartzea

Ondoren aurreko batzar-agirriari buruz hainbat iradokizun jaso eta eztaba idatxatuta, Patxi Goenaga idazkari ohiak behar diren aldaketak eginen dituela agintzen du.

Nafarroa Behereko Herri-izendegia: (2) Baigorri-Ortaizeko toponimia nagusia

Patxi Salaberri euskaltzain urgazle eta Onomastika-batzordeko kideari deitzen zaio Nafarroa Behereko herri-izendegiari buruz prestatu duen txostena (*Baigorri-Ortzaizeko toponimia nagusia*) aurkez dezan:

- Lehenengo eta behin, Baigorri eta Ortzaizeko txostena nola egin duen azaltzen du. Txomin Peillenen eta Piarres Xarritonek, edonola ere, Lemoine eta Hatanen lekukotasun eta lanak ez direla kontutan hartzekoak diotsote, erabat txarrak eta faltsuak direlako beraien ustez. Salaberriren aurkezpena entzun eta gero, hurrengo batzarrerako uzten da txostenari buruzko erabakia, bitartean euskaltzainek hura irakurri eta nork bere oharrok egin ahal ditzan.
- Beñat Oihartzabalek galdeztzen dio, ia arazo berezirik dagoen kasuren batean. Ezetz diotso Salaberrik, eta izatekotan beharbada Ortzaize eta Azkaratekoen jende-izenak izan daitezkeela arazo, baina besterik ez. Azkenean Jose Mari Sastrategik eskatzen du zehazteko zein egunetararte bidal daitezkeen oharrok. Otsailaren hamalaurarte uzten da orduan oharrok bidaltzeko epea.

Hiztegi Batua: prozeduraren erabakitzea

Aurreko batzarrean gai honi buruz eztabaideatu zirenak kontuan harturik, Hiztegi Batua bururatzeko prozedurari buruz Patxi Goenagak prestatu duen erabaki- eta sintesi-txostena erabiltzen da.

Andres Urrutiak dio, laburpen egoki bat egin duela Goenagak, Azkaratek eta berak egindako proposamenena, baina ez dela agertzen hilero zer gertatuko den, alegia, nor etorriko den hiztegiari buruzko eztabaideak zuzentzeko, lehenago Miren Azkaratek egiten izan duen bezala. Haren ustez, berak egindako txostenean zioen bezala, arduradun berria den Euskara Batuko batzordearen buruak Hiztegi Batuaz berba eginen den batzar guztietai agertzeko hitza eman duela jaso beharko litzateke idatziz. Era berean bere kezka azaltzen du, orain arteko izpirituarri segituko ote zaion. Bidea eginda dagoela eta bide hori egokia dela. Puntu bi horiek argitu behar direla, alegia, arduradunen presentzia bermatu eta teknikaren aldetik orain arteko bideari eustea segurtatu. Bere proposamenaren zatia irakurtzen du, non lehenengo puntuia zehazten baita. Patxi Goenagak diotsa hori berezkoa dela, eta bat datorrela. Andresek aurreko batzarreko eztabaidea gogoratuz, errepikatzen du hori segurtatu behar dela lan asko delako egin behar dena, eta ezin daitzeelako bat-batean esan Hiztegi Batuko lantaldearen Burua ez datorela esan. Miren Azkaratek dio bat datorrela, bai batean eta bai bestean.

Andres Urrutiak dio orduan, Patxi Goenagak egindako laburpenean 9. puntuaren ondoan sartu beharko litzatekeela berak bere 11.ean esandakoa, h.d., Hiztegi Batuaren arduradunak bilkura guztietara joan behar duela, eta Goenagaren laburpeneko 13. puntuaren zera gehitu: argitaralpena ohiko moldearen arabera egin behar dela.

Patxi Zabaletak dio, aurreko eztabaidea ez duela berpiztu gura, baina bai uste due-la idatzizko oharrok bakarrik ontzat jotzea desegokia dela. Horretara, bere ustez, 8. atalekoa utzi behar da alde batera, eta 7.ekoia ez da beharrezkoa, 3.2.atalean jadanik ai-patzen delako. Horretaz gain, 14. puntuaren, 3.2. puntuaren bezala, euskaltzainen burujabetzaren ukapen bat egiten dela dio, eta lehenengo irakurketan ontzat jo zirenak ezin ukituzkoak izatea desegokia dela, euskaltzain osoak baitira halako onarprena egiteko ahala daukatenak.

Pello Salaburuk dio orduan, egin daitekeena zera dela, oharrik gabeko hitzak aurkeztu eta onartu egin daitezkeela, era horretan Akademiaren burujabetza errespetatuko litzatekeelako. Hori 12c.ren segidan sartza proposatzen du. Proposamendua aho batez jotzen da ontzat.

Patxi Goenagak aldaketa horiek eginen ditu eta «*Hiztegi Batuko bigarren itzulia arintzeko prozedura*» izeneko txostenak batzar-agirian eranskin gisa sartuko dela era-bakitzen da. Pello Salaburuk, Euskara Batuko batzordearen buruak, nolanahi ere gehitzen du, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea delarik, unibertsitatearekiko arazo bulegokratikoak konpondu bezain laster hasiko dela egotzi zaizkion betebeharretan.

XV. Biltzarraren balorazioa

Euskaltzainburuak XV. Biltzarrari buruzko txostenak guztiak eskura daudela karpetaen aipatzen du, eta oharrik ote dagoen galdeztzen. Xabier Kintanak, hitza eskatuta, dio bai txostenen aukeraketan, bai eta txosten agerpen publikoan ere, Akademiaren itxura publikoa gorde behar dela. Bere ustez, euskalkien erabilera buruz XV. Biltzarrean agerturikoak Euskaltzaindiaren orain arteko bideak nahasi ditu eta neurri batez alde batera utzi. Bilbon egindako Biltzarraren zatian, kontrola eskuetatik joan zitzaigula dio. Baionan egindakoari buruz, ostera, zabalkunde-maila ere zaindu behar dela dio, Baionan maila zientifiko oso ondo zaindu baitzen, ez ordea zabalkundezkoa. Hurrengorako maila biak, erabat zientifiko eta zabalkundezko kontuan hartzea eskatzen du.

Txomin Peillen berak parte hartu zuen mahai-ingurukoak argituratuko ote diren itautzen du, eta Andres Urrutiak diotso idatzitako testuak argitaratuko direla. Txomin Peillenena berarena eta Juan Martin Elexpurenena falta direla bakarrik.

X. Kintanak hitza hartzen du ostera ere, eta zera dio, Euskaltzaindiak markaturiko bideari jarraiki egin behar dela txostenen aukeraketan. Erabat kontrakoak, alegia, saihestu behar direla, eta halakoei aukerarik eman ez.

Patxi Goenagak erantzuten dio, bera ez dagoela hainbesteko prest. Edozelan ere, egutegia beteegia izan zela eta elkarritzetarako astirik ez izatea izan daitekeela Kintanak esandakoaren zioa. Kintanak bere jarreraren indargarri Jon Agirre jaunaren txostenia ipintzen du adibide, bere ustez lotsagarria izan zelako. Eskubidea eduki, jakina, bidaukala, baina ez Euskaltzaindiaren foroan. Beñat Oihartzabalek kontra egiten dio, bere aburuz askatasun hori errespetatu behar delako edozelan ere, txostenak ondoko arrazoi-tuta datozen neurrian, eta hori onuragarria dela Akademiarentzat.

Bost euskaltzainen Vox hiztegiari buruzko kezka

Andres Iñigok, bere izenean eta Henrike Knörr, Txomin Peillen, Juan San Martin eta Jose Mari Satrustegiren izenean, hitza eskatzen du «*Euskaltzain guztien jakinerako Onomastika batzordeko euskaltzaineik dakarten informazioa*» deritzeron txostenia aurkezteko.

Andres Iñigok txostenia irakurtzen du bere kezka azaltzeko, Ibon Sarasolak zuzendutako Vox hiztegian, Euskal Herriko herrien zerrenda ematean, Onomastika batzordeari egozten zaion erratu-multzoagatik.

Txostena entzun eta gero, eta hainbat iritzi jasota, Euskaltzainburuak proposatzen du Ibon Sarasolari ematea eta beraren erantzuna igurikatzea. Aho batez hala egitea era-bakitzten da.

Hiztegia: *agi-ahozuri*

Ondokoak erabakitzenten dira:

- **agiantza:** azalpenari erantsi «batez ere onak».
- **agiantzatu:** azalpenari erantsi «batez ere onak».
- **aginduka:** Adlag. markarekin sartzen da.
- **agindupe:** azalpenaren bigarren partea kentzen da.
- **agindupeko:** iz. markarekin sartzen da eta adibidea gehitzen: «bere zerbitzari eta agindupeko guztiak bidera irten zitzazkion».
- **aginduzko:** izlag. marka gehitzen da eta «aginduzko proba» adibide gisa ipini.
- **agintatu:** zerrendatik kentzen da.
- **agintepide:** idatzi agintepide*, e. aginbide, eskumen.
- **agintze:** kendu g.er., gehitu iz., 1. agintea, 2. agindua.
- **agirakatu:** h. agiraka egin.
- **agorkaitz:** zerrendatik kendu.
- **agorliho:** idatz bedi agor(-)liho.
- **agrabiatu*:** Bartz., e. iraindu, laidotu.
- **agrabio*:** Bartz., e. irain, laido.
- **agradagarri:** Ipar.
- **agregatu:** gehitu iz., Tekn., eta adibide bat, «agregatu kimikoa».
- **agresibo:** zerrendatik kendu.
- **agudezia:** batez ere Ipar. Zah.
- **agudo:** kendu Heg. marka.
- **agudoki:** kendu zerrendatik
- **agudotu:** 1. agudoago, lasterrago gertatu, 2. trebatu.
- **agur esan:** sartu agur hitzaren azpisarrera gisa.
- **agurketa:** kendu zerrendatik.
- **agurtza:** 1. gurtza, 2. g.g.er. arrosario.
- **Ahaide Nagusi:** sartu ahaide hitzaren azpisarrera gisa pl. markarekin.
- **ahaidekeria:** zerrendatik kendu.
- **ahaka:** zerrendatik kendu.

Ordu bi eta laurdenetan, Euskaltzainburuak ongi etorría egiten dio Koldo Artola-ri, Yrizar jaunaren *Morfología del verbo auxiliar bajo-navarro oriental* izeneko lanaren 2. liburukiaren arduradunari, eta Euskaltzaindiaren eskerrak adierazi eta gero, batzarrari amaiera ematen dio.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Behin-behineko idazkariak
Andolin Eguzkitza

Bilbon, 2002ko otsailaren 22an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, buruordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Antonio Arana, diruzaina,
Beñat Oihartzabal, Iker Sailburua,
Andres Urrutia, Jagon Sailburua,
Patxi Altuna,
Miren Azkarate,
Andolin Eguzkitza,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Emile Larre.
Juan Mari Lekuona
Frantzisko Ondarra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Ibon Sarasola (goizez)
Jose Mari Satrustegi
eta Piarres Xarriton, euskaltzainak,
Jose Luis Lizundia idazkiorde-
-kudeatzalea
eta Mikel Gorrotxategi, Onomastika
batzordearen idazkaria (1.1. gaian).

Batzarra goizeko 10,15etan hasi da
Euskaltzainbuaren zuzendaritzapean
Bilboko egoitzan, ezkerrean ageri di-
ren euskaltzainak bertan direla. Jean
Louis Davantek, Juan San Martinek eta
Patxi Zabaletak beren ezin etorria adie-
razi dute. J. L. Davantek bere boza Tx.
Peilleni utzi dio eta P. Zabaletak A. Iñi-
gori.

Idazkari berriaren hautaketa.

Beste gaietara pasatu baino lehenago,
Euskaltzainbuak idazkari berria hau-
tatzea proposatu du, P. Goenagak utzi-
riko lekua betetzeko. Kargu horretarako
nor aurkezten den galdetuta, Xabier
Kintanak bere burua agertzen du. Boz-
keta egin ondoren, 16 boto alde eta 4
zuri lortu ditu, horrela aukeratua iza-
nik.

Aurreko batzar agiria onartzea

Ukitu batzuk eginda, aurreko batzar agiria ontzat eman da. Pello Salaburuk ohar bat
egin du *ahallahala* hitzak argitzeko: *ahal* izena («egin ahalak egin dituzte», «ahala du»,
«koka ahal jende sartu zen», «egingo ahal du», «ez ahal da eroriko!») eta *ahala* aditz-
laguna («en neurrian» adieran, «iritsi ahal eseri dira»). Bataren eta bestearen adibi-
deak ongi banatzea eskatu du. Ontzat eman da.

P. Altunak galdu du hitza **ahal** ala **al** den. I. Sarasolak Mitxelenaren iritzia ja-
kinarazi du: **al** galderetan, gainerakoetan **ahal** utzita. Tx. Peillen bat dator. Horrela
utzi da.

Onomastika-zerrenda

X. Kintanak ohar bat egin du **Urepel** ala **Urepel** behar den galdetuz. Batzorde-
ak proposatu bezala, **Urepel** onartzea erabaki da. Horrela, Nafarroa Behereko herri-
izendegiaren 2. zerrenda (Baigorri-Ortaize) onarturik gelditu da.

Vox hiztegiaz Ibon Sarasolaren erantzuna

Arratsaldean egoterik ez duela eta, Ibon Sarasolak bere erantzunaren gaia goizean aurreratzea eskatu eta ontzat eman da.

Aipaturiko okerrak Bibliograf-Vox argitaletxearen eta Onomastika batzordearen arteko koordinazio faltak sortu zituela ikusi da.

Hemendik aurrera, honelako susmo txar, gaizki-ulertu eta istiluak saihesteko, Euskaltzaindiak kanpoko editorialekiko harremanetan kontu eta zuhurtzia handiagoaz jokatu beharko du.

*Eskuartekoak**Sustapen batzordea*

Sustapen batzordearen bilera agiria banatu da, horren berri emanet, zeinetan adierazten baita, Gotzon Loberaren ordez, Andres Iñigo proposatzen dela batzorde idazkari legez. Berretsi egin da.

R. M. Azkue 2001 Literatur sariak

R. M. Azkue 2001 Literatur sariak direla eta, 11 eta 18 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutakoak, txostentxo bat banatu da, euskaltzainen artean. Hor ageri denez, aurteno partaidetza oso handia izan dela: 238 lan (29 Arabatik, 55 Bizkaitik, 90 Gipuzkoatik, 25 Iparraldetik eta 39 Nafarroatik). Saridunetatik 4 iparraldekoak izan direla azpimarratu du euskaltzainburuak, bertako ikastolen lana bere fruituak ematen hasi dela nabarmenduz.

A. Aguzkitzak, Euskal Idazleen Elkartearren buru gisa mintzatuz, liburu sarituak eskuarki ez direla ongi banatzen esan du. Bere ustez hobe litzateke argitaletxe batek publikatzea, bankuaren publizitate-interesak errespetatu arren. Horretarako gestioa egitea eskatu du. Euskaltzainburua bat dator.

Herri-agintarien diru-laguntzak

J. Haritschelhar herri-agintariekin Euskaltzaindiari ematen dioten diru-laguntzaz mintzatu da. Nafarroatik ez da oraindik deus jaso. Zorionez, Gotzon Lobera Bizkaiko Foru Euskara zuzendariak 211.291,00 € eman dizkigu Foru Administrazio horren izean. Besteekin ere mintzatu behar da, atzerapenik ez izateko.

Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikako Zuzendaritza eta Atlasa

A. Iñigori eta A. Urrutiari hitza ematen zaie, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikako Zuzendaritzarekin izandako azken harremanen berri adierazteko. Hizkuntz atlasaren azken mapa ereduak urtarrilean igorri zizkioten, haien nahi zuten bezala, Nafarroako foru erkidegoak politiko-administratiboki duen berezitasuna agertuz. Hitzarmeneneko dirua, ordea ez dute oraindik ordaindu.

Euskaltzainburuak uste du lehenbailehen gutun bat bidali beharko diola Sanz lehendakariari atlasaren arazoarekin eta hitzarmenaren hausketaz zer nolako kalte handia egiten zaigun azaltzeko. A. Urrutiak erantzun dio hitzarmenaren salaketa ez dago-

kigula guri, Nafarroako Gobernuari berari edo gainerako agintariei baizik. Hori dela eta, oraingo hitzarmenaren jarraipen batzordearen bilera egitea komeni dela uste du, hau argitzeko.

Miren Azkaratek esan du Nafarroako gobernuarekin saiatu dela mintzatzen hitzarmenaz baina ez duela erantzunik izan. Berriro egingo du eta 10 egunen buruan ihar-despenik ez badu, hitzarmena hautsitzat joko du. Euskaltzaindiaren diru-premia larria ikusita, ea Eusko Jaurlaritzak eta gainerako diputazioek beren gain Nafarroako Gobernuak utziriko zuloa hartuko ote luketen galdetuta, Mirenek hitzarmen berriaren zenbakoak kalkulatzea zaila dela erantzun du, ez baitugu garbi Nafarroako gobernuua noraino finantzatzeko prest dagoen.

Ondoren J.L. Lizundia mintzatu da erakundeekiko harremanez. Jarraipen-batzordearen bilera egin beharra dagoela uste du, bakoitzaren partaidetasunaren konstatazioa egiteko.

Bilera arratsaldeko ordu bietan eten da, bazkaltzera joateko.

Arratsaldeko 4,05ean euskaltzainak berriz ere bildu dira egoitzan, goizean hasitako bilerarekin segitzeko.

Atlasari dagokionez, Euskaltzaindiaren solaskideek azaldu dute Nafarroako Gobernuaren ordezkariek erakunde politikoaren arteko marra handiagoa eskatu dutela mapa handi zein txiki guzietan, eta Nafarroako herri-zerrenden aurrean erkidegoaren armaria ezartzea.

B. Oihartzabalek Nafarroako gobernuaren proposamenei eginiko erantzunak era-kutsi ditu, euskaltzainen artean banaturiko txosten teknikoaren arabera. Argi agertu da mapa handietan marra lodiegiak ezartzeak, estetika aldeko desegokitasun nabarmenaz gainera, oztopo ez txikiak dakarziola testuak argi irakurtzeari. Mapa txikietan, gaine-ra, edozein marra beltzek nahasbidea lekarke ezin bestean. Armarria, ordea, jar liteke, konposaketa-arazo batzuk sor litzakeen arren.

Ondoren eztabaida luze eta beroa izan da. Funtsean euskaltzain guztiak bat etorri dira Nafarroako Gobernuaren eskariak, berez, zientifikoak barik, politikoak eta gehiegizkoak direlako ustean, egoera normalean akademia batek ezin onartuzkoak. Halere, Euskaltzaindiaren egoera ekonomiko ahula ikusita, euskaltzain batzuk (A. Iñigo, J.M. Satrustegi eta A. Urrutia batez ere) negoziaketa, malgutasuna eta erakundeekiko lotura, ahal delarik, mantentzearen alde agertu dira. A. Urrutiak proposamen zehatzak eta malguak eraman behar direla uste du, Euskaltzainburuak egiteko duen gutuna kontuan harturik, harremanak gordeko badira. J.M. Satrustegik arazoa ez dela soilki diru-kontukoa, harremanak mantendu edo haustekoa baizik.

Euskaltzainak, ñabardura askorekin, ororen gain akademiaren duintasuna eta berregaintasun zientifikoak gordetzearen alde egon dira, dirupeko morrontzak onartzeak etorkizunean ekar liezazkiguketen kalteak aurrikusiz.

Xarritonek, alor zientifikoaren berme, UNESCOren diktamena eska litekeela esan du. P. Salaburuk Nafarroako gobernuaz ahantzirik, finantzabidea beste nonbaitek atteratzeko posibilitateaz hitz egin du. J. Haritschelharrek uste du ez dela marra lo-diagorik jarri behar, eta, edonola ere, jartzen denaren kostua haien lepoan ezarri beharko dela. X. Kintanak esan du, Nafarroaren nortasuna areago nabarmenzeko, aski dela mapetako armariak pixkat handiagoak jartzea, marra ukitu gabe.

Ikuspuntu ezberdinak agertu eta gero, gehiegikeriei planto egiteko ordua dela uste izan da. Hortaz, Euskaltzaindiak ez du 3 pixeleko baino marra handiagorik onartuko. Mapa txikietan ez da marrak jarriko. Nafarroako armariak, ordea, jar litezke bai herri-zerrenden aitzinean. Mapa nagusietan, halaber, Nafarroako armaria handiago irudika liteke. Aldaketa horien kostuak, ordea, Nafarroako Gobernuak ordaindu beharko ditu. Hori onartuko ez balu, Euskaltzaindia hasierako proiektuari jarraikiko litzaioke, hots, marra gabeko ereduari.

B. Oihartzabalek eskatu du, hemendik aurrera, honelako inposizioak ekiditeko, sinatuko diren hitzarmenetan argi utzi beharko dela Euskaltzaindiak ezin negozia deza-keela hizkuntza edukirik agintariekin, arlo horretan erabat beregaina izanik. Gure orainago baldintzak onartuz ere, argi gera bedi hori atlas honen ediziorako besterik ez dela onartzen, eta ez etorkizunerako. Nafarroaren izaera juridiko berezia errespetatzea eskatzen zaigu: mugak, armaria etab. Baino Euskaltzaindiak ez du onartuko nortasun hori errespetatzeko moduan inposiziorik.

A. Iñigok erantzun dio osokoentz bilkuraren Euskaltzaindiak onartua duela errespetu hori. Bestalde, zuhurtzia behar dugula, haustura haiengandik etor dadin. Atlasa onartzen ez bada, hitzarmenik ere ez dugula izanen gogorarazi du.

A. Urrutiak eta M. Azkaratek atlasa eta hitzarmena elkarrengandik bereizi beharra dagoela esan dute. Bestalde, Euskaltzaindiaren egoera larriari laguntzeko, Eusko Jaurlaritzak lehenbailehen jakin behar du zenbat diru esleitu behar duen, aurrerapenik egin beharko bada.

P. Salabururen ustez gestio biak batera egin behar dira: alde batetik Sanzekiko bilerak, hitzarmen berria egiteko. Bestetik atlasaren gestioak, gaizki joanez gero, atlasa marrarik gabe bestela finantziatzeko bideak aurkitzeko.

Hortaz, jarraipen-batzordearen kideei –Nafarroako barne– lehenbailehen deitzea erabaki da, bilera egiteko. A. Urrutiak eskatu du Euskaltzainburuak Sanzi gutunik ez idaztea, bera eta A. Iñigo Pegenauterekin egon arte. Euskaltzain berberak etorkizunen proiektu bakoitza hitzarmenaren arabera neurtu beharko dugula esan du.

Mirenak aitzur-aldaratze hitzen zerrenda banatu du.

J. M. Satrustegik azaldu du Nafarroako Gobernua, nafar euskalkiak direla, jende batzuekiko bilerak egiten hasia dela eta eta sortu nahi duen batzorde baten bilerara dei-tua izan dela bera.

Algortako San Nikolas ikastolak Bilbon otsailaren 25ean antolatzeko duen Ibil-tarte izeneko arte erakusketarako inbitazioak banatu dira, hain zuzen, aurteno Bizkai-ko ikastolen «Ibilaldia» ekitaldiaren aurrerapen gisa antolatua. Euskaltzaindiaren ize-nean Idazkaria joango da.

Bilera arratseko 6,45an bukatu da.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Xabier Kintana

Donostian, 2002ko martxoaren 22an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, buruordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Antonio Arana, diruzaina,
Beñat Oihartzabal, Iker Sailburua,
Andres Urrutia, Jagor Sailburua,
Patxi Altuna,
Miren Azkarate,
Andolin Eguzkitza,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Juan Mari Lekuona
Frantzisko Ondarra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Juan San Martin
Ibon Sarasola (goizez)
Jose Mari Satrustegi
eta Piarres Xarrition, euskaltzainak,
Jose Luis Lizundia idazkariorde-
-kudeatzalea,
Patxi Salaberri Onomastika
batzordekidea (1.2.1. gaian) eta
Lourdes Otaegi, Literatura Ikerketa
Azpibatzordeko idazkaria (4. gaian).

Batzarra goizeko 10,15etan hasi da Euskaltzainburuaren zuzendaritzapean Donostiako ordezkaritzan, ezkerreko zutabeen ageri diren euskaltzainak bertan direla. Jean Louis Davantek eta Henrike Knörrek beren ezin etorria adierazi dute,. Halaber A. Urrutiak beranduago helduko dela jakinarazi du. Azken biok botoa A. Iñigori uzten diote.

Aurreko batzar agiria onartzea

Zuzenketa batzuk egin ondoren, aurreko akta onartu da.

Patxi Zabaletaren amaren heriotza

Euskaltzainburuak Patxi Zabaletaren amaren heriotzaren berri eman du. Haren arimaren alde Leitzan Otsailaren 25ean izandako hileta-elizkizunean Jean Haritschelhar, Piarres Xarriton, Juan San Martin, J.M. Satrustegi, Andres Iñigo, Andolin Eguzkitza eta X. Kintana euskaltzainak, Jose Luis Lizundia idazkari-kudeatzalea eta Juan Jose Zearreta ekonomi eragilea izan ziren.

Abonagarri-agertze zerrenda

Ondoren abonagarri-agertze zerrendako **adinetaratu** hitza dela, **adineratu** al-dakia hobetsi da: **adinetaratu** h. **adineratu**

Agi-ahozuri zerrenda

Geroago Pello Salaburuk aurkezturiko agi-ahozuri zerrendako hitzak aztertu dira.

Hasteko, *Bazt.* eta *Saih.* laburdura guztiak kendu eta lehengo sistimara itzultzea proposatu da. Mirenek batzordetik hola datozena esan du, eta berak eskuarki kendu ohi zituela. Kentzeko proposamena ontzat eman da.

Era berean AS laburdura kentzea erabaki da, bai zerrendetan eta bai web orrian.

Ibon Sarasolak bigarren itzuliko erabakiak, azken orduan berriz ikustekoak direnez gero, beste letra batez markatzea proposatu du, azken ukitu hori errazteko. P. Salaburuk ere web orria birbegiratu behar dela dio. Goenagak bereizketa horiek letra tipo ezberdinez egiteak ekar litzakeen zaitasunak aipatu ditu, baina konforme dago, ahal izanez gero, horiek nolabait markatzeaz. J. Haritschelharrek uste du on litzatekeela era horretako hitzak P. Salaburuk Arantzazurako bilerarako aztertzea.

Ibon Sarasolak proposatu du web orrian abisua egitea, oraingo pasaldi honetan onartzen ditugun hitzak baina euskara batua liburuan agertzen ez direnak behin-behinekoak direla azaltzeko, geroago bateratze-aldaketaren baten zain egon daitezke eta. Ontzat eman da ohar hori egitea.

Zerrendako ondoko hitzak honela uztea onartu da:

aginduzko izlag. 1 «nahitaez bete beharrekoa» *aginduzko araua, aginduzko proba* 2 «hitz emandako».

agindu-ren adiera ezberdinak uztalean berrikusteko utzi dira, koherentziaz jokatzeko.

agiraka: *batez ere Bzk.* eranstea onartu da.

agaramontar: aldaki guztiak, (*agaramondar, *agramondar, *agramontar, *agramontes, *beaumondar) eranstea onartu da, gaitzesten direla argitzeko.

*aguakate e. **ahuakate**.

ahal ordenatzeko proposamena

ahal 1 iz. *ahala du hori egiteko.* Era burutuaren ondoan, «*ahal d(ir)en guztiak; esan ahalak esan dizkiote elkarri; egin ahalak egin dituzte.*

ahala eman

ahala egin nire ahala egin dut; *bere ahala egiten duena.*

ahal 2 partikula modala, desira adierazten duena: *egingo ahal du!; ez ahal da eroriko!*

ahal izan

ahal adina

ahal adinako

ahal beste

ahal bezain

ahala bezainbat

ahal bezala

ahala adlag. 1 (aditzaren era burutuaren ondoan) «-en neurrian» *iritsi ahala eseri dira; platerak atera ahala husten ziren 2 koka ahala jende sartu zen.*

ahalaz *Lap. eta BNaf.* «ahal den neurrian» *euskara ahalaz garbia darabil; saiatzan dira ahalaz gordetzen lehengo ohiturak; baina horretarako horrokatu behar eta ahalaz denak elkarrekin.*

ahalik (eta)

ahalbideratu h. ahalbidetu.

ahaldu kentzea erabaki da.

ahaldun *Batzar Nagusietako ahaldun edo ordezkarieei «apoderado» (Bizkaian) eta «procurador» (Araba eta Gipuzkoan) deitu izan zaie historian zehar.*

agintera *Gram.*

ahalera *Gram.*

ahalke izan *Batez ere Ipar. da ad.. hartaz ahalke naiz, semearen ahalke dira.*

ahalmendu kentza erabaki da.

ahalorde abokatuari eskura eman zion ahalordea.

ahalorodun kentza erabaki da

ezin ahantzizko ez sartzea erabaki da.

aharantza: *Zah. Ipar. «mintzaera»*

aharito: *Bizk. «ahari(ko)a».*

Onomastika: Nafarroa Behereko Herri-izendegiaren 3. zerrenda.

Eguerdiko 13,38etan, hiztegi batuko eztabaidak etenda, bilera-aretora Patxi Salaberri sartu da, Onomastika batzordeak prestaturiko Nafarroa Behereko herri izendegia azaltzeko. Egin zaizkion galderak eta eskaturiko argitasunak erantzun ditu (*Isturitz* eta *Bastida Klarentza* hitzei buruzkoak). Zerrenda honi buruzko proposamenak apirilaren 20ra arte egin daitezke.

Bilerak arratsaldeko 4etan segitu du, hiztegi batuko goizeko hitz zerrendaren harriari jarraikiz. Hurrengo hitzak honela erabaki dira:

ahate beltz: espezie berezia zen ala ez ikusteko utzi da, eta honetan A. Eguzkitzak, X. Kintanak eta P. Salaburuk, gaia aztertu ondoren, erabakitzetan onartzea erabaki da.

ahazmen: g. e.

ahaztuarazi / ahaztuezin / ahaztuezineko: kentza erabaki da **ahantz-** formen alde jokatuz.

aheri: *Zah. g.e. «kantu-doinua»*

aheria* e. **ahoeri** «ahoko eritasuna, bereziki mihan eta ingurueta gertatzen diren zaurixka batzuetan datzana».

akidura sartzea onartu da.

aho ahotik ezin utzi(zko)

aho-artatziale

aho batez

aho(a) bete: *ahoa bete hortz/haginekin gelditu, utzi*

aho(a) betean: *gezurrik doilorrenak ahoa betean jauritz*

aho(a) beteka

aho(a) beteko

aho(a) betez

aho(-)korapilo

aho-mihi kasu markaren batekin erabiltzen da, eta pluralean edo mugagabeen: *Jendeen aho-mihiek aldatu dute izen zaharra. Aho-mihitau erabiltzen dute maiz auzi hori. Gizaalditik gizaldira aho-mihiz heldua.*

aho zabalik

aho zabalka

ahoko soinu

ahotan

ahotan erabili

ahotan hartu

ahotik ahora

ahoz

ahoz aho

ahoz behera

ahoz gora

ahozko

aho bateko* e. **ahobatezko**

ahokada sartzea onartu da.

ahoko: 1. *Ipar* pl. «hortz, hagin ordezkoak» 2 «zaldiegi eta ahoan jartzen zaien uhalia».

ahopildu, ahopil, ahopiltzen. du ad.

aho(-s)oinu sartzea erabaki da.

ahozabal, aho-zabal forma biak sartzea erabaki da.

ahozuri, aho-zuri forma biak onartu dira.

Eskuartekoak

Santurtziri esker ona: Zuzendaritzak Santurtziko udalari eta herriko elkarteei es-kerrak bidali dizkiela azaldu da, A. Eguzkitza euskaltzainaren sarrera-ospakizunean Euskaltzaindiari egindako harrera on eta izandako partaidetza bikainagatik.

Literatura Sari Nazionalerako izendapenak: Ministerioak antolatzen urtero di-tuen Literatura Sari Nazionaletarako, Euskaltzaindiak aurten ondoko ordezkariak bi-daltzea proposatzen du:

Poesia: Felipe Juaristi

Narratiba: Ana Toledo

Saioa: Henrike Knörr

Teatroa: Patri Urkizu

Haur eta gazteantzako literatura: Juan Kruz Igerabide

Itzulpena: Josu Zabaleta

Espainiar Letretako Sari Nazionalerako: Andolin Eguzkitza

XX. Mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa

Euskaltzainburuak gure Akademiak aurtengo martxoaren 8an Zamudion Euskal-telen presidentea den Jose Antonio Ardantza jaunarekin sinaturiko hitzarmenaren berri eman du, horren bidez eta UZEIren lankidetasunari esker XX. Mendeko Euskararen Corpus Estatistikoa eskaini ahal izateko. Honi buruz, Pello Salaburuk konexio-proble-ma batzuk azaldu ditu.

Nafarroako Gobernuarekiko harremanak

Ondoren Andres Urrutiak Nafarroako Gobernuarekin izandako harremanak azal-du ditu. Alde batetik, hitzarmen-jarraipenekoak martxoaren 11an Gasteizen bildu on-doren, orain arteko hitzarmenaren hausketaren konstatazioa Iruñera bidali da. Nafar go-bernuak arazo honi buruz martxoaren 6an egindako gutuna ez zen garaiz heldu. Edonola ere, garbi dago Hitzarmen berria sinatzeko asmoa dutela eta datorren astean (asteartean) horretarako testu berria eskainiko digute. Idazki hori jasotzean, Zuzenda-

ritzako oharrekin, euskaltzain osoen artean banatuko da, guztien oharra jasotzeko. Euskaltzainei eskatu zaie, bitartean solaskideei negoziaketan aritzen segitzeko baime-na ematea, testua aski umotua baldin bada, arazoak presa baitu. Ontzat eman da.

Nafar Gobernuak, halere, hitzarmen berria sinatzean Euskaltzaindiari iazko dirua ordainduko omen dio. Atlasari dagokionez, ez diete Euskaltzaindiak azaldutako puntu-ei garrantzi handirik eman eta badirudi ontzat hartuko dituztela.

Literatura Batzordea

Azkenik, Lourdes Otaegi bilera aretora sartu da, Literatura Batzordearen lanen berri emateko. Literatur hiztegia egiten dihardu. Horrek 600 sarrera inguru ukamen ditu, artikulu luze, ertain eta laburren artean. Jada 500 artikulu baino gehiago eginak dira. Lana atalka egin dute, lana informatizatuz: erretorika, literaturaren historia eginak dira (Kortazar, Igerabide, Luis Mari Muxika, eta X. Altzibarren laguntzarekin). Objektibotasuna eta informazio zehatzka ematea dira helburu nagusiak. Datorren urtean antzerkiari eta metrikari ekingo diente. Poetika, literatur kritika eta ahozko literaturen atala oraindik egiteke daude.

Jean Haritschelharrek proposatu du lan horiek burutu ahala (erretorika etab.) *Eus-keria* agerkariaren separata gisa argitaratzea. Gainera, Lourdesi eskerrak eman dizkio.

Peillenek oharra egin du, hor terminologiako gauza asko egunera behar direla azalduz, oraingo morfologia eta grafia onartuekin bat etor daitezen

Bilera arratsaldeko 6,20etan bukatu da.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Xabier Kintana

Bilbon, 2002ko apirilaren 26an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, buruordea (goizean),
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Antonio Arana, diruzaina,
Beñat Oihartzabal, Iker Sailburua,
Andres Urrutia, Jagor Sailburua,
Patxi Altuna,
Jean Louis Davant,
Andolin Eguzkitza,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Frantzisko Ondarra,
Pello Salaburu,
Juan San Martin
Jose Mari Satrustegi
eta Piarres Xarritton, euskaltzainak,
Jose Luis Lizundia idazkariorde-
-kudeatzailea,
M. Gorrotxategi Onomastika
batzordeareen idazkaria (1.1. gaian)

Batzarra goizeko 10,15etan hasi da Aka-
demiaaren Bilboko egoitzan, ezkerreko zu-
tabean ageri diren euskaltzainak bertan di-
rela. J.M. Lekuonak, M. Azkaratek eta I.
Sarasolak ezin etorria adierazi dute, azken
biok, hurrenez hurren, beren botoak P. Go-
nenagaren eta P. Salabururen esku utziz.

Halaber A. Urrutiak beranduago helduko
dela jakinarazi du eta bitartean bere bo-
toa X. Kintanari utziz.

Aurreko batzar agiria onartzea

Inork zuzenketarik egin gabe, aurreko bi-
lleraren akta onartu da.

Omenaldiak

Hasieran Euskaltzainburuak aurreko aste-
etan J.M. Lekuona eta J.M. Satrustegi
euskaltzainei egin dizkieten omenaldien
berri eman du, bioi zorionak emanez.

1. Hizkuntz arauak

1.1. Onomastika

Ondoren Nafarroa Behereko Herri Izendegiaren 3 zerrenda (Arberoa) aztertzen
iragan da.

Hasteko, A. Iñigok adierazi du toponimoen marrak eta loturak arautzeko txosten
bat prestatzentz ari dela, maiatzeko bileran aurkezteko asmoz. Zerrendari dagokiola Bas-
tida-Klarentza eta Isturitz kasuetan zer egin behar den galduzu du, lege-aginduak eta
marra-arazoak gogoa izanez.

E. Larrek hitza hartu eta Iparraldean badirela 12 bat toki Bastida izenekoak (au-
zuneak, herrixkak etab.) jakinarazi du. eta horiek nolabait bereiztu beharra dagoela.

P. Xarritonek, ordea, ez du uste horiek asmatu behar ditugunik herri-usuarioaren
kontra.

J.L. Lizundiak esan du formularen bat aurkitu behar dela izen bereko bi herri el-
karrengandik bereizteko. Ofizialtasuna dugun eremuetan, gainera, bereizi beharra de-
trigorrezkoa da. B. Oihartzabalek era eta maila askotako toponimoak ere badirela go-

goratu du: aurkientza, auzotegi, jatorrizko tokia etab. eta kasuistika luzea denez, J.L. Lizundiarekin bat etorri, puntu hau hobeki aztertu beharra dagoela uste du.

J.M. Satrustegiren ustez, Uitzin, Orixeren omenaldian, Donibane-Garazi, Uharte-Arakil gisako izen bikoitzez harturiko erabakiak gogoan izan behar ditugu, orduan jada irizpidea jarri baitzen. A.Iñigok kasuistika ongi aztertu behar dela esan du, eta Ithuritzeri buruz ahalik eta lekukotasunik ugarienak jasotzeko prest daudela Onomastika-batzordean.

B. Oihartzabalek txosten bat irakurri du Ithuritze-Ithuritzeri buruz. Corpusean s-aaz Barandiaranek ez bestek darabil. Bestalde, z-az eta x-az zeintzuek erabili duten azaldu du. Horretaz inuesta bat egin beharko litzateke. Arazoa argitzeko, J. Haritschelharrrek xt eta zt duten hitz batzuen zerrenda agertu du.

J.A. Aranaren ustez, inkestak ez gintuzke behartu behar era mintzatuetara makkurtzera. Era berean, X. Kintanak ipar eta hegoaldeko toponimoen forma idatzia erabakitzeko irizpide-ezberdintasuna aipatu du, Mehaine eta Ithuritze artean dagoen kontraesana nabarmenduz, gaur biak, esan, -r-rik gabe esaten diren arren, batean ortografiatik kendum eta bestean errespetatzen baita. B. Oihartzabalek azaldu du hor era-bilera-ohitura ezberdinak izan direla.

Xarritonek, auzi honetan erabaki aitzin, Monho, Joanategi, Arotzarena, Moulier eta iparraldeko beste idazle batzuen lanak ere kontuan hartzeko eskatu du.

A. Iñigok galdeitu du, lekuko idatzirik ezaz, ea nola erabaki daitezkeen arberoar eta donoztiritar moduko hitzak. J.L. Lizundiak esan du gogoan izan behar dugula, hegoaldean ez bezala, Frantziako Iraultza garaitik iparraldean eskualde historikoak desagertu direla, eta maiz, horiekin batera, haien izenen memoria historikoa ere bai. Beraz, antzinako dokumenturik ezaz analogiaz jokatu beharra dagoela uste du..

Ondorioz, zerrendako gainerako hitzakin batera, **donoztiri**, **donoztiritar** onartu dira eta arberoar, **Ithuritze**, **Bastida Klarentza**, **Bastida Arberoa** hitzak, datu gehiago bildu ondoren, berriz ikusteko utzi dira.

1.2. Hiztegi Batua

P. Salaburuk a letraz hasten diren hitzen zerrenda amaitzeko kronograma aurkeztu du, horretarako 11 bilera inguru beharko direla gogoratu. Lana azkarteko, bestalde, hemendik aurrera zerrendak binan emanen ditu. Bestalde, oharriak gabeko hitzen zerrenda bileraan bertan banatuko ditu. A. Eguzkitzak aldez aurretik bidaltzea eskatu du, izan litezen lapsusak zuzentzeko. Eskaria, ordea, ez da beharrezkoa ikusi, lapsusak gero zuzenduko baitira, argitaratu baino lehen, horiei buruzko oharrak batzorderra bidaliz.

Oharrik gabeko hitzak onartu dira.

ahuakate-aitzitik hitz –zerrendako oharrak ikustea.

Euskaltzainek eginkiko oharrak banan banan ikusi dira *aire* hitzeraino.

Goizeko bilera ordu bi eta hamar minutuetan eten zen, bazkari legea egiteko.

* * *

Arratsaldeko 4,25etan goizean hasiriko bilerari segida eman zaio.

2. Nafarroako Gobernuaren hitzarmena

Andres Iñigok Nafarroako Gobernuarekiko harremanen berri eman du. Atlasaren arazoaz ez zirela gehiegi kezkatu eta Euskaltzaindiaren azken proposamenari ez diotela inolako erreparorik egin esan du. Nabari denez, haien benetako ardura hitzarmen berria egitea da. Horretarako, Nafarroako Gobernuak hitzarmen berriaren testua Euskaltzaindira bidali duela azaldu du. Aurreko bileran erabaki bezala, Zuzendaritzak testu horri oharrok egin eta Nafarroako Gobernuari berriro igorri dio. Gaur, oharrok kontuan izanda, nafar gobernuagandik azken testua jaso eta euskaltzainen artean banatu da. A. Iñigok adierazi duenez, Pegenautek atzo esan zion ez zuela nahi testua gure artetik ateratzea. Hortaz, banatu diren hitzarmen-testuak, eztabaidatu ondoren, berriz ere biltzea proposatu da.

Ondoren A. Urrutiak hartztu du hitza. Gaur aurkezten den testu hau, eztabaidak eta oharrok egin eta gero, Nafarroako Gobernuari berriro bihurtuko zaio. Honi argi gogorarazi zaio esan zaio, iazko dirua jaso arte Euskaltzaindiak ez duela hitzarmen berria sinatuko.

P. Salaburuk galdeitu du ea zer gertatzen den atlasaz. Kezka bera azaldu du B. Oihartzabalek. A. Urrutiak erantzun dio ez diotela inolako oztoporik jarri Euskaltzaindiaren proposamenari eta, beraz, ontzat emana dela ulertu behar dela. Edozein kasan, hori protokoloan agertuko dela.

P. Goenagak azaldu du ondo ulertzen duela Euskaltzaindiak iazko laguntza eta hitzarmen berria elkarrekin lotu nahi izatea, baina berez batak ez duela bestearekin zer ikusirik. Bietarako konpromisoak ezberdinak dira. Erantzunez, A. Urrutiak esan dio gure helburua bikoitza dela, alde batetik, iazko dirua eskuratzeara eta, bestetik, hitzarmen duin berria egitea. Hortaz, puntu bi horietan zalantzakiz izanez gero, ez lukeela deus egingo. Gogoratu du, halaber, Euskaltzaindiaren ekonomi egoera konpondu beharra dagoela. Bestalde, P. Goenagari eskatu dio bera beste gobernu batean dagoela ananzteko.

Goenagak mesfidantza agertu du, ez baitakusa hain garbi Euskaltzaindiak iazko dirua jasoko duenik. A. Urrutiak esan dio guztiok izan ditzakegula geure erreserbak baina akademiaren egoera ziurtatu beharra dagoela.

Ondoren, A. Urrutia testu biak irakurtzen eta oharrok azaltzen hasi da, hots, Nafarroako Gobernuak hasieran bidalia eta geroago, Euskaltzaindiaren Zuzendaritzak egindako oharrok jaso ondoan, gaur igorri diguna.

Funtzionarioak liberatzeko konpromisoari dagokionez, P. Goenagak hori erabat airean gelditzen dela esan du. A. Urrutiak azaldu dio hortik bederen zirrikitu bat zabalten dela, besterik ez.

Aurrekontuetan Euskaltzaindiarentzako partida nominatiboari dagokionez, P. Salaburuk galdeitu du ea hori ezin uler daitekeen `gauza konkretuetarako'. A. Urrutiak erantzun dio ezetz, hori ezinezkoa dela, protokoloan zehaztuko delako.

Euskaltzaindiaren ordezkartzari dagokionez, P. Salaburuk esan du berak nahiago lukeela sailburuak joatea. A. Eguzkitzak bileratik alde egin beharra dauka eta A. Iñigori uzten dio botoa.

P. Goenagak, 10. orrialdeari dagokiola, galdu du ea Nafar Gobernuak ordainketak atzeratuz gero, zer gertatuko den, eta ez al dagoen hori zehazterik, interesak edo eskatuz. A. Urrutiak erantzun dionez, administrazioarekin ez dago hori eskatzerik.

Idazkeran lapsusen bat nabarmendu dira, Nafar Gobernuari azaldu beharrekoak. Bestalde, erdal testu osoan, *euskara* behin ere aipatu gabe, beti *vascuence* hitza era-biltzen dela eta, A. Urrutiak Euskaltzaindiak eranskin hau sartzea proposatzen du: *Las referencias que se hacen en el presente convenio al vascuence se entienden por Euskaltzaindia como euskara o lengua vasca.*

Hasieran esan bezala, testua banatu eta eztabaidatu ondoren, ale guziak bildu egin dira eta aktan hala jartzea eskatu dute Patxi Goenagak eta Andres Urrutiak. Hollaxe egin da. Testua, bestalde, aho batez onartu da. Edonola ere, P.Salaburuk ez du ulertzten sekretismo hori eta prozedura bera ez zaio gustatu: P. Goenagak gauza bera adierazi du

Euskaltzainburuak Jagon sailburuari eta nafar ordezkariari eskerrak eman dizkie, Nafarroako Gobernuarekiko harremanetan beren lana ongi bete dutelako.

3. Eskuartekoak

J. Haritschelharrek Eusko Legebiltzarra apirilaren 18ko ekitaldian, Euskaltzaindiari emaniko 31 CD-Rom emaitza azaldu du, euskal liburu zaharrekin, gure biblioteka aberasteko. Orduan sinaturiko dokumentuaren kopia euskaltzainen artean banatu da.

4. Azken ordukoak

4.1. A.Iñigok Iruñeko udalak aurten antolatu duen literatur lehiaketaren berri eman du, erdaraz modalitate bakarra den bitartean, gurean euskara batua edo nafar euskalkietan jarriaz. Bestalde, erabaki hori hartu aitzin, Euskaltzaindiari inolako berrikirik edo galderarik egin ez arren, gure Akademiarri epaimahai horretan parte hartzea eskatzen diote. A. Urrutiak esan du Iruñeko udalarekin komenio bat genuela, hark aspaldian bete gabea, hortik Euskaltzaindiak eskuratu behar zuen dirua barne. J.L. Lizundiak, bestetik, gogora ekarri du euskalkieiburuz Euskaltzaindiaren doktrina zein den: guziok ortografia eta, ahal den neurrian, morfologia bera erabiltzea. Beraz, udalari esan behar zaio, alde batetik, bete dezala Euskaltzaindiarekin duen hitzarmena, zor zaiguna ordainduz eta txapelketetarako oinarriak jartzeko orduan gurekin harremanak ere iza-nez. Euskaltzaindiak parte hartza eskatu duen zinegotziari hala erantzungs zaio. Hitzarmen berrikirik egin behar izatekotan, euskaltzainburuak sinatuko luke.

X. Kintanak esan du dialektoei buruz indarrean dugun adierazpena aski zaharra dela eta oraingo egoera berrirako beste bat egin beharko litzatekeela, hor ortografia eta morfologia kontuez gainera, erabilera-esparruak ere nolabait zehatzuz. A. Urrutiak erantzun dio Jagon sailean euskalkien lantalcon horretan ari direla.

4.2. Ondoren Patxi Goenagak hitza eskatu du *El Correo* (2002.04.19), H. Knörrri eginiko elkarritzeta batekin argitaratu den artikulu bati buruz mintzatzeko, hor zabaldu diren berri asko gezurrak edota aski itxuraldatuak baitira. Adibidez, Eusko Jaurlaritzak ez du Nafarroako Gobernua inondik ere salatu, eta hortaz martxoaren 11an Jarraipen-Batzordeak Gasteizen egin zuen bileran argi eta garbi esan zen han egoera

berria konstatatzea besterik ez zela egiten. Bestalde, bertoko diputazioek eta Jaurlari-tzak berek sortu ez duten arazoari, diru-aurrerapenez eta, irtenbidea eman nahi dioten bitartean, ematen du, hitzarmen berrirako testua bidali duelako, gauzak behar den moduan egin dituena Nafarroako Gobernua dela, eta gaizki jokatu dutenak EAEko agintteak izan direla, Euskaltzaindiari oraindik hitzarmen berriaren testua helarazi ez diotela. Beraz, gertakariak itxuraldaturik ematen dira, gauzak nahasiz.

Hortaz, Euskaltzaindiari hiru galdera hauek egiten dizkio:

1. Ea Euskaltzain-buruordeak *El Correok* argitaratutakoarekin ados den.
2. Ea Knörr jaunak kaleratu duena Euskaltzaindiaren eta Zuzendaritzaren iritzia den.
3. Gauzak bere lekuaren jartzeko, Euskaltzaindiak prentsa oharrik edo argitaratu duen.

Erantzunez, H. Knörrek azaldu du berak ez duela artikulu hori idatzi. Aitzitik, berak kazetariari idatziz beste bat bidali ziola, baina horrek hura bere kasa informazioa laburtu eta itxuraldatu duela. Bere testuari, euskaltzainen artean banatu denari, begiratzeko esan du, eta ez publikatu zaionari.

Euskaltzainburuak, hitza harturik, arazo hori Zuzendaritzan agertu eta luze eztabaidatu zela argitu du.

Andres Iñigok esan du berari ere kazetariekin Iruñeko udalaren sarketaz galdetu diotela. M. Satrustegik, halaber, gogorra deritzo ika-mikako egoera honi eta, esperientzia propioaz, badakiela oso zaila izaten dela kazetarien erasoetatik ihes egitea.

B. Oihartzabalek uste du oraingo arazo honetatik esperientzia atera behar dela aurrerantzean harri berean ez behaztopatzeko. Bere aburuz, agintariekin diru-harremanez beti modu ofizialez aritu beharra dago, gure akademiaren jarrera ofiziala zein den garbi gera dadin, eta jendeak ere hori argi jakin dezan.

A. Urrutiak esan du hitz egiteko askatasuna ez zaiola inori ukatzen, baina arriskuak ere hor dira. Kontua da ea noraino heltzen den euskaltzain bakoitzak erantzuteko duen askatasuna?

Beñat Oihartzabalek hor kontraesana dakusa: alde batetik mintzatzeko askatasunaren alde agertzen gara baina gero ez gara egindako adierazpenen erabileren erantzule egiten, kazetarien morbozaletasuna jakin arren. Bere iritziz, ez da komeni krisialdietaen edozer esatea, hortik zer nolako ondorioak gerta daitezkeen pentsatzeke. Edonola ere, esan behar da prentsan agertua ez dela Euskaltzaindiaren iritzi ofiziala.

Patxi Goenagak ez deritzo egoki nafar gobernuari eskaintzen zaion begirunea Euskal Jaurlitzari ez ematea. Egindako 3 galderak erantzutea eskatzen du.

Andres Urrutiak euskaltzain guztien jarrera berdin epaitu beharko liratekeela uste du, hobespenik agertu gabe. H. Knörrek, bere ustez, zenbaitzuek batzuen alde eta beste batzuen aurka *indignation selective* delakoa erabiltzen dutela esan du.

Ez da erraza, B. Oihartzabalen ustez, euskaltzainen iritziak noraino mugatu behar diren zehaztea. Kargudunen erantzukizuna handiagoa dela pentsatzen du, ohiko euskaltzainen baino. A. Urrutia horretan bat dator, irizpide horiek elkarren artean eztabaidatu eta kontsentsuatuko bagenitu, oraingo egoera latz honetatik behin betiko ateratzeko.

4.3. X. Kintanak Nafarroako Unibertsitate publikoan euskaraz ikasteko duten es-kubidea aldarrikatzeagatik ikasle euskaldunekin oraintsu gertatua gogoratu du, eta ego-era latz horren aurrean Euskaltzaindiak zerbait esan beharko lukeela pentsatzen du. Euskaltzainburuak Jagon sailari pasatzen dio horri buruzko agiria egitea, hala komeni dela iritzi gero. J.L. Lizundiak: arriskugarria deritzo ikasleen aldeko adierazpena ate-ratzeari, hori berez alderdi politikoen, edo, zehazkiago esan, talde parlamentarioen ze-regina baita. Jagon sailburuak uste du adierazpena agian Tuteran egin eta argitaratu be-harko litzatekeela, beti ere nafar euskaltzainekin mintzatu ondoren.

Bilera arratseko 7etan bukatu da.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Xabier Kintana

Donostian, 2002eko maiatzaren 31n

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, buruordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Beñat Oihartzabal, Iker Sailburua,
Andres Urrutia, Jagon Sailburua,
Patxi Altuna,
Jean Louis Davant,
Andolin Eguzkitza,
Patxi Goenaga,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Juan Mari Lekuona
Frantzisko Ondarra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Juan San Martin
Ibon Sarasola,
Jose Mari Satrustegi
eta Piarres Xarritton, euskaltzainak,
Jose Luis Lizundia idazkariorde-
-kudeatzailea,
M. Gorrotxategi Onomastiika
batzordeareen idazkaria (1.l. gaian)
eta Juan Jose Zearreta, ekonomi eragilea

Batzarra goizeko 10,15etan hasi da Aka-
demiareni Donostiako ordezkaritzan, ez-
kerreko zutabeen ageri diren euskaltzai-
nak bertan direla.

J.A. Aranak, ezin etorririk, bere ahala
H.Knörr eman dio.

Aurreko batzar agiria onartzea

Peillenen eta P. Salabururen ohar- zu-
zenketekin, aurreko bileraren akta onar-
tu da.

Omenaldiak

Euskaltzainburuak J. San Martin eta J. M.
Satrustegiren omenaldien berri eman du,
bai eta. San Martin eta Arana euskaltzai-
nek izandako istripu-ezbeharrena ere bai.
P. Altunak ere ezbehar bat izan duela
azaldu digu. Geroago, ordea, J. San Mar-
tin bilerara heldu eta ongi etorri esan
zaio.

1. Hizkuntza arauak

1.1. Onomastika

Nafarroa Behereko Herri izendegia (3. zerrenda).

Hasteko, A. Iñigok erabakitzeko gelditu ziren bi izenei buruz txosten bat presta-
turik ekarri eta, euskaltzainen artean banatu ondoren, irakurri egin du: *Izenen hurren-
keria eta zeinu diakritikoen erabilera toponimia nagusian izenekoa*, kasu horietarako
irtenbide-proposamenak eginez.

Xarrittonek esan du ez dela egia Bastida herria Arberoakoa denik, eta berak Baio-
nan agiri bateen ikusi duenaren arabera hobe litzatekeela Bastida Amikuze.

Andres Iñigoren idazkiaz, Beñaten ustez, bada hor gauza bat oso argi ez dagoe-
na:bide-seinalaureen eta ohiko idazkien arteko bereizketa.

Andolinek Xarrittoni itaundu dio ea gaskoiek nola esaten duten, erantzuna *Clairance* izanik. Galdetu egin du, halaber, ea iparraldekoek *Bastida Amikuze* onartuko lueten. Beñatek eta Xarritonek ongi iritzi diote. Pello Salaburuk ez du ikusten bereizketa egin beharrik.

Lizundiak arazo hau nazio-ikuspegia batetik bereiztu beharra dakusa, kasu kontuetan forma laburra erabilgarria izan arren. Bastida herria Arberoa koa ez dela esan denez, gogoratu du badirela antzeko kasu batzuk ere: *Maia del Baztan* deritzona, adibidez, berez Amaiur Bartzango udalekoa oraintsura arte izan ez arren.

Mikel Gorrotxategik: azaldu du izen bikoitz horiek toponimoa nahitaez bereizi behar den kasuetan soilki erabili beharko liratekeela, baina ez behar ez denean. Bestalde, Lizundiak esandakoari, Durango ere ez dela inoiz Durangaldekoia izan gaineratu du.

J. M. Satrustegik gogoratu du arazo hau lehenbiziko aldiz duela hogeita hamar urte planteatu zela eta urte hauetan ehundaka kontsulta izan ditugula Hegaoaldean. Aspaldiko urteotan administrazio aldetik guk ofizialtasuna izan dugunez, jadanik hegaoaldean tradizio nabarmena sortu da eta, malgutasunez jokatu arren, Iparralderako ere lege orokor berbera finkatzea baliagarria izan daitake. Xarritonek galdezu du ea *Lekunberri* biak bereizten diren.

Andres Iñigok esan du berdin diola *Bastida Arberoa* zein *Bastida Amikuze* eta kontua toponimo biak argi bereiztea dela. Mitxelenak gauzak orokorrean hartu behar direla esan zuela gogoratu du, ofizialtasuna zetorrerako nahasbiderik ez izateko. Bere ustez, beti irizpide bera erabili beharra dago, nahiz eta kasu bakoitzean izen biak jarri behar diren ala ez ikusi behar.

Beñat Oihartzabal irizpidearekin bat dator, baina Bastidaren kasuan ez du uste besterik behar duenik. Jean Haritschelharrek gogoratu du, edonola ere den, agintarietek dutela hor azken hitza. Juan San Martinek esan du Eibarren ere ba zela beste *Bastida* bat.

P. Salaburuk proposatzen du Iparraldekoari *Bastida* utzi eta Hegaoaldekoari *Bastida Errioxa* esatea. Lizundiak nazio-zentzia eskatu du, hegaoaldekoek ez baitute erruirik iparraldean oraindik ofizialtasunik ez egoeagatik. Berak egindako txostena banatu du: *Izen bereko herri izenen bereizketa, erakunde administrazio ikuspegitik*, izenekoak. X. Kintanak Pello Salabururen soluzioa logikaz ona dela esan du, baina lehentasun-razoak sor litzake, izen bereko herrietako biek izen bakarra gorde nahi luketelako, lehentasuna nori emanen zaion ezin erabakiz, Bestalde, herri-tradizioak kasu horietan betik bi izen erabili direla erakusten digu, *Lutxana Erandio / Lutxana Barakaldo* bezalako kasuek erakusten dutenez.

E. Larrek *Bastida Klerantza*-ren alde egin du. Beñatek galdezu du ea Getaria biak, horko elizak etabar nola azaltzen diren. Iñigok problema bere osotasunean hartu behar dela esan du, arazo honi buruzko kasuistika izugarria baita. Kasu berean diren *Lasarte, Artea* edo *Beloc* toponimoen inguruko anekdotak aipatu dituzte H. Knorrekin, X. Kintanak eta P. Xarritonek. Salaburuk helburuak argi ikusi nahi ditu, izenok zertarako diren argituz. *Bastidaren* forma datorren hileko bilkuran finkatzeko utzi da.

1.1.1. Hiztegi batua: ahuakate-aitzitik zerrenda

Pello Salaburuk 1.3. txosteneko oharrak irakurri ditu, orain arte egindakoaz. Aurrutikoa kontraesan batzuk ere aipatu ditu, batzarrean eztabaideatu eta konpondu direnak.

Andres Urrutiak ez dakusa garbi proposamen berriak eztabaiderako onartu edo gaitzesteko irizpidea. Eztabaideren ondoan hau erabaki da: hemendik aurrera ohargileek bi eratako oharrak egitea: batzuk zerrendari lotuak, hurrengo batzarretan ikustekoak, eta besteak proposamen teknikoak eta nazioarteko hitz berriak, geroago ikusiko direnak.

Aire-bide hitzetik **aintzintzoan**-era arteko berbak aztertu eta erabaki dira..

2etan bazkaltzera joateko etena egin da.

* * *

Arratsaldeko 4,15etan bilerari segida eman zaio. Hasieran eskuarteko gai batzuk ukitu dira.

Pedro Pablo Astarloaren 250. urteurrena dela eta, Euskaltzainburuak horren os-pakizunen programa aurkezu du.

Henrike Knorrek *EITBko kargualdia utzi ondoren Euskaltzaindiari* txostena irakurri du, hizkuntzari dagokionez, EITBren programetan nabari den zabarkeria salatuz. Bide berean, J.M Satrustegik eta X.Kintanak ere Satrustegik zerbait erantsi dute.

2. *Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Aginteen hitzarmena*

Puntu hau tratatzeko, Euskaltzaindiaren ordezkariek eta herri-aginteen ordezkariek Euskaltzaindian maiatzaren 17an bildu zirela jakinarazi da. Andres Urrutiak hala eskaturik, bilera hartan ez Miren Azkarate ez Patxi Goenaga egon zirela egiaztatu eta aktan jartzea onartu da.

Bileraren nondik norakoa Juanjo Zearretak azaldu du puntuz puntu, behar diren xehetasun guztiak eskainiz, eta bereziki 8. c puntuari buruzkoak. Irailaren hasierarako Euskaltzaindiak bere behin-behineko aurrekontuak aurkezu behar dituenez, sailburuei orri bana igorri zaie, lehenbailehen nork bere aurrekontua aurkez dezan, horiekin Euskaltzaindiak bere aurrekontu orokorra prestatu ahal izateko.

Pello Salaburuk uste du hitzarmena luzegia dela eta, edozein kasutan, lehendakariak sinatu beharko lukeela, Eusko ikaskuntzarekin egin duenez. Protokoloko programak birdefinitzea proposatzen du. Adibidez, 3.3.2. puntuak dioenez (*remitirá a los poderes públicos ... informes semestrales...*) hori ez dela erreala uste du.

Euskaltzainburuak beste hitzarmen bat negoziatu behar dela esan du, oraingoa salatu aurretik., finantzazio iturri ezberdinez baliatuz. Beñat Oihartzabalek bestelako haurremanak ezarri beharko liratekeela uste du, diru-laguntzak, adibidez, atalka banatuz, adibidez ohiko gastuak Gobernuaren kontura eta proiektuak diputazioek finantziatzeko.

Pello Salaburuk hitzarmenaren arazoa, oro har, lehendakariarekin negoziatu beharra dakusa. Lizundiak esan du industriak, irakaskuntzak etab. lobby berezia osatzen dutela, Euskaltzaindiak ez daukana. Gure egitura politiko anitzak ez digu errazbiderik eskaintzen.

Andres Urrutiak galdu du ea Pelloren proposamenak ez ote digun bestelako proiektuetarako kalterik ekarriko. Hori saihesteko, beste eranskin hau jartzea proposatu eta onartu da: 4.3. puntuaren bukaeran: *No obstante, cada institución podrá contribuir*

buir, si lo desea, con una cantidad superior. Las cantidades entregadas en este concepto, no perjudicarán la financiación de otros eventuales proyectos o de proyectos ya en marcha.

Andolin Eguzkitzaren ustez beharrezko da Jaurlaritzak Euskaltzaindia projektu estrategikotzat onartzea, diru-partidetan bereziki kontuan hartuak izan gaitezen. Bide berean galdeitu du ea Euskaltzaindiak ez ote lukeen nolabaiteko estrategia prestatu behar. Ongi ikusi da, baina hori denboraz antolatu beharko litzatekeela esan da.

Jean Haritschelharrek azaldu du aldaketa horiek onartzen saiatu beharko dugula, baina, beti ere, negoziazketa honetan dugun lekua gogoan izanda. Aho batez onartu da. Azken proposamena biribiltzeko, herri-aginteekin Bilbon beste bilera bat egitea erabaki da.

Bestalde, Euskaltzaindia Iruñeko Udalarekin, Etaio jaunarekin mintzatu dela jakinarazi da, eta, borondate onaren erakutsitzat sariketaren epaimahairako ordezkarria ere bidaliko zaiela, haien gurekin iazdanik duten diru-zorra ere gogoratuz.

Bilera amaitzean, Argitalpen eragilearen ezintasunagatik, Eragile teknikariak bantzartuen artean ondoko liburuak banatu ditu: *Ermua-Eitzaga: leku-izenak*, Onomasticon Vasconiae bildumako 22. liburukia, Ermuko Udalak eta Bizkaiko Foru Diputazioaren Kultura Sailak babestua, eta *Euskera* Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala, 2001,2.

Bilera 6,38etan bukatu da.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Xabier Kintana

EITBKO KARGUALDIA UTZI ONDOREN EUSKALTZAINDIARI

Donostia, 2002-V-31

Henrike Knörr ()*

1999ko maiatzaren 7an, Eusko Legebiltzarrak EITBko 19 kontseilukideak onartu zituen, haien artean izkribu honen sinatzailea. Nire izena Euskaltzaindiak hilabete batzuk lehenago proposatu zuen eta osoko batzarrak onetsi.

Karguaz jabetu orduko, zenbait eskari egin nituen Kontseiluan, besteak beste, EITBk darabiltzan hizkuntzez –euskaraz eta gaztelaniaz– gehiago ardura zedin. Horren ondorioz, Hizkuntza batzordea eratu zen Kontseiluan eta ni batzordeburu izendatua geratua.

Haste-hastetik, bi eremutan lan egin behar zela iritzi nion. Alde batetik, EITBk dituen etxe guztietarako liburu eta gainerako bibliografia ugaria erostea. Ezin nuen, izan ere, begi onez ikusi oinarri-oinarrizko argitalpenak faltatzea, hala nola entziklopediak, hiztegiak, gramatikak eta Euskaltzaindiaren beraren *Arauak*. Azken honi dago-kiola, urtebete lehenago Miramonen neroni jazoan gogoan nuen: irratizko elkarritzeta batera joan, Onomastikaren gainean mintzatzeko, *Arauak* nik aipatu eta etxe hartan horrelakorik ez izan...

Neurri batean hori lortu zen. Euskarari eta gaztelaniari dagokiela, liburuak erosiziren, kazetalariek eta esatariek eskura izan zitzaten. Inoiz ez zitzaidan esan, ordea, nik aurkeztu zerrenda luze hartatik zer onartu zen eta zer kanpoan utzi.

Bestetik, aholkulari batzuk izendatzea proposatu nuen batzorde hartan, eta batzordeak 2000ko irailaren 27an egin zuen bilkuran onetsi (Batzar-Agiriak nirekin ditut oro). Hau da: gaztelaniari datxekola, Angeles Libano katedraduna proposatu nuen, hain zuzen ere, gaztelaniaren ikertzaile ezaguna izateaz gain, gure Unibertsitatean komunikabideetako gaztelania irakasten duena. Euskaraz denaz bezain batean, sei lagun ziren, Euskaltzaindiak 2000ko maiatzaren 26an Itureneng egindako batzarrean onetsiak (ikus Agiria): Miren Azkarate EHuko Euskal Filologiako irakasle titularra eta euskaltzaina; Lourdes Oñederra, Unibertsitateko irakasle titularra, Fonetika eta Fonologian aditua eta euskaltzain urgazlea; Xabier Kintana EHuko Euskararako Kabinete Teknikoaren burua eta euskaltzaina; Patxi Salaberri, Nafarroako Unibertsitateko Euskal Filologia Saileko irakasle titularra eta euskaltzain urgazlea, eta Juan Luis Goikoetxea Arrieta, Euskara eta Euskal Literaturako katedraduna Derioko Institutuan eta euskaltzain urgazlea.

(*) 2002.eko maiatzeko Batzar-Agiriaren eranskina.

Bi hilabeteren ondoren, Azkarate andrea EITBko euskararen arduraduna izendatu zelarik, beste izen bat proposatu nuen batzordean: Joxerra Garzia, EHUKo Gizarte eta Informazio Zientzien Fakultateko irakaslea.

Aholkularien proposamena EITBko zuzendaria helarazi zitzzion, berak eta Azkarate andreak azter zezaten. Baino 2001eko martxoaren leinu, batzordeareen bilkura baino lehen egindako bazkari batean, Julian Belokik Programa-zuzendaria eta Miren Azkaratek esan zidaten ez zitzutela onartzen euskararen aholkulari horiek. Horren ondorioz, nik dimisioa aurkeztu nuen, batzordeburu kargutik, 2001eko apirilaren 3an kontseiluburu zen Jon Basterrari egindako gutunaren bidez. Horren berri, gainera, Haritschelhar jaunari gatzigatu nion, halaber gutunez, apirilaren 6an.

Gauzak horrela, bai Euskaltzaindiak, eta bai EITBko Kontseiluak, gauzak bideratzea eskatu zuten izkribu banaren bitartez. Hauxe zioen Euskaltzaindiak 2001eko apirilaren 27an, Bilbon egin zuen batzarrean, Jagor sailburua entzun ondoren eta gai hau azterturik:

1. Henrike Knörrri eskatzea bertan behera utz dezan dimisioa.
2. Beloki jaunari eta Azkarate andreari eskatzea aipatu aholkulari horiek aintzat hartzea, guztiak, Garzia jauna izan ezik (berau gerotzik proposatu zuen Knörr jaunak, hasierako zerrendatxoan zegoen Azkarate andrearen ordez), onetsiak baitzituen Euskaltzaindiak, 2000ko maiatzaren 26an Iturenengandik egindako batzarrean (ikus Agiria, *Euskera* 45: 3, 2000, 969).
3. Euskal Irrati Telebistaren Zuzendaritzari adieraztea erakunde horren eremuuan inola ere sartu gabe, Euskaltzaindia prest dagoela, orain arte egon den bezala, bere lankidetza eskaizteko, komunikabide-sare horrek euskararen alde egin dezakeen lan ederra kontuan haraturik.»

Ahalegin haien, berriz, ez zuten fruiturik ekarri. Kontseiluko gure agintaldia bukatu zen, eta behin iradoki banuen biltzea, Beloki jaunaren erantzuna etorri zitzaidan Paula Zabala Kontseiluko eta Hizkuntza batzordeko idazariaren bidez: «funtziotan» ginea eta ez zuela merezi...

Bitartean, seguru aski, Azkarate andreak, astean ordu batzuk sartuaz izan zuen jardueran, eta orain Lourdes Oñederrak postu berean egiten duenaz, zerbait erdietsi da. Ez dakit. Hau bai badakit: Lourdes Oñederra oso kexu dagoela, ez baitu uste euskaran alorrean EITBk benetako politika bat ekiteko nahia duela.

Agian orain, Jose Luis Lizundia kontseilukide berriak, orobat Euskaltzaindiak proposatuak, zorte gehiago izango du. Hala opa diot adiskideari, eta hala opa diot euskarari.

HITZARMENAK / CONVENIOS



EUSKALTZAINDIA
IRBAL AKADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE



EUDELEN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA, TOKI ERAKUNDEEI LAGUNTZA TEKNIKOA EMATEKO IZEN TOPONIMIKOEN ARLOAN

Bilbon, 2001eko uztailaren 11an

CONVENIO ENTRE EUDEL Y EUSKALTZAINDIA PARA LA PRESTACION DE UN SERVICIO DE ASISTENCIA TECNICA A LOS ENTES LOCALES EN MATERIA DE DENOMINACIONES TOPOGRAMATICAS

En Bilbao, a 11 de julio de 2001

BILDU DIRA

Batetik, Karmelo SAINZ DE LA MAZA ARROLA jauna, Euskadiko Udalena Elkartearen / EUDEL elkarteburua, erakundearen izenean eta hura ordezkatzuz.

Bestetik, Jean HARITSCHELHAR DUHALDE jauna, EUSKALTZAINDIAREN burua, erakundearen izenean eta hura ordezkatzuz.

ADIERAZI DUTE

1. 1999ko martxoaren 15ean EUDElek eta Euskaltzaindiak *Hitzarmena* formalizatu zuten, toponimiazen inguruan, EAeko Herrien Izendegia aztertu, zuzendu eta eguneratzeko.

REUNIDOS

De una parte, D. Karmelo SAINZ DE LA MAZA ARROLA, Presidente de EUDEL/Asociación de Municipios Vascos, en su nombre y representación.

De la otra parte, el Ilmo. Sr. D. Jean HARITSCHELHAR DUHALDE, Presidente de EUSKALTZAINDIA, en nombre y representación de ésta.

MANIFIESTAN

1. Que el 15 de marzo de 1999, EUDEL y Euskaltzaindia formalizaron un *Convenio*, en el ámbito de la toponimia, con el objeto de examinar, corregir y actualizar el Nomenclátor de Entidades de Población de la CAPV.

2. Aipatutako lana amaituta, ego-ki iritzi diote lanari jarraipena ema-tea. Horren haritik, Toki Erakundeei ahokularitza emango zaie lekurik esanguratsuenen izen toponimiko-en inguruuan hartu beharreko erabakietan. Izan ere, era horretan akatsak saihestuko dira, behin eginda kon-pontzeko zailak dira-eta.

3. Bestetik, arlo honetan oinarri-zkoa da gainerako instituzio eskudun-kin koordinatuta jardutea, beti ere, guz-tion ahalegina bateratu eta bi-koi-ztasunak saihesteko. Horretarako, eta 1999an Herri Administra-zio-en eta Euskaltzaindiaren artean izenpetutako Protoko-loarekin bat etorri, Batzorde Paritarioa eratuko da. EUDEL, Euskaltzaindia eta Hiz-kuntz Politikako Sailburuordetzako ordezkariek osatuko dute Batzordea.

Esandako guztia kontuan hartuta, Hitzarmen hau izenpetzea erabaki-dute bi alderdiek. Hona hemen *Hitzarmenaren*

KLAUSULAK

1. Xedea: Toki Erakundeei la-guntza teknikoa ematea industrialde, auzo berri, etxebizitza-poligono, na-turgune, parke, atsedenleku, zerbi-tzugune, katalogatutako udal mendi eta bestelakoien izen toponimikoei buruz.

– Helburu hori betetzeko, beharrezkoia izango da gainerako Institu-zioekin, SPRIrekin... elkarlanean jardutea, beti ere, aurretiaz, egun

2. Una vez finalizado el citado tra-bajo, se considera oportuno continuar con esta labor mediante la prestación de un servicio de asesoramiento a las Entidades Locales que les facilite la toma de decisiones que han de adop-tar en lo referente a la denominación toponímica de sus lugares más signi-ficativos, evitando, de esta manera, errores que, con posterioridad, son muy difíciles de subsanar.

3. Por otra parte, es fundamental también en esta materia la coordina-ción con el resto de Instituciones competentes con el fin de aunar es-fuerzos y evitar así duplicidades. A estos efectos, y en consonancia con el Protocolo firmado en 1999 entre las Administraciones Pùblicas y Eus-kaltzaindia, se prevé la constitución de una Comisión Paritaria integradas por representantes de EUDEL, Eus-kaltzaindia y Viceconsejería de Polí-tica Lingüística.

Teniendo en cuenta cuanto ante-cede, ambas partes acuerdan forma-lizar el presente *Convenio* en base a las siguientes

CLAUSULAS

1. Objeto: Servicio de asistencia técnica a los Entes Locales sobre las denominaciones toponímicas de po-lígonos industriales, nuevos barrios, po-lígonos residenciales, espacios na-turales, parques, zonas de descanso, zonas de servicio, montes munici-piales catalogados, etcétera.

– Para la consecución de este ob-jetivo, será preciso la colaboración con el resto de Instituciones, SPRI, etc. con el fin de elaborar un Inven-

dauden izen toponimikoen Inventarioa egiteko formatu informatikoan. *Hitzarmen* honen ezarpenaren ondorioz bihar-etzi izan daitezkeen inventarioekin osatu beharko da aipatutako inventarioa.

– Era berean, udalek eskatuta, etengabe emango da plaza, pasealeku, kale eta bestelakoien izen toponimikoei, hau da, hiri-toponimiari buruzko zerbitzua.

2. Procedura:

– *Hitzarmen* honen esparruan toki erakundeek egingo dituzten eskaerak logikaz eta eraginkortasunez koordinatu eta bideratzeko asmoz, eskaerok EUDELera bidali beharko dira. EUDELek, bestalde, bide egoikiak ezarriko ditu eskaerak Euskaltzaindira bidali eta lortutako emaitzak biltzeko. Euskaltzaindiak Toki Erakundeak eskatutakoa bete duenean, behar bezala jakinaraziko zaio emaitza eskaera egin duen Udalari, eskaera jaso eta ahalik eta denborrik laburrenean.

– Eduki hau betetzeko, eta ahal den neurrian datu-igorpena azkartzeako asmoz, unean-unean eskueran dauden tresna telematiko aurreratuenak erabiltzen saiatuko dira alderdiak.

3. Finantzaketa:

– Laguntza tekniko etengabearen zenbatekoa bost milioi (5.000.000)

tario previo, en formato informático, de las denominaciones topónimas existentes. Este inventario deberá ser complementado con las que en un futuro puedan existir como consecuencia de la aplicación de este *Convenio*.

– Igualmente, se prestará el servicio de asesoramiento continuo sobre las denominaciones topónimas de plazas, paseos, calles, etc. municipales, es decir toponimia urbana, que los Ayuntamientos soliciten.

2. Procedimiento:

– Con el fin de coordinar y encauzar de una manera lógica y eficaz las peticiones que en el ámbito de este *Convenio* se comprometen a formular los entes locales, las mismas deberán remitirse a EUDEL, quien a su vez establecerá los cauces pertinentes para reenviar las solicitudes a Euskaltzaindia y recabar los resultados obtenidos. Una vez cumplido por Euskaltzaindia la labor encomendada por el Ente Local, dicho resultado será oportunamente comunicado al Ayuntamiento solicitante en el plazo más breve posible desde la fecha de la solicitud.

– Para dar cumplimiento a este cometido, y con el fin de agilizar en la medida de lo posible la labor de transmisión de datos, se procurará por todas las partes intervenientes la utilización de las herramientas telemáticas más avanzadas que estén disponibles en cada momento.

3. Financiación:

– El importe total de este servicio de asesoramiento continuo asciende

pezetakoia izango da. EUDELek ordaindu baino lehen, Euskaltzaindiak justifikatu egin beharko ditu egindako jarduerak, bakoitzaren kostua xehetasunez azalduz. 2000. urteko aurrekontu-partidaren kargura ordainduko da zenbateko hori.

4. Epea:

– *Hitzarmen* honek **urte bateko** iraupena izango du. Haatik, automatikoki luza daiteke **beste urte batez**, baldin eta ez bada erabili aurreko atalean zehaztutako zenbatekoia.

5. Baldintzak:

– Euskaltzaindiak zerbitzuaren arduradun bat izendatu behar du *Hitzarmena* indarrean sartu baino lehen. Pertsona horrek Euskaltzaindia-rekin izango du lan-harremana eta/edo hirugarrenekiko *Hitzarmena* izango du. Bera izango da aipatutako Instituzioaren, EUDEL-en eta udalen arteko harremanen arduraduna.

– Arestian aipatutako epea buktzean, lortutako emaitzen datu-base osoa eman beharko dio Euskaltzaindiak EUDELI. Datu-base hori egun HPSn dagoen datu-basean sartuko da eta osatu egingo du. Halaber, agindutako lanetako emaitzen arabera, datuak aldizka ematea ere hitzartu ahal izango da.

Euskaltzaindia da lan honetatik sortutako datu-basearen egilea, eta

a la cantidad de cinco millones (5.000.000) de pesetas, que EUDEL abonará a Euskaltzaindia previa justificación de las actuaciones realizadas con expresión del coste pormenorizado de cada una de ellas. Esta cantidad será abonada con cargo a la partida presupuestaria correspondiente del año 2000.

4. Plazo:

– El plazo de duración de este *Convenio* es de **un año** prorrogable automáticamente por **otro más** para el caso de que no haya dispuesto la cantidad total señalada en el apartado precedente.

5. Condiciones:

– Euskaltzaindia deberá designar un responsable del servicio con anterioridad al inicio de la ejecución de este *Convenio*. Dicha persona tendrá su relación laboral con Euskaltzaindia y/o con *Convenio* con terceras personas, y será la encargada de mantener las relaciones que se generen entre dicha Institución, EUDEL y los ayuntamientos.

– Al finalizar el plazo de ejecución más arriba indicado, Euskaltzaindia deberá entregar a EUDEL una Base de datos completa con los resultados obtenidos, la cual se insertará y complementará la Base de datos actualmente existente en HPS. Todo ello sin perjuicio de las entregas periódicas de los datos que puedan acordarse en función del resultado de los trabajos encomendados.

Euskaltzaindia es autor y titular del derecho de propiedad intelectual

berea da horren jabetza intelektual osoa. Datu-basearen banaketa Euskaltzaindiak eta EUDELek, bakotzak bere aldetik, egin ahal izango dute. *Hitzarmen* hau indarrean da-goen bitartean, datu-basearen gainean duen habetza intelectualaren es-kubidea beste inori ez ematera konprometitzen da Euskaltzaindia.

– *Hitzarmen* honen esparruan egingo diren lanen nondik norakoei buruzko jarraipen eraginkorra egiteko asmoz, Batzorde bat eratuko da. Euskaltzaindiko 2 kidek, EUDELeko 2 kidek eta HPSko 2 kidek osatuko dute Batzordea, eta beraiek argituko dituzte hemen xedatutakoaren ezarpena dela-eta sor daitezkeen gorabeherak.

D. Jean HARITSCHELHAR
DUHALDE jauna,
EUSKALTZAINDIAREN burua

en pleno dominio de la Base de datos resultante de este trabajo, cuya difusión se podrá llevar a cabo tanto por Euskaltzaindia como por EUDEL. Euskaltzaindia se compromete a no transmitir derecho alguno de propiedad intelectual sobre la mencionada base de datos mientras esté en vigor el presente *Convenio*.

– Con el fin de llevar a cabo un seguimiento eficaz sobre el curso de los trabajos a realizar en el marco de este *Convenio*, se creará una Comisión integrada por 2 personas de Euskaltzaindia, 2 de EUDEL y 2 de HPS, quienes a su vez resolverán las posibles controversias que pudieran acontecer con motivo de la aplicación lo aquí dispuesto.

D. Karmelo SAINZ DE LA MAZA
ARROLA jauna,
Euskadiko Udalaren Elkartearren
(EUDEL) Elkarteburua

EUSKALTEL-EN ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA ETA EEBSrren AURKEZPENA

Zamudio, 2002-III-08

*Pello Telleria,
eragile teknikaria*

Martxoaren 8an sinatu zen, Zamudioko Teknologia Gunean, Euskaltel-en egoitzan, *Hitzarmen* hau. Ekitaldiak atal hauek izan zituen:

- Lehenik, Jose Antonio Ardanza Euskaltel-eko buruak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak *Hitzarmena* sinatu zuten.
- Ondoren, Jose Antonio Ardanzak, Jean Haritschelharrek eta Jose Luis Lizundia, Euskaltzaindiko kudeatzaileak Hitzarmenari buruzko azalpenak eman zituzten.
- Gero, Alberto Agirreazaldegi UZEIk kudeatzaileak, 1987tik gaur arte UZEIk egin duen EEBSrren (Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematiakoaren) nondik-norakoak azaldu zituen.
- Azkenik, Internet-en bidez egin ahal izango diren kontsultei buruzko azalpen teknikoak eman zituzten UZEIk Miriam Urkiak eta Joxe Ramon Zubimendik JAGONETen arduradunak; lehenak, XX. mendeko euskararen corpus estatistikoaz, eta bigarrenak JAGONET zerbitzuaz.

Mahaiburuan hauek izan ziren, ezkerretik eskuinera: Jose Luis Lizundia, Jean Haritschelhar, Jose Antonio Ardanza, Alberto Agirreazaldegi eta Alberto García Erauskir Euskaltel-eko zuzendari nagusi eta kontseilaria. Ekitaldian, Euskaltzainditik, Iñaki Kareaga informatikaria, Amaia Okariz kazetaria eta Pello Telleria eragile teknikaria ere izan ziren, eta UZEItik Elena Zubeltzu informatikaria.

Nola kontsultatu interneten EEB5 eta JAGONET

Lehendik datorren JAGONET zerbitzurako sarbidea hau da: www.euskaltzaindia.net > argibide eskariak > JAGONET.

EEBSren (Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoaren) interneteko izena hau da: *XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa*. Bi modutara sar daiteke copus hori konsultatzera:

- www.euskaltzaindia.net > produktuak eta > zerbitzuak > corporusak > XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa.
- www.euskaracorpusa.net (zuzenean).

Iazko iraileko osoko bilkuran UZEIk euskaltzain osoei aurkeztu zien EEBSko datu-basea, hiritar guztien eskueran dago, beraz, martxoaren 8tik. Corpus honetan 4.658.036 hitz daude, eta 101.585 lema desberdin. Corpus hori, XX. mendean kaleratu ziren 6.351 argitalpenetik lagin estatistikoa hartuz egin da.

LANKIDETZA HITZARMENA: *Euskaltel-Euskaltzaindia*

Bilbon, 2002-III-8

BILDURIK

Alde batetik, José Antonio Ardanza jauna, adinez nagusia, NAN 14823596-G duena, *Euskaltel* Fundazioaren izenean eta hura ordezkatzu, IFK G-95070421, helbidea: 101 Eraikina, Parke Teknologikoa, Zamudio (Bizkaia) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen erregistroan F-87 erregistrozenbakia duena.

Bestetik, Jean Haritschelhar jauna, adinez nagusia, NAN MU89083 duena, Euskaltzaindiaren izenean eta hura ordezkatzu, helbidea Plaza Barria 15, Bilbon (Bizkaia) duena.

ADIERAZI DUTE

I. Euskaltel Fundazioak honako helburuak dituela: ikerketa, azterketa eta garapen teknologikorako jarduerak sustatzea, herritar guztiak komunikazioaren eta informazioaren gizarte globalean parte har dezaten aukerak garatzea, gizartea rurrera egitea eta bertan kultur prestakuntza zabaltzea.

II. Babestua EUSKALTZAININDIA dela, besteak beste, JAGONET egitasmoa eta XX.mendeko euskararen corpus estatistikoa garatzen diharduena.

III. Euskaltelek goian adierazitako egitasmo horiek babestu nahi dituela, eta beraz, bi alderdiek Lankidetza Hitzarmen hau sinatuko dutela, ondoko baldintza hauen arabera:

BALDINTZAK

I. Helburua

Akordio honen indarrez, Euskaltel Fundazioak JAGONET egitasmoaren eta XX.mendeko euskararen corpus estatistikoaren babesle jardungo du.

II. Aldeen konpromisoak

Euskaltel Fundazioak, bi dira hartuko dituen konpromisoak:

- JAGONET egitasmoaren babesle izatea eta horretarako 12.000 €ko diru-ekarpena egitea.
- XX. Mendeko euskararen corpus estatistikoak beharrezko duen ostatzte aurreratua erabat doan ematea (30.000 €).

Bestalde, Euskaltzaindiak honako konpromisoak hartzen ditu:

- JAGONET egitasmoari dagokionez, beronen WEB-gunean (zerbitzu honen hasierako orrialdean, galde-erantzunen datu basean eta galdelekuan) EUSKALTEL FUNDAZIOAREN logotipoa txertatzea.
- XX. Mendeko euskararen corpus estatistikoari dagokionez, beronen WEB-gunean EUSKALTEL FUNDAZIOAREN logotipoa txertatzea (corpues horren hasierako orrialdean, nola erabili, kontsulta arrunta eta kontsulta aurreratuak).

Babestuko den jardueraren Txostena eta dagokion faktura jaso eta handik 90 egunera ordainduko du Euskaltel Fundazioak diru-kopuru hori.

Babestutako jardueran Euskaltel Fundazioaren logotipoa dagozkion ezau garri korporatiboen arabera ez erabiltzeak lankidetza hitzarmena berehala deuzetzatzea ekar dezake.

Hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean, Euskaltelek babesturiko bi egitasmo horietan babesle gehiagoren izenak txertatu ahal izango ditu Euskaltzaindiak, baina ez Euskaltelen konkurrentziakorik.

Kontratu honi loturiko informazio oro eta kontratuaren garapenean sortzen dena konfidentzial bezala tratatuko dute bi alderdiek.

III. Ez-betetzea

Akordio honen indarrez Babestuak hartu dituen obligazioen erabateko edo zatizko ez-betetzerik gertatzen bada, Euskaltel Fundazioak bere esku daudela diru-kopururik ez ematea edo komenigarria iruditzen zaion neurrian ematea, Babestuak obligazioa betetzen duen neurriaren arabera. Obligazio hori bete izana aurreko baldintzan azaldu den bezala kreditatuko da.


IV. Iraupena

Hitzarmen honek sinatu eta 2003ko martxoaren 8ra arteko izango du era gina, eta bi alderdiek adostuta luzatu ahal izango da.

V. Izaera

Kontratu honek merkataritza-izaera du, eta berak dauzkan klausulen araberako gauzatuko da. Klausuletan aurreikusita ez dauden alderdietan manuzkoak izango dira Merkataritza-Kodea, 1998ko azaroaren 11ko Publizitatearen Lege Orokorra eta beste lege berezi batzuk, eta merkataritza-ohiturak.

Eta euren adostasuna adierazteko, bi alderdiek honako Babes-Akordioa sinatzen dute ale bitan eta eragin bakarrarekin, buruan adierazitako lekuaren eta datan.



Euskalzaintzaburua
Jean Haritschelhar



Euskaltel Fundazioko Presidentea
Jose Antonio Ardanza

CONVENIO DE COOPERACION *Euskaltel-Euskaltzaindia*

Bilbao, 08-III-2002

REUNIDOS

Por una parte, D. José Antonio Ardanza, mayor de edad, con DNI nº 14823596-G, en nombre y representación de la Fundación Euskaltel, con CIF nº G-95070421, domiciliada en Zamudio (Bizkaia), Parque Tecnológico, Edificio 101, y registrada con el número F-87 en el Registro de Fundaciones de la Comunidad Autónoma Vasca.

Por otra, D. Jean Haritschelhar, mayor de edad, con DNI nº MU 89083, en nombre y representación de Euskaltzaindia, con domicilio en Plaza Nueva 15, Bilbao (Bizkaia).

MANIFIESTAN

I. Que los objetivos de la Fundación Euskaltel son la promoción de actividades dirigidas a la investigación, el estudio y el desarrollo tecnológicos, el desarrollo de oportunidades para la participación de todos los ciudadanos en la sociedad global de la comunicación y la información, el progreso social y la extensión en la sociedad de la formación cultural.

II. Que la institución patrocinada es EUSKALTZAINDIA, la cual está desarrollando, entre otros, el proyecto JAGONET y el primer corpus estadístico del euskara del siglo XX.

III. Que Euskaltel desea patrocinar dichos proyectos y en consecuencia las dos partes firman el presente convenio de colaboración con arreglo a las siguientes cláusulas:

CLÁUSULAS

I. Objeto

En virtud de este acuerdo la Fundación Euskaltel actuará como patrocinadora del proyecto JAGONET y del corpus estadístico del euskara del siglo XX.

II. Compromisos de las partes

Son dos los compromisos que la Fundación Euskaltel va a adquirir:

- Patrocinar el proyecto JAGONET para lo cual realizará una aportación económica de 12.000 €.
- Proporcionar de manera totalmente gratuita el hosting avanzado necesario para el corpus estadístico del euskara del siglo XX.

Por su parte, Euskaltzaindia asume los siguientes compromisos:

- Respecto al proyecto JAGONET, insertar el logotipo de la FUNDACIÓN EUSKALTEL en el sitio WEB de dicho proyecto (en la página inicial de este servicio, en la base de datos de consultas y en el Consultorio).
- Respecto al corpus estadístico del euskara del siglo XX, insertar el logotipo de la FUNDACIÓN EUSKALTEL en el sitio WEB del corpus estadístico del euskara del siglo XX (en la página inicial de dicho corpus, y en las secciones, cómo usar, consulta ordinaria y consulta avanzada).

La Fundación Euskaltel abonará el importe mencionado en un plazo de 90 días a partir de la recepción del Informe de la actividad y la factura correspondiente.

La omisión del uso del logotipo de la Fundación Euskaltel de acuerdo con los distintivos corporativos que le corresponden puede ser causa de resolución inmediata del convenio de cooperación.

Mientras esté convenio de cooperación esté en vigor, Euskaltzaindia podrá insertar los nombres de otros patrocinadores en esos dos proyectos, siempre y cuando no sean de la competencia de Euskaltel.

Las dos partes tratarán confidencialmente cualquier información relativa a este contrato, incluida la que se produzca durante el desarrollo del contrato.

III. Incumplimiento

En caso de incumplimiento total o parcial de las obligaciones asumidas por la Patrocinada en virtud de este acuerdo, la Fundación Euskaltel tendrá derecho a no entregar el mencionado importe económico o a entregarlo en la medida que juzgue conveniente, según el grado de cumplimiento de la obligación de la Patrocinada. El cumplimiento de dicha obligación se acreditará del modo indicado en la cláusula anterior.


IV. Alcance

Este convenio, una vez firmado, estará en vigor hasta el 8 de marzo de 2003, y podrá ser prorrogado mediante acuerdo entre las partes.

V. Naturaleza

El presente contrato es de naturaleza comercial y será ejecutado según las cláusulas en él contenidas. Los aspectos no previstos en las cláusulas se regirán por el Código de Comercio, por normas específicas tales como la Ley General de Publicidad del 11 de noviembre de 1998 y por los usos comerciales.

Y como prueba de su conformidad, las dos partes firman este Acuerdo de Patrocinio, por duplicado y con efecto único, en el lugar y fecha indicados en la cabecera.



Jean Haritschelhar
Presidente Euskaltzaindia



Jose Antonio Ardanza
Presidente Fundación Euskaltel

EUSKALTEL ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA ETA EEBSREN AURKEZPENA

Zamudio, 2002-III-8

*Jose Antonio Ardanza,
Euskaltel-eko Presidentea*

Egun on denoi, eta lehenengo eskertu etorri hona etorri zaretelako. Gaur hemen egiten gagozan gauza da *Hitzarmena* sinatzea, Euskaltzaindia eta *Euskaltel*en artean. *Hitzarmen* horretan, gero ikusiko dituzue, babesten dira *Euskaltel*en aldetik, Euskaltzaindiaren eta Euskaltzaindia eta UZEIren tartean egindako proiektu batzuk eta programa batzuk, eta gu bakar-bakarrik babesle ekonomikoak gara, laguntzak ematen ditugu, hau arrrera eramateko. *Euskaltel* zergatik sartu zan proiektu honetan edo zergatik ikusi zuen gai hau benetan interesgarria zela. Dakizuen bezala, *Euskaltelek* aspalditik erabaki du bere bokazioa eta bere nahia, kultura alor guztia bere eskuetan dagoen neurrian babesteko, laguntzeko. Euskaltzaindiaren programa agertu zen hemen nire despatxoan orain dela urtebete eskas, proiektu birekin, JAGONET alde batetik eta XX. mendearen corpusarena, bestetik. Orduan, guretzat interesgarria zen hori egitea eta guk hartu genduen ia erabakia laguntzeko eta babesteko. Hortik arrrera gauzak egiten joan dira, gauza oso teknikoa da eta hor amaitzen da gure eginkizuna eta gure lana. Nik bakar-bakarrik azpimarratu, ahal dan neurrian pentsatzen dudala, ez *Euskalteko* presidente bezala, baita ere euskaldun bezala, interesgarria dela. Eman zaizkizuen orri batzueta ikusi ahal izango duzue benetan zer garrantzi duen hemen gaur egin nahi danak. Eta nire ongi torri hitzak esan ondoren, Jean Haritschelharri ematen diot hitza, Euskaltzaindiko presidente bezala.

* * *

En este acto hemos procedido a la firma de un *Convenio* de colaboración entre Euskaltzaindia y *Euskaltel*, *Euskaltel* y Euskaltzaindia, mediante el cual lo que hace *Euskaltel* es patrocinar básicamente dos proyectos, dos ideas que desde hace tiempo se venían trabajando. Una es JAGONET y la otra es el primer corpus estadístico del euskera del siglo XX, trabajo éste que venía realizando UZEI desde el año 1987. *Euskaltel* entra en este proceso a partir de una visita que me realizan en estas mismas dependencias representantes de Eus-

kaltzaindia, hace ahora un año. Entonces tuve la impresión de que los proyectos que se planteaban eran realmente proyectos importantes, de una gran trascendencia. Era el incorporar a nuestra lengua procedimientos tecnológicos modernos, que otras lenguas ya vienen utilizando. Entonces en *Euskaltel* se decidió dar este apoyo, dar esta cobertura, el tiempo ha ido pasando, no porque estaban pendientes las decisiones, sino porque la realización material del trabajo, de lo que luego Uds. van a tener posibilidad de ver en esa demostración que se va a hacer, realmente ha requerido su tiempo. En estos momentos se ha culminado este trabajo, se ha culminado este esfuerzo y por lo tanto procedemos ya a la firma. Lo importante en este acto no es que esté *Euskaltel* subvencionando este proyecto; lo importante es lo que contiene esto realmente, los contenidos de estos dos proyectos: JAGONET y el corpus del euskera del siglo XX. Para ello creo que nadie mejor que el propio Haritschelhar, como presidente de Euskaltzaindia, para que les dé una información breve de lo que esto supone y luego ya, digamos, los padres de la criatura, serán los que explicarán con más detenimiento, lo que es JAGONET y lo que es propiamente ese corpus del euskera.

EUSKALTEL ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA ETA EEBS-REN AURKEZPENA

Zanudio 2002/3/8

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Lehendakari jauna.

Kazetari andere eta jaunak.

Eguerdion.

Nola ez eskertu Euskaltel-ek egiten duena. Aspaldi honetan Euskal Autonomia Erkidegoko Lehendakari zinelarik Euskaltzaindiak harreman onak ukantzu zurekin. Hortakotz Lehendakari jauna deitzen zaitut beti, enetatz lehendakari izan direnak lehendakari direla beren bizi guzian. Geroztik laguntzen duzu Euskaltzaindia sor dezan bere fundazioa eta egiten duzun lana zinez eskertzeko da.

Gaur, Euskaltel-eko zuzendari bezala agurtzen zaitut orain gehiago, sinatu dugun hitzarmena urrats bat gehiago delakotz euskararen bide luzean. Euskaltel-i esker gaurkotzen dugu gure hizkuntza zaharra eskaintzen dizkiogula teknologiaren aldetik diren aurrerapen guztiak. Hola Euskaltzaindiak bildua duen euskararen Corpus idatzia edozein ikerleren eskuetan jartzen da, ez barriko mende iraganetakoa baina ere UZEI-ri esker XX. mendeko euskara.

Horiek hola, Euskaltzaindiak XX. mendeko azken laurdenean egiten du bertze Akademiek egiten ari direnak, Real Academia de la lengua española-k, Institut d'Estudis catalans-ek, Real Academia gallega-k eta Frantzian ere «Le Trésor de la langue française» delakoarekin, bakoitzak biltzen dituela dauzkan hitzak, altxor paregabea, zientifikoki aztertu behar dena.

Diodalarik edozein ikerlek beregana dezakela aipatu dudan Corpusa, erran nahi dut ez dagoela mugarik, Ameriketarik edo berdin Japoniatik harremanetan sar baidaitekelakotz eta zinez obratzen dugu orain Eiheralarreko erretoraren ametsa idazten zuelarik *Kontrapas* delakoan: «Heuskara, jalgi hadi mundura», «Heuskara habil mundu guzira». Bai, euskara zabaltzen ari da mundu guzian Internet-en bidez.

Hor daukagu ere *Jagonet*, Euskaltzaindiak sortu duen tresna baliagarria. Edozein euskaldunek galda dezake behar duen argibidea izan dadin hiztegian edo gramatikan. Hartuko du erantzuna batzuetan berehala daukan datu-baseari esker, eta bertze batzuetan berantago, Euskaltzaindiak hartuko duelarik doakon erabakia. Argibide zerbitzu bat da *Jagonet* euskaldunentzat eta euskalduntzen ari direnentzat egina. Hau ere aurrerapen bat da.

Denek ikus dezakete euskara sartzen dela gaurkotasunean eta mundu guzira igor dezakela bere mezua : bizi dela oraindik, bizi nahi duela bertze hizkuntzak bezala, ez dela bere zokoan egoiten batzuk uste duten edo nahi luke-ten bezala, teknologia berriak eta azkenik sortuak baliatzen dituela bere garapenerako eta zabalkunderako.

Berriz ere eskerrak, zuri Lehendakari jauna eta Euskaltel empresari.

* * *

Quiero, brevemente, marcar el agradecimiento que tengo hacia el señor Ardanza, hacia su persona como Lehendakari y el trato que ha tenido con Euskaltzaindia en los años de su presidencia. No olvido tampoco lo que está haciendo para la creación de la fundación pro Euskaltzaindia, pero hoy me complace en saludar al presidente de Euskaltel con quien acabo de firmar un convenio de mucha importancia.

Gracias a este convenio el Corpus del euskara escrito realizado por Euskaltzaindia y el del euskara del siglo XX realizado por UZEI, con quien trabajamos desde hace unos quince años, está puesto a la disposición de cualquier estudioso en cualquier lugar que se encuentre en el mundo entero.

Así a través de Internet y de los medios de comunicación más modernos el euskara, una de las lenguas más antiguas de la Europa Occidental, lengua prelatina, entra en la modernidad y se cumple el sueño del primer escritor en lengua vasca que, en 1545, en su poema titulado *Kontrapas*, lanzaba el grito: ¡heuskara, sal al mundo, sal al mundo entero!

De la misma manera hacemos la presentación de *Jagonet* que Euskaltel ayuda también, verdadero servicio de información puesto a la disposición de los vascos-parlantes y de los que estudian el euskara. Para mejores explicaciones doy la palabra a José Luis Lizundia, reiterando al Señor Ardanza y a la empresa Euskaltel el agradecimiento de Euskaltzaindia.

EUSKALTEL ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO HITZARMENA ETA XX. MENDEKO EUSKARAREN CORPUSAREN AURKEZPENA

Zamudio, 2002-III-08

*Alberto Agirreazaldegi,
UZEIkoko kudeatzailea*

Nire aurrekoek esandakoak entzun eta gero, zaila da hemen gauza berriak esatea. Nik labur hitz egingo dut, gero aurkezpen teknikoa egiteko beta izan dezagun.

Azken mende osoko euskara idatziaren erabilera eta eboluzioaren isla da gaur aurkezten dugun hau. XX. mendean euskaraz argitaratu diren testuak Internet bidez ikus daitezke. Baino ez dira testu soilak bakarrik ikusten. Euskaraz idatzi den corpora kontsultatzeko aplikazio informatiko aurreratu bat prestatu da eta internetez egin daiteke gainera kontsulta hori.

Beraz, XX. Mendeko euskal corpora, edonork kontsulta dezake orain, internet bidez, webgune honetan: www.euskaracorpusa.net

Proiektu handia eta luzea

EEBS (Egungo euskararen bilketa-lan sistematikoa) izenarekin jarri genuen martxan proiektu hau, 1987an, Euskaltzaindiaren eskariz. Helburu zehatz batekin sortutako corpus baten aurrean gaude, beraz, hain zuzen ere biharko Hiztegi Hiritar Arauemailea izango denaren oinarrizko material gisa sortu baitzen.

Beraz, uretik esan den bezala, orain dela 15 urte, UZEIk akordio bat sinatu zuen Euskaltzaindiarekin eta Herri-Aginteekin proiektu honetan hasteko. Ordutik 7-8 laguneko lantaldea aritu da lanean eta, beraz, gaur aurkezten den proiekutua ez da atzokoa, azken 15 urtetan egindakoa baizik.

Gaur egun corpusen garrantzia gero eta handiagoa da hizkuntza guztietan eta corpus erraldoiak dira gainera. Ezagunak dira RAEren CREA (Corpus de Referencia del Español Actual), IECen CTILC (CORPUS Textual Infor-

matitzat de la Llengua Catalana) edo galegoen CORGA (Corpus de Referencia del Galego Actual) gure inguruko hizkuntzetakoak aipatzeagatik.

Euskaldunok ere, hauen parean, euskararen erreferentzi corpus erraldoia beharko genuke, oraingo hau corpus estatistikoa baita.

Ezaugarriak

- Sarean kontsultagai dagoen lehen corporusa.
- Sailkatua: garaia, euskalkia eta generoa.
- Ia 5.000.000 testu-hitzekoa.
- Lematzatua: aldaera guztiak forma estandarrean batuak bilaketa errazteko.
- 100.000 lema desberdin: sarrera arruntak + hitz anitzelko unitate lexikalak (hitz elkartuak, eratorriak, esapideak...).
- Estatistikoak: obra zati asko euskal argitalpenen inventarioan oinarritua.
- SGML (Standard Generalized Mark-up Language) formatu estandarrean kodetua.
- Autoreak eta izenburuak ere, ematen dira.

Baliabide informatikoak

- Oracle datu-basea.
- Kontsultarako Intermedia erabiltzen da.
- Programaziorako Java erabili da.
- Aplikazio mota: Servlets

Erreferentzi corporusaren beharraz

Euskaltzaindiak aspaldi egin zuen corporusaren aldelko apustua: tradizioa jasotzen duen *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren oinarrizko obrak alde batetik, eta XX. mendeko euskara biltzen duen *EEBS* bestetik. Hain zuzen lan hauetan oinarritu dira *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Hiztegi Batua* besteak beste.

Lehen esan bezala, euskararen erreferentzia corpus erraldoia beharko genuke osatu lehenbailehen. Inguruko hizkuntzek horrela egin dutelako, testu

osoak biltzeko erraztasunak gero eta handiagoak direlako, euskarri informatikoan eskura daitezkeelako eta informazio zabalena edukitzeak lan tresna fida-garriagoa egiten dutelako.

Bestalde, Euskaltzaindia mintzatu da corpusaren beharraz –ikus XV. Bilzarreko ondorioak– eta aitortua dio UZEIri gai honetan duen eskarmentua. Hau guztia kontuan hartuta, corpus erraldoia osatzeko irizpideak aztertzen duen proiektua prestatzea da aurtengo UZEIren egitasmoetako bat eta UZEIk aurkeztuko dio proiektua Euskaltzaindiari, honek aurten gogoeta egin dezan. Nolanahi ere, Euskaltzaindiak badaki UZEI prest daukala proiektu honetan lankide izateko eta hemendik bertatik eskerrak ematen diot Euskaltzaindiari guri eman digun konfidantzagatik eta gure lankidetza eskaintzen diot behar duen guztirako.

Bukatzeko, UZEIk begi honez ikusten du Euskaltzaindiaren eta Euskaltel-en arteko *Hitzarmena*. Lehenago ere UZEI eta Euskaltelen lankidetzari esker Canal 21 Interneteko ataria sortu zuenean UZEIren Euskalterm datu bankua eskaini zuen, orain Eusko Jaurlaritzaren Euskadi.net-ek eskaintzen bada ere. Gero, corpora eskaintzeko ere lehen harremanak izan genituen, Jose Antonio Ardanazarekin eta harreman hura gaur hemen sendotua atera da. Eta Euskalteli esan nahi diot ez dela damutuko. Estatu mailan hizkuntzaren inguruko proiektu erraldoiak babesten diarduela Telefonica ere, RAEkin egindako hitzarmenei esker, eta Euskal Herrian, bide bera jarraituz, Euskaltzaindiari eta euskararen inguruari sortzen ari diren proiektu erraldoiei aurre egiten lagunduz prestigio handia ematen diola hizkuntzari eta berak ere gizartearen aitormen zabala lortzen duela. Eskerrak beraz biei ekimen zabal hau bultzatu dutelako.

Orain, Miriam Urkiak, proiektuaren arduradunak, ordenadore bidez Konsultaren nondik norakoak azalduko dizkigu eta, ondoren, Jose Ramon Zubimendik Jagonet-en aurkezpena egingo du.

**EUSKO LEGEBILTZARRA
ETA
EUSKALTZAININDIA**



NOTA DE PRENSA

18-IV-2002

La colección está formada por 550 ejemplares, muchos de ellos antiguos, únicos o muy difíciles de encontrar.

EL PARLAMENTO CEDE A EUSKALTZAINDIA UNA COPIA DIGITAL DE SUS FONDOS MAS VALIOSOS

El parlamento vasco ha culminado hoy la primera fase de un proyecto de colaboración con Euskaltzaindia y otras instituciones dedicadas al estudio de la cultura vasca con el acto de cesión, a la academia de la lengua vasca de una copia digital de los fondos más valiosos que se conservan en la biblioteca de la Cámara. La colección, formada por cerca de medio millar de obras, recoge libros editados entre los siglos XVI y XX. Entre los más antiguos, algunos de ellos únicos o muy raros, destaca un conjunto de devocionarios y tomos de temática religiosa, referencias básicas en la historia bibliográfica vasca e imprescindibles para estudiar la evolución dialectal del euskería.

El acto de entrega de esta copia, que compila en 31 CD-s, 78.500 imágenes, ha estado encabezado por el máximo responsable de Euskaltzaindia Jean Haritschelhar y el Presidente del Parlamento Vasco Juan María Atutxa. Ambos han suscrito un documento en el que se da fe de la cesión de estos fondos a la academia de la lengua vasca. Además se ha cedido la aplicación informática necesaria para gestionarlos adecuadamente.

Priorizar

La ceremonia celebrada esta mañana tiene su origen en sendas reuniones celebradas por la junta de Gobierno de Euskaltzaindia y el Parlamento Vasco que coincidieron con el periodo de planificación, en ambas instituciones, del proceso de digitalización de sus bibliotecas. Esta técnica permite a los investigadores acceder sin problemas de desgaste material a obras cuyos originales requieren unas condiciones de conservación muy especiales o que constituyen tomos únicos o muy raros. Fruto de aquellas conversaciones fue la decisión de priorizar en el parlamento la digitalización de sus fondos vascos y ceder, concluido este trabajo, una copia de los mismos a la Real Academia de la Len-

gua Vasca / Euskaltzaindia. Este mismo tipo de acuerdo se va a establecido con otras instituciones muy centradas en el estudio y conservación de fondos relacionados con la cultura vasca y tendrá como consecuencia el intercambio de copias de este tipo de fondos entre las entidades implicadas.

Referencias imprescindibles

Las copias entregadas en la mañana de hoy se refieren a cerca de 360 libros escritos en euskera o sobre temática vasca que por su antigüedad, especificidad o rareza son referencias obligadas en el patrimonio bibliográfico vasco. Entre ellos se encuentra, por ejemplo el mítico *Gero* del padre Axular. En esta colección destacan los libros de temática religiosa con numerosas traducciones de obras de devoción y una interesante representación de los dialectos del euskera. Por todo ello son obras muy demandadas por los estudiosos. Desde la perspectiva física buena parte de estos tomos son de pequeño tamaño y encuadernación sencilla como corresponde a su función de devocionarios. También se incluyen ediciones de mayor riqueza como una colección de traducciones propiciada por Luis Luciano Bonaparte.

Para seleccionar los libros que se han digitalizado en esta primera fase del proceso se aplicaron criterios temáticos, cronológicos y de coordinación. Los libros en euskera o sobre temática vasca, editados entre los siglos XVII hasta 1936 y que no hubiesen sido digitalizados en procesos similares emprendidos por otras instituciones han conformado el objetivo de este trabajo.

En el Parlamento

Las reproducciones se han realizado en las instalaciones del Parlamento utilizando una cámara digital de alta resolución. Para manejar las imágenes se utiliza una aplicación denominada «ARCHIDOC» que permite navegar por la estructura de cada obra. Esta ha sido definida en cada una de ellas por los técnicos de la biblioteca del Parlamento y está diseñada para poder acceder con facilidad y rapidez y, desde distintas opciones a todas las partes de cada obra. La naturaleza de las reproducciones y las herramientas de las que dispone la aplicación permiten aplicar todas las ventajas de la tecnología digital a las copias que encierran los CD-s.

Los fondos que integran esta colección fueron adquiridos por el Parlamento entre los años 81 y 85. En su mayor parte proceden de dos colecciones privadas propiedad de José Ramón de Urquijo y Francisco Abrisqueta parte de las cuales fueron compradas o cedidas a la Cámara. La mayor parte de estos libros, antiguos y frágiles en términos materiales, obligan a restringir el manejo de los originales. El proceso de digitalización emprendido permite poner estos materiales al alcance de los estudiosos sin perjudicar su conservación.



EUSKO LEGBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

**DOCUMENTO DE ENTREGA
POR PARTE DEL PARLAMEN-
TO VASCO/EUSKO LEGBIL-
TZARRA, DE LAS REPRODUC-
CIONES DIGITALIZADAS DE
LAS OBRAS EN EUSKERA QUE
CUSTODIA SU BIBLIOTECA, A
LA REAL ACADEMIA DE LA
LENGUA VASCA / EUSKAL-
TZAINDIA**

**EUSKO LEGBILTZARRAK
BERE LIBURUTEGIAK ZAIN-
TZEN DITUEN EUSKARAZKO
LANEN KOPIA DIGITALIZA-
TUAK EUSKALTZAINDIARI
EMAN IZANAREN DOKUMEN-
TUA**

REUNIDOS

El EXCMO. SR. PRESIDENTE
DEL PARLAMENTO VASCO/EUS-
KO LEGBILTZARRA, DON
JUAN MARIA ATUTXA MENDIO-
LA, y el SR. DON JEAN HARITS-
CHELHAR DUHALDE, PRESI-
DENTE DE LA REAL ACADEMIA
DE LA LENGUA VASCA/EUS-
KALTZAININDIA, en nombre y repre-
sentación de las citadas instituciones.

BILDUAK

JUAN MARIA ATUTXA MEN-
DIOLA EUSKO LEGBILTZA-
RREKO LEHENDAKARI JAUNA
eta JEAN HARITSCHELHAR
DUHALDE EUSKALTZAIN BURU
JAUNA, aipaturiko erakundeen ize-
nean eta haien ordezkari.

EXPONEN

Que siendo la Real Academia de
la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, tal
como se recoge en el artículo 6.4 del
Estatuto de Autonomía del País Vasco
la institución consultiva oficial
en lo referente al euskera.

Y estando el Parlamento Vasco intere-
sado en la difusión y preserva-
ción del patrimonio bibliográfico
que custodia su biblioteca, y ha-

ADIERAZTEN DUTE

Euskaltzaindia dela, euskararen
arloan, erakunde aholku-emailea,
Euskal Autonomía Erkidegoko Esta-
tuaren 6.4 artikuluak ezartzearakin
bat etorri.


Eta Eusko Legebiltzarrak bere li-
burutegiak zaintzen duen bibliogra-
fia-ondarea zabaldu eta babestu nahi
duela, horretarako bere funtsak digi-

biendo realizado a tal fin un programa de digitalización de sus fondos.

El Parlamento Vasco hace entrega en este acto público de las reproducciones realizadas por el personal técnico de la Biblioteca del Parlamento Vasco de las obras en euskera que custodia.

Las copias serán gestionadas única y exclusivamente por la Biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia, indicando en todo momento el lugar de depósito del ejemplar original, favoreciendo de este modo la difusión del patrimonio bibliográfico vasco en euskera y sirviendo a los fines que en sus estatutos tiene encomendados la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia.

Leído por las partes y en prueba de conformidad con lo expresado, firman y rubrican el presente documento, por duplicado, en Vitoria / Gasteiz, a dieciocho de abril de dos mil dos.



El Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia
Euskaltzainburuak

Jean Haritschelhar Duhalde

talizatzeko programa bat burutu dulearik.

Horiek horrela, jendaurreko ekitaldi honetan, Eusko Legebiltzarra Euskaltzaindiari ematen dizkio bere liburutegiak zaintzen dituen euskarazko lanen kopiak, bere liburutegiko teknikariekin.

Euskaltzaindiaren Liburutegiak bakarrik zainduko ditu kopiok. Era berean, beti aipatuko du jatorrizkoak non diren, horrela eginda Euskaltzaindiak euskarazko euskal bibliografía-ondarea zabalduko baitu eta, gainera, bere estatuetan ezartzen zaizkion eginkizunetako bat beteko.



El Presidente del Parlamento Vasco/
Eusko Legebiltzarra
Eusko Legebiltzarreko Lehendakariak

Juan María Atutxa Mendiola



EKITALDIA: EUSKALTZAINDIAREN BISITA

Eusko Legebiltzarra, 2002eko apirilaren 18n

*Juan María Atutxa Mendiola,
Eusko Legebiltzarreko Lehendakaria*

Egun on danoi, eta eskerrik asko gaurko ekitaldi honetara etorteagaitik.

Axularren *Gero* liburua mugarririk mitikoa dogu, zalantza barik, euskerazko literaturaren historian. Ba liburu horren lehenengo aleetako bat daukagu, hain zuzen, gordeta Eusko Legebiltzarrean, erakunde hau euskal gaien arloan sortze beretik atondutenean joan dan liburutegian. Eta gaur, *Gero* liburuak argia ikusi eta ia lau gizaldi geroago, itzelezko iraultza ekarri eban inprentea asmatukeran bururatu ezinekoa zan teknologia baten bitartez, CD batzuetan imini ahal izan dira Lapurdiko debozino-liburu horren orrialde historikoak, beste 70.000 irudigaz batera. Berba baten esanda, gure kulturearen eta berbetearen altxor hau ziberespazioan sartu dogu.

Gaurtik aurrera, ba, orrialde askogaz aberastuko dira Euskaltzaindiaren funtsak. Eta orrialde horreen artean, Axularren *Gero* liburukoak aitatu gura izan dodaz, ekitaldi honen garrantzia eta balio sinbolikoa ondo baino hobeto adierazoten dabelako.

Orrialde horreek gizaldien arteko lokarria dira, eta Urdazubiko abadeak denpora zahar hareetan gure berbetearen alde egin eban ahalegina denpora barri honeetako teknologiagaz uztartutenean dabe. Liburu haren izenari, erlijinoa irakasteko ez ezik euskerea bultzatuteko egindako liburu haren izenari, «betiko» abizena jartzen deutsoe orrialde horreek.

Mundu globalizatuan bizi gara, eta mundu globalizatu honetan aldaketa kulturalak eta sozialak eragiten dabil «iraultza digitala», aurrerapausoak ez eze astinaldiak ere ekarten deuskuezan aldaketak. Eta mundu globalizatu honetan batzuk uniformizazioaren aldeko diskursoa zabaldu gura dabe. Diskurso hori nagusitu ezkerro, txikia danak, berezia danak, apartekoak danak, ez leuke baliok eukiko, mundu-ikuskera horretan «masa kritikoa» (kontzeptu fisiko, nuklear hori) erizpide nagusia dalako. Ikuspegi horren esanera, «masa kritikoa» lortutenean ez dauana ez da gauza ezer eragiteko, ez da gauza toki bat hartzeko bit, zuntz optiko eta robot-ohituren mundu barri honetan.

Ostera, kultura txiki batean bizi gareanok eta kultura txiki horren parte gareanok, aitatutako diskursoak mehatxatuta dagoan kultura horretakook, inoz baino arrazoi gehiago daukagu itxaropena izateko. Gaur teknologia barriak parerik bako lagungarriak eta bultzagarriak dira, orain urte gitxi bururatu ere ezin geinkean moduan, gure kulturearen altxor kutun batzuk mundu guztiari eza-gutuazoteko.

Gaur, adibidez, ekitaldi honetan aurkeztutenean doguzan CDai esker, gure hizkuntzearen historiako zati direan eta, aldi berean, gure hizkuntza horren etorkizunerako garrantzitsuak direan milaka orrialde bialdu geinkioz, aitaren baten eta ezer gitxi kostata, Renoko aztertzaile bat. Gaur Euskal Filologiako edozein ikaslek eskuetan izan leikez, karrerako lehenengo urtean, lehen, urri-nean egozalako edo zaintza berezia behar ebelako, ezagututeko edo eskuratu-teko gatzak edo ia ezinezkoak zirean liburuak; era horretara, gure hizkuntzak aukera handiagoak izango ditu aztertua izateko eta bizirik irauteko. Gaur, berba baten esanda, euskeraz idatzitako lehenengo liburuak ziberespazioan sartu dira. Gaur, adibidez, dozenaka dira Legebiltzar honetako eztabaidak Interne-tten bidez jarraitutenean euskal etxeak.

Bestelako mitifikazioen ganetik, lurrarde birtual hau, ziberespazioa, autobide bat da, ezagutzaren, azterketaren, zabalkundearen eta zientziaren zerbitzurako dagoan autobidea, ez gehiago eta ez gitxiago. Eta gaur nagusi dan diskursoaren ganetik, ziberespazioa aukera bat da txikia danarentzat, berezia danarentzat. Aukera bat da danok jakin-min handiagoa izan daigun, irigiagoak izan gaitezan, alkarregaz lokarri estuagoak euki daiguzan. Ziberespazioa, orduan, erronka bat da gitxiengoek euren lekua hartu daien mundu honetan, katalogoko bizitza eta ohitura eukitea alboratuz askotarikoena nahastea ezau-garri izan behar leukean mundu honetan.

Iraultzak teknologikoak eskeintzen dabezan aukerak holan ulertu ezkerro, uniberso digital askotarikoaren eta bizigarriaren alde lan egingo dogu, alkarbizitza onuragarria izateko balio oinarrizkoia izan behar dauen aniztasunaren alde. Egunero heldutenean jakuzan barriak irakurten badoguz, konturatuko gara oso beharrezko dala ahalegin hori egitea. Konturatuko gara munduari ateaek zabaldutea, Axularrek bere denporan egin eban lez (Lleidara edo Salamanca-ra joanda beste kultura batzuetara ere zabaldu ebazan-eta atea), munduari ateaek zabaldutea ez da norberarenari uko egitea. Munduari ateaek zabaldutea, hain justu, munduko gauzetatik onena hartutea eta munduko askotarikotasunari gure altxorrik onena eskeintzea da.

* * *

Buenos días a todos y muchas gracias por su presencia en el Parlamento Vasco con motivo de la puesta de largo de un acuerdo de colaboración entre esta institución y la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia. Destaco en primer lugar el honor que supone para nosotros colaborar con esta

entidad. Remarco además que los beneficios de esta aportación revertirán sobre todos los ciudadanos vascos. Vamos a poner a disposición de Euskaltzaindia, a integrar en sus fondos, más de 300 obras de gran valor que conservamos en la biblioteca de la Cámara y que resultan de enorme interés para investigar y avanzar en el conocimiento y estudio de la historia de nuestra lengua y, muy especialmente, de algunos de sus dialectos. Inauguramos pues herramientas que van a engrandecer y dar solidez a nuestra cultura. Esta cesión de cerca de 70.000 imágenes digitalizadas de otras tantas páginas originales sirve también para poner de relieve la riqueza e importancia del patrimonio bibliográfico que se conserva en el Parlamento Vasco.

Pero la digitalización de todo este material es, además, una muestra de las oportunidades que las nuevas tecnologías ofrecen a las culturas minorizadas. Frente al afán uniformizador que esconden algunas concepciones sobre la revolución tecnológica y la propia globalización, las nuevas herramientas de tratamiento de la información y comunicación nos otorgan la oportunidad de exponer ante el mundo nuestra diversidad en condiciones de coste y difusión inimaginables hace tan solo una década. No debemos perder este tren. El acceso de un patrimonio tan ilustre al entorno cibernetico es, como muchas otras actuaciones que viene desarrollando esta comunidad, una demostración de nuestra inequívoca voluntad de aprovechar estos recursos para reivindicar nuestro espacio en el mundo y aportar a él riqueza, diversidad. Ni somos, ni hemos sido, ni seremos jamás santuario de otros valores. Porque, frente a quienes no entienden que el respeto y la buena voluntad son las bases de la convivencia estamos empeñados en contribuir a la evolución de este planeta hacia un modelo plural, pacífico, abierto, interconectado, gestionado a la medida del hombre y mejor.

EUSKO LEGBILTZARRA ETA EUSKALTZAINDIAREN ARTEKO AKORDIOAREN SINATZEA

Gasteizen, 2002ko apirilaren 18an

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Gaur Eusko Legebiltzarra Euskaltzaindiari ematen dizkigu bere liburutegiak zaintzen dituen euskarazko lanen kopia digitalizatuak. Funts bibliografiko hau 250 liburuz osatua da, gutxi gora behera –30 CD– eta bere baitan balio handiko lanak daude. Literatur erlijiosoa da nagusi. Ondare hori guztia Azkue Bibliotekan integratuko da.

Funts bibliografiko hauen balioa bikoitza da. Batetik, ondare den aldetik, berau osatzen duten liburu guztiak gorde eta zaindu beharrekoak dira. Besteetik, ikerlarien lanerako aparteko garrantzia du, eta Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan egoteak adituengon kontsulta ahalbideratuko du.

Aspaldikoa dugu Eusko Legebiltzarreko liburutegiaren bibliografia-ondarearekiko gure Akademiaren interesa. Izan ere, 1998ko uztailaren 28an, lehenbiziko aldiz –orduan Joseba Leizaola jauna zen lehendakaria– eta 1999ko otsailaren 17an, bigarrenez –Juan Maria Atutxa lehendakari zela– bildu ginen Euskaltzaindia eta Eusko Legebiltzarreko ordezkarriak, horren gainean mintzatzeko.

Bilera horien ondorio da, gaur eginiko ekitaldia, non Eusko Legebiltzarra bere liburutegiak zaintzen dituen euskarazko lanen kopia digitalizatuak Euskaltzaindiari ematen dizkion dokumentua sinatu den: batetik, Juan Maria Atutxa Legebiltzarreko lehendakariak; bestetik, nik neuk.

Esan beharra dago, ondare horren zabalkunderako aukeratu den prozedura, Euskaltzaindiaren gomendioz, digitalizazioa izan dela. Bertan biltzen diren lanen artean, azpimarratzekoak dira, besteak beste:

«Betolatzaren Doktrina»: 1596an, Felipe II.aren aginduz egin zen katezismo elebiduna: bi zutabetan antolatuta dator. Dirudienez, dagoen ale bakarra da eta egilea Juan Perez de Betolatza arabarra da. Liburuaren izenburuaren pean, zera dio: «*Doctrina christiana en romance y vascuence, hecha por mandado de Don Pedro Manso, obispo de Calahorra y La Cal*

zada... para las tierras vascongadas de su obispado, reducida por el doctor Betolatza a lenguaje más común y más usado y que con más facilidad se entiende en todas ellas».

Axularren «Gero»: Lehenengo eta bigarren edizioa. 1643. urtekoa.

«Guiristinoaren doctrina»: 1656an argitaratua Parisen. Richelieu kardinalak eginiko katezismoaren euskal itzulpena. Iloba batek argitaratu zuen, Richelieu bera hil eta gero.

Eskerrik asko, beraz, Atutxa jauna, eta gainontzeko Eusko Legebiltzarreko mahaikideok.

ACUERDO ENTRE EL PARLAMENTO VASCO Y EUSKALTZANDIA

Vitoria / Gasteiz, 18 de abril de 2002

*Jean Haritschelhar,
Presidente de la R.A.L.V. / Euskaltzaindia*

Hoy, 18 de abril, tiene lugar en la sede del Parlamento de Vitoria / Gasteiz la firma de un acuerdo entre el propio Parlamento y la Institución a la que represento, Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca. Por medio de este acuerdo el Parlamento cede a la Academia una copia digitalizada de los fondos bibliográficos en euskara que posee su biblioteca. Estos fondos se concretan en un número aproximado de 250 libros –30 CD–, algunos de los cuales poseen un indudable valor. Todos ellos pasarán a formar parte del patrimonio que alberga la Biblioteca Azkue de Euskaltzaindia.

La necesidad de custodiar el fondo bibliográfico y el valor intrínseco que éste posee para los investigadores son dos aspectos importantes que se verán armonizados una vez que formen parte de la Biblioteca Azkue.

El interés de Euskaltzaindia por estos fondos que a partir de hoy formarán parte de su patrimonio se ha visto manifestada ya en sendas reuniones que han tenido lugar con anterioridad. Así, el 28 de julio de 1998, con Joseba Leizaola como presidente del Parlamento, y el 17 de febrero de 1999, con Juan María Atutxa al frente de esta Institución, la Junta de Gobierno de la Academia mantuvimos dos reuniones con miembros del Parlamento, a fin de abordar el tema. De estos encuentros, y como fruto de la recomendación que en su momento hicimos desde la Academia, el Parlamento inició los trabajos de digitalización de sus fondos bibliográficos.

Entre los fondos más significativos, podemos destacar:

«Betolatzaren Doktrina»: catecismo bilingüe publicado en 1596, bajo el reinado de Felipe II. Según parece, se trata del único ejemplar existente. Su autor es el alavés Juan Pérez de Betolatza. Bajo el título, figura el párrafo siguiente: «*Doctrina christiana en romance y vascuence, hecha por mandado de Don Pedro Manso, obispo de Calahorra y La Calzada... para las tierras vascongadas de su obispado, reducida por el doctor Be-*

tolatza a lenguaje más común y más usado y que con más facilidad se entiende en todas ellas».

Gero de Axular: Primera y segunda edición. De 1643.

Guiristinoaren dotrina: Publicada en 1656 en París. Traducción al euskara del catecismo del cardenal Richelieu.

Muchas gracias, señor Atutxa, y muchas gracias, también, a todos los miembros de la Mesa del Parlamento Vasco.

DOCTRINA CHRISTIANA
en Romance y Basquense, hecha por man-
do de D. Pedro Maso, Obispo de Cala-
horra, y la Galçada, y del Consejo del Rey
nuestro señor, para las tierras Bascogadas
de su Obispado, reducida por el Doctor Be-
tolaça, à lenguaje mas comun; y mas vsado
y q con mas facilidad se entiende en todas
ellas, para bien, y utilidad de sus obrejas de
aquellas partes, que por largos años las
apaciente, y govierne, à gloria, y
honra de Dios nues-
tro Señor,
Amen.



Impressa con licencia en Bilbao, por Pedro Calz de Ibarra,
impressor de este muy noble, y muy leal Señor
de Vizcaya. Año de 1596.

Yrugarrena Comunioa.

Laugarrena Penitencia.

Bostgarrena

Extremia Vnciñoa.

Seygarrena Ofdea

Sacerdotala.

Zazpigarrena

Matrimonioa.

*Las Obras de Misericordia,
son catorze.*

Las siete Espirituales,
y las siete Corporales.

Las Espirituales son estas.

*L*a primera, enseñar al que
no sabé.

2. Dar buen consejo al que lo
ha menester.

3. Corregir al que yerra.

4. Perdonar las injurias.

5. Consolar al triste.

6. Soñrir con paciencia las fla-
guezas de nuestros proximos

7. Rogar a Dios por vivos, y
muertos.

*Obras Misericordiaz coac-
dirà amalau.*

Zazpi Espiritualac,
eta zazpi corporalac.

Espiritualac dirà oncc.

*L*elengoa ira caslea
esta quianari.

A MONSEIGNEVR
MONSEIGNEVR
LE DVG DE
RICHELIEV,
PAIR DE FRANCE,
GENERAL DES GALERES,
ET, GOVVERNÈVR DU
Havre de Grace.

MONSEIGNEVR
Voicy ce Grand Cardinal, qui vous a
choisi pour perpetuer la memoire de son
† y

BIBLIOGRAPHIA

9

BIGAREN LECTIONEA.

**CREDOAREN
LEHENBICICO
ARTICVLAREN**

G A I N E A N .

Credo in Deum Pa- : Cinetsten dut Iainco
trem omnipotentem; Aita, bohere gucia
Creatorem cœli & duena, Ceruaren eta
tetra. Lurraren Creatzailea
baitan.

E H E N B I C I C O articulu hunc
iracazten deraucun lehenbic
cico gauça, da, fedea dela chipi
eta handi gucio bere baitan
iduqui behar duten saluamen
duaren lehenbicico cimendua; fedea gabe,
dio Apostoluac, ecin diteque nihor Iain
coaren gogaraco. Cinetsten dut, errantahi da, hadaducat,
aitortcen dut, mantenatcen dut gucien ait-



G V E R O
B I P A R T E T A N
partitua eta berecia,
L E H E N B I C I C O A N
 EMAITENDA, ADITCERA,
 cenbat calte eguiten duen, luça-
 mendutan ibiltceac, eguitecoen
 gueroco utzteac.

Bigarrenean quidatcenda, era atzinatcen, luça-
 menduat veciric, bere hala, bere eguin bi-
 dearri, lothu nabi, qatcana.

Escritura saindutic, Eliçaco Doctor etaric-
 eta liburu debocinozco etaric. Axular Sa,
 raco errotorac vildua,

Ne tardes conuerti ad Dominum, & ne differas
 de die in diem, Eccles. 5.



B O R D E L E N,
 G. MILANGES. Erregueren Imprima-
 çaillea baithan.
 M. D C, X L I I I.

IRAC VRTÇAILLEAR!

Fun batez, compaidia on bat-
 ean, euscaldunie baicen etxen
 leccuan nengoela, eccarri cu-
 en folhasac, igan con perpanfa;
 etxuela deusec ere hanbat cal-
 te eguiten arimaco, eta ez gorputzeo ere,
 nola eguitocoen, guero o vrtzeac, egunetic
 egunera, biharretic biharrera luçatcac. E-
 ta on çatequeyela, gauça hunetçaz liburu
 baten euscaraz, guztiz ere euscararic baicen
 etxiaquitentçat, eguitea: Eta harten, gue-
 ro dioenac, bego diocla eracustea, compainia
 bereangaldeguin cen berchala, ea hori ema-
 nen ceican liburuaren eguiteco cargua. Era
 berrie guztien artec, hasi ceiz quidan, niri
 neroni, aditceira emaiten, Ichénbiciaren khéi-
 nuz eta ayeruz, eta guero azquenear, clarqui
 eta aguerriz, nic ochar nituela, eguiteco
 hartan cscuac sartzu. Ordea nola ezpai-
 nintcen neure buruaz fida, desencusatutu nint-
 cen ahal beçaubat. Bañja al ferric ceren hain-
 cines eta batetan lothu cscuidan non ex-
 etz erraiteco bide guztiac, herri baitce-
 rausquidaten. Era hala deliberatu nuen, bu-

BERRIAK

OMENALDIAK

JOSE ANTONIO ARANA ETA EUSKARA

Henrike Knörr

Bilbon, 2002ko maiatzaren 17an

Ezin egin daitekeen lana egotzi didate, baina, aldez edo moldez, saiatuko naiz zerbait azaltzen. Eta ezina zergatik? Minutu batzuetan tituluak iragarren duena ezin eman dezakedalako. Nire eskasia eta gabezia badago tartean, nola ez, baina, oroz gain, Jose Antonio Aranaren uzta aberatsa.

Jose Antonio Aranaren argitalpenen zerrenda luzea lehendabizikoz ikus-ten duena berehala konturatzen da, batetik, euskarak gizon honen bizitzan izan duen eta duen pisuaz eta, bestetik, euskalarien artean irabazi duela, aspaldi irabazi ere, toki berezi-berezia.

Bai. Euskara ardatz izan du gizon honek. Bigarren Errepublika ate joka zelarik, 1931ko martxoaren 10ean, munduratu zen gaurko gure omendua, Germanian. Euskaraz hazi eta hezi izan zen, nahiz, euskaldun gehienei oraintsu arte gertatu bezala, eskolan gure hizkuntzak nozitzen zuen morrontza ezagutu. Euskara zuen adierazpide, euskara lanean eta jolasean tresna gau eta egun, gogo-bihotzetan. Gaztelaniaz jabetu zen, jakina, mutiko erne hura, eta ederki jabetu ere. Eta berdin frantsesaz, gerragatik erbesteratu zenean. Ingelesa erantsi behar dugu, franko goiz ikasia, familiako itsas-deiaren poderioz. Eta, apaiz iza-teko bidean nahitaezkoak, latina eta greziera. Hots, euskaldun gazteei opa da-kiokeen bizkar-zaku ederra zuen Jose Antoniok hogei urtetara iritsi baino lehen, hizkuntzei dagokiela. Baino oinarrian, nortasunaren hezur eta mami, euskara.

Euskalduna ez ezik, ordea, euskalari ere dugu Jose Antonio Arana bete-betean. Euskalari trebe, hainbat esparrutan ibilia, hainbat ezkutu argitua. Ez espero gure adiskidearentzak euskarari buruzko teoriarik, ez gramatikazko ikerkuntzarik. Zorionez, dena ez da teoria ez gramatika. Beste zerbait egin du Jose Antoniok. Euskararekin eta euskal kulturarekin lotura duten pertsonaiak eta gertaeraek zorrozki aztertu, ehunka idazlan eta hitzaldien bitartez.

Azkueren biografia, 1983an argitaratua, beharko nuke lehen-lehenik ai-patu. Iruditzen zait lekeitiaurrentzat legez, euskara dela Jose Antonioren tzat aberria eta bizitokia. Mendetako utzikeriak eta axolagabekiak arrakalatu etxea edertu behar zen eta behar da. Langintza horretan aritu zen, nekagaitz

eta zuhur, Resurrección M^a Azkue. Orobak Jose Antonio Arana, Azkuek izan duen mireslerik handiena, seguru aski. Liburua miresmen horren adibide ona da, baina adibide gehiago utzi ditu Jose Antoniok, Azkueren ondaretik deus ere gal ez dadin saiatuz eta lekeitiarren fruituetaik orok izan dezaten eza-gutza eta sarbidea.

Gerra baino lehenagoko Euskaltzaindi hark bi zutabe nagusi izan zituen: Azkue eta Urquijo. Eta beronen bizitza ere kontatu digu Aranak egoki, labur baina egoki, *Bidegileak* deritzan liburu-sortan (1993an). Ahazturarako joera negargarria erakusten duten gure herrikide askok hobe lukete, zalantzak gabe, orrialde horietan murgildu, garai zail hartan zer egin zen ikusteko eta gure garai ez erraz hotzetan zer egin behar dugun hausnartzeko.

Hor ez dira, ez, amaitzen Jose Antonio Aranak idatzi dituen biografiak, jakina denez. Seber Altube gernikartua hil zenean, 1963an, artikulu bat es-kaini zion herriko aldizkarian. Gero etorriko zen Altuberen bizitzaz eta bibliografiaz bi lan mamitsu, *Euskera* aldizkarian, 1973an eta 1974an. Bost urteren buruan Bonifazio Etxegaraiz argitaratu zuen, aldizkari berean, beste lan bat. Baino Sarako erretoreak zioen bezala, zertako sartzen naiz itsas hondar-gabe hotetan? Anitz izan baitira euskalariez eta euskal idazleez Jose Antonioren ikerketak. Zilegi bekit itsas horretatik Luis Villasanteren omenaldi-liburuan agertu zuen biografia bikaina aipatzea. *Ex abundantia cordis*, bihotzak hala agindurik, mintzo da Arana, gernikarraz –edo, nahi baduzue, errenerteriarraz–. Lan hori euskaltzainburu ohiarekiko atxikimenduaren erakus-garri da, agian, ezer baino lehen, aitortu nahian Villasanteek euskararen alde eta Akademiaren alde egin lan izugarria, eta agertu guran Luis Villasanteren gizatasun paregabea.

Gernikatik atera gabe, nola ez ekarri laudorio hotetara Jose Antonio Aranak bere herriko folkloreatz, eta bereziki, musikaz idatzia? Berehalako entzungo duzue xehekiago honi buruz. Esan dezadan, bakar-bakarrik, Aranak ederki jakin duela uztartzen euskara eta musika, bien artean dagoen lokarri sendoa azalduz.

Noan, haatik, beste eremu batera. Liburuzain izan baita Jose Antonio, eta euskarari eta gure Herriari buruzko liburu eta artikuluen katalogatzaile. Esan behar ote dut lan eskerga egin duela guztiz garrantzitsua den eremu horretan? Esan behar ote dut Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteca egun zerbait bada harengatik dela, batez ere? Ongi gogoan dut Euskaltzaindiaren Zuzendaritzaren bilkura bat, 1978an. Beste zenbait gairen artean, han genuen Jose Antonioren gutuna, Villasante jaunari egina: bere burua eskaintzen zuen, Akademiaren liburuzain izateko. Eta guk onartu, jakina, nahiz alogera txikia zen, arras txikia, ezinbestean.

Lan eskerga, bai, gogotik eta eskuzabal ariturik beti. Eta eskola eginik, hau ere esan behar dut. Zeren jarraibide eta eredua utzi baitu Euskaltzaindia-ren liburutegian Arana jaunak, nabari denez.

Gaztetandik jarduna zuen katalogatze-lanean, eta aski da ikustea Jose Zunzunegirekin batera Gasteizko apaizgaitegiaren bibliotekan burutua. Euskaritzan, ordea, bazen amets bat: Bonaparteren eskuizkribu eta argitalpenen katalogatze zehatzta. Horixe zuten eskatzen ikertzaileek, eta horixe eskertu zuten, liburua 1989an agertu zenean. Eta eskertu euskaldunek ez ezik, atzerrikoek ere bai, zabala izan baitzen, dakizuen bezala, Bonaparteren ikerzelaia.

Gogoratu behar da, bestalde, bi urte geroago Jose Antonio Aranaren eraginez, Bonaparteren itzulpenekin lau liburuki gotor argitaratu zirela, *Opera omnia vasconice*, euskalari haren mendeurrenarkari.

Eta berrikiago, Georges Lacomberen ondarearen katalogatze-lanean aritu zen Jose Antonio Arana bere laguntzaileekin. Duela astebete hil zitzaigun M. Josefa Ganuzaren eskuzabaltasunari esker, Euskaltzaindiak hori guztia zerrendatu ahal izan zuen eta ikertzaileen eskuetataratu. Goresmenak zuri, Jose Antonio.

Bukatu behar dut. Euskararen zerbitzari, ororen buru, da Arana jauna. Zerbitzari bipila, zorrotza, nekagaitza. Luzaro izan dadila horrela, gure Herriaren eta gure hizkuntzaren faboretan!

JUAN SAN MARTIN ORTIZ DE ZARATERI URREZKO LUMA

*Xabier Kintana Urtiaga,
Euskaltzaindiko Idazkaria*

Bilbon, 2002-VI-03

Jaun-andreok, agur, Ez da eguneroko gertakaria izaten idazle baten bizi-
tzan urrezko luma jasotzea. Kasu honetan ordea, zinez esan genezake epaile-
ek begi eta zentzu onez jokatu dutela, Liburuen Azoka honetako sarirako hau-
tatu den pertsonak ohore hori ongi baino hobeki merezia baitu. Izan ere,
edonondik begiratuta, gutxi dirateke Euskal Herrian Juan San Martin jaunak
bere bizitza aski luze eta emankorrean gure hizkuntzaren eta kulturaren alde
egindako pareko meriturik aurkez dezaketenak.

Ekitaldia laburra izango denez, niri ere llabur mintzatzeko esan didate eta
halaxe egingo dut. Ricardo Badiola jaunak, Euskaltzaindiko Argitalpen eragi-
leak, bere ohiko pazientzia eta lankortasunaz, gure idazlearen curriculum ze-
hatza prestatu du, honekin batera aurkezten dudana, eta horrek, beraren bizi-
tzaren glosa egiteko orduan lanik asko kendu badit ere, bere luzean buruko
min berriak eman dizkit horiek guztiok laburtzeko orduan, eta beraz, beldur
naiz, aukeraren maukera delakoagatik, azkenean neronek ere ez ote dudan oke-
rra egingo.

Bere bibliografi zerrendari gainetik soaldi bat eginez, begien bistan dago
Juan San Martinen ugaritasuna. Batez ere, euskaraz idatzi du, baina horregatik
ez dio muzinik egin erdaraz ere idazteari, gertakariekin hala egitea hala kon-
tseilatzen ziotenean. Bere gairik maiteenak, eta horrexegatik landuenak, artea,
historia, etnografia, historia eta literatura izanik ere, beste asko ere ukitu izan
ditu, guztietañ, beti, maila eta seriotasun apartaz.

Esango nuke San Martin, bere belaunaldiko beste idazle askoren antzera,
norbera pertsonaren distira eta ospe handiagorago barik, bere herriaren kultura
maila hobetu eta haren literatur premiak asetzeko xedeaz hartu duela luma,
apaltasunez, inolako pretentsiorik eta hantusterik gabe, euskararen eta Euskal
Herriaren helburu orokorrekin konpromiso sakona eta saihetsezina harturik,
idaztea herriaren zerbitzutan aritzea dela dakien intelektualaren konbentzi-
menduaaz.

Zulo asko izan ditu gerraondoko euskal kulturaren itsasontziak eta langile gutxi, ordea, horiek guztiok estaltzen jarduteko. Horrek, noski, orotarako idazleak sortu zituen gure artean, beren banakako lan ugariekin bakantasunaren miseriak gainditu guran. Ez da ordea, bat ere makala izan horiek utziriko lana. Alde batetik gerrak urraturiko zauria sendatzen saiatu ziren, belaunaldien arteko Zubia egin eta euskara, ordura arte ia baserritar, marinela eta langile apaleten mintzaира, batez ere elizgizonek landua, Lizardiren erronkari eutsiz, edozertarako hizkuntza bihurtzen aritu ziren, lehenagoko garo-lurrina galdu gabe, oraingo eta biharko asfalto-usaina, zientzia eta modernotasun-kutsua emateko. Eta hori guztiori zinez eskertzeko da, haien inoiz haztamuka eta noraezean pauso baldarrez zapalduriko zidor haitatik ondoko belaunaldiok etorri baikara, agian bidea areago zabaltzeko, baina jada aitzindari haien neke-izerdiak jasan gabe, nora gindoazen argiago jakinda.

Bidezkoa da, beraz, hain lan mergatz eta luzaro gaizki ikusia azkenean ezagutu eta publikoki estimatzea.

Ez nuke hitzalditxo hau amaitu nahi, ordea, Juan San Martinen anekdo-ta txiki bat aipatu gabe. Maiz, eta batzuetan pentsa daitekeen asmorik zitale-naz, euskal idazleen kultur mundua aski mugatua, probintzianoa eta apala dela esan da, euskaltzaletasuna eta unibertsaltasuna bateraezinako zerbaitez balira bezala, hots, bikaintasunaren maila hegazkor hori español-frantsesek idazten duten izaki goi-arguentzat erreserbaturik dagoela sinetsaraziz.

Francoren peko diktaduraren azken aldia geundela, gure artean erraz konprentzeko lilura sortu zen ekialdeko marxismo joeretarako. Juan San Martin, eibartar peto-petoa bera, betidanik nabarmendu da gizarte ezberdinatasunak ezereztu eta justizia sozialaren alde, ezein alderdi konkretutan jardun ez arren. Gogoan dut, duela hogeita bost bat urte inguru, elkarrekin bazkaltzen ari ginea eta, nola ez dakidala, arazo politiko hori agertu zela gure artean. Juan, funtsean, bat zetorren gazteagoen kezkekin, baina, halere, ez zuen aparteko berrotasunik agertzen marxismoaren eta ekialdeko herri komunisten alde. Hango esperientzien berri bazuen eta, bat-batean, hauxe esan zigun: «Ene ustez, etorkizuna ez da hortik etorriko. Europaren badabil aspaldion mugimendu berri bat, gizakia naturarekin orekatu nahi lukeena, ekologistena alegia. Horiek ere ezkerrekoak dira, baina bestelako ikuspegi zabalagoaz. Nire ustez, geroan uste baino garrantzi handiagoa izango dute horiek».

Aitor dut orduantxe entzun nituela nik lehenbiziko aldiz ekologia eta ekologista hitzak, norengandik eta zenbaiten iritziz Eibarko idazle «probintziano» bat besterik ez zen batengandik, orduko erdal mundu itxuraz unibertsal hartan ekologia delako hori zertsu izan zitekeen susmatu ere egiten ez zen denboran. Eta ekologismoak zuzen zein zeharka lorturiko arrakasta eta giza kontzientzia berria eratzeko orduan izandako garrantzia ikusita, idazle ez eze, aurrikusle-ahalmenak ere onets geniezazkioke gure San Martini.

San Martinen beste ezaugarri bat, ondo gomutatzeko modukoa bera, Esstatuko beste literaturak ezagutu eta horko idazleekiko harremanak izateko interesa izan da, elkarren berri jakiteko eta elkarlanean aritzeko asmoz. Hori, gaur egun erabat normala irudi dakigukeen arren, garai hartan ez zen hain ohi-koa, eta bide horretako lehen pausoak ematea zor diogu, halaber, gure eibar-tarrari.

Baina jadanik aski eta sobera mintzatu naizela uste dut eta, beraz, neure jarduna eten beharra daukat. Hortxe dira, gorago aipatu dudan curriculum xehatu horretan, gure idazlearen argitalpen, kargu eta idazle ibilbideko datu zehatzak, horiek banan banan aztertu nahi dituenaren argigarri. Horiengatik guztiengatik eta gaurko sariagatik, edonola ere, bihoazkio Juan San Martin idazle, euskaltzain eta adiskide maiteari guztiion zorion eta txalorik beroenak.

JUAN SAN MARTIN ORTIZ DE ZARATE JAUNAREN CURRICULUMA

Eibarren (Gipuzkoa) jaio 1922.eko ekainaren 23an.

1958.urtean Euskaltzaindiko euskaltzain urgazle izandatu zuten eta 1964.ean euskaltzain oso. 1967-1978 urte bitartean Euskaltzaindiko idazkaria izan zen. 1988.urtean Euskaltzainburuorde. *Ararteko* karguan 6 urtez iraun zuen.

Kide: Aranzadi Natur Zientzietako Elkartekoa eta baita Eusko Ikaskuntza, Euskalerriaren Adiskideen Elkartekoa ere.

Ohorezko kide: Euskal Idazleen Elkartea eta Euskal Itzultzaitzaile, Zuzentzaile eta Interpretari Elkartekoa.

1983-1989 urteotan *Egan* literatur aldizkariaren zuzendaria. Eta zenbait urtez Eusko Bibliographia –Jon Bilbao jaunaren gidaritzapean– taldeko laguntzaile eta zuzendaritzakoa.

1994-1995ean Ombudsman Europar Institutuko burua izan da.

Euskal Herriko argitaratzale behinenetan parte hartu izan du, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz jarraiko gaiok landurik: Arkeologia, Etnografia, Historia, Arte, Hizkuntza eta Literatura. Kolaboratzale izan da jarraiko aldizkari, hilabetekari eta egunkariotan:

C.D. Eibar-etik hasi eta ondokoak dira Juan San Martinen partaidetza izan duten argitalpenak, alegia: *Programas de las fiestas de San Juan, Euzkogogoa, Gernika, Anaitasuna, Pyrenaica, Euskera* (Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala), *Eibar, Karmel, Zeruko Argia, Munibe, Anuario de Eusko-Folklore, Boletín de la Real Sociedad Vascongada, Hoja de Lunes de San Sebastián, Jakin, Egan, RIEV, Fontes Linguae Vasconum, Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra, Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Boletín Sancho El Sabio, Boletín de Estudios del Bidasoa, Hondarribia*, etab.

ERANSKINA

Argitaraturiko liburuak eta artikuluak:

A. Euskaraz

- *Juan Antonio Moguel eta Urkiza: bere bizitza ta lanak* / Juan San Martin; Euskaltzaindia'ren ardurapean. Itxaropena, Zarautz, 1959.
- *Zirikadak*: (ipuin barregarridun liburua) / Juan San Martin. Itxaropena, Zarautz, 1960.
- *Zirikadak* / Juan San Martin. Elkar, Donostia, 1984
- *Eztenkadak*. Zarautz, 1965.
- *Uhin berri*: 1964-1969 bilduma, 1. zenb.) / Juan San Martin. Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, San Sebastián, 1969.
- *Euskeraren inguruan: saiaera* / Juan San Martin. Lur, Donostia, 1980.
- *Hegatsez*: itz-lauzko bilduma: 1971 / Serafin Basauri, Juan San Martin. Itxaropena, Zarautz, 1971.
- *Euskal Artea (Lur eta Gizon entziklopedia liburukian)*. Oñati, 1974.
- *Literaturaren ingurua: saiakera* / Lur, Donostia, 1980.
- *Euskera* (Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala. 1920-1979 urteen arteko agerkarietan azaltzen diren egile eta gaien *Aurkibidea / Indice / Index*. Bilbo, 1980.

Bestalde aipatu *Euskera* agerkarian beste hainbat eta hainbat txosten idatzia ditu Biltzar, Jardunaldi eta hileroko batzarretan, adibidez Hilberri esparruan.

- *Erromanikoa Euskal Herrian* / Testugile, Joan San Martin. Gordailu, Donostia, 1983.
- *Landuz: gure Herriko gauzak = Cosas de nuestro País*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, San Sebastián, 1983.
- *Jose Manterola* / Juan San Martin. Udal Euskara Batzordea, Donostia, 1985.
- *Euskararen ostarteak* / Juan San Martin. Erein, Donostia, 1998.
- «J.M. Iparragirre» in *José María Iparraguirre. Erro-urratsak. Raíz y viento*. Bigarren liburukia, 87-94. orr. Keinu, Bilbo, 1999.
- «Txillardegiren bibliografia». Azkue Biblioteka 912 (460.154) (0:77).
- *Euskararen ostarteak*. Erein, Donostia, 1998.

- *Euskera* (Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala) «Gabriel Arestik beste hizkuntzetatik egin zituen poesi itzulpenak», «separata». Bilbo, 1985, 535-539. orr.
- *Literaturaren inguruan: saiakera*. Lur, Donostia, 1980.

B. Kolaborazioak

- *Bitoriano Gandiaga eta Medata*, «Bitoriano Gandiagaren oroitzañez» 153-160. orr. «Medata» bilduma, 2. Medatako Udala, Medata, (Bizkaia), 2001.
- *Antzinatik gaur egunera. Hondarribia* (Inprimategian).
- *1685eko kopla zaharrak*. / J.M. Lekuona, J.I. López de Luzuriaga, Antxon Narbaiza; hitzaurrea, Juan San Martin. Ego Ibarra, Eibar, 1992.
- *Heriotza Euskal Herrian* /Alberto Agirreazaldegi; Juan San Martin-en hitzaurrea. Kriselu, Donostia, 1989.
- *Baigorriko zazpi liliak* / Jean Duvoisin. Juan San Martinen edizio pres-taketa eta aintzin-solasa. Elkar, Donostia, 1987.
- *Euskera*: Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala: 1963-1964; 1965-1966. Etxebarria, Toribio: «Flexiones verbales y lexicón del euskera dialectal de Eibar»: Aurkezpena: Juan San Martin. Euskaltzaindia, Bilbo, 1986.
- *Hiru katakume kezkatiak*. Juan San Martin'ek euskeratua. La Gran Enciclopedia Vasca, Zalla, 1969 (Abere alaiak; 4).
- *Kurrin txirrikumea eta bere jaia*. Juan San Martin'ek euskeratua. La Gran Enciclopedia Vasca, Zalla, 1969.
- Peña Santiago, L.P.: San Martin, J. «Estudio etnográfico del valle de Urrault Alto (Navarra)», *Munibe*, 1966, XVIII, 69-159.
- Maraña, Felix: *Ataduras de noche y arena / Hondar eta gauezko loturak*. «Hitzaurrea» Juan San Martin, L. Haramburu, Donostia / San Sebastián, 1980.
- *Meendiño (Homenaxe a Meendiño)*. Edición e notas de Xesús Alonso Montero. Juan San Martinek euskarara itzulia. Vigo: Colexio Universitario, Universidade de Santiago, 1982.
- *Peru Abarka*. Mogel, Juan Antonio (1745-1804). Edición bilingüe reali-zada por R. M^a de Azkue; prólogo a esta segunda edición, de Juan San Martin. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1966; «Prólogo» a la ter-cera edición, Bilbao, 1978; edición bilingüe realizada por R.M. de Azkue según versión de Juan C. de Cortazar; «prólogo» de Juan San Martin.

- *Monografía histórica de la Villa de Eibar / por Gregorio de Mujika / con prólogo de Juan San Martín.* Ayuntamiento, Eibar, 1984.
- *Montañas guipuzcoanas* por Luis Peña Basurto; con la colaboración de Juan San Martín. Itxaropena, Zarauz, 1963.
- *Pernando plaentxiatarra: / Plaentzia-Eibarretan bildutako ipui sorta).* Biltzalle, San Martin'dar Yon. Itxaropena, Zarautz, 1957.
- *Piru ahatetxoa / Juan San Martin'ek euskeratua.* La Gran Enciclopedia Vasca, Zalla, 1969.
- *Argazkiak / Fotografías:* Gipuzkoa-Donostia / aurkezpena = presentación, Xabier Otaño Etxaniz, Xabier Alkorta. Donostia / San Sebastián: Argitalpen eta Publikapenen Gipuzkoar Erakunde = Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1986-1990. «Hitzaurreak» = prólogos, Juan San Martin, etab.
- *Ezti-tantak: olerkiak / Sagartzazu'tar Kauldi Sataarka; aurkezpena, Juan San Martin.* Elkar, Donostia, 1996.
- *Salbatore Mitxelena / Juan San Martin... (et al.).* Ed. Franciscana Aránzazu, Oñate, 1970, 2.
- *Piarres Lafitte-ri omenaldia,* Iker 2: «Arraten sortzen da bizitza» «separata», 849-866 orr. Euskaltzaindia, Bilbo, 1983.
- *El damasquinado de Eibar / por Juan San Martín, Ramiro Larrañaga, Pedro Celaya.* Patronato de Museo de Eibar, Eibar, 1981.
- *Federiko Krutwig-i omenaldia:* «Gure amagandiko Gabon kantak». Iker-10, 299-311. orr. «Separata»: Euskaltzaindia, Bilbo, 1997.
- *Ulibarri Galindez, Jose Paulo.* Reproducción facsimil del *Gutunliburu* de José Pablo de Ulibarri y Galindez: homenaje del Consejo de Cultura de la Excmo. Diputación de Alava en el bicentenario del nacimiento del escritor en Oquendo: Vitoria, agosto de 1975 / Jose Paulo Ulibarri Galindez-en *Gutunliburu* izeneko eskuzkribuaren facsimil gisako argitalpena: Arabako Diputazioaren Kultur Biltzarren Okondoko idazlearen gorazarretan, haren sortzearen berrehun urtehurrenkarri. Gasteizen, 1975.eko abuztuan: «Agurra». Consejo de Cultura de la Diputación Foral de Alava, Vitoria / Gasteiz, 1975.
- *Euskera* (Euskaltzaindiaren agerkari ofiziala) «Axularren omenez Euskaltzaindiak Urdazubin egindako batzarrea» L. Villasante, J. Haritschelhar. Bilbao: Euskaltzaindia, 1975: «Juan San Martinen Euskaltzaindian sartzea». 20. liburukia / Tomoa, (2. aldia). «Separata». Bilbo, 1975.
- *El escultor Juan de Anchieta / José Camón Aznar;* con prólogo de Juan San Martín. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1990.

- (Catecismo político. Euskara) *Jaquin-bide iritarrautia Espaniako neurquidaren, edo constitucio berriaren erara adrezatua, erritarren arguidoraraco, gazteen icasbiderako, eta escola-maisuen usoraco / erderatic eusquerara itzulidu Apez Vicario J.F.A.. guipuztarrac. Ararteko, Gasteiz, 1991.* Argitalpenaren arduraduna: Juan San Martin.
- «Aita Luis Villasante Kortabitarte joan zaigu (1920-2000)», *Euskera* 2000, 1, 483-488.orr.
- «Léxico del estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue» in R.M. de Azkue: *Diccionario vasco-español-francés*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1984, 93-104.

C. Argitalpen elebidunak

- *Dichos y hechos / Esanak eta eginak*. Vitoria/Gasteiz: Ararteko, 1994.
- *Eibar eta Elgetako Toponomastika / Toponómistica de Eibar y Elgeta*. «Onomasticon Vasconiae» bilduma, 21. liburukia. Eibar eta Elgetako Udalak - Euskaltzaindia. Bilbo, 2000.
- *Giza eskubideen inguruau / En torno a los Derechos Humanos*. Elkarlanean. Donostia, 2000.
- *Hondarribiko Andre Maria Jasokundekoa: historia, arkitektura eta arte / Sta María de la Asunción de Hondarribia: historia, arquitectura y arte*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara Departamendua. «Ondare» bilduma. Donostia, 1998.
- «Hitzaurrea» in *Argazkiak / Fotografías*. Argitalpen eta Publikapen Gi-puzkoar Erakundea 1986-1990. Donostia, 1986.
- *Euskadi. Ararteko*. «Eusko Legebiltzarri txosten berezia 1992-1993 / Ararteko». Gasteiz: Eusko Legebiltzarra / Parlamento Vasco. Vitoria/Gasteiz, 1990, 1992, 1993, 1994.
- *Euskadi. Ararteko*: «Psikiatrikoak: ospitale psikiatrikoetako buru-gai-soen egoera / Los psiquiátricos: situación de los enfermos mentales en los hospitales psiquiátricos». Vitoria / Gasteiz, 1992.
- *Antzinako Eibar: etnografia gaiak / Temas de etnografía del antiguo Eibar* / Juan San Martin, Ego Ibarra, Eibar, 1993.
- *Bidez: gure Herriko gauzak / Cosas de nuestro País*. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, Donostia / San Sebastián, 1981.
- *Gozoz: gure Herriko gauzak / Cosas de nuestro País*. Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa, 1978.

- *Landuz: gure Herriko gauzak / Cosas de nuestro País.* Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Proibintziala, Donostia / San Sebastián, 1983.
- *Giro gori / Juan San Martín «Otsalar».* Argitarapen Zerbitzua, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa, 1998.

D. Gaztelaniaz

- *Escritores euskéricos* (Catálogo bio-bibliográfico de escritores contemporáneos en vascuence) La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1968.
- *Elgueta con Anguiozar y Ubera.* Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián, San Sebastián, 1975.
- «Eibar»: *Diccionario Encyclopédico Vasco.* Auñamendi, X. Liburukia, 180-272 orr. Donostia, 1979.
- «Existe-t-il un art basque?» in *Etre basque entziklopedia*, 311-349.orr. Tolouse, 1983.
- «¿Existe un arte vasco?» In *Ser vasco*, 311-156.orr. Bilbo, 1986.
- «Las artes del Pueblo Vasco» in *Euskalerria*. Bartzelona, 1987.
- *Los Zuluaga: dinastía de artistas vascos / Ramiro Larrañaga...* (et al.). «El pintor Ignacio Zuluaga», V. Kapitulua, 195-277. Ramón Suárez Zuluaga, Zuloaga, Museo Zuluaga, San Sebastián, 1988.
- *Escritores euskéricos* (Catálogo bio-bibliográfico de escritores contemporáneos en vascuence). La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbao, 1968.
- «Prólogo» in *El escultor Juan de Anchieta - Camón Aznar, José*. Diputación Foral de Gipúzcoa. Donostia, 1990
- *Viaje por el país de los recuerdos.* Toribio Echevarría. «Prólogo» de Juan San Martín (2^a edición facsimil). Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones. Donostia / San Sebastián, 1990.
- *Apéndice a escritores euskéricos: correcciones y adiciones a la primera edición* por Juan San Martín. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1969.
- «Cornuz: notas sobre término y nobleza» / por Juan San Martín. Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País, 1988, 525-532 orr.. Ondokoaren separata: *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*. Año 44, cuadernos 3-4, Donostia / San Sebastián.
- «Don Carmelo de Echegaray: su aportación a la Literatura en vascuence» in *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*. Separata. Año 41, cuadernos 1-2. Euskalerriaren Adiskideen Elkartea, Donostia / San Sebastián, 1985.

- Julio Beobide. (Biblioteca: *pintores y escultores vascos de ayer, hoy y mañana*; v. 23, fasc. 246) La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1973.
- «Luis Pedro Peña en las investigaciones etnográficas: tiempo de recuerdo» in *Bidasoako Ikaskuntzen aldizkaria / Boletín de Estudios del Bidasoa / Revue d'études de la Bidassoa*, Separata, N. 13. Luis de Uranga Kultur Taldea, Irun, 1996.
- «Ofizio eta tituludun etxe izenak Hondarribian» in *Bidasoako Ikaskuntzen aldizkaria...*, Separata, N. 15. Irun, 1997.
- «Paleolitos garaiko aztarnak Hondarribian» in *Bidasoako Ikaskuntzen aldizkaria...* Separata N. 19. Irun, 1999.
- «Vocabulario euskaro adicional del padre Esteban de Andoain» in *Fuentes Linguae Vasconum Studia et Documenta*. Separata, N. 26. Aranzadi, Pamplona, 1977.

* * *

Lanbide aldetik, Juan San Martin, Eibarren, sorterrrian, industria arloko zenbait espezialitateren esparruan aritu izan zen, eta, ondoren, makineria importatzen zuten enpresetan lankidetza eskaini izan du.

Gazte-gaztetatik irakurketa-zaletasuna bizi-bizirik izan du eta honek eman dio autodidakta oinarriaren heziketa.

Gazte-gaztetatik Eibarko Kirol klubean parte hartu izan du. Berton zenbait kargu izan zituen, eta besteak beste, burua izatera heldu zen, Klub berruan –gizarte eratzeko mailan– zenbait arlotan banandu izanez, ohiturari jarraituz. Eta ohiturei jaramonik egin gabe kultura saila sortu zuen, bertako biblioteka garaturik; honela, kirol ekintzen osagarri modura, berbaldiak, ikastaroak eta zenbait erakusketa antolatuz.

Bestalde, Juan San Martinen kirola mendizaletasuna izan da, era guztietakoak praktikara eramanez, alegia, mendigoizaletasuna, eski, escalada eta espeleología. Garai batez Eskalada eta Mendigoizale eskolako irakasle-gidaria izan zen. Aipatzekotan Bulnes-ko Naranjo menda igo zuen hiru bide desberdinatik, eta baita Pirinioetako zenbait mendigailurretara igotzeko bide berriak urratzen aintzindari izan zaigu. Europako mendigain behinenen mendi-gunetako ibilbideak burutu izan ditu eta baita Pirinioetako eta Alpeetako mendikate gehientsuenak ere bai.

Larran San Martin leizera expedizio espeleologikoetan parte hartu izan zuen. Honetaz guzionetaz *Pyrenaica* eta *Munibe* argitalpenetan azaldu ditu ai-paturiko mendi ibilaldi eta ekintzak. Eta hau guztia kontuan izanik, 1955. urtean, Espainiako Mendi Federazioak, zilarrezko domina eskaini zion haren kirol merituengatik.

Eta, 1964.urtean, Baionako Euskal Idazleen entitateak, «Lauaxeta Saria» eskaini zion buruturiko kazetari lanengatik.

Euskal Herrikit zehar ibili zaigunez gero, jarraiko diziplinez kezkati bizi izan zaigu, alegia: historiaurrea, linguistika, artea eta etnografia. Honela ba, historiaurreko zenbait aztarnategi –erromatarren garaikoak– eta artelan batzuk identifikatu egin ditu. Aldi berberean, zenbait herri kanta eta eskuz egindako lanen bilketaz arduraduna izan dugu.

Bestalde, Juan San Martinek izandako harreman anitzen artean, bereziki, Jose Migel Barandiaran eta Julio Caro Barojairekin izandakoak azpimarratu behar dira.

Politika eremuan, Espainiako Transizio politikoaren garaian Arte Ederre-tako Kontseilaria izendatua izan zen. Eta, beste alde batetik, zenbait urtez, Donostiako San Telmo Museoko Zuzendaritzako kidea izana da.

Goian aipaturikoaren bizitza geldi ezina eta jakituriaren bila aritu izan da. Horregatik, goian nabarmendu izan denez, hainbat eta hainbat liburu eta txosten argitaratu. 2001.urtean, Anton ABBADIA sarirako, hautagaia izan zen. Bestalde, toki anitzetan hitzaldi ugari eskaini ditu.

Azkenik azpimarratzeko da, 2001.urtean, Eibarko Udalak, Udako Euskal Unibertsitatearen laguntzarekin, «Juan San Martin» beka sortu duela, ikerketa sustatzeko eta Juan San Martin eibartar euskalari eta ikertzailea omentzeko.

Ricardo Badiola Uriarte



DON MANUEL IRUJO BIGARREN SARIA
SEGUNDO PREMIO DON MANUEL IRUJO

LIZARRAN 2002ko EKAINAren 8an



PREMIO DON MANUEL DE IRUJO: 2002 SARIA. JOSE MARI SATRUSTEGI ZUBELDIA

Lizarran 2002ko ekainaren 8

*Koldo Viñuales,
Irujo Etxearen Lehendakaria*

DISKURTSOA

40.hamarkadan kokatu. Garai zailak ziren euskara eta euskal kulturarentzat. Gudate zibila amaitu berria, Euskal Herriko etxe askotan beldurra zen nagusi.

Ume bat korrika zebilen Arruazuko kaleetan barrena. Euskara bere bizi-zaren zati bat zen eta bere oroitzapenetan herri batetiko atxikimenduaren nor-tasun aztarnak betiko urratu ziren.

Urteen poderioz, halakoren baten, apaiz izateko erabakia hartu zenuen. Liburuz inguratuta eta, beharbada, giro ez oso egokian, mehatxupean zegoen herri baten kultura zure inguruau zabaltzeko konpromezua hartu zenuen.

Iruñea zaharrean hamabost urte igarota, apaiztu zinen. Luzaiden aritu zi-nen lehendabiziko aldiz zure apaiz lanean. Mendi eta haran euskaldun hauen artean, inguru ezin hobean, hain maitea zenuen herri honen kulturaren berres-kurapenaren alde indar guztiz lan egiteko erabaki sendoa hartu zenuen.

* * *

Nos situamos allá por los años 40. Eran tiempos difíciles para el euskara y la cultura vasca. Recién acabada la guerra civil, en muchos hogares de Euskalerria se vivía una sensación de miedo.

Un niño correteaba por las calles de Arruazu. El euskara era parte de su vida y en su memoria habían quedado para siempre grabadas las señas de identidad de pertenencia a un pueblo.

Con el transcurso de los años, un día decidiste ser sacerdote. Rodeado de libros y quizás también en un ambiente no muy favorable, supiste ir madurando en tu interior el compromiso de expandir la cultura de un pueblo que estaba seriamente amenazada.

Tras quince años de permanencia en la vieja Iruña, fuiste ordenado sacerdote. Luzaide fué tu primer destino. En este privilegiado entorno, donde montes y valles también hablan euskara, tomaste la decisión de trabajar con todos tus fuerzas por la recuperación de la memoria histórica de este pueblo que tanto amabas.

La recopilación de temas relacionados con los mitos, leyendas y tradiciones populares, fue el primer paso para frenar la pérdida de identidad que atravesaba nuestro pueblo.

Y como si de un profeta se tratara, empezaste a proclamar que el euskara debía estar presente en todos los ámbitos de nuestra cultura y sociedad.

Tus artículos publicados en «Euskal Hizkuntza Orria»—página en euskara del Diario de Navarra, posibilitaron que muchos euskaldunes mantuvieran viva la lengua de sus mayores.

En 1963, recogiendo la antorcha del fallecido Orixé, fuiste nombrado académico de Euskaltzaindia.

Te hallabas inmerso en la recuperación de ese sustrato cultural y numerosas asociaciones, grupos e ikastolas encontraron en tu persona la ayuda que necesitaban para llevar adelante sus proyectos. Lizarra Ikastola agradece tu esfuerzo y apoyo que recibimos allá por los años 70, cuando pusimos en marcha nuestro proyecto.

Uniéndote al trabajo de antropólogos y etnólogos, aceptaste la dirección de dos prestigiosas revistas científicas: *Fontes linguae vasconum: Studia et dokumenta* y *Cuadernos de Etnología y Etnografía*. Publicaciones que han ido enriqueciendo el acerbo cultural de nuestro pueblo.

* * *

Izenek pertsonen izaera adierazten dutenez, hiru euskal izendegi prestatu zenuen. Garai hartan legearen aldetik ez zegoen inongo eskubiderik euskal ize-nak jartzeko. Ama Birjinaren izenek eta Erdi Aroko izenek osatzen zuten lehen bilduma hau. Urte batzuk beranduago zerrenda luze bat prestatu zenuen.

ESAN eta IZAN. Norberak bere izena entzuteroakoan euskaldun sentitzen zen. Gogoan izango duzu nola epaile batek epaitegira eraman zintuen, artikulu batean *Amaia* izena erabiltzeagatik.

Zuk prestaturiko hiru izendegi hauei esker hainbat familiak euskararekin identifikatu ziren.

* * *

En este proceso de reencuentro con nuestra identidad, agrademos tu primer *Nomenclátor de nombres vascos* que fue publicado en 1972. Respetando la legalidad vigente, apareció un pequeño listado relacionado con *advocaciones marianas o nombres medievales*.

Se había dado un gran paso. Las familias más comprometidas afirmaron su realidad vasca, nombrando a sus hijos con un lenguaje que denotaba la pertenencia a un pueblo. En la actualidad la mayoría de los niños nacidos en Euskal Herria, al escuchar su nombre se identifican con nuestra cultura.

En años posteriores y coincidiendo con la venida de la democracia, la implantación del euskara experimentó un gran avance. Las utopías por las que tanto luchaste se iban concretando en proyectos que garantizaban el futuro del euskara. Parecía que el proceso de normalización estaya ya garantizado.

Sin embargo, pronto aparecieron tus dudas y dificultades. Con la negativa de la Administración a no conceder la licencia de emisión a radios en euskara, llegaría tu primera decepción. Y como signo de protesta, renunciaste del Consejo Navarro de Cultura.

Hace unos pocos años, presentaste tu dimisión como asesor del euskara al actual Gobierno, denunciando su falta de sensibilidad a la hora de potenciar el entorno euskaldun.

Consciente de la delicada situación que atraviesa en la actualidad el euskara en Navarra, has hecho pública en todos los foros tu disconformidad y rechazo de las últimas decisiones y decretos del Gobierno Foral.

* * *

Mila esker, Jose Maria jauna. Herri honek bere oroitzapenak bérreskura ditzan egin duzun lanak etekina izan du. Zure hogeita lau liburu eta milaka idatzi gure Herriaren etorkizunerako bermea dira.

Eta nahiz eta traba ugari egon, lanari ekinen diogu, orpoz orpo, gure hizkuntza eta kultura zabaltzearen.

Herri honek zurekiko zorra zuen eta gaur, Irujo Etxeak, Euskal Herri osoaren izenean, Bigarren Manuel de Irujo saria ematen dizu.

Hain maitea duzun Euskal Herriaren nortasuna bizirik mantentzearen egin duzun lana aitortuz.

* * *

Mila esker, Don José María. Tu trabajo por recuperar la memoria de este pueblo ha dado su fruto. Tus 24 libros y más de 1000 artículos son un futuro de garantía para nuestro pueblo. Y a pesar de todas las trabas legales, seguiremos trabajando codo con codo por expandir nuestra lengua y cultura.

Este pueblo tenía una deuda con tu persona y hoy, Irujo Etxea, en nombre de toda Euskal Herria, te hace entrega del segundo premio Don Manuel de Irujo, reconociendo tu entrega, trabajo e ilusión por mantener vivas las señas de identidad de esta tierra que tanto amas.

J.M. SATRUSTEGI
II. *Manuel Irujo Saria*

Lizarra / Estella, 2002-VI-08

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Jaun-andereak eguerdi on!

Ene lehenbiziko hitzak esker onezko hitzak izanen dira gomitatu nauzuelakotz Jose Mari Satrustegi euskaltzainkideari egiten zaion omenaldira. Ohore handi bat da enetatzat, hemen naizela euskaltzainburu gisa nafar euskaltzain bati «laudatio» delakoaren eskaintzeko.

Euskaldun eta nafar, apaizgoa ahantzi gabe, hona zer den enetatzat J.M. Satrustegi.

Apaiz lehen, egun batez entzun baitu Jainkoaren deia eta dei horri erantzun baitio. Iruñeko seminarioan ikasketak eginik, izendatua izan zen Luzaiden bikario. Han ezagutu zuen beste euskalki bat eta harremanetan sartu Garaiziko eta Iparraldeko apaizkideekin. Gero, luzaz egona da Urdiainen erretore, artzain onaren eguneroko lanaz arduratuz, arimen artzaina, anai-arrebak biltzen dituela anaitasun handienean.

Nafarra, nola ez, Arruazun sortuz gero. Nafar ingurumenean bizi izan da beti eta, estudioak bururaturik, nola ez ohar lur berezi batean jaio zela eta lur horrek gordetzen zituela altxor ohargariak, bai historiaren aldetik, bai etnografiaren aldetik.

Iker lanetan ari izan da apaizgoak uzten zion denbora guzian. Luzaide izan da J.M. Satrustegirentzat inkesta toki aberatsa. Oroit naiz oraindik Luzaiden egin zuela Euskaltzaindiko sarrera-mintzaldia Orixen segida hartuz «*Luzaideko otoitz ttipiak*» gaia aztertuz. Luzaide herriari berea eman dio argitaratu dituelarik *Bordel bertsularia* (1965) eta *Luzaideko kantiak* (1967).

Idatzi dituen artikuluekin eta agertarazi dituen liburuekin J.M. Satrustegi-ren fama zabaldu da Nafarroako mugak gaindituz. Alabaina, hainbat eta hainbat hitzaldi eman ditu Deustuko Unibertsitatean, bai eta ere Euskal Herriko Unibertsitatean, halaber Iruñeko Centro Superior de Estudios Teológicos ikastegian. Gomitatua izana da Tokio-ko Waseda Unibertsitatean eta Argenti-

nako Santa Fe Unibertsitate katolikoan antropologia ikastaroen emaiteko. Go-gora ditzadan orain bere artikuluekin mamitu dituen aldizkariak, batzu bederen: *Príncipe de Viana, Egan, Boletín de la Real Sociedad de Amigos del País, Anuario del Seminario de Filología Julio de Urkijo, Euskera*. Baino J.M. Satrustegi-ren «opera magna» *Fontes Linguae Vasconum* aldizkaria da dudarik gabe, sortzailetarik izan baita lehenik eta kudeatzaile 1969tik orain artio, 33 urte segidan. Kontura gaiten zer den holako aldizkari baten kudeatzea, hartu baitu *Fontes*-ek Julio de Urkijo-ren *Revista Internacional de Estudios Vascos* delakoaren tokia. Nor nahik ez zuen idazten *RIEV*-en, nor nahik ez du idazten *Fontes*-en. Adibidez, hona lehenbiziko urteko idazleak: Luis Michelena, Julio Caro Baroja, A. García Bellido lehen alean, Migel Urmenetak idatzi zuela aitzinsolasoa; Luis Michelena, J.M. Satrustegi, Florencio Idoate, Angel Iriagoray bigarren liburukian; Karl Bouda, Henri Polge, Rudolf de Rijk, J.M. Satrustegi, Diego Pascual de Eraso, José María Jimeno Jurío, Pierre Lafitte, Luis Michelena, hirugarrenean. Ederki hasia, segitzen du *Fontes*-ek bere bidea euskal istudioen onerako. Zorionak zuri, J.M. Satrustegi.

Euskaldun, euskaltzale, euskaltzain: euskalduna sortzez, hala baitzen eta hala baita egun ere J.M. Satrustegi-ren sort-herria; euskaltzale, hala nahi ukana baitu, hala erabaki baitu. Lehenik landu du aitamenganik ukana duen altxorra, bertze euskalkiak ikasiz, euskaldun guziekin harremanetan sartuz. Idatzi dituen artikuluak eta liburuak dira leku, baina, denbora berean, Nafarroan, euskararen aldeko ekintza guzietan parte hartu du, bai frankismo garaian, bai gero ere, herriz herri ibiliz, haurrak bultzatuz, haurrak baitira euskararen geroa. Ez da ezer egiten Nafarroan euskararen alde J.M. Satrustegi gabe. Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku batzordekide izendatu zuten 1988an eta Nafarroako Kultura Aholku batzordekide izana da ere bere dimisioa eman arte, hola erakusten zuela gobernuarekin zituen ezadostasunak.

Euskaltzain, merezimenduz. Egia erran, laster ohartu ziren Euskaltzain-dian bazela Nafarroan nafar apaiz euskaldun gazte bat osoki euskarari emana. Euskaltzain urgazle izendatu zuten 1957an, 27 urte zituela eta euskaltzain oso 1963ko maiatzaren 18an, duela beraz 39 urte, Orixe olerkariaren alkian jar-tzen zela. Denbora jin, denbora joan, ez da alferrik egon 39 urte horietan J.M. Satrustegi. Etorri da zintzoki gure bilkuretarra, gai guzietan parte hartuz. Bat egin du Arantzazuko kongresuan Euskaltzaindiak erabaki zuelarik euskara batuaren beharra, hori baita euskaldun guziak lotzen dituen hizkuntza beharrezkoa, euskalkiak batere menderatu gabe. Euskaltzaindiak batzordeak sortu zi-tuelarik, sartu zen eta han dago beti, Onomastika batzordean. Toki egokia euskal izenak luzaz aztertu dituenarentzat. *Euskal Izendegia* publikatu zuen 1972an eta geroztik, ukana ditu bi agerraldi gehiago 1977an eta 1983an. Parte handi bat hartu du Onomastika batzordeak berrikitan argitaratu duen *Euskal Izendegia / Ponte Izendegia*ren liburuan.

Karguak ere ukana ditu Euskaltzaindian Nafarroako ordezkaria izanez lutzaz 1997 arte, Andres Iñigo euskaltzainak hartzen zuela haren segida. Eus-

kaltzaindiko zuzendaritzan egona da hamalau urtez 1978tik 1992 arte idazkari gisa, bere kargua betez zuzenki, Euskaltzaindian diren elkarritzak behar den bezala labur bilduz.

Euskaltzaindiak eman dituen urratsetan parte hartu du J.M. Satrustegi-k berea emanet jardunaldietan hala nola biltzar nagusietan. Adibide xoil baten emaiteko eta nihaur lekuko izanez, azpimarratu nahi dut Hiztegi Batuko gaieitan zein aberatsa den J.M. Satrustegi-ren emaitza.

Denbora jin, denbora joan, etorri zaizu, Jose Mari, omenaldien garaia. Be-rikitan, dakidanez, lortu duzu Larreko saria. Larreko, izen ezaguna edo, hobeki erran, izen-orde ezagutua euskal literaturan.

Egun eskaintzen dizute Manuel de Irujo II. saria. Gizon handi baten oroitzapena dauka sari honek, «Irujo etxea» deitu elkartea eskaintzen duena. Oroit gaiten nor izan den Manuel de Irujo, zer egin duen Nafarroaren alde, nola zaindu dituen euskararen eta euskal kulturaren eskubideak bere bizi guzian.

Halaber gure egungo saridunak bizi izan dituen urteak euskararen eta euskal kulturaren alde eskaini ditu eta segur nago luzaz biziko dituenak eskainiko dituela ere. Ohore zuri, Jose Mari, bihotz bihotzetik.

A J.M. SATRUSTEGI,

Premio *Manuel Irujo*

Lizarra / Estella, 08-VI-2002

Jean Haritschelhar;
Presidente de la R.A.L.V. / Euskaltzaindia

Señoras y señores,

Para los que no tienen la suerte de conocer nuestra hermosa lengua, esta vieja y siempre joven «*Lingua navarrorum*», voy a resumir en mi tercera lengua lo que acabo de decir en euskara.

Para mí J.M. Satrustegi es euskaldun, navarro y sacerdote.

Sacerdote primero, puesto que fue su vocación primera, contestando positivamente a esta llamada interior de ponerse al servicio de los demás, hermanos y hermanas. Después de los estudios de humanidades y teología en el seminario de Pamplona le nombraron a Valcarlos, zona fronteriza donde además de su trabajo de sacerdote conoció otro dialecto entrando en contacto con colegas de Garazi y de Iparralde, empezando sus investigaciones de etnólogo. Recuerdo su discurso de entrada en Euskaltzaindia en que desarrolló el tema de «Las pequeñas oraciones de Valcarlos» (*Luzaideko otoitz ttipiak*). Seguirá sus varios trabajos de sacerdote y de investigador en Urdiain donde estuvo de párroco durante muchos años.

Navarro de pura cepa desde luego, nacido en Arruazu, viviendo en un ambiente euskaldun y navarro. Cómo, entonces, no darse cuenta que había nacido en una tierra privilegiada, yacimiento de larga historia y de usos y costumbres particulares. Cómo, entonces, no seguir el camino abierto por otros navarros entre ellos el tan brillante Julio Caro Baroja.

Su fama de etnólogo le da la ocasión de ser invitado a dar conferencias en la Universidad de Deusto, la Universidad del País Vasco, a dar cursos en el Centro Superior de Estudios teológicos de Pamplona. Le han invitado también a dar conferencias de antropología en la Universidad Waseda de Tokio y en la Universidad católica de Sante Fe en Argentina.

Además de los 24 libros que ha publicado ha colaborado en muchas revistas de Pamplona, Vitoria, San Sebastián y Bilbao con muchísimos artículos de que dan fe su larga bibliografía. Pero, a mi parecer, la «opera magna» de J.M. Satrustegi es la revista *Fontes Linguae Vasconum* creada en Pamplona en 1969. Fue uno de los fundadores y sigue siendo su director. Hay que darse cuenta del trabajo y de la responsabilidad que representan la dirección de una revista de alto nivel de investigación, verdadera continuación de la *Revista Internacional de Estudios Vascos* de antes de la guerra, más especializada que ella en materia de lingüística como lo reza el propio título, verdadera revista internacional que beneficia de aportaciones de investigadores vascos sin duda, pero también franceses, españoles, holandeses, alemanes, ingleses, americanos, polacos, rusos, universitarios en general que dan gran prestigio a esta revista.

Euskaldun, desde luego, y además euskaltzale y euskaltzain / académico de número. Poseedor del euskara desde niño, emprendió su estudio científico, conociendo sus varios dialectos, deseando firmemente su supervivencia. Por eso se involucró conscientemente en trabajar por el desarrollo del euskara, yendo de pueblo en pueblo, verdadero misionero de la lengua, incitando a los niños a que aprendieran el euskara, consciente que el porvenir de la lengua reside en los jóvenes. Todos aquí saben que no se hace ningún acto a favor del euskara sin la participación de J.M. Satrustegi, ejemplo de euskaltzale de estudio y de acción.

Pronto se dieron cuenta en Euskaltzaindia / R.A.L.V. de que vivía en Navarra un joven sacerdote euskaldun y euskaltzale. Le nombraron académico correspondiente en 1957 cuando tenía apenas 27 años y teniendo en cuenta sus grandes méritos le nombramos –hacía un año que era yo académico– académico de número el 18 de mayo de 1963 en el escaño del poeta Orixe. Durante 39 años ha sido un académico ejemplar, asistiendo a todas las reuniones, ofreciendo su aportación a todas las jornadas y a todos los congresos organizados por Euskaltzaindia, desempeñando cargos como el de delegado de Euskaltzaindia en Navarra hasta 1997 y de secretario general en la Junta directiva durante 14 años desde 1978 hasta 1992.

Consciente de la necesidad de una lengua común a todos los vascos, se ha implicado en su desarrollo desde el congreso de Aránzazu en 1968 sabiendo además que esta lengua que une a todos los vascos se nutre de la savia de todos los dialectos que seguirán viviendo cada uno en su propio territorio.

Los trabajos e investigaciones de la Academia se realizan en distintas comisiones. J.M. Satrustegi pertenece a la comisión de Onomástica que disfruta de su aportación de estudiosos de los nombres de pila vascos, teniendo en cuenta que publicó en 1972 *Euskal Izendegia* con 2^a y 3^a edición en 1977 y 1983, tomando gran parte en la publicación oficial de Euskaltzaindia de los nombres de pila vascos. Puedo dar testimonio también de su aportación a las

discusiones académicas relativas al vocabulario estándar que de 23.000 palabras pasará a más de 40.000 dentro de algunos años.

Andando el tiempo llega el de los honores y del reconocimiento. Ayer el premio Larreko, gran figura navarra de la literatura vasca, hoy el II. premio Manuel de Irujo que dedicó su vida a la defensa del euskara y de la cultura vasca. De la misma manera J.M. Satrustegi ha dedicado los años de su vida presente y dedicará los muy largos años venideros que le deseo a la defensa y a la promoción del euskara y de la cultura vasca. Felicito a los que le han otorgado este premio tan merecido. Recibe, Jose Mari, mi cordial aplauso y enhorabuena.

**HENRIKE KNÖRR EUSKALTZAINBURUORDEAREN
MINTZALDIA, FRANCISCO FERNÁNDEZ DEL RIEGO
GALIZIAKO AKADEMIAREN PRESIDENTE OHIAREN
OMENEZKO EKITALDIAN**

*Vigo, Barbón teatroa,
2002ko martxoaren 8an*

Señoras e señores:

Reciban todos vostedes un cordial saúdo no nome da Real Academia da Lingua Vasca / Euskaltzaindia.

Vin, acompañado do académico correspondente Juan José Zearreta, para transmiti-la profunda estima e admiración que sentimos cara a D. Francisco Fernández del Riego, pola súa obra e polo seu exemplo, e para proclamar unha vez máis a nosa sincera irmandade con este pobo e coa súa lingua.

Gústame citar –tanto que deberá pagar dereitos de autor– a definición dun autor alsaciano: «A cultura é unha loita constante contra o esquecemento». O noso homenaxeado loitou, e en anos moi difíciles, contra o esquecemento, e todos recoñecémo-los méritos dun labor inmenso a prol da lembranza, da lembranza viva, e da dignidade dunha cultura.

Congratúlanos participar neste acto e desexamos todo o mellor para o homenaxeado, para a súa familia, para os seus amigos, e para toda Galicia.

Rematarei na nosa lingua:

Agur eta ohore zuri, é dicir, Saúde e honra para vostede.



Francisco Fernández del Riego, Galiziako akademikoari Vigon egin zitzaien omenaldiko argazkia. Laugarrena, eskuinetatik hasita, Henrike Knörr.

BESTE ZENBAIT TXOSTEN

EUSKALTZAINDIAREN INFORMATIKA ETA TELEKOMUNIKAZIO ZERBITZUA (EITZER)

Bilbo, 2002-III-6

*Iñaki Kareaga,
Euskaltzaindiaren Informatika
eta telekomunikazio teknikaria,*

*Ricardo Badiola,
argitalpen eragileak,
hizkuntzaren orrazketa*

1. SARRERA

Euskaltzaindiko informazio sistema eguneratzeko egitasmoa 1999-2000 urteetan gauzatu zen. Horretarako Herri Aginteeek ahalegin ekonomiko berezia egin zuten eta horrela beharrezko ekipamendua eta hasierako ezarpenak burutu ahal izan ziren.

Informatizazio honen ildo nagusiak hauexek izan dira:

- Azpiegitura informatiko/telematiko egokia erosi eta ezartzea eta langileria tresna hauek erabiltzeko trebatza.
 - Datuak trukatzeko estandar batzuk ezarri, formatu zein eratan (Word, e-mail, ...)
 - Erakundearen egoitza, ordezkaritzza eta bestelako lantokiekiko loturak eta telekomunikazio sistemak hobetu; datuak trukatu eta elkarlanera-ko tresna informatikoak eskaini.
 - Datuen segurtasuna bermatzeko asmoarekin, aplikazio eta lantresna informatiko zaharrak tresna berriekin ordeztu (2000 efektua ekiditeko neurriak, babes kopietarako zintak, formatu zaharrak konbertitu, babes kopia programatuak, etab.)
- Orotariko Euskal Hiztegiaren lan tresna berritzea eta datuak euskarri berrietara migratzea

- Datu-base sakabanatuak euskarri bateratuetan biltzea eta Intranet eran konpartitzeko azpiegitura prestatzea
- Euskaltzaindiko Webgunea argitara ematea. Informazio instituzionalaz gain «Web Produktuak eta zerbitzuak» eskainiko dizkiena euskalginetzako profesionalei

Hasiera baten, *ODEI,S.A.* enpresak hartu zuen egitasmoaren gidaritza. Informatizazio prozesu honen azken boladan, 2000. urteko martxoaren 3an, Euskaltzaindiak Ingeniari teknikoa hitzartu eta horrela *Euskaltzaindiaren informatika eta telekomunikazio zerbitzua* (aurrerantzean *EITZER*) martxan jarri zuen. EITZERen lana, martxan jarritako egitasmoak burtu, mantendu eta etengabeko hobekuntza prozesua abiatzea izan da.

2. 2001eko LAN BEHINENAK

Informatika ezarprena egiten denean aukera eta eginbehar berriak sortzen dira. Eta beronen abantailak begi-bistakoak dira: segurtasuna, bizkortasuna, eraginkortasuna, etab. Aurrerapen teknologiko azkarrak, ordea, erositakoak mantendu eta etengabe egunерatzen ahaleginak egitera behartzen gaitu.

Bestalde, informatika ezarpenari amaiera-data jartzea oso zaila da, ezarpena egiten ari den bitartean informatika bera aldatzen ari baita. Are gehiago Internet zerbitzuetako munduan sartzen baldin bagara. Etengabeko aurrerabideari jarraitza behartuta gaude. Nire ustez, Informatika Zerbitzuaren betebeharretako hauxe da, hots, informatika-aurrerapen abiadura eta etxean den sistemaren egokitzen-erritmoaren arteko oreka bilatzen ahalegintza.


Beraz, adierazitakoaren ildotik joz gero, *EITZER* zerbitzuaren jarduna bitan bana daiteke: *Mantenu lanak* (sistema jagotea, etengabeko prestakuntza, segurtasuna, matxurak, ...) eta egitasmo berrien *informatizazioa* (prozesuen automatizazioa, ezarritako azpiegituraren aprobetxamendua, Internet zerbitzuen zabalkundean parte hartzea, azpiegitura informatikoa erosten laguntza, ...)

2.1. Mantenua


Ondorengo taulan, mantenu-intzidentzien gertaerak zenbatzen ahalegindu gara, sail eta motaren arabera ezarririk, alegia:

Ikus dezagun hau bera grafikoki:

Mantenu-intzidentziak sailka:



Mantenu-intzidentziak mantenu-motaren arabera:



2.2. Informatizazioa

Mantenu lan eta zerbitzu barruko lanetatik aparte, eta hauek burutzen joan garen aldi berean, informatizazio egitasmoak burutzen ahalegindu gara. Ondoren, egindako informatizazio lan behinenen kronologia agertzen da:

Urtarrila	99-00 informatizazioaren balantza <i>DAGERRE</i> egitasmoa (Azkue Bibliotekako digitalizazioa)
Otsaila	Euskaltel Integra plana (telekomunikazio gastuak egokitzeko kudeaketa)
Martxoa	<i>JAGONET</i> (Interneten bidezko hizkuntza-kontsulten zerbitzua)
Apirila	Webguneko edukien mantenerako prozedurak zehaztea Euskaltzaindiko <i>INTRANETA</i> .
Maiatza	<i>Olaso-Dorreko</i> inventarioa OEHren bulegoa leku aldatzean telekomunikazio sistema berriaren ezarpena
Ekaina	2002ko informatikarekiko aurrekontua <i>Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra: Bilbo-Baiona</i>
Uztaila	<i>Trebiñoko</i> topomimiaren datu-bilketarako aplikazioa <i>Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra: Bilbo-Baiona</i>
Iraila	<i>Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra: Bilbo-Baiona</i>
Urria	Gasteizko ordezkaritzako informatikaren egoera hobetzeko plangintza Ekonomia-kudeaketarako sistema. Banketxeekiko lotura telematikoa
Azaroa	<i>EODA</i> (Euskal Onomastikaren datutegia) Interneten bidezko kontsulta zerbitzua <i>Absys Web</i> instalazioa. Azkue Bibliotekako katalogoa Interneten
Abendua	<i>Durangoko Azoka</i> (Gune elektronikoan Stand-a izan zuen Euskaltzaindiak, lehen aldiz)

3. EUSKALTZAINDIAK ESKAINTZEN DITUEN INTERNET ZERBITZUAK

Era eskematiko baten, une honetan Euskaltzaindiak bere webgunean eskaintzen dituen informazio eta zerbitzuak jarraikoak dira, alegia:

Informazio orokorra

Informazio instituzionala

Euskaltzaindiaren historia, xedeak, sorrera, etab.

Urteko jarduerak

Urtearen hasierarako egiten den jardueren planen berri eskaintzen da.

Estekak

Beste erakunde batzuekiko webguneekin loturak

Zer Berri?

Azken berriak, izendapenak, sariak, ...

Argitalpen katalogoa: On-line salmenta

Salgai dauden liburuen katalogoa eta Banaketa Zerbitzura eskari-mezuak bidatzeko aukera eskaintzen ditu.

EODA

Euskal Onomastikaren datutegia. Onomastika batzordearen erabakiengatik zabalkunderako: deiturak, ponte-izenak, herri-izenak eta mendien izenak kontsultagai.

Euskaltzaindiaren Arauak + Hiztegi Batua

Emandako Arauak kontsultagai (PDF edo HTML formatuetan). Hiztegi Batua on-line sisteman ere kontsulta daiteke.

On-line argitalpenak (paperean ere argitaratu direnak)

EHHAREN antología

Frai Bartolomeren testuak

EUDEL: Herri-izendegia

Hiztegi Batua (*Euskeria*, 2000-3)

Kontsulta zerbitzua: JAGONET

Galde-erantzunen datu-basea

Galdelekua (e-mailaren bidez)

www.euskaracorpusa.net

Euskararen corpusen ataria izateko asmoa duena.

Une honetan XX. mendeko euskararen corpusa (EEBS: UZEIk burututakoa)


4. INFORMATIZAZIO EGITASMOAK

4.1. Euskaltzaindiko webgunea

Webgunea sortu zenetik (ODEI,S.A. enpresak egin zuen 1999 bukaeran), webguneak berak eta Internetek aldaketa handiak pairatu dituzte.


Internet erabiltzaileek ez diote eskatzen soil-soilik Euskaltzaindiari Interneten izan dadin; beronek badauka zeharka, Euskaltzaindiaren hizkuntza zerbitzuak Internetetik jaso nahi izatea. Bestalde, gaur egun, euskalgintzako profesionalak informatikaz, eta horrekin batera Internetez, lantresna modura baliatzen dira eta beraiek dira, hain zuzen, hizkuntza zerbitzu hauek gehien erabiltzen dituztenak. Horrela erakusten dute webgunearren estatistikek: webgunea lan-orduetan erabiltzen da gehien eta opor denboran erabilera asko urritzen da. Hona hemen estatistika horietako batzuk:

Euskaltzaindiko webgunera bisitak 2001. urtean



Guztira: 53.914 bisita

2001eko abenduan orduz-ordu egindako bisitak



Beraz, aipatu webgunea, gaur egun, agerpen instituzionalari lotua da eta gehigarri modura hizkuntzarekiko zerbitzuak eskaintzen ditu. Honekin loturik, gure proposamena zera litzateke, alegia: Webgunea berdiseinatzea hizkuntz zerbitzuei lehentasuna eskaini gurarik (JAGONET, EODA, Arauak, Corpusak, salmenta, ...) eta bertora sarbidea erraztuz. Bestalde, oraindik eginkizun hainbat gai ditugu, hots:

- Webgunearen atal batzuk erdaretara itzultzea;
- Esteken saila eguneratzea;
- «Zer berri» atala prentsa-zerbitzuaren esku jartzea;
- Tele-denda garatzea;
- Bestelako informazio instituzionala eskaintzea: sariak, elkarlanak, ...
- Arauak eta Hiztegi Batuko hitzen tratamendua errazago bilatzeko tresnaren garapena;
- «On-line argitalpenak» eremua berritzea eta eguneratzea
- ...

4.2. Azpiegitura eta telekomunikazioak

Eginkizun dauzkagun eremuak honako hauek dira:

- Baionako ordezkaritzaren informatizazioa;
- Iruñeko ordezkaritzaren sistema telefonikoa hobetzea;
- Prentsa bulegorako tresneria informatikoa hobetzea.

4.3. Administrazioa

Eginkizun ditugunak honakook dira:

- Euskaltzaindiko pertsona-aurkitegia, Intranetean;
- Informatika segurtasunerako plangintza nagusia;
- Bulegoetako expediente eta artxibo administratiboen informatizazioa;
- Etxebarriko gordailua informatizatzea.

4.4. Aplikazio informatiko berrien sortze edo migratzea

Eremu honetan eginkizun dauzkagunak honakook dira:

- Azkue Bibliotekako datu-baseen bateratzea eta bilaketak erraztea;
- EHHAko lantresna berritza era zentralizatuan lan egin ahal izateko;
- Hiztegi Batua, dokumentu izatetik datu-base bihurtzea;
- Gasteizko Toponimia lantaldearen datu-basea egokitzea eta tresna ego-kiak sortzen jardutea.

4.5. Corpusak

Informatizazioaren helburuetako bat Euskaltzaindiak dauzkan «corpus» eta hizkuntza eremuko datu-base guztiak bildu eta bilaketa tresna bateratuaren bidez kontsulta egin ahal izatea izan zen. Eremu honetan urrats batzuk eman baldin badira ere, gaur egun ez dugu horrelako tresnarik.


Euskaltzaindiak «tresna» hau bi eratan baliatzeko asmoa dauka, alegia:

1. Zerbitzu publiko modura: www.euskaracorpusa.net webgunean (da-goeneko XX. mendeko corpus estatistikoa bertan dela)
2. Zerbitzu pribatu modura: **Euskaltzaindiaren Intranetean**. Erakundearen barneko ikerleentzako zerbitzu modura.

Aipatu kasuotan, Erakundeak (Zuzendaritzak) erabaki beharko du zein datutegi komeni izango den eskura izatea. Beraz, hona hemen zerrenda:

- XX. mendeko euskararen corpus estatistikoa
- Orotariko Euskal Hiztegiaren corporua
- Hiztegi Batua + Euskaltzaindiaren Arauak
- Orotariko Euskal Hiztegia
- Euskal Onomastikaren Datutegia (Onomastika batzordearen gomendio, erabaki eta iradokizunak ...)
- Euskal Herriko Onomastikarekiko datu-basea (Patxi Galék egiten diharduena). Iturri desberdinak Toponimia lanak bilduko dira, ondoren, ikerleen esku jartzeko. Bestalde, Gasteizeko toponimia ikerketa berton txertatuko litzateke.
- EHHA: ikerketa.
- Lexiko Erizpideen Finkapena (LEF)
- Azkue Bibliotekako katalogoa
- Lamiategi, euskal testu garaikideen datu-basea, egitasmoa
- Bestelako dokumentu eta zenbait argitalpen:
 - *Euskeraren* agerkaria
 - Gramatika
 - Literatura
 - Onomastika
 - Euskararen lekuak
 - ...

**LIBURUEN-AURKEZPENAK ETA
SARI-BANAKETAK**



LITERATURA SARIAK • 2001

Txomin Agirre Saria
Eleberria
Toribio Altzaga Saria
Antzerkia
Felipe Arrese Beitia Saria
Olerkia
Mikel Zarate Saria
Saioa

**BILBAO BIZKAIA KUTXA
FUNDAZIOA-EUSKALTZAININDIA**
Literatura sariak 2001

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak urtero antolatzen dituzte elkarrekin eleberri, antzerki, olerki eta saiakera-sariak. 2001. urteari dagozkion irabazleen izenak jakinarazi dira eta sariak eman abenduaren 14an egin den prentsurrekoan. Sari-ematea Euskaltzaindiaren egoitzan, Bilbon, egin da.

Ondoko hauek dira aurtengo deialdiaren irabazleak, sariak eta epaimahaikideak:

Txomin Agirre eleberri-saria: Patxi Ezkiaga Lasa, *Bigarren haurra*.

Saria: 1.300.000 pezeta.

Epaimahaikideak: Gorka Aulestia, Txomin Peillen eta Ana Toledo.

Sari honetara 4 lan aurkeztu dira.

Toribio Altzaga antzerki-saria: Alaitz Olaizola Borda, *Zereko zera zer-
tzen delako zereko zerarekin*.

Saria: 800.000 pezeta.

Epaimahaikideak: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.

Sari honetara 4 lan aurkeztu dira.

Felipe Arrese Beitia olerki-saria: Sonia Gonzalez Fernandez, *Saga-
rroiak*.

Saria: 800.000 pezeta.

Epaimahaikideak: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi Imaz.

Sari honetara 8 lan aurkeztu dira.

Mikel Zarate saio-saria: Jurgi Kintana Goiriena, *Vizcaytik Bizkaira?*
R.M. Azkue Euskaltzaindia sortu aitzin (1888-1919).

Saria: 1.000.000 pezeta.

Epaimahaikideak: Xabier Altzibar, Adolfo Arejita eta Antton Aranburu.

Sari honetara 6 lan aurkeztu dira.

PATXI EZKIAKA LASA

TXOMIN AGIRRE SARIA. ELEBERRIA

BIGARREN HAURRA

Hezurretako minbiziaaren erasopean, oroitzapenei lotuta ematen ditu Lurdes Etxegoienek bere bizitzako azken egunak. Ustekabeen, FOP-eko polizia-ohi bat izango du bidaikide, Euskal Herriaren azken hogeita bost urteetako zenbait gertakariri buruzko ikuspegia eta irizpideak kontrajartzera bultzatuko duena. Maitale izan dituen bi lagunekin –argazkilaria bata, politikaria besteari bizi izandakoak beteko du emakumearen bakardadea, eta Irlandara ihes egin dako alaba bakarraren barkamenaren itxaropenak.

Patxi Ezkiaga

Legorretan jaioa, Oxford eta Cambridgeko unibertsitateetan egin zituen bere literatura ikasketak. Geroztik, Deustuko Unibertsitatean burutu zituen Historia arlokoak. Irakasle, Bilbon eta Donostian jardun du batik bat lanean. Literaturaren arloan, berriz, 1984 geroztik nabarmendu da bere lana.

Argitalpenak:

Ipuinak: Antxon Eraso 1 (Mensajero, 1982), *Antxon Eraso 2* (Mensajero, 1982), *Karnaba* (Mensajero, 1982), *Ate debekatua* (Erein, 1988) *Borobilinoff eta Txakurkan* (Erein, 1988), *Kinkiliaren Ametsa*, Erein, Donostia (1988), *Kaito Inozoa* (Erein, 1988), *Bataioto Apaiza* (Erein, 1989) *Han urrutian* (Bruño, 1990), *Deabruaren Eztarria* (Sendoa, 1990) *Izeba Maripi* (Elkar, 1996).

Poemarioak: Beldur naiz (Caja de Ahorros Vizcaina, 1985), *Aiodi Herriko Kantak* (Gipuzkoako Kutxa, 1986), *Armaggedon* (Eusko Jaurlaritza, 1986), *Gernika* (Erein, 1987), *Fadura* (Gipuzkoako Kutxa, 1987), *Ispiluaren isladaketak* (Elkar, 1988), *Keiko eta beste udazkenak* (Elkar, 1988) –azken bi hauek 1989ko Kritikaren Saria–, *Terrala* (Sendoa, 1990), *Baladak* (Sendoa, 1990), *Komedien Jainkoa* (BBK, 1993), *Haize Hurbila/Viento cercano* (EHU, 1984), *Zauriaren Salmoak/Salmos de la Herida* (Birmingham, 1997. 1998ko Kritikaren Saria), *Udazkenerako Hamar Kanta* (Kutxa, 1999), *Arasango Antifonak* (Cuadernos de Anciles, 1999).

Eleberriak: Charles Moulay (Sendoa, 1990), *Bi zisneen hegada* (Sendoa, 1992), *Zure haragi bereko* (Erein, 1996).

Sariak: Irun Hiria (3 aldiz), *Txomin Agirre Saria* (Eusko Jaurlaritza), *Lizardi Saria* (Eusko Jaurlaritza, 2 bider), *Felipe Arrese Beitia Saria* (bi bider), *Julene Azpeitia Saria*, *Agustin Zubikarai Saria*.

**ALAITZ OLAIZOLA BORDA
TORIBIO ALTZAGA SARIA. ANTZERKIA**

ZEREKO ZERA ZERTZEN DELAKO ZEREKO ZERAREKIN

Eugenio metroan bizi da azken urteotan. Bertatik igarotzen diren guztientzako baditu hitzak, zeresanak eta jakin ere badakizki hainbat trikimailu handik igarotzen diren guztiei etekinen bat ateratzeko.

Gabon inguruko egun batean ordea, eta bera konturatu ere egin gabe, pixkanaka-pixkanaka sekulako saltsan sartzen joango da, egun horretan metrotik igaroko diren pertsonei behar baino gehiago hurbiltzeagatik.

Bi helburu nagusi hartu dira kontuan:

- Atsotitzen erabilera berreskuratzea. Ahalegin honen lekuko jatorra izango da Eugenio.
- Argitu gabe geratzen diren zenbait egoera planteatzen dira lan honetan eta intentzioz geratu dira argitu gabe, jakinminarekin geratzeaz gain, baikoitzaren irudimena zertxobait gehiago erabiltzen bultzatzuko duelakoan. Horra hor lanaren izenburuaren arrazoia.

Alaitz Olaizola

1975. urteko urtarrilaren 8an jaio zen Azpeitian. Gaur egun bertan bizi da. Magisteritza, Haur Hezkuntzan alegia, amaitzekotan dabil.

Antzerkira ikastolan hurbildu zen lehenengo aldiz gaztetxoa zenean, antzezle gisa. Gero gaztaroan, 2 urtez *Antxieta* antzerki taldean aritu zen, antzezle gisa ere.

23 urte zituenean, *Lakrikun* antzerki taldean hasi zen antzezle, eta antzerki idazle moduan ere.

Lanak:

- *Ez dira berdinak, antzezoak baizik* (1998, 2001)
- *Zereko zera zertzen delako zereko zerarekin* (1999, 2001)
- *Garalderen Requiem-a* (2001)

Gaur egun, Azpeitiko Ikasberri Ikastolako gurasoak osatzen duten *Lakrikun* antzerki talde amateurreko kidea da Alaitz Olaizola.

**SONIA GONZALEZ FERNANDEZ
FELIPE ARRESE BEITIA SARIA. OLERKIA**

SAGARROIAK

Gai desberdinak jorratzen dira: hiria, munduaren anabasa, amodioa, adiskidetasuna, poesia... izan ere, zati bitan dago banatuta: «Harlauzak zulatuz» eta «Pekhautu nintzen kamatze-jakaz». Azken izenburu hau Miranderen «*Kama-goli*» poemako bertso-lerroa da.

Poema gehienak heriotzaren lanbroak estaltzen ditu:

Benetako heriotza: hutsunea, bakardadea, etsipena... heriotza maiuskulaz.

Sexua: frantsesek ez dute alferrik erabiltzen *Le petite morte* esapidea.

Sentimenduen heriotza: hauxe da baikorrena, momenturik goxoena berpizkundearena baita.

Zorrotzak eta indartsuak batzuk, arrotzak beste zenbait, malenkoniatuak gehienak.

Sonia Gonzalez

Barakaldon jaioa. Euskaldun berria da. Euskal Filologia ikasi zuen Deustuko Unibertsitatean. Itzulpengintza arloan lan egin ondoren, Deustuko Unibertsitateko bertako Euskal Irakaslegoa aritu zen bi urtetan, euskara irakasle. Gaur egun, LAB sindikatuaren lan egiten du, Komunikazio arloan.

Idazteko gogoa betidanik sentitu du Sonia Gonzalezek, baina hasi, iaz hasi zen idazten. *Sagarroiak* izeneko lana bere lehenbiziko produkzioa da, poema bat edo beste gorabehera.

Argitalpenak:

Entseiukarrean izeneko aldizkarian bertso librearen inguruan egindako lana publikatu zuen, Imanol Irigoiernen zenbait poematan oinarrituta.

Laster, *Entseiukarrean* aldizkariaren hurrengo alean, hain zuzen ere, ondoko lana argitaratuko du: «Barietatea eta estandarra. Batuaren eragina ume bizkaitar biren hizkeran»

**JURGI KINTANA GOIRIENA
MIKEL ZARATE SARIA. SAIAKERA**

**VIZCAYTIK BIZKAIRA? R.M. AZKUE EUSKALTZAINdia SORTU
AITZIN (1888-1919)**

Saiakera honetan Resurreccion Maria Azkue (1864-1951) apezaren perfil intelektuala aztertu da. Azkue 1888an jaio zen kultur bizitzara, Bilboko euskara katedra lortzean. Katedratik abiatuz harreman sare zabala eratu eta kultur projektu sendoa bideratu zuen. Bere ahalegina 1919an garabete zen Euskaltzaindia sortu eta bertako buru izendatu zutenean. Saiakerak bada 1888tik 1919rako epealdi hori aztertu du, Azkue garaiko euskal kultura munduan kokatuz. Iturri nagusi gisa Euskaltziandian gordetako Azkueren gutuneria personala erabili da, bost mila eskutitz baino gehiagok osatua.

Jurgi Kintana Goiriena

Hogeita sei urteko bilbotarra, 1994an historia karrera hasi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean, 1999an lizentziatuz. 1998an Sancho el Sabio Fundazioaren unibertsitate mailako I. ikerketa saria jaso zuen. *Jakitez* graduondoko titulua 1999an. Egun MECaren beka bati esker Azkueren gaineko doktorego tesia egiten dihardu. EHUKo doktorego programaren baitan ikerketa aurreratuen titulua eskuratu du 2001ean Azkueri buruz egindako tesinarekin. Udako Euskal Unibertsitateko Historia Saileko kidea da, baita Eusko Ikaskuntzakoa eta Euskal Herriko Zuzenbide Historikorako Institutukoa ere. UEUren ikastaro batzuen antolatzale moduan zein hizlari gisa aritu izan da. Beste erakunde batzuetan ere eman ditu hitzaldiak eta ikastaroak, tartean Eusko Jaurlaritzaren *Garatu* programaren baitan.

Argitalpenak:

Judu herriaren ibilbide luzea liburu Gaiak argitaletxean Xabier Kintanarekin batera (1994); Zubiaren DBH 1. eta 2. mailetarako *Historia-Geografia* testuliburuen euskal atalak eta moldapen orokorra (2000); eta zenbait historia artikulu *Uztaro*, *Bidebarrieta*, *Sancho el Sabio*, *Eusko News & Media* eta beste aldizkari espezializatu batzuetan. Liburu atal batzuk ere egin ditu Euskaltzaindiarentzat eta Euskal Herriko Zuzenbide Historikorako Institutuaren argitalpenetan.

2 0 0 1

Literatur Sariak



"R. M^a Azkue"
saria



Idazle gazteak

AZKUE SARIAK 2002

Oro har maila ona izan da aurtengoan. Narrazioetan, ohiko ipuin-itxurakoen artean, kontakizun modernoak ere ageri dira, ikuspuntu fokalizatuak eta kontamolde bitxiak baliatzen dituztenak.

Olerkien atalean, parte hartze eta kalitate maila apalagoak izan dira. Poema gehienak naturaren ingurukoak dira, baina ez dira falta izan maitasunezkoak edo euskarari gorazarre egiten diotenak.

NARRAZIOA A MAILA

1. SARIA: 27. zkia. «I'm zorri»

Giro kafkiarreko narrazio honetan irudimena, umorea eta amesgaiztoa nahasten dira emaitza biribila lortzeko.

2. SARIA: 77. zkia. «Ametsa egia bihurtuko ote?»

Errealismo kritikoan bete-betean kokatutako narrazioa da. Emakumezko baten ahotik Afganistango errealtitate gordina eta amets itxaropentsuen berri ematen digu.

3. SARIA: 6. zkia. «Lagunen mesfidantza»

Narrazio hau thriller gisa planteatuta dago, aurpegi bikotzekeo pertsonaiak, epaietak eta ustegabeko amaiera dira erabiltzen dituen osagaiak.

OLERKIA A MAILA

1. SARIA: 2. zkia. «Zeruko zubia»

Naturako elementuak erabiliz, poesia bisual eta sinestetikoa lortzen du egileak, lerro labur eta errima sujerikorrez.

2. SARIA: 3. zkia. «Negu hotza»

Aurrekoaren ildo berean, natura du gai nagusi. Pertsonifikazioa da erabiliak baliabidea, urtearoen joan-etorrian.

3. SARIA: 39. zkia. «Irrifarria»

Alaitasunaren aldeko kantua da, gizateria irrifiar baten inguruan elkartzeko saio eder bat.

R.M. AZKUE SARI-BANAKETA

Bilbon, egoitzan, 2002-II-21

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Berriz ere bilduak gara egun, Resurreccion Maria Azkue literatura sarien zabaltzeko eta pozik ikusten dut 238 izan direla aurkeztu diren lanak eta horriean 29 Arabatik, 55 Bizkaitik, 90 Gipuzkoatik, 25 Iparraldetik eta 39 Nafarroatik. Uste dut, gero eta gehiago aurkezten direla eta niretzat hori pozgarria da. Badira irabazleak, entzunen ditugu gero. Nahi nituzke berehala, nire zorionik bizienak eman saridunei. Eskerrak ere, ukan dituzten kontseilariei, irakasle eta horietarit, horiek behar den bezala lanean ari izan baitira eta behar den bezala kudeatu bai dituzte eta azkenik ere, epaimahaikoei, horiek ere bere lana egin baitute eta behar den bezala jokatu baitira. Eta azkenik, ez nituzke hemen ahantzi nahi,ene ondoan diren jaun horiek, BBKko zuzendariak, handik etorriak eta haietan eta haiei esker, sari horiek ukanean baitituzue. Beraz, aspaldi honetan elkarrekin lanean ari baikara, erran nezake eskertzen ditudala egiten dutenarengatik, zeren eta nahi ala ez, zuetan, zuengan, izanen direla idazle batzuk, biharko idazleak izanen direla eta hori pozgarria da eta Euskaltzaindiak BBKrekin zerbait egiten duela zuen alderako. Beraz, eskerrak de nei eta zorionak zuoi.

* * *

Bukatu baino lehen eta ikusten baitut hemen batzuk aldi bat baino gehiagotan agertzen direla... Anton Alberdik lehen saria jaso zuen A mailako narrazio alorrean 1999ko urtean. Gero Hodei Arregik, hirugarren saria jaso zuen B mailako olerki alorrean, 2000ko deialdian. Horrezaz gain, iaz ere akzesita lortu zuen poesian. Estibaliz Lizasok akzesita lortu zuen A mailako narrazio alorrean, 1997an. Irati Goikoetxeak, honako sariak lortu ditu: A mailako 3. saria, olerkian, 1997an; B mailako 2. saria, olerkian, 1998an; B mailako akzesita, narrazioan, 1998an; B mailako akzesita, olerkian, 1999an eta B mailako lehen saria, olerkian, 2000. urtean. Horrek erakusten du zuetan badirela batzuk zinez idazteko on direnak eta segituko dutenak. Hori da guretzat zinez pozgarri dena. Eta uste dut Jose Ramon Bilbaok erran

duen bezala, berriz ikusiko dugu. Zuetarik lehen aldiakotz izanen da publikatuak izanen zaretela eta hori gauza ederra da. Beraz, zorionak bihotz-bihotzetik eta eskerrak ere, zinez bihotz-bihotzetik irakasleei.

Horretan uzten dut, eskerrik asko.

R. M. AZKUE SARIEN BANAKETA

Bilbo, egoitza, 2002-II-21

*Joserra Bilbao,
Bilbao Bizkaia Kutxako ordezkaria*

Eguerdi on guztioi, eta zorionak irabazleoi.

Lehenengo eta behin, eskerrik asko hona hurreratu zaretenoi, idazle gazte hauei babesia ematera. Bai nire izenean eta bai eurenean ere, Euskaltzainburua, euskaltzainak, prentsa eta hemen gauden guztiok ikustea, jantzi egiten duelako eta importantzia ematen diolako ekitaldi honi.

Nik neuk, berriro esango dut iaz esandakoa, erabat pozten naizela hemen dugun euskal idazle gazteen lurrealdekotasun zabala ikustean, eta batez ere Iparraldeko ordezkariak ikustekoan. Gaur berton ikusi dugu hedabideetan, Unesco-ren hizkuntza mehatxatuen atlasean, euskara sartuta dagoela, eta Iparraldean bereziki, desagertzeko arrisku bizian dela. Horrexegatik bada, poz bikoitza ematen du hango ordezkariak gure artean izateak, han, gure hizkuntzaren etorkizuna euren eskuetan dagoelako, inoiz baino gehiago.

Zorionak Ohiana, Leire, Ibai eta Ihintza. Ekin orain arteko bideari, eta egon seguru, gure laguntza eta maitasun osoa izango duzuela. Zorionak baita ere Hegoaldeko irabazleoi. Maitasun osoz zuei ere, zelan ez.

Kontuan izan, orain hartu duzuen saria, benetako sariaren lehenengo zatia baino ez dela. Bigarren zatia, liburua argitaratzen denean hartuko duzue, zeuon izena, Euskaltzaindiaren babesia duen lan batean ikustean. Orduan izango gara elkarrekin berriro ere.

Amaitu aurretik ez ditut aipatu barik utzi gura, gazte hauek idazle izatera bultzatzen dituztenak, eurekin batera etorri diren irakasleak. Itzelezko meritua duzue, hain adin zailean dauden gazteak, literaturarantz eroatean. Eskerrik asko egiten duzuen ahaleginagatik.

Eta besterik ez. Eskerrik asko guztioi Bilbao Bizkaia Kutxa-ren izenean. Guk geure aldetik, euskal kultura eta hizkuntza zaintzeko ardurari eutsiko diogu, zuen lana babestuz, denok elkar ondo hartuta ere, gutxi garelakoan lan erraldoi honetan. Beste barik, hurrengora arte.

*ERMUA-EITZAGA: LEKU-IZENAK
LIBURUKIAREN AURKEZPENA*

ERMUA-EITZAGA: LEKU-IZENAK

Onomasticon Vasconiae, 22

*Ermua, 2002-V-23
Bilbo, 2002-V-24*

*Carlos Totorika,
Ermuko alkatea*

Arratsaldeon danori eta Ongi etorri **Ermua-Eitzagako: Leku-izenak** liburuaren aurkezpen honetara; baina harrera espeziala egin nahi deutsuet eta eskerrak emon hemen egoteagaitik:

FERNANDO ARANBERRI, lanaren egileari, JOSE LUIS LIZUNDIA, euskaltzain urgazle eta Euskaltzaindiko gerenteari, ANDRES IÑIGO, euskaltzain oso eta Onomastika batzordeburuari, MARI ASUN ARDANZA kontzejalari eta Ermuko Udaleko Euskeria batzordeari.

Zuori danori eskerrak emoten deutsuedaz egin dozuen behar guztiagaitik.

Baina ez neukez ahaztu nahi inundik be gure historia hurbila ondino bizirik daukien ermuarrak; liburu hau egitea posible izan bada eurei esker izan da-eta, euren aurrekoei entzundakoak kontatu eta trasmititu deuskuezalako.

Badakizue Ermuaren kasuan jendearen memoria bizia oso importantea dala, hemen geratzen jakuzan dokumentu idatziak eta balio historikodun edifizio eta lekuak gitxi diralako.

1794ko Konbenzino Gerran gure historiaren zati handi bat galdu egin zan, frantsesek herrian egozan 86 etxetik 82 erre ebezanean. Gero, Gerra Zibilean udal artxiboak galdu egin ziran barriro be, eta XX. mendeko 60 urteetan, herritar-kopurua eta industria ikaragarri hazi ziranean, balio historikodun edifizioak ez ziran bat be errespetatu.

Horregaitik, danagaitik, da hain importantea gaur aurkezten dogun liburu hau.


Eskuetan daukazuen liburua gauza txikien historia da, baina horrekin batera, gure aitita-amamen, euren kulturearen eta bizimoduaren historia be bada, eta azkenean, geure historia.

Badakigu iragan hurbila ikusteko bi modu dagozala: bata gure historia markatu daben gertakari handiak kontuan hartzea eta bestea, eguneroko bizi-moduan –erlijioak, konstunbreak, familiak eta abarrek kondizionatuta– agertzen diran detaile txikiei begiratzea; horrek ez dabe aldaketa sozial handirik ekarri, baina bista-bistan lagatzen ditu gure herriaren sentimendua eta gauzak egiteko modu ona.

Toponimiak, herriaren kultura oinarri hartuta, leku-izen diferenteen jatorria eta esanahia aztertzen dau.

Oraingoan gainera, herriaren antxinako kultura berreskuratu nahi dogu, zati handi bat euskerea dan hizkuntza aberats eta pluralaz adierazita dago-eta.

Betiondo, Ureta, Elorreta, Urko, Torreta, Arrako, Sinko, Txantxiko, Orozko, Motxu, Santuko, Komentukoa, Antonatxa eta beste izen asko gure herriaren egitura historiko eta sozialaren zati importanteak dira.



Ermuarrok etorkizunari begira egon behar dogu eta soziedade zabal bat eraiki, denborearen aldaketea, kultur-aberastasuna, dibertsitatea, eta aurrera-pauso ekonomiko eta sozial guztiak onartuko dituana.

Halandabe, etorkizuna oparoa izateko derrigorrezkoa da bere oinarriak sendo eta ondo zainduta eukitzea, eta horretara dator hain zuzen be liburu hau. Gure iragana onartu egon behar dogu, eta harro egon gainera, gure herria bere sustraiak kontserbatzeko gauza izan dalako, eta horrela erakusten dau gainera gu danok gaur hemen alkartuta egoteak, ikuspegi diferenteetatik bada be, iraganagaitik interesa badaukagula agertzeko.

Orain M^a Asun Ardantzak, Kultura Kontzejalak, berba egingo deusku.

ERMUA-EITZAGA: LEKU-IZENAK

Ermua, 23-V-2002

*M.^a Asun Ardanza,
Concejala de Euskera y Cultura
del Ayuntamiento de Ermua*

Buenas tardes.

Como concejal responsable del área de euskera de este Ayuntamiento, quiero agradecer vuestra presencia en este acto, en el que se presenta el libro *Ermua-Eitzaga: leku-izenak*. El trabajo surge en la colaboración del Ayuntamiento de Ermua, Euskaltzaindia, Diputación Foral de Bizkaia y Euskal Bi-rusa. Su autor, el filólogo Fernando Aranberri tiene otra publicación sobre *El euskera de Ermua-Eitzaga*.

Desde la formación del Ayuntamiento democrático en 1979, la recuperación de los nombres históricos de los lugares de nuestra villa, ha sido una preocupación constante de las sucesivas corporaciones, reflejándose principalmente en la recuperación de nombres de calles o barrios y la aparición de topónimos en entidades y centros públicos.

Ahora presentamos un trabajo ambicioso, que profundiza en el conocimiento de nuestra toponimia y nos ayuda a recuperar nuestra humilde pero entrañable memoria histórica.

Estoy convencida de que el libro que hoy presentamos se va a convertir en un instrumento útil para eruditos, así como provechoso y ameno para los ciudadanos en general que estén interesados en este fenómeno socio cultural que llamamos Ermua.

No quiero acabar, sin expresar un reconocimiento personal muy especial a José Luis Lizundia, con quien siempre da gusto hablar, que ha estado pendiente en todo momento de la marcha de los trabajos.

Seguidamente cedo gustosamente la palabra a Andrés Iñigo, Presidente de la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la lengua Vasca / Euskaltzaindia.

ERMUA-EITZAGA: LEKU-IZENAK

Ermua, 2002-V-23

*M^a Asun Ardantza,
Euskera eta Kultura zinegotzia*

Arratsalde on guztioi:

Udaletxe honetako euskera alorreko zinegotzi eta arduradun bezala, *Ermua-Eitzaga: leku-izenak* liburua aurkezten den ekitaldi honetan zuen agerpena eskertu nahi dut. Lana, Ermua Hiriko Udalaren, Euskaltzaindiaren, Bizkaiako Foru Aldundiaren eta Euskal Birusaren laguntzarekin sortzen da. Autorea, Fernando Aranberri filologoa, *Ermua-Eitzagako euskarari buruzko* beste argitalpen baten sortzailea izan da.

1979.urtean Udal demokratikoa osatu zenetik, udalbatzen ardura berezia izan da gure hiribilduko izenen berreskurapena, hau da, kale eta auzo izenen berreskurapena, izan dela azpimarratu beharrekoa dugu.

Orain, gure toponimoen ezagutzan sakotzen duen lan erakargarri bat aurkezten dugu. Gurea geurea den memoria historiko apal baina kutuna berreskuratzen lagunduko diguna.

Ziur naiz gaur aurkezten dugun liburua, materian jakintsuak direnentzat instrumentu oso erabilgarri bat izango dela eta Ermua deitzen dugun gizartekultura fenomeno honetan interesa duten herritarrentzat ere probetxugarria eta atsegina izango dela.

Ez dut bukatu nahi José Luis Lizundiari eskerrak eman gabe, lanak nola zihoa zen ikuskatzen izan delako momentu oro eta berarekin hitz egitea beti ere atseginingarria delako.

Jarraian Andrés Iñigok, Euskaltzaindiko Onomastika batzordeburuak hitz egingo du.

ERMUA - EITZAGA: LEKU IZENAK

(Onomasticon Vasconiae, 22. liburukiaren aurkezpena)

Ermuko Udaletxea, 2002-05-23

*A. Iñigo,
Onomastika batzordeburua*

- Carlos Totorika, Ermuko alkate jauna,
- Maria Asun Ardanza Telleria alkateorde andrea,
- Femando Aranberri liburuaren egilea,
- Jose Luis Lizundia, liburuaren sarrera egilea,
- Euskaltzaindiaren Onomastika batzordekideak.
- Jaun-andreak.

Arratsaldeon guztioi:

Dakizuen bezala, Euskaltzaindiaren eginbeharretako bat euskara lantza, ikertza eta arautza da. Hori dela eta, Euskaltzaindiak baditu batzorde edo lantalde batzuk lanean gogor ari direnak esku artean dituzten zenbait proiektutan: Hiztegigintzan, Euskararen Herri Hizkeren Atlasean, Gramatikan, Literaturan eta abarretan. Horiekin batera, gure Akademiak badu beste batzorde bat, Onomastika batzordea, hizkuntzaren normalizazioaren bidean hain garrantzi handia duten izenak bildu, ikertu eta arautzeko.

Onomastikak bi atal ukitzen ditu bereziki: antroponomia (ponte izenak eta deiturak) eta toponomia (leku izenak). Batzorde hau aspaldiko urteotan eten-gabe ari da lanean. Lan horren lekuko ditugu, besteak beste, antroponiarien alorrean orain dela hilabete batzuk argitara eman zuen *Euskal Izendegia / Ponte Izendegia* eta duela hiruzpalau urte kaleratutako *Euskal Deituren Izendegia*.

Toponimiari dagokionez, lantzen ari den gai garrantzitsuenetakoak honako hiru hauek dira:

- Toponimo nagusiak: herri eta auzo izenak. 1979an argitaratu zuen *Euskal Herriko Udalen Izendegia* eta, orduz geroztik, lurraldez lurralde berriro aztertzen ari da: Nafarroa, Euskal Autonomia Erkidegoa, Zuberoa eta Lapurdi eginak ditu eta orain Nafarroa Beherea eta Trebiñukoarekin ari da. Euskal Herri osoko izendegi gaurkotua laster prest izatea espero du.

- Kale izendegiak: gero eta gehiago dira hiri eta herrietatik iristen ari zaizkion eskariak.
- Toponimia txikia: herri bakoitzeko leku, etxe, baserri, kale,... izenak. Altxor izugarria dago onomastikan nahiz hiztegian.

Gaur aurkezten dugun liburua toponimia txikiaren lanen adibidea dugu. Alor honi dagokionez, Onomastika batzordeak lan prozedura eta izertak arautzeko irizpideak ezarri ditu eta Euskal Herriko erakundeetatik (udaletatik gehienbat) hartzen dituen lan proposamenen koordinazio akademikoa egiten du. Gisa honetako lanak argitara eman ahal izateko bilduma bat sortu zuen, *Onomasticon Vasconiae*. Ermua-Eitzagakoa da bildumaren 22. alea.

Toponimia ikertzea eta arautzea ez da gauza erraza, Fernando Aranberrik bere lana egiterakoan egiaztu izanen duen bezala:

- Alde batetik, euskara oraintsu arte hizkuntza ofiziala izan ez denez gero, artxibo guztietan izenak erdal grafian idatziak aurkitzen dira eta askotan nolanahi idatziak.
- Bestetik, ahozko transmisioan izen franko nahiko desitxuratuak aurkitzen dira. Dendarik ez dago Fernandoek elkarritzetatu dituen 75 informaziole horiek izen bera modu batera eta bestera eman izanen diotela.
- Agirietan aurkitutakoak eta ahoz bildutakoak lotzeko orduan eta, bereziki, identifikatu ondoren forma arautua erabakitzerakoan, zalantza eta arazo franko sortu izanen zaizkio egileari.

Zailtasun horiek gainditu ondoren, ermuaren pozerako lana burutua dago. Zorionak Fernando Aranberri egileari eta beronen bultzatziale izan den Euskal Birusa Euskara elkarteari. Eskerrik asko Bizkaiko Diputazioari eta, bereziki, Ermuko Udalari, lan hau egin eta argitara emateko jarri dituzten baliabideengatik.

Ermuarren pozerako esan dugu, baina Euskaltzaindiaren pozerako ere bada, liburu hau gure bildumaren 22. alea izateaz gain, bilduma honetan Bizkaiko toponimiaz argitaratu den lehenengoa baita. Zorionak, bada, lehenbizikoak izan zaretenei. Bizkaiko beste herri askok zuek hasitako bide hau segituko dutela espero dugu.

ERMUA-EITZAGA: LEKU-IZENAK LIBURUAREN AURKEZPENA

Ermuko Udaletxea, 2002-V-23

*Jose Luis Lizundia Askondo,
Euskaltzaindiko idazkariorde-kudeatzaile
eta Onomastika batzordekidea*

Karlos Totorika, Ermua uriko alkate jauna; Mari Asun Ardantza, zinegotzi andre adiskidea; Andres Iñigo, Onomastika batzordeburu euskaltzaina; Fernando Aranberri, egilea; Onomastika batzordekideok; Ermuko Udal talde desberdinak zinegotziok; jaun-andreok. Arratsaldeon.

Hunkigarria da niretzat, gaur egun, hemen, Ermuko Udaletxean, Fernando Aranberriren, *Ermua-Eitzaga: leku-izenak* aurkeztea. Erakunde honen Onomasticon Vasconiaaren 22. azken liburukia, hain zuzen.

Debarroko ibarrean geografikoki kokaturik badago ere, Ermua Durango-ko merindadean barruko lau urietariko bat da Tabira, Otxandio eta Elorriorekin batera. Gipuzkoako probintziatik Ekieldetik sartukeran duzu uri hau. Ermuak ez du galdu bere euskaltasuna, besterik badirudi ere. Etorkinak ez dira izan galiziarrak edo beste Estatuko herrialde askotakoak bakarrik, baita ere euskal herrialdeetakoek ere, baina bere-berea duen Ermuko uriko euskara beretza gorde du, Durangoko tabirarrek eta Elorriok bezalaxe, alboko nekazal elizateetatik berezia eta oso aberatsa.

Ermurekin duela 40 urte baino gehiagotik ditut harremanak, ermuar euskaltzale askorekin, hain zuzen. Era askotakoak, iritzi desberdinak, baina euskaldunak erabat. Ia lehen uneko Gerediaga elkarteko Agustin Aranberriarekin hasi eta Lorentzo Iturriagagoitia ordezkarirekin (hemen dugu aldamean, orain EAJko taldeburu bezala), baita ere Mallabiko ordezkarri zen Justo Arriaga, orain Ermuan bizi denarekin, Olaizotarrekin, Guriditarrekin, Ardantzatarrekin (Mari Asun hemen dugu zinegotzi legez), Arindarrekin, Atxatarrekin, Berrizbeitiarrekin, Amillategitarrekin eta beste askorekin. Ermuko Santiago-Santa Ana jaiak ere ez dira niretzat arrotzak, alderantziz bai-zik. Oroipen onak ditut. Bidenabar, zer portaera ona izan zuen nirekin Saez de Cabezon bertako farmazilarri izan zenak. Urte askotan bertoko parroko izan

zen D. Teodoro Zuazua ere adiskide nuen (G. B.), auzokide gainera, ni Trañaaetxenagusikoa, bera Trañabarren baserrikoak, oso hurbilekoak gara eta etxearteko harreman ugarirekin, senitarteko ez bagara ere. Norbaitek, noizbaiten besterik idatzi badu ere, zin dagit nik behin behin ermuarekin, gehienetan, euskaraz hitz egin dudala, beraiek ermuarez eta nik abadiñarrez.

Ermuak badu euskararen batasunarekin ere zerikusi oso garrantzitsua eta ez nuke aipatu gabe utzi nahi, 1968ko ekainaren 28, 29 eta 30ean Gerediaga elkartea antolaturiko «Euskal Idazleen Biltzarra». Garai hartan, elkarteho-ren idazkari nintzen, baina bereziki, Agustin Aranberria Gerediagaren Ermuko ordezkari zenaren laguntza oparoa izan genuen. Gerra osteko lehendabiziko euskal idazleen biltzar agerikoa Hego Euskal Herrian, hemen, uri honetan egin zen. Ideia Juan San Martin eibartar eta elkarteko baziodearena izan zen, uste baitzuen, Arantzazuko Biltzarra baino lehenago, komenigarria zela idazleei, bilera batera deituaz, entzutea. Urte haietan ez zen erraza elkartze legeztatu bat izatea eta Gerediagak, bestalde, ospea hartu berria zen bere ekintze-kin, bereziki, Euskal Liburu eta Disko Azokarekin. Elkarte horrek ezin zuen edonon biltzarrik antolatu, ez baten Durangoko Merindade zaharraren 12 udalen eremu barnean, Ermua hautatu zuelarik.

Ermuak eta Durangaldeak, ez bakarrik, Gipuzkoa eta Bizkaiaaren arteko euskaltzaleen artean zubi egin zuen, baita Ipar eta Ekialdearena ere, hasi Gabriel Aresti idazle bilbotarra, biltzar haren «izarra» esango nuke, eta amaiera hitzaldia egin zueneraino. Tartean, Imanol biak, Berriatua eta Laspur, Aingeru Irigarai euskaltzain nafarra, Salvador Garmendia, Juan Antonio Letamendia hizlariak, ahantzi gabe exiliotik txostena igorri zuen Txillardegi. Lagun asko bildu ginen Ermuko Eskola Profesionalean.

Toponimiaren garrantzia aipatzearen Paco Llera Ramo Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle asturiarraren pasarte zenbait dakartzat hona, hain zuzen berak Academia de la Llingua Asturianaren *Lletres Asturianes*, 19, 1986an argitaratutako aldizkarian agertutako artikulu interesgarria baietaritzat. Pasarte labur hauek esango dizkizuet, liburutik irakurtzeko gomendatuz: «Identidad colectiva y territorialidad» da haren titulua: «Me voy a mover, por tanto, en el terreno de la valoración social que la colectividad da a la denominación del espacio físico sobre el que se asienta desde no sabe cuándo. Estamos ante un problema sociocultural, en el que cotidiana e inconscientemente se simbolizan y se reproducen la identidad colectiva de un pueblo y su territorialidad... Si hay algo que condensa tras de si la toponimia tradicional, es un proceso sociocultural por el que cada grupo humano denomina y domina su espacio natural, en el marco del universo simbólico de sus representaciones colectivas... Con las aportaciones de la Ecología Humana en la mano, quiere esto decir que no podamos perder de vista la ubicación ecológica de cualquier componente cultural al que nos hayamos de referir».

Fernando Aranberriren liburuki honek badu, ene ustez, aberasgarri den beste zerbait. Askotan uste izan da euskara baserritarren hizkuntza dela eta

orobat, toponimia, baserrietxe, soro, landa, baso eta abarrena. Baino, ez hornenbeste hiri hizkuntza. Oraindik, Euskal Herriko hiri ertain eta txikien hizkeren arteko azterketa konparatu bat egiteke dagoen bezalaxe, hiri toponimien kidekatasuna ere sistematizatu gabe dago. Nire aldetik nahiko nuke, Ermuko toponimiaren ondoren, Elorrio, Durangoko Tabira eta Otxandioren hiri toponimiaren ikerketak jarraitzea. Baita 12 elizateena ere, baina orain 4 hirien interesatzen zait. Hor agertzen da *Pasealeku* hitza. Askotan, asmatu behar ez zen «ibiltokia» eta holako neologismoen bila joan beharrean, *pasealekua* egonda Gernikan, Bergaran, Otxandion; Barrenkaleak, Artekaleak, Goienkaleak eta Zeharkaleak dauden bezalaxe hasi Bilbo bertatik eta Gipuzkoaraino. Izen berriak asmatu dira, askotan beharrizanik gabe, gure hiri berrietan, kasurik egiteke, aspaldiko hiri euskaldunetako hiri toponimiarako izen egokiak.

Oroitzen naiz nola Xabier Zubizarreta Arrasateko alkateak, hango toponimia ikerketaren XV. Onomasticon Vasconiae aurkeztu zenean, bertako Udal-letxeen eta, liburuau *Artekale* izena aurkitu «calle del Medio»rako, aitak esan omen zion: «hori lehen Artekale zuan, orain hasi zarie Erdiko Kalea esaten». Interesgarria da Artekaleri buruzko zein aipamen egin duen Fernando Aranberrik. Ofizio kaleak ere hor ditugu hirietan aspalditik Errementari kalea, Tolosan; Dendari kalea, Bilbon eta abar. Noizbait egin beharko genuke hartu zenbait hiri eta azterketa konparatibo bat, adibidez, Arrasate, Bergara, Eibar, Debarroan; Durango, Markina, Gernika, Bizkaian, eskualde buru direnak bestalde; Bilbo bera ere, ahantzi gabe; Legutiano den txikiarekin, Billerleko euskara interesgarria baita; Azpeitian eta Tolosan, agian, Ordizian, beraz, merkatu hiriak, gipuzkerazko eremuan.

Amaitzeko, eskerrak, Ermuko Udalari eta baita ere Bizkaiko Kultura Foru Sailari, Euskaltzaindiari eman dioten babesagatik. Eskerrak eta zorionak, Fernando Aranberri Odriozola, liburuaren egileari.

ERMUA-EITZAGA: LEKU-IZENAK

Ermua, 2002-V-23

Bilbao, 2002-V-24

Fernando Aranberri Odriozola

Ongi etorri danoi:

Hamen dakagun azterketa honek, *Ermua-Eitzaga: leku-izenak* daka izenburua. Urte askotako biharra izan da eta poz handixa hartzen dot zeuon aurrian, batez be ermuarron aurrian, aurkeztiaz.

Betidanik, toponimiazalia izan naz. Mendira fan nazenetan, mapa eskuan, nundik nora faten naizen ezagutzia gustatzen jata. Toponimiak, edo euskaraz esaten jakon leez *leku-izenak* zientzia-arlo askorekin daka hartu-emona: geografia, kartografia, hizkuntza, historia, artea eta, jakina, gure herriko izanakin, hau da, izan garenakin eta garenakin. Leku-izen guztiexek badake historixia bat. Esaterako, *Betiondo, Santuko, Infreñu, Purgatorio, Zerukua, Torrekua, Lapurriturri...* Honek izenok eta euren historia txikiak hamen topauko dozue.

Azterketa hau egiteko, erabili izan ditxuten iturrixak bi izan dira nagusiak:


Bata idatzizkua, hau da artxibuetan begiratxu, dokumentu zaharrak arakatu, eta *liburutegietako sagutxoen* moruan astiro-astiro, lokarturik eta hautsak hartuta euazen izenok barriro esnarazi ditut. Artxiborik osatuenak begiratu ditxut: Bizkaiko Diputaziokoa, Durangoko Jabego Erregistrua, Gernika, Derio, Ermua, Markina, Bergara,... eta beste hainbat lekutan ibilita nago. Ataratako informazioak oso garrantzi handixa izan dau, gaur egun erabiltzen ez diran izen ugari, edo soilik herriko nagusienek edo baserritxarrek erabiltzen dabezenak agertu diralako eta sarritan datu argixak urten dabelako izen bat edo beste proposatzeko. Adibide bat jartziarren *Baldespina kalia*, Baldespina markesa bizi zanian *Barrenkale* zan eta gerra ostian *Barrenkale* izena galdu eta izen barrixa jarri jakon. Honek azterketa honek dokumentatutako argumentuak biltzen ditxu jatorrizko izenok berreskuratzeko.

Artxibuak arakatzen pasatu ditxuten horrek orduok, bestalde, beste zenbait ikerketa berrixdako atiak zabaldu leikez, liburuak toponimiaz gain bestelako informazio ugari ekarten dau eta.

Bigarren iturburua, bizixena eta adierazkorrena, zalantza barik, herriko jentia izan da. 70 berriemaile baino gehixago elkarrizketatu ditxut eta eurei egindako grabaziñuen bidez, liburu honetan jasota daozen izen asko eta asko topatuko dozuez. Honek izenok bizirik diraute eta ez dira galdu bihar. Orain, herritxik jasotako fruitua barriro be herrixari bueltatu bihar jako.

Baserririk baserri, etxerik etxe eta mendirik mendi... berriemaileekin datuak fintzen eta kontrastatzen, ondorixuak ataratzen eta egindakua baiezatzen jardun dot. Tartian jente ugarik, zeharka eta batzuetan ohartu barik, beste batzuetan gogoz eta ilusioz beterik, parte hartu izan dau eta ahalegintxo guzti horiek elkartuz, ikerketa hau burutu dot.

Enbor beretik bi kume sortu dirala: anaia nagusixa dan liburua eta txiki-xa mapia.



Liburua daturik garrantzitsuenak ekarri ditxut. Idatzizkua bada urtia, artxibua eta dokumentua nun topa leiken azaltzen dot (beti jatorrizko ortografia errespetatzen); ahozku, oster, esaten dan modu berian jasotzen dot, azen-tua eta transkripzio fonetikorekin (esaterako ez da gauza bera *Érmua* esatia edo *Ermúa* esatia, bata euskarazko ahoskera da eta bestia erdarazkua. Beste adibide bat ipintziarren ez da gauza bera *Santuko* esatia (baserri izena) edota *Sántuko* (pertsona izena). Berezitasun guztiak jasotzen saiatu naiz: Hiztegixa, arau ortografiko normalizatuak... eta abar.

Hala be, eta ikerketa lan hau soilik adituenzako nahi ez nebanez, eta zuetariko asko partaide eta egile izan zarienez, hasiera-hasieratik hamen jasotakua, modu errazian eta edonork aitzeko moruan egin dot. Horregaitik, *oharrak* izeneko atala sartu dot, izenan bilakaera eta interesgarri ikusi ditxuten zertzelada guztiak biltzen ditxuena: ohar linguistikuak (zergaitik proposatzen doten *Kareobiaga* eta ez *Karabixa*), historikuak (zer da *Sallabente* eta zer ez, nun hasten da eta nun bukatzen da), bibliografikuak (zein zan *Droget*, eta *Felix Izagirre* edo *Kantabria*, edota *Txindurri* eta *Etxegiña*), arkitektonikuak (*Lomiño*, *Baldespina* jauregixa edo *Santiago* elizan inguruoko aipamenak)...

Batzuetan beste idazle edo ikertzailen aipamenak pe ekarri ditxut gogora; eta beste batzuetan, barriz, herriko euskararen jario zoragarri xen, orain arte ahoz besterik transmititu ez diran izenen historia txikixak. Hau dana borobiltseko Ermuan dogun argazki bildumakin eta berriemaileek lagatako argazkienekin, leku-izenak argazkiz jantzi ditxut. 500 orrialde hauetan argazki zahar ugari topatuko dozue. Ermua zelakua zan ulertzen lagundoko doskuenak.

Bigarren kumia mapia izan da. Bertan *Ermua eta Zaldibarko auzua dan Eitzagako leku-izenak* (*Sallabente* eta *Olaerreaga* barne) jaso ditxut. Ez jata egokia iruditxu, *Espilla* baserrixa (Ermuko zaharrenetarikua) jaso eta *Espilla-azpi*, esaterako Zaldibarren dagoelako, aipatu barik lagatzia; edota *Patrineko* baserrixa, hau da *Sallabente-aurre* baserrixaren aipamena egin eta *Sallabente-ko ermitxarena* ez. Hori muga hori kuadrilan eta elizaz be alde biak bat dira. Baserrixak, mendixak, errekok, soluak, etxiak, kaliak... eta abar ikusiko dozue mapan, argazkixak, aurkibidia.... be hor dozue.

Lana inprintan sartu eta irten orduko, leku batzuk desagertu dira, herri-xa ikaragarri aldatzen ari da ta. Esaterako *Sakonako* etxiak edota azken-azken obra berrixak hemen mapan ez dira agertzen. Baino, tira, beti egongo da al-daketia.

Neuk, honekin aurkezpenonekin, lana amaitutzat emoten dot. Orain, le-kukua zuek hartu biozue. Oparirik onena, niretako eta Ermuandako, honek ize-nok erabiltzia litzake. Hori zeuon, ermuarron eskutan dago.

Eskerrik asko danoi

ERMUA-EITZAGA: LEKU-IZENAK LIBURUAREN AURKEZPENA

Bilbon, egoitzan,
2002ko maiatzaren 24an

Henrike Knörr

Euskaltzaindia sortu zen unetik beretik aurki ditzakegu Onomastika aloreko lanak gure erakundean. Aski da, horretaz konturatzeko, orduko arautegiak irakurtzea, eta *Euskera* aldizkarian ageri diren gomendioak eta erabakiak ikustea. Zin-zinez esan daiteke pertsona- eta leku-izenei garrantzi handia ematen zitzaiela urte haietatik, euskara zaharraren bila ez ezik, euskara eraberrietzeko ahaleginetan ere bai, dena esateko; askoren ustez, euskararen zoritxarreko gainbeheran galdu hitzak leku-izenetan aurki zitezkeen, eta berriro hitz bizien esparrura ekar. Desadan, bidenabar, ez deritzodala uste hari guztiz desegoki, arriskuak arrisku; jokabide hori, jakina denez, munduko hainbat hizkuntzatan gertatu da, eta hiztegia arrunt aberastu eta joritu.

Baina Onomastika batzordea ez da hain zaharra: 1984an sortu zen. Eta laster, 1986an, ekin genion *Onomasticon Vasconiae* bilduma honi. Bi motatako materialak nahi genituen argitaratu: bilketaren fruituak, alde batetik, eta ikerlanak, bestetik, nahiz bi motak maiz aski loturik eterri.

Hemen dugu azken emaitza, bada, Asranberri jaunaren liburu gotorra, Eta esan behar dut mamia bakarrik ez, titulua ere laketu zaidala: *Ermua-Eitzaga: leku-izenak, geure izanaren barrena*. Zeren liburuan ez dira soilik biltzen ize-nak, baita herri baten historiaren zati handi bat ere, beste anitzenan gisa, baina hemen, zalantzarik gabe, areago

Zer esanik ez, oraingo Ermuak zer ikusi gutxi du izenarekin, aspaldiz gero. Mundu guztiak dakienez, izan ere, *ermu*, *erenu*, besterik zen. Hona zer dioen Coromines maisuak *yermo* hitzaz (1): «Es corriente en el *Cid*, Berceo, *Apol.* [hots, *Libro de Apolonio*, 12. mendekoa], J. Ruiz la ac[epción] «desierto, deshabitado» (opuesto a *poblado*); la moderna de «inculto» (*montañas yermas*) está también en Berceo (*S. Millán*, 54). La etimológica se mantenía to-

¹ *Diccionario crítico etimológico castellano e hispánico*. Madril, Gredos, 1991, s.u. *yermo*.

davía h[acia] 1460, cuando se escribió la *Cuarta Crón. Gral.*: «*¿veis quanto de la villa está yerma? ... Pues ahora que está aquí Castilla e León, e non es poblada Sevilla, ¿cómo, señor, dizes tú que te quieres ir para Castilla?*» (*R[evista de] F[ilología] E[spañola]* X, 365). Nebr[ija]: «*iermo o desierto: desertum: ierma cosa, desertus.....*».

Beraz, gauzak biziki aldatu dira, baina hori ez da bakar-bakarrik gertatzen gure artean. Düsseldorf aipa genezake: hiri guztiz jendetsu hori ez da, ez, eremua, bigarren zatia *Dorf* bada ere, hots, «herrixka».

Niri gauza bakarra dagokit une honetan: Euskaltzaindiaren esker ona agertzea. Udalari, lehenik, eta ongi dakizu, Carlos Totorika alkate jauna, zein pozik gauden. Eskerrak orobat Bizkaiko Foru Aldundiari, eta hemen dago (nahiz eta ezingo duen hitz egin, eztarri minez) Gotzon Lobera jauna.

Bitartean, Euskaltzaindiak lanean jarraitzen du, gogo onez, eta ahal dela, lankidetzan. Oraintxe bertan izan dugu, estate baterako, bilera bat, Elhuyarreko bi kiderekin, exonomastika mintzagai genuelarik. Beraz, guk ez dugu monopoliorik nahi, guk nahi dugu herriaren zerbitzutan jarraitu, jende guztiari entzun, Unibertsitate eta bestelako elkargoen ahotsa kontuan hartu, gure Onomastika zaharra eta ez hain zaharra bildu eta arakatu, eta izenen esparrua arautu. Hau bai, arautzea du Euskaltzaindiak zeregin berezia eta bere-berea.

ERMUA-EITZAGA: LEKU-IZENAK

Onomastican Vasconiae, 22

Bilbo, 2002-V-24

*Gotzon Lobera,
Bizkaiko Foru Aldundiko
Euskara Sustapenerako Zuzendaria*

Agur t'erdi:

Jaun-andreok, pozgarri dut oso gaur eta hemen Ermua eta Eitzagako toponimiari buruzko lan bikain hau aurkeztea.

Toponimian aritzen diren adituak beti erkatu nahi izan ditut meatzariekin, alegia, hizkuntza meatzariak ditugu, herri baten arimaren bankua aurkitu eta azaleratzen duten heinean.

Ziur naiz zuetarik bat baino gehiago bere buruari itaun bera egiten ari zaiola une honetan: zertarako balio du toponimiak? Ze alde dago auzo baten izenean letra bat aldatuagatik? Eta abar.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskara Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia 1999. urtean sortu zuenetik hona, lehentasunen aurrenreko tokietan izan du toponimiaren inguruko ataza, alde batetik, jakin danielako iraganaren berri iza-teak dakarrela oraina eta etorkizuna finkatzea, eta, bestetik, azalera berriz ate-ratako izen horiek herri baten benetako nortasunari eusten diotelako.

Gaur egun, mundu guztia globalizazioaren eraginaren menpean dagoela, zertarako zaindu horiek guztiak? Euskadi herri txikia da, eta, txikia den neurriean, inork baino ahalegin handiagoa egin behar du, bere buruari eusteko, bes-tela laster baten galduko delako. Eta guk, euskaldunok, eskubidea ez ezik, be-tebeharra ere badugu geure altxorra gizadi osoarentzat zaintzeko. Egunean-egunean galtzen dira hizkuntzak mundu zabalean zehar, egunean-egunean lurbiria honetako herriek geroago eta ezberdintasun gutxiago dute el-karregandik, eta hori, demokraziaren ikuspegitik, ez da hona, demokraziak, berez, aniztasuna dakarrelako, eta elkarrekin edo elkarren ondoan bizi izateak ez du zertan ekarri guztiok era berekoak izatea.

Horregatik guztiarengatik, Bizkaiko Foru Aldundiaren nahi eta asmoak argi eta garbi utzi nahi ditugu, ikuspegi honetatik, Euskal Herriaren kultur eta hizkuntz ondarea zaintzeko. Horregatik eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiot, gure Foru Erakundearren izenean, Ermuko Udalari, bere historiaren gomuta berpiztu duen lan hau bultzatzeagatik. Eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiot Euskal Birusa Euskara Elkarteari, argi ikusi duelako herriaren ezaudidea errazten duten tresnak sortu behar direla nahitaez. Eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiot Fernando Aranberri Odriozolari, egin duen lan eskerga eta bikainarengatik. Eta, geroenean, eskerrak eta zorionak eman nahi dizkiot Euskaltzaindiari, bere Araudian eta Gernikako Autonomia Estatutuan ezarrita duen eginkizuna ederto betetzeagatik.

Lan hau beste askoren aurrendaria baino ez al da izango!

Eskerrik asko guztioi.

ERMUA-EITZAGA: LEKU-IZENAK LIBURUAREN AURKEZPENA

Bilbon, egoitzan, 2002-V-24

Mikel Gorrotxategi

Egun on jaun-andreok.
Saiatuko naiz laburra izaten.

Ermuko Udalak erabaki zuenean Fernando Aranberri lana hau ikertzeko izendatzea, Euskaltzaindiak erabaki zuen ni izendatzea araugintzaz ohar batzuk egiteko eta Fernando pixka bat lagun lan hau normalizatzen, eta uste dut lan bikaina egin duela berak, berak egin baitu lana. Lana niretzat oso asegarria izan da, zeren 388. orrialdean nire birraitite jaio zen etxea agertzen baita. Beraz, esan dezakegu, bira asko eman ondoren, Eitzagara bueltatu garela gorroxategitarrok. Fernandok egin duen lana, ikaragarria ez ezik, nik uste, Onomastika arloan egin den libururik onenetakoia ere badela, beste pare bat ere aipa genezake, baina ez dago askorik, hau baino hobeak direnik. Zergatia oso begi bistakoa da, askotan Onomastika alorreko lanak izan dira zerrendak, oso ondo hornituta, datu askorekin, baina askotan jende arrunterako liburu irakurtezinak, mardulegiak izan edo datu gehiegi zituztelako. Fernandok bete-betean asmatu du konturatzean zein den Onomastikaren balioa, zertarako balio duen edo zer den Onomastika eta orduan sariatu da liburu atsegin bat ematen, jendeak irakurriko duena eta jendeak gozatzeko liburua, ez soilik adituon gozamen edo ikerketarako. Horrela lortuko du holako lanen helburu nagusietako bat, normalizatzea.

Hemen, Onomastika ikerketetan, hiru atal daude, ikerketa bera, arautzea eta azkenik normalizazioa. Arautzea, Akademiaren lana, kasu honetan neurri gain utzita, bizirik dauden toponimoak lotzea da. Leku-izen bizi horiei mugak jartzea, eta nolabait urari presa egin berezko eboluzioa mugatuz. Hori da arautzea, nola idatzi behar diren finkatzea, *Eixola* esan arren, *Arriola* jarri behar dela. Azkeneko puntu normalizatzea da, eta zer da normalizatza, jendeak izen horiek era arautuan erabiltzea. Alferrik da ikertzaile on batek lan ikaragarri egitea, Valladolidera joatea edo Simancasera joatea eta izen bat nolakoa zen edo nolakoa izan behar den aurkitzea, gero hiritarrek horren berri eta arautzearen zergatia ez badu. Ezin bestekoa da horren berri izan eta herritarrek beñetan izen hori erabiltzea. Eta nik uste dut liburu honetan, Fernandok, bete-betean asmatu duela normalizatzeko jendeak izenak bereganatzeko bidea

finkatzea. Eta horregatik nik uste dut aipagarria dela liburu hau, ez Bizkaiko lehenengoa izateagatik, hori aipagarria da, bereziki, Bizkaiko agintarientzako, baina nolabait esparru berriak ireki dituelako gure liburu honek. Esan behar da baita ere liburu honetan uztartu direla euskaldunen mundu biak, askotan esan izan da euskara dela baserri munduko gauza bat eta hemen biltzen dira *Ermua* hiria eta *Eitzaga* baserri mundua nolabait, horiek baitira euskararen berezko esparruak, hiria eta herria eta hemen liburu batean dauzkagu bilduta.

Amaitu aurretik, eskerrak eman erakunde publikoei, bereziki Ermuko Udal eta Bizkaiko Foru Aldundiari horrelako liburuak egiteko bidea eman dutelako eta egilea berari egin duen lan bikainagatik.

ERRATAK / FE DE ERRATAS

Euskera 1999, 2

En el artículo de Jesús M^a Sasía, «Más sobre toponomía euskérica en las Encartaciones de Bizkaia» aparecido en esta revista EUSKERA - XLIV, 1999, 2:

Página 1185, línea 7:

donde dice «encargado...» debe decir *encartado*.

Página 1186, nota 7:

donde dice «Ortextxo...» debe decir *Ortetxo*.

Página 1193, línea 8:


donde dice «PIKAROIA...» debe decir *PIKAROLA*.

Euskera 2001, 1

Dio:

253.orr. 2. irudia eta 1.
berdin-berdina da, eta 2.a
jarraian dagoena izan be-
har izan zuen.

Esan behar luke:



2. irudia: *lagunenári (emon dotsat)*

